

Año LVIII. urtea

141 - 2026

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES

LINGVÆ

VASCONVM

STVDIA ET DOCUMENTA

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVIII. urtea - N.º 141. zk. - 2026

Urtarrila-ekaina / Enero-junio



FONTES LINGUAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Euskal hizkuntzalaritzako aldizkaria, 1969. urteaz geroztik argitaratua.

Seihilabetekaria.

<https://revistas.navarra.es/index.php/FLV/>

ARGITALPEN BATZORDEA:

ZUZENDARIA: Ekaitz Santazilia Salvador (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Espainia).

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Dorota Krajewska (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia)
Eneko Zuloaga San Román (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia)
BATZORDE ZIENTIFIKOA: Carolyn J. Benson (Columbia University, AEB) • Iñaki Camino Lertxundi
(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia) • Lyle R. Campbell
(University of Hawai'i at Mānoa, AEB) • Lisa L. Cheng (Leiden University, Herbehereak)
Greville G. Corbett (University of Surrey, Erresuma Batua) • Jeroen Darquennes (Université de Namur, Belgika)
Joaquín Gorrochategui Churrua (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia)
Juan Manuel Hernández-Campoy (Universidad de Murcia, Espainia) • José Ignacio Hualde
(University of Illinois at Urbana-Champaign, AEB) • Iraide Ibarretxe-Antuñano (Universidad de Zaragoza, Espainia)
Georg A. Kaiser (Universität Konstanz, Alemania) • Joseba Andoni Lakarra Andrinua
(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia) • Danilo Manera
(Università degli Studi di Milano, Italia) • Céline Mounole Hiriart-Urruty
(Université de Pau et des Pays de l'Adour, IKER UMR5478, Frantzia) • Maria Polinsky (University of Maryland, AEB)
Liina Pylkkanen (New York University, AEB) • Gijsbert Rutten (Leiden University, Herbehereak)
Mario Santana (University of Chicago, AEB) • Blanca Urgell Lázaro
(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia).
IDAZKARIA: Jesús Arana Palacios (Nafarroako Gobernua, Espainia).

ERREDAKZIOA ETA ADMINISTRAZIOA:

Nafarroako Gobernua. Argitalpen Bulegoa
Navarrería kalea, 39. 31001 Iruña
TEL: 848 424 732 • fontes@navarra.es

HARPIDETZAK:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa
Navas de Tolosa kalea, 21. 31002 Iruña
TEL: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es
<https://publicaciones.navarra.es>

Artikuluak ataleko testuendako, sistema anonimo bat erabiliko da (itsu bikoitza),
kanpoko gutxienez ere bi aditu izanen direlarik aztertzaile.

Testuen gaineko erantzukizun osoa egileena da.

Attribution-NonCommercial 4.0 International (CC BY-NC 4.0) lizentzia baten azpian.

Aldizkari hau ondoko hauetan dago sartuta:

Capes; Centro de Documentación César Borgia; COPAC; Copernicus International (ICI);
Dialnet; DICE; DOAJ; EBSCO Essentials; Emerging Sources Citation Index (ESCI, Web of Science);
ERIH Plus; Generalif; INGUMA; InRech; ISOC; ISSN Register online; Latindex; Linguist List;
MIAR; MLA-Modern Language Association database; NPI-Norwegian
Register for Scientific Journals; Recolecta; REGESTA IMPERII; ResearchBib; RESH; Road;
Scientific Indexing Services; Scopus; SJIF; SUDOC; ULRICH's; ZDB. Scopus (2025): CiteScore 0.6
(551/1137, Percentil 51, Q2); SJR 0,14; SNIP 0,359 • Journal Citation Reports (JCR) 2025:
JIF 0.5 (Linguistics Q3); JCI 0.72 (Language & Linguistics Q2, Linguistics Q2, Literature Q2) •
Dialnet Métricas 2024: 0,03 (C3 Filología Hispanikoa/C4 Filologiak) • CIRC: B maila (Giza
Zientziak); D maila (Gizarte Zientziak) • CARHUS+ (2025): A maila (Filologia, Hizkuntzalaritza eta
Soziolinguistika) • ICDS (MIAR) 2021 = 10 • ICV (ICI) 2020 = 85.10 • SJIF 2024 = 6.024.

© Nafarroako Gobernua. Kultura eta Kirol Departamentua
Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia

© Egileena.

LG NA 184-1969

ISSN: 0046-435X • ISSN-e: 2530-5832 • ISSN-L: 0046-435X

DISEINUA: Giovanni Malucelli
KONPOSIZIOA: NB Servicios Gráficos
INPRIMAKETA: Linegrafic, S. A.



FONTES LINGUAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Revista de lingüística vasca, editada desde 1969.

Publicación semestral.

<https://revistas.navarra.es/index.php/FLV/>

CONSEJO EDITORIAL:

DIRECTOR: Ekaitz Santazilia Salvador (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, España).

CONSEJO DE REDACCIÓN:

Dorota Krajewska (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

Eneko Zuloaga San Román (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

COMITÉ CIENTÍFICO: Carolyn J. Benson (Columbia University, EEUU)

Iñaki Camino Lertxundi (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

Lyle R. Campbell (University of Hawai'i at Mānoa, EEUU). Lisa L. Cheng (Leiden University, Países Bajos)

Greville G. Corbett (University of Surrey, Reino Unido) • Jeroen Darquennes (Université de Nemur, Bélgica)

Joaquín Gorrochategui Churrua (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

Juan Manuel Hernández-Campoy (Universidad de Murcia, España) • José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, EEUU) • Iraide Ibarretxe-Antuñano (Universidad de Zaragoza, España)

Georg A. Kaiser (Universität Konstanz, Alemania) • Joseba Andoni Lakarra Andrinua

(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

Danilo Manera (Università degli Studi di Milano, Italia) • Céline Mounole Hiriart-Urruty

(Université de Pau et des Pays de l'Adour, IKER UMR5478, Francia) • Maria Polinsky (University of Maryland, EEUU)

Liina Pytkkanen (New York University, EEUU) • Gijsbert Rutten (Leiden University, Países Bajos)

Mario Santana (University of Chicago, EEUU)

Blanca Urgell Lázaro (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España).

SECRETARIO: Jesús Arana Palacios (Gobierno de Navarra, España).

REDACCIÓN Y ADMINISTRACIÓN:

Gobierno de Navarra. Negociado de Publicaciones

Navarrería, 39. 31001 Pamplona

TEL: 848 424 732 • fontes@navarra.es

SUSCRIPCIONES:

Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21. 31002 Pamplona

TEL: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Los textos de la sección de Artículos serán sometido a un sistema anónimo (doble ciego) de revisión por pares de al menos dos especialistas externos.

El contenido de los textos es de exclusiva responsabilidad de los autores.

Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial 4.0 Internacional (CC BY-NC 4.0).

Revista incluida en:

Capes; Centro de Documentación César Borgia; COPAC; Copernicus International (ICI); Dialnet; DICE; DOAJ; EBSCO Essentials; Emerging Sources Citation Index (ESCI, Web of Science); ERIH Plus; Generalif; INGUMA; InRech; ISOC; ISSN Register online; Latindex; Linguist List; MIAR; MLA-Modern Language Association database; NPI-Norwegian

Register for Scientific Journals; Recolecta; REGESTA IMPERII; ResearchBib; RESH; Road; Scientific Indexing Services; Scopus; SJIF; SUDOC; ULRICH's; ZDB. Scopus (2025): CiteScore 0.6 (551/1137, Percentil 51, Q2); SJR 0,14; SNIP 0,359 • Journal Citation Reports (JCR) 2025: JIF 0.5 (Linguistics Q3); JCI 0.72 (Language & Linguistics Q2, Literature Q2) • Dialnet Métricas 2024: 0,03 (C3 Filología Hispánica/C4 Filologíak) • CIRC: categoría B (Ciencias Humanas); categoría D (Ciencias Sociales) • CARHUS+ (2025): categoría A (Filología, Lingüística y Sociolingüística) • ICDS (MIAR) 2021 = 10 • ICV (ICI) 2020 = 85.10 • SJIF 2024 = 6.024.

© Gobierno de Navarra. Departamento de Cultura y Deporte
Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

© De los autores

DL NA 184-1969

ISSN: 0046-435X • ISSN-e: 2530-5832 • ISSN-L: 0046-435X

DISEÑO: Giovanni Malucelli

COMPOSICIÓN: NB Servicios Gráficos

IMPRESIÓN: Linegrafic, S. A.



FONTES LINGUAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Journal of Basque Linguistics, aimed at the academic community and published since 1969.

Biannual publication.

<https://revistas.navarra.es/index.php/FLV/>

EDITORIAL BOARD:

CHIEF EDITOR: Ekaitz Santazilia Salvador (Public University of Navarre/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Spain).

EDITORIAL BOARD:

Dorota Krajewska (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain)

Eneko Zuloaga San Román (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain)

SCIENTIFIC COMMITTEE: Carolyn J. Benson (Columbia University, USA) • Iñaki Camino Lertxundi

(University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain) • Lyle R. Campbell

(University of Hawai'i at Mānoa, USA). • Lisa L. Cheng (Leiden University, The Netherlands)

Greville G. Corbett (University of Surrey, UK) • Jeroen Darquennes (Université de Namur, Belgium).

Joaquín Gorrochategui Churrua (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain)

Juan Manuel Hernández-Campoy (Universidad de Murcia, Spain)

José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, USA)

Iraide Ibarretxe-Antuñano (Universidad de Zaragoza, Spain) • Georg A. Kaiser (Universität Konstanz, Germany)

Joseba Andoni Lakarra Andrinua (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain)

Danilo Manera (Università degli Studi di Milano, Italy) • Céline Mounole Hiriart-Urruty

(Université de Pau et des Pays de l'Adour, IKER UMR5478, France) • Maria Polinsky (University of Maryland, USA)

Liina Pylkkanen (New York University, USA) • Gijsbert Rutten (Leiden University, The Netherlands)

Mario Santana (University of Chicago, USA)

Blanca Urgell Lázaro (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain).

SECRETARY: Jesús Arana Palacios (Government of Navarre, Spain).

EDITORIAL OFFICE AND ADMINISTRATION:

Gobierno de Navarra. Negociado de Publicaciones

Navarrería, 39. 31001 Pamplona, Spain

TEL: +34 848 424 732 • fontes@navarra.es

SUBSCRIPTIONS:

Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21. 31002 Pamplona, Spain

TEL: +34 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Texts in the Articles section are subjected to double-blind peer review by at least two external specialists.

The contents of the texts are the sole responsibility of the authors.

Attribution-NonCommercial 4.0 International (CC BY-NC 4.0).

Journal included in:

Capes; Centro de Documentación César Borgia; COPAC; Copernicus International (ICI); Dialnet; DICE; DOAJ; EBSCO Essentials; Emerging Sources Citation Index (ESCI, Web of Science); ERIH Plus; Generalif; INGUMA; InRech; ISOC; ISSN Register online; Latindex; Linguist List; MIAR; MLA-Modern Language Association database; NPI-Norwegian

Register for Scientific Journals; Recolecta; REGESTA IMPERII; ResearchBib; RESH; Road; Scientific Indexing Services; Scopus; SJIF; SUDOC; ULRICH's; ZDB. Scopus (2025): CiteScore 0.6 (551/1137, Percentil 51, Q2); SJR 0.14 (Q3); SNIP 0.359 • Journal Citation Reports (JCR) 2025: JIF 0.5 (Linguistics Q3); JCI 0.72 (Language & Linguistics Q2, Linguistics Q2, Literature Q2) • Dialnet Métricas 2024: 0.03 (C3 Hispanic Philology/C4 Philologies) • CIRC: B category (Human Sciences); D category (Social Sciences) • CARHUS+ (2025): A category (Philology, Linguistics and Sociolinguistics) • ICDS (MIAR) 2021 = 10 • ICV (ICI) 2020 = 85.10 • SJIF 2024 = 6.024.

© Government of Navarre. Department for Culture and Sports
General Directorate of Culture-Príncipe de Viana Institution

© The authors.

LD NA 184-1969

ISSN: 0046-435X • ISSN-e: 2530-5832 • ISSN-L: 0046-435X

DESIGNED BY: Giovanni Malucelli

LAYOUT BY: NB Servicios Gráficos

PRINTED BY: Linegrafic, S. A.

Country of Publisher: Spain

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVIII. urtea - N.º 141. zk. - 2026

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Poetika feministen lehen harria euskal literaturan: Amaia Lasaren hastapeneko olerkigintza Ane Arrastoa Villagran	9
Euskarazko hizkuntza-jolasak Oroitz Jauregi, Irantzu Epelde	41
Erdialdeko euskararen presentzia Irungo gazteen euskaran Alexander Artzelus, Diego de Alba	71
Maskulinitate eta feminitate ereduak Ramon Saizarbitoriaren ipuingintzan Nagore Fernandez-Zabala	121
Egitura arazleak mendebaldeko euskaraz: <i>arazo eta eragin</i> Jon Etxebarria Zarandona	149
Initial peaks and final contours in wh-questions from Irun Nerea Delgado	181
Aditz trinkoen osakeraren gaineko proposamen berri bat Aitor Lizardi Ituarte	211
Gazteen hizkuntza hautuak eta euskararen erabilera ahozko komunikazioan: Durangoko kale-inguruneko azterketa Ane Gabikagogeaskoa Pagonabarraga, Asier Romero Andonegi, Mari Mar Boillos Pereira	247
Los prejuicios del hablante monolingüe de español ante el fenómeno de alternancia de código en el discurso oral de los hablantes bilingües de euskera-español Dara Acosta Vizcaíno, María Nayra Rodríguez Rodríguez	273
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	307

ARTIKULUAK
ARTÍCULOS
ARTICLES

Poetika feministen lehen harria euskal literaturan: Amaia Lasaren hastapeneko olerkigintza

Poéticas feministas en la obra inicial de Amaia Lasa: una voz fundacional

Feminist poetics in Amaia Lasa's early poetry: a milestone in Basque literature

Ane Arrastoa Villagran
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
ane.arrastoa@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0003-1693-0934>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.1>

Artikulu hau EHuko MHLI ikertaldearen IT 1579-22 (Eusko Jaurlaritza) eta PID2021-125952NB-100 (MICIU/AEI /10.13039/501100011033 & FEDER, EB) ikerketa proiektuen testuinguruan idatzi da. Ikerlan honek *Poetika feministak Afektuaren Ikasketen argitan: euskal poesia garaikidearen irakurketa proposamen bat (1971-2020)* doktorego tesia du oinarrian. Nire esker ona ikerketa honetarako elkarrikerketatua izan den Amaia Lasari, haren eskuzabaltasunagatik.

Jasotze data: 2025/08/29. Behin-behineko onartze data: 2025/10/10. Behin betiko onartze data: 2025/12/11.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Amaia Lasaren hastapeneko olerkigintzaren gaineko azterketa da lan hau. Amaia Lasaren hastapeneko olerki bildumen –*Poema bilduma* (1971), *Hitz nahastuak* (1977) eta *Nere paradisuetan* (1979)– analisia egin da, testu horiek poetika feministaren uhinean irakurriz. Helburu hirukoitza izan du analisiak: lehenik, poetika feministak definitu eta ezaugarritzea; bigarrenik, Amaia Lasaren poemategi horietako testu hautatuen irakurketa proposamena egitea; azkenik, olerki horien ezaugarrien eta poetika feministen berezitasunak elkarrizketan jartzea. Finean, lanaren azken xedea, Amaia Lasa euskal literaturan poetika feministak jorratzen aitzindaria izan zela agertzea izan da.

Gako hitzak: Euskal literatura; Literatur Kritika Feminista; poetika feministak; Amaia Lasa.

RESUMEN

El presente artículo analiza la poesía inicial de Amaia Lasa. Se aborda el estudio de los primeros poemarios de la autora –*Poema bilduma* (1971), *Hitz nahastuak* (1977) y *Nere paradisuetan* (1979)–, en diálogo con la poética feminista. El análisis plantea tres objetivos principales: de una parte, definir y caracterizar las poéticas feministas; de otra parte, realizar una propuesta de lectura de una selección de textos de Amaia Lasa; por último, articular las características de estos poemas con las de las poéticas feministas. En definitiva, el objetivo último del artículo es mostrar el carácter pionero de la obra de Amaia Lasa en el desarrollo de las poéticas feministas en la literatura vasca.

Palabras clave: Literatura vasca; Crítica Literaria Feminista; poéticas feministas; Amaia Lasa.

ABSTRACT

This article analyses the early poetry of Amaia Lasa. It examines the author's first collections of poems –*Poema bilduma* (1971), *Hitz nahastuak* (1977) and *Nere paradisuetan* (1979)– in dialogue with feminist poetics. The analysis has three main objectives: firstly, to define and characterise feminist poetics; secondly, to make a reading proposal for a selection of texts by Amaia Lasa; and finally, to articulate the characteristics of these poems with those of feminist poetics. In short, the ultimate aim of the article is to show the pioneering nature of Amaia Lasa's work in the development of feminist poetics in Basque literature.

Keywords: Basque literature; Feminist Literary Criticism; feminist poetics; Amaia Lasa.

1 SARRERA. 2 POETIKA FEMINISTAK. 3 AMAIA LASAREN HASTAPENeko OBRAREN IRAKURKETA, POETIKA FEMINISTEN BIDEAN. 3.1 Amaia Lasaren lehen poesia: *Poema bilduma* (1971), *Hitz nabastuak* (1977) eta *Nere paradisuetan* (1979). 3.2 Poetika feministen lehen harria euskal olerkigintzan. 3.3 Harrera eta kritika. 4 ONDORIOAK. 5 ERREFERENTZIAK. 6 ERANSKINAK.

1 SARRERA

Euskal olerkigintzan 1970eko hamarkadan lehertu zen aurreko bietan ontzen hasitako modernitate poetikoa. Euskal olerkigintza modernoaren mugarriei dagokienez, euskal literatur historiografiaren iritzi nagusiaren arabera, Jon Miranderen eta Gabriel Arestiren eskutik jaio zen, eta Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978) olerki bildumarekin finkatu (Aldekoa, 1991, 2010; Apalategi, 2015; Kortazar, 2009; Landa, 1983; Mujika, 1986; Otaegi, 2013). Bada, ordea, garapen haren bestelako analisirik egiten duenik ere. Beñat Sarasolak (2013a, 86. or.), garaiko olerkigintzaren alderdi estetikoari erreparatuz, ondorioztatu zuen «euskal poesia modernoa, Arestiren mailuaren poetikaren erantzun gisa zertu zela behin betiko, mailuarekin berarekin bainoago» eta 1970eko hamarkadan joango dela gorpuzten, Aresti eta Atxagaz bestelako olerkari multzo batekin:

Badago egon Aresti eta *Etiopia* bitartean poeta belaunaldi bat aipatutako poetek bezainbesteko garrantzia duena modernitate poetikoaren gorpuztean, eta aldiz, bigarren eta are hirugarren maila batean kokatu izan dena. Mikel Lasa eta Ibon Sarasolaren lehenengo saiakeretatik Amaia Lasa, Mikel Arregi eta Arantxa Urretabizkaia-
ren poesiarraino doa bide hau (Sarasola, 2013a, 93. or.).

Sarasolaren irakurketaren arabera, Arestiren eta Atxagaren lanetan baino gehiago, bitartean ehuntzen da euskal olerkigintza modernoa eta irakurketa horretan, gainera, bi emakume olerkariren lana, Amaia Lasarena eta Arantxa Urretabizkaiaarena, aipatu zituen, bien soslai modernoa nabarmenduz. Idazle horien olerki bildumetako *ni* poetikoa «*spleen* horren kontra matxinatu egiten da», diosku, «ez idealismo batean erortzeko, baizik eta erresistentzia eta borroka aldarrikatzeko» (Sarasola, 2013a, 92. or.).

Areago, Sarasolaren (2013a, 92. or.) arabera, desberdintasun hori genero gatazkaren kontzientzian datza: «badirudi emakume izateagatik zapalkuntza kontzientziak ez diela uzten, ez Amaia Lasa ez Urretabizkaiari ezkortasun geldo batean amiltzen». Lan hone-tan Amaia Lasaren 1970eko hamarkadako ekoizpen poetikoari erreparatuko diogu eta berrietasunaren alderdi horri erreparatuko diogu; subjektutasun poetiko feministaren garapenari, hain zuzen ere.

Amaia Lasaren olerkigintzak lehen euskal subjektu poetiko feminista modernoa ekarri zuen euskal olerkigintzara, emakumeen zapalkuntzari ahotsa jarri eta garaiko modernitate poetikoaren korrante literarioarekin bat egin zuena. Alta, maiz modernitate poetikoaren diskurtsotik bazter utzi da, eta bere obra euskal literaturaren histori-
atik ezabatua izan da ez gutxitan. Literatur Kritika Feministaren zereginetako bat da isiltasunak izendatzea eta helburu horrekin aztertuko da kontzientzia feministatik abiatutako poesia molde berrien lanketan aitzindaria izan zen Amaia Lasaren hasta-peneko obra. *Hutsunean igeri* abiatutako bide hari ahotsa jarri zion subjektu poetiko feministaren irakurketa da artikulu honek dakarrena.

2 POETIKA FEMINISTAK

Bigarren olatuko feminismoarekin hasi zen garatzen poetika feminista, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. Orduan, feminismoaren artikulazio gune garrantzitsua Emaku-meen Askapenaren Aldeko Mugimenduak sustatutako emakume taldeak izan ziren. Gune horietan zapalkuntzen ulerkera erlazonala landu eta ordura arteko feminismoaren sub-jektu politiko unibertsalizatuaren deseraikuntza gertatu zen, interseksionalitatearen ideia oinarri. Bide horretan, «pertsonala politikoa da» leloa mugimenduaren diskurtso politi-koaren erro egin zuten, eta hala, ordura arte esparru pribatu eta intimoari zetxexkiola uste izan ziren aferak esparru politiko publikoaren erdigunera ekarri zituzten garaiko feministek: sexu indarkeria, kontrazepzioa, abortua, zaintza lanak, familia egitura, etab. Garai horretan bizi izan zuen feminismoak idatzi teorikoen eztanda ere eta testuinguru hartan loratu zen segidan jorratuko dugun poetika feminista, AEBetan ernamuindu zena.

Pertsonalaren eta pribatuaren arteko bereizketa arrakalatzearekin batera eten zen aktibismoaren eta artearen arteko muga zurruna, eta horrekin, Juhaszek (1979) ziosku-nez, politika eta poesiaren artekoa ere: «The rise of the ‘new feminism’ of the late sixties and early seventies occasioned poetic as well as political action, and, more importantly, the understanding that these were not separate endeavors» (23. or.). Esparru publi-koaren eta pribatuaren arteko bereizketa ezerezteko nahian, poesia bitarteko indartsu bilakatu zen hala.

Feminismoaren subjektu politikoa berreraikitzearekin batera irauli zuen poesiaren ulerkera tradizionala Mugimendu Feministak. Subjektu lirikoa izate indibidualista eta autoritario gisa ukatu eta *ni* poetikoa Mugimendu Feministaren gorputz kolektiboaren artikulaziorako gune ere izan zitekeela ulertu zen orduan. Feminismoak adierazpide lite-rario honetan ikusi zuen hala emakumeen esparru intimoari lotzen zitzaizkion gatazka horiek diskurtso politiko publikoaren erdigunera ekartzeko bitartekoa. Poesia, tradizioz,

denik eta literatur generorik intimoena izan da; bizi esperientziarekin elkarriketan den literatur generoa da, sarri, bihurkari gertatzen dena horretan, hots: literatur enuntziazioaren subjektuaren eta testuaren baitako *ni* poetikoaren arteko harremana aski zuzena eta leiala da ez gutxitan. Halatan, poesia zapalkuntza bizi duen subjektuaren lekukotza agerrarazteko gune aproposa bilakatu zen, Audre Lorde (2020, 17. or.) poetaren hitzek erakusten dutenez: «Poetry is not only dream or vision, it is the skeleton architecture of our lives». Jan Clausen (1989, 9. or.) olerkariak zioenez, orduko feministek bizi zuten zapalkuntza izendatu eta ikusarazi nahi zuten: «we had an enormous appetite for the evidence, for anything that could provide testimony concerning the conditions of women's lives». Zapalkuntzaren esperientzia kontagai egiteko artefaktu bihurtu zen bada poesia.

Zapalkuntza egoera bizi zutenen lekukotzak azaleratzea zuen helburu orduko Mugimendu Feministak, eta poesiaren berezitasunak lagun, ugaritu egin ziren literatur genero honen baitako ekoizpenak: «the women's movement produced the need to write lives and to tell them publicly, and these poetic acts in the context of the social/political movement drew more and more women to the act of writing poetry» (Whitehead, 1996, 7. or.). Horrela sortu ziren poetika feministak, mugimenduaren baitako garaiko militanteek genero zapalkuntza gai poetiko egin zutenean. Sorkuntza poetiko hauen egileak bitarikoak ziren, gainera: batzuk, Emakume Taldeen dinamiketan hasi ziren testu poetikoak sortzen, beste zenbait idazleak ziren ordurako. Horietarik lehenek *Consciousness raising* taldeetan (egungo ahalduntze eskolen kidekoetan) ezagutu zuten poesiaren indar eraldatzailea. Emakume talde horietan idazketa tailerrak egin ohi ziren, parte hartzaileek euren egoera papereratu eta komunitatearekin partekatzeko. *Poetic inquiry* gisa ezagutzen den metodologia baliatuz, testu poetikoa autoetnografiarako baliatu zuten. Olerki horiek, gainera, errezitatu egin ohi ziren poesia performanceetan. Irakurraldi horien helburua, Whiteheadek jaso zuenez, ekintza politikoa bultzatuko zuen indar kultural feminista sortzean zetzan: «the public poetry reading was to communicate to other women and to an oppressive society women's realities, needs, and dreams and to create fertile ground for fruitful political action and ongoing cultural expression in women's communities» (Whitehead, 1996, 31. or.). Horretan, poesia komunitate feministaren eraikuntzarako bitarteko ahaltsu bilakatu zen, eta hainbat izan ziren poesian ordura arte gatazka intimoztat zituztenak publiko egiteko bidea ikusi zuten emakumeak: «Women who might *never* have considered a traditionally prosodic poem as a means of expression flocked to poetry when they discovered that it could *emerge* from their experience, that it could reflect the experiences and observations that were emerging in the context of the social/political women's movement» (Whitehead, 1996, 8. or.).

Poesiak emakume horien elkarrekikotasuna bizkortu zuen hala talde horietan, eta komunitate afektibo feministaren eraketarako bitarteko bilakatu zen. Poesia kontzientzia feministaren esnarri ere gertatu zen, beraz. Horrenbestez, esparru pribatua eremu politikora ekartzeko bidea poesiaren izaera publikoa indartuz egin zuen bigarren olatuko Mugimendu Feministak:

Performing their works [...] poets both evoked in audience members some recognition of their own experiences as individuals and caused them to understand the collective resonances of personal experience, thus encouraging them to give more

energy to the movement. Feminist poets fulfilled a functional, cultural, even a vatic, role for the rank and file of feminist organization (Whitehead, 1996, 9. or.).

Aitzitik, baziren Mugimendu Feministaren baitan ordurako poeta kontsakratu zirenak ere, eta horiek helburu bikoitza izan zuten poetika feministara lerratu zirenean: batetik, aurrekoek bezalatsu, Mugimendu Feministaren baitako kezkei ahotsa ematea; bestetik, literatur sistemaren beraren baitako dinamika patriarkalak agerraraztea poesiaren gaineko konbentzioak irauliz. Zapalkuntzaren esperientziari ahotsa jartzeaz gain, poesiaren mugak atezatu nahi izan zituzten, hizkuntzarekin gertatu bezalatsu, hegemonia patriarkalak arautzen zuen literatura generoa zela argudiatuz; Adrienne Rich (1995, 160. or.) poetak zioenez: «In the crossover between personal and political, we were also pushing at the limits of experience reflected in literature, certainly in poetry». Bide beretik, Whiteheadek ere orduko idazleek funtzio poetikoa birpentsatu zutela nabarmendu zuen, haren iruditeria zein ezaugarri formalak: «Feminist poets have enlivened the [...] poetic tradition by rethinking the function of language and poetry, broadening theme and imagery by grounding them in the experiences of women, and developing a formal reorientation based in a feminist consciousness» (Whitehead, 1996, xv. or.).

Poetika feminista horixe da funtsean: kontzientzia feministatik abiatzen den idazketa, kezka eta gogoeta feministak jorratzen dituen literatur joera, Mugimendu Feministaren bilakaera teoriko eta aurrerabide sozialekin eskuz esku ari dena. Feminismoaren printzipio teoriko eta ardura politikoak kontuan hartuz, zapalkuntza esperientziari ahotsa eman dion poetika, egitura patriarkala iraultzea helburu, adierazpen subjektiboa kolektiboaren, *gu* feministaren, artikulaziorako indar dela ulertu duena; irudimen estetiko eta ikerketa teorikoa uztartzen dituen, eta poesia ere politika dela ulertuz, artearen eraldaketarako gaitasuna oinarri duena. Finean, komunitate kultural eta politiko feminista osatzen duen jarduna da pentsamendua eta ekintza, biak, elikatzen dituen.

Poetika feministaren historia eta ezaugarritzea aztertu duten hainbat ikerketa kontuan izanik (Carruthers, 1979; Clausen, 1982; Frost, 2003; Juhász, 1979; Kinnahan, 2004; Reed, 2005; Joyce, 2013; Whitehead, 1996; Wolosky, 2011), honako bereizgarri hauen arabera definitu ditugu literatur joera honi lotu zaizkion sorkuntzak: 1) Zapalkuntza eta botere harremanak dira haren materia poetikoa; 2) Hizkuntza poetikoari eraldaketa ahala aitortzen dio; 3) Isiltasuna izendatzen du; 4) Dimentsio publikoan uztartzen ditu pertsonala eta kolektiboa; 5) Komunitate politiko kultural feministan sortzen da eta hura birsortzen du; 6) Testuartekotasuna eta genealogia feminista ditu oinarri; 7) Poetaren irudikapen tradizionala irauli du; 8) Teoria feministarekiko elkarriketan da; poesiak eta teoriak elkar elikatzen dute. Autoteoriarako aukera zabalitzen du; 9) Arrazoiaren eta emozioaren arteko harreman dikotomikoa hausten du; 10) Poesia instrumentalizatu du; 11) Poesiaren molde tradizionalak irauli ditu, forman eta edukian; 12) Poetika feminista *gu* feministaren sugai afektiboa da. Ezaugarri horiek ez dira, noski, joera literario honi lotutako idazle eta testu guztietara aplikagarriak; garaian garaiko Mugimendu Feministaren eta lekuan lekuko literatur sistemaren berezitasunen arabera gailenduko dira bereizgarri batzuk eta ez bestak.

Lan honetan aldeztuko dugun hipotesiaren arabera, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan AEBetan sortu zen poetika feminista antzeratzen duen mugimendu poetikoari zabaldu zion bide euskal literaturan Amaia Lasaren olerkigintzak. Hori argitzeko, idazle getariarraren hastapeneko obran barrenduko gara datozen ataletan, haren testuetan ezaugarritu berri dugun poetika feministaren zantzurik baden agertzeko.

3 AMAIA LASAREN HASTAPENeko OBRAREN IRAKURKETA, POETIKA FEMINISTEN BIDEAN

3.1 Amaia Lasaren lehen poesia: *Poema bilduma* (1971), *Hitz nabastuak* (1977) eta *Nere paradisuetan* (1979)¹

1948. urtean, Getarian, jaio zen Amaia Lasa, eta Frantzian, Suitzan, Holandan, AEBetan eta Nikaraguan bizi izan bada ere, kostako herri haren paisaia izan da bere ibilbide poetiko osoan zehar baitezpadako bidaidea. Donostian irakasle ikasketak egin ari zela hasi zen lehen olerkiak idazten. Ikasketa horiek ikastoletan lanean aritzeko euskal gaien gaineko prestakuntzarekin osatu zituen Lasak, eta bertan sortutako talde horren bidez sartu zen euskal kulturaren giroan. 1967. urtean *Zeruko Argiara* jo zuen agerkariko «Gazte naiz» sailean parte hartzeko, eta hala hasi zen lehen idazkiak aldizkari horretan argitaratzen. 1969. urtean Fribourgera joan zen literatura ikastaro bat egitera eta handik bueltan literatura sorkuntzan ere aritzen zen Mikel nebari elkarrekin poema liburu bat argitaratzea proposatu zion. Orduko kritikariek esan zutenaren kontra², lehen lan hura ez zuen nebak bultzatuta edo haren babesean argitaratu; Amaiaren ekimena izan zen sortze lan horren akuilu:

Otu zitzaidan anaiari proposatzea elkarrekin lan bat argitaratzea eta hala esan nion «aizu, zergatik ez degu poema liburu bat argitaratzen?». Eta baiezkoa erantzun zidan. Horrela abiatu zen kontua. Gero, gogoan dut Txillardegi eta Iñaki Beobiderengana jo nuela eta baiezkoa esan zidatela eta hala argitaratu zela Herri Gogoan. Horrela izan zen prozesua. Horregatik, aipatzen dutenean «anaia zaharraren babesean» edo argitaratu nuela lan hura, nik beti aldarrikatzen dut edo esaten dut ezetz, nik hartu nuela iniziatiba lan hori argitaratzeko eta ni ibili nintzela batetik bestera bilduma plazaratzeko argitaletxe bila (Lasa, 2025, 88. or.).

1 Amaia Lasak hiru olerki bilduma argitaratu zituen 1970eko hamarkadan: Mikel nebarekin batera osatutako *Poema bilduma* (1971), eta bakarka plazaratutako *Hitz nabastuak* (1977) eta *Nere paradisuetan* (1979) lanak. Gerora, baina, 2000. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak bere obra poetiko osoa *Geroaren aurpegia* (2000) izenburupean argitaratu zuenean, berrizendatu egin ziren aurretiaz argitaratutako lehen hiru lan horiek. Hala, *Poema bildumako* (1971) Amaia Lasak idatzitako «Itsasoaren mari gora maria beheran hartu nituen hitzak» atalak *Geroaren aurpegia* (1967-1969) izena hartu zuen, *Hitz nabastuak* (1977) *Sustraiak* (1970-1977) izenburuak ordezkatu zuen eta *Nere paradisuetan* (1979), berriz, *Ordu minuak* (1975-1978) tituluak. Jarraian egingo dugun ibilbidean estreinako aldiz argitaratu ziren eran izendatuko ditugu olerki-bilduma horiek.

2 Ugaldere (1979, 5. or.) arabera, «poeta fin eta senderra den bere anaia Mikelen babesean bezala osatua» izan zen lan hura.

Hala argitaratu zuten 1971. urtean Lasa neba-arrebek *Poema bilduma* Herri Gogoa argitaletxean.

«Jaungoiko guztiak ukatzen dituen / emakume bat naiz. [...] Dotrina guztien aurka altxatzen naiz [...]. Hutsunean igeri dabilen emakume bat izaten naiz» (1971, 21.-22. or.). Horrela mintzo da Amaia Lasaren lehen lan argitaratua izan zen *Poema bilduma* (1971) laneko ahots poetikoa. Indartsu, irmo eta ihardukitzaille. Lan honetan argudiatuko dugunez, olerki bilduma hori dugu euskal subjektu poetiko feminista garaikidea garatzen aitzindaria. Koldo Izagirrek *Amaia Lasa: poesia kaiera* (2001) lanari egindako hitzaurrean zioen eran, «Amaia Lasa heldu zen arte, emakumeak ez zeukan leku propio-rik gure literaturan» (3. or.). Poema liburu horretan, baita Amaia Lasaren eskutik etorri ziren ondorengoetan ere, emakumearen ahotsetik mintzo zaigun *ni* poetikoa da nagusi, gizarte arauak ezarritako betekizunekin gatazkan dena, «mila oztoporengatik zigortua» (1971, 52. or.) izan arren, bere «ezin ezinaren istorioa kantatuko» eta «dantzatuko» duena (1977, 21. or.).

Poema bilduma (1971) laneko «Itsasoaren mari gora maria beheran hartu nituen hitzak» ataleko *ni* poetikoa mugarri da euskal literaturan gizarte patriarkalari erantzuten dion poetikotasunaren garapenean. Genero gatazka agerian jarritz, emakume ahotsetik mintzo zaigun subjektibotasuna garatu zuen Lasak (1971) olerki bilduma horretan, generoak zeharkatutako ahotsaren «desioaren gogoa» (12. or.), «min tristea» (13. or.), eta «maite gogoa» (13. or.) agertu zituen. Hala, ametsari, bakardadeari, maitasunari, arnasari eta «desioarekin, nahian, laztan herioan» (36. or.) den gorputzari leku egingo zien hizkuntza berria aldarrikatu zuen Lasaren olerkigintzak. Subjektu poetikoaren «bizitzaren hitza lort[zea]» ahalbidetuko zuen bestelako kodearen beharrianari jarri zion ahotsa, hain zuzen ere, *Poema bilduma* (1971) laneko irekierako testuak³:

Nereak ez diren	Biribiltasunean
lurralde hauetatik	sendotasunean
ihes egin nahi nuke	haitzaren gainean
	a
Nereak ez diren ur hauek	e
alde batera	i
utzi egin behar ditut.	o
	u
Haitz sendoaren biribiltasunean	berri bat esan nahi nuke.
nire bizitzaren hitza	(Lasa, 1971, 11. or.)
lortu nahi nuke	

Sarasolaren (2013a) hitzetan, poema hori Lasaren olerkigintzaren gako diren modertotasunaren eta tradizioarekiko hausturaren erakusgarri dugu eta, olerki horretan ageriko den eran, «berritasun hau, gainera, zalantzarik gabe, aldarri feministarekin lotzen

3 Poemak argitaratu ziren grafia berarekin ekarri dira, moldaketa ortotipografikorik egin gabe eta, ahal izatera, bertso lerroen banaketari ere eutsiz. Euskararen egungo arau eta erabilerarekin bat egiten ez duten kasuetan ere eutsi egin zaio jatorrizkoari.

da, ordura arte ia ez baitzen egon euskal idazle emakumerik historian» (91. or.). Bordak (2021) ere mugarriztat du olerkia eta poetak zukeen aitzindari izatearen kontzientzia hori nabarmentzen du: «Amaia Lasak ‘Nereak ez diren lurralde hauetatik’ poeman badaki, sentitzen du, bere ekina lehen harri bat bezala dela euskarazko literaturaren panoraman. Enetzat halako harri bat bezala da. Hor Amaiak harri bat pausatzen du euskal literaturaren lurraldean. Eta hortik aitzina belaunaldi berri bat aterako da». Ildo beretik, Arteatxek (2007) ere subjektu poetikoak olerki bildumaren hasieratik beretik bere burua emakume gisa aurkeztu izanaren indar sinbolikoa azpimarratzen du:

[No] podemos dejar pasar por alto el hecho de que se defina al principio del poema como una MUJER. [...] Esta afirmación tiene ya de por sí una gran carga simbólica; no sólo se enfrenta a todo aquello que le han inculcado, sino que lo hace al tiempo que reivindica el hecho de ser mujer. [...] Y es algo que va más allá de la simple discrepancia; no está dispuesta a acatar sumisamente aquello con lo que no está de acuerdo (496. or.).

Ordura arte urriak izan ziren euskal literaturan emakume ahotsetik mintzo ziren literatur lanak eta gabezia hori agerikoa da Altunak (1971) poema bildumaren argitalpenaren harira *Zeruko Argiarako* egindako kritikan; berak ere azpimarra hori egiten baitu liburuari egindako iruzkinean: «Amaiak euskal olerki alorrean genduen hutsune bat betetzen du, hain zuzen ere urri ziren emakumeak osatutako olerkiak eta are guttiago emakumezko ikuspegitikan egindako amoriozko olerkiak» (15. or.). Berri-tasuna, baina, areago doa eta Arteatxek (2007, 95. or.) dioen eran, «al hecho de ser mujer se le añade el de ser joven, vasca y atea». Erljioaren arbuioan datzan haustura hori bereziki izango da adierazgarria, euskal olerkigintza modernoaren ezaugarria den heinean. Haustura agerikoa da Amaia Lasaren obran, maitasuna eta desira pen-tsaera kristauaren kodeetatik aske ekarriko baititu olerkietara, ondoko poema hone-tan bezala:

Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakume bat naiz.	Atzo, zeruko pekataria nintzen,
Atzo, zeruko jaungoikoa ukatzen nuen,	gero infernukoa, eta
gero infernukoa, eta	gaur, lurreko pekataria naiz.
gaur, lurreko jaungoikoa ukatzen dut.	Hutsunean igeri dabilen emakume bat izaten naiz.
Dotrina guztien aurka altxatzen naiz.	(Lasa, 1971, 21.-22. or.)

Lehen olerki bilduma hura argitaratu zen unean diktadura frankistaren errepresioak indartsu zirauen artean Hego Euskal Herrian. Elizaren eragina ere oso errotua zen orduko gizartean eta «literatura gizonena eta apaizena edo apaiz izandakoa zen» (Lasa, 2025, 88. or.), haiek ziren nagusi. Testuinguru horretan, Amaia Lasaren subjektu poetikoak ateismoaren aldarri egiten duen emakume baten ahotsa ekarri zuen euskal

literaturara, *statu quo* horri aurka egiten diona. Ondorengo hitzetatik ondoriozta daitekeenez, testuinguru hartan, ausarta iruditu bide zitzaion arestiko olerkia Zarateri: «Harrigarria benetan fededun eta jainkozale izan ohi diren euskaldun emakumeetariko batek (hamazortzi urteko neska batek) idatziriko baiezpen nabarmen hau! Izan ere, ez dut uste horrelakorik inoiz idatzi izan denik orain arte (1965. urtean [?] gaude) euskal literaturan» (Zarate, 1978, 86. or.).

Olerki hartan agerikoa da ahots poetikoaren erlijioarekiko arbuioa, bere burua bekatari izendatuz nabarmentzen duena. Era berean, emakume izatea ere berretsi nahi luke, poemaren egitura zirkularrak «emakume naiz» adierazpideari ematen dion indarrak baliatuz. Arteatxen hitzetan, subjektu poetiko horren bidez Amaia Lasak buru egin nahi dio garaiko gizartean gaitzesgarri den horri guztiorri: «Una autora que se enfrenta a una sociedad en la que todo lo que ella representa tiene connotaciones negativas, una mujer que siente que todo en ella se rebela contra unos esquemas rígidos ante los que no está dispuesta a doblegarse» (Arteatx, 2007, 495. or.). Diktadurapean edo, egilearen beraren hitzetan «basamortuan» (Lasa, 2025, 94. or.) bizitzea salatzen duten testuak ere badira Amaia Lasaren olerkigintzan; egoeraren itogarria aditzera ematen duen ondoko hau dugu esandakoaren erakusgarri:

HITZ NAHASTUAK	
Nire zortzi deiturak ez dira euskaldunak.	arnasa egunero ukatzen didate.
Nere euskara ez da garbia.	
Nire hitzak ez dira txukunak.	[...]
Neure sinesmenak ez dira heurenak	
ala ere	Poetaren fantasia zapaldu
Euskal Herria sortzen ari gara.	poetaren fantasia beztu dute.
Nik hasiera eman nion,	[...]
zuk bukaera eman zenion Zerbaiti.	
Zulo zuri luze bat,	Inork ez du
auto borobil beltz bat.	Anbotoko Damiaren fantasia indartsua
Haiek ez dute gure hitza ulertu.	isilduko,
	Damiaren hegada luzeak
	Saforen begirada larritua lasaituko du.
Behin eta berriro,	
lur galduaren bila mugitzen gara.	Zuk hasera eman zenion,
	nik bukaera eman diot Zerbaiti.
[...]	(Lasa, 1977, 45.-46. or.)

Poema horretan subjektu poetikoarentzat gatazka gune diren borrokak gurutzatzen dira. Lehen ahapaldian, euskalduntasuna du kritikagai; hain zuzen ere, euskalduntasun tradizionala, erlijiosoa, kontserbadorea eta garbizalea. Horren aurrean, bestelako sinesmenetan eta pentsaeretan ardaztutako euskalduntasunaren alde egiten du ahots poetikoak, orduan «abertzaletasuna eta sozialismoa dikotomian» (Lasa, 2025, 90. or.) ezartzen zituen ideia irauliz. Bestalde, euskalduntasuna bera suntsitu nahi luketen horiek ditu aipagai, euskaldunari «lurra» eta «arnasa» bera ukatzen

dion estatu indarkeria eta errepresioa. Balirudike olerkiaren azkenean ekartzen duen borrokan duela jarria itxaropena, Anbotoko Damak eta Safok ordezkatzeko duten arketipo askatzaileetan eta kristautasunaren aurreko garaietan. Horiek lerroartera ekartzean bilakatzen dira «zulo», «beltz», «zapaldu» eta gainerako etsipen hitzak «inork ez du isilduko» bezalako baieztapen irmo. Azken ahapaldi alderantzizatuak, gainera, indartu egiten du *zu* poetikoarekiko tenka, eta irauli, halaber, ordura arteko jokoaren dinamika edo hierarkia; subjektu poetikoarengan dago orain «zerbait» horrekin amaitzeko eskumena. Poema horretan, hala, orduko gizarte arau hertsien aurrean askatasuna aldarrikatzen du *ni* poetikoak, inguratzen duen testuingurua gurutzatzen zuten borroka horiek azaleratuz.

Olerki horrek 1977. urtean argitaratu zen *Hitz nahastuak* (1977) lanari eman zion izenburua eta, hain zuzen ere, garaiko testuinguruaren erakusgarri da liburu frankismo garaiko zentsura aparatuen bahetik igaro izana. Lasak olerkien bidez ageriarazitako testuinguru itogarriaren adierazleatarik bat da, besteren artean, 1983. urtera arte biziraun zuen frankismo garaiko zentsura aparatuen errepresioa. Esan behar dugu, ordea, lektore-zentsore horien begietara, Lasarenak euskal eremuen deskribapenak egiten dituzten poema hutsalak baino ez zirela, irakurritakoagatik bainoago emakume idazleen sorkuntzaz zuten aurrejuzguan oinarrituta ondorioztatu bide zutena. Hona AGAko artxiboan (Archivo General de la Administración, Alcalá de Henares, Madril) gordetzen den zentsura fitxa horretan jaso zena: «Tiene un prólogo en el que recoge algunos párrafos que escribió Rosa Luxemburgo en la cárcel. El resto, que nada tiene que ver con lo del prólogo, con poesías intrascendentes donde se hacen descripciones de zonas vascas y otras de tipo general. Al fin trae, a modo de cuentos, cosas fantásticas a base de brujas» (MHLI. Zentsura fitxen datu basea, 2022).

Ildo bertsuan, Altunak amodiozko olerki gisa sailkatu zituen Amaia Lasaren *Poema bilduma* (1971) laneko testuak; aitzitik, nabarmentzekoa da maitasunarekin batean «haragiaren gutiziak» (45. or.) ere oso presente dituela lan honetako ahots poetikoak eta grina apaldu ezinda dabilela zenbaitetan, «seksoaren abotsa» ezin «ixildu»:

Otoika,
Oihuka, seksoarekin,
seksoaren abotsa ixiltzeko,
uneak igaro ziren,
saxoa ixildu zen,
eta seksoa oihuka hasi zen,
eta oraindik ez da seksoa ixildu.
(Lasa, 1971, 27. or.)

Desira objektu poetiko errepikari eta indartsua da poemategian eta emakumezko gorputzaren plazeraren aldarria bildumako hainbat olerkitan aditu dezakegu. Alabaina, orduko eta baita berrikiago egindako *Poema bildumaren* (1971) kritika eta irakurketetan «maitasunaren izpiritua» (Ugalde, 1979, 6. or.) zein «emetasuna» (Altuna, 1971, 15. or.) azpimarratu izan dira, eta maiz bazter utzi da desiraren kartografia. Areago, aipatua izan denean, Ugaldek (1979) egin eran, maitasunaren adierazpide irakurri nahi

izan da: «Amaiak sexualtasuna bete-betea jotzen du [...]. Baina, aitzitik, ez da pornografian erortzen. Gauza bat baita erotika; ahalegina, maitasuna, desioak sor arazi dezaken maitasun-bidea, eta beste bat lizunkoia den edo lizun hutsa den pornografia» (Ugalde, 1979, 7. or.).

Desirak –ez halabeharrez maitasunari besarkaturik– badu lekurik poemategian, eta ardatz tematikoa da ondokoa bezalako olerkietan:

Egun batean Mari Sorginari suzko emetasuna biztu zitzaion bero beroa, oso indartsua.	zuen, hoztasun urdinean.
Hautzarroan gauza gaizto bat bezala erabili zuen; haiek zikina zela zioten eta betiko lotarazi zuen, zenik ere ez jakiteko.	Gau batean jolas batean sartu zen, eta aho batek bere gorputza laztandu zuen, iluntasunaren itzalean.
Mari Sorginaren emetasunak urte luzeak lozorroan zermazkien, gorputzak mogimendu gabeko aide triste bat dantzatzan	Mari Sorginaren emetasuna lozorroan zegoen esnatzera doa; beltza gorri bihurtu zen, eta jolasteko jostailuak, ez ziren aurrerantzean zikinak izan. (Lasa, 1971, 26. or.)

Mari Sorgina kontagai hartuz, emakumeari luzaz ukatutako desiraz ari zaigu olerki horretan *ni* poetikoa. Mari euskal mitologiako jainkosaren izena bazterreko emakumeen ordezkatzailerik den sorginarenarekin uztartuz, Lasak sortzen duen pertsonaia gizarte patriarkalak «zikin» izendatu grina horiekin berradiskidetuko da, «lozorroan» egondako «emetasuna» «esnatzera» eramanez. Hala, «hoztasun urdinetik» «beltza gorri bihurtu zenerako» igarotzeak iratzartze eta ahalduntzea ematen ditu aditzera, Lasaren olerkigintzan konstantea izango den koloreen sinbolismoaren bidez trantsizioa indartuz.

Subjektutasun feminista baten aurrean gaudela erakutsiko luke desiraren aipamen horrek, emakumearen plazeraren estigmatizazioari aurre egiten dion poetikaren bidez gorputzak dantzan dituen desiraren gaineko emakumearen agentzia aldarrikatzen baita. Horren erakusgarri dugu ere *Poema bilduma* (1971) lanean argitaratu zen ondoko poema, masturbazioa gai poetiko egin zuena:

Ohean narru gorri, eskuak han nituela argi itzalean ilunpearen izkutuan, amodioaren heriotzara ninjoan.	maindiriek eta estalkiak bihurritasunean nahastuaz.
Ohe guztia bihurtzen nenbillen,	Pentsamenduan muxu goxo bat pentsamenduekin, bi beso bizkar gainean desioarekin, nahian, laztan herioan. (Lasa, 1971, 36. or.)

Hala, hizkuntza poetikoa medio, Minerrek (2014) ondoko lerroetan hizpide duen tabuaren haustura erdiesten du testu horretan Lasak:

Gurean ere, bada arau sozial eta moral bat denbora luzean esplizitutasuna, batez ere desira, sexu-praktika, genitalitate, eta abarren inguruan metaforikoki hitz egi-tera bultzatu gaituena. Beraz, emakumeak, bere gorputza irudikatu, adierazi eta errepresentatzerakoan, izan du horrekin hausteko joera eta beharra ere. Horrela, badena izendatzeko ezintasunak beste eremu batzuk mugatu ditu, esaterako, desi-rarena. Nola adierazi desira gorputzak bere horretan izendatzeko ahalmenik gabe? (56. or.).

Minerrek aipatzen duen esplizitutasun horren bestelako zantzurik topa dezakegu Lasaren lehen olerki bilduman, ondoko bertso lerroetan irakur daitekeen eran: «Sekulan / goxatu ez dituzun / punta gorriko titi zuriak; / emazteak / edozeini, / bidean ezkeintzen zizkion / goxotasun eskarian. [...]» (Lasa, 1971, 33. or.). 1970eko hamarkadaren amaieran argitaratutako *Nere paradisuetan* (1979) laneko ondoko olerkian ere gorputzezko hizkuntza dakarkigu subjektu poetikoak:

Ene gorputza esnatu egin da berriro.	Odola ixuririk goaz.
Punta zuriko diti gorriak gogortu.	Iadanik odolik gabe geratu zen gorputza husturik.
Diti gorriak odola ixuririk.	Sua ene suak ez ote nau gehiago hoztuko?
Beso biguinen ordeztu haritzaren azala lastandurik.	(Lasa, 1979, 35. or.)

Gorputz ernatuarengan lekukotzen diren aldaketen berri ematen digu olerkiak, gorputza, bere isuri eta kar, poesiara ekarriz. Gorputzaren gaineko kezka konstantea izan da Lasaren olerkigintzan, eta bere hitzetan, ardura hori are nabarmenagoa zen emakumearen desira isilarazia zen testuinguru hartan: «Orduan emakumeoi dena ukatzen zitzaigun eta gorputza ere zama horien isla bilakatzen zen. [...] Horren aurrean gure gorputzak aldarrikatzen genituen, gure sexualitatea, gure maitatzeko moduak aldarrikatu nahi genituen» (Lasa, 2025, 91. or.).

Ohargarria da, halaber, olerki bilduma hura Rosa Valverderen ilustrazioekin osatutako edizioan argitaratu zela, testuak artista plastiko donostiarraren zuri-beltzezko irudiekin tartekatuz. Irudiok poemekin elkarriketan dira eta testuekin paraleloan doan kontakizun bat proposatzen digute. Hala, gorputzak presentzia nabarmena du marrazkietan ere. Aipatu berri dugun olerkia, esaterako, bulba itxura izan lezakeen landare batean bildutako emakume baten ilustrazioarekin lagundua da. Emakumea marrazkiaren erdigunean da eta irudi luke landareak besarkatua duela. Ildo horretan, nabarmendu behar dugu Rosa Valverderen kezka artistiko nagusietako bat emakume

gorputzaren irudikapenarena izan zela. Michel Mejutok (2022) adierazi bezala, «emakumearen gorputzean oinarritutako mundu pertsonala eraiki zuen Rosa Valverde» eta «bere ibilbide artistikoan zehar eta bere obraren argumentu eta *leitmotiv* bihurtu zituen gaiak eta obsesioak izan ziren, besteak beste, emakumeen gorputzaren eta psikearen ingurukoak». Hala, esan dezakegu *Nere paradisuetan* (1979) lanean elkar osatzen dutela bi artisten sorkuntzek, bi lanen ernamuinean kezka partekatua ere bazegoen heinean.

Halatan, euskal olerkigintzan subjektutasun feminista garatzen bide urratzaile izan zela baieztatzeko arrazoiak agerikoak diren arren, esan bezala, Amaia Lasaren 1970eko hamarkadako lanaren inguruko kritika eta irakurketa gehienek ere entzungor egin zioten Amaia Lasaren poetika feministari. *Poema bildumaren* (1971) argitalpenetik kasik hogeita hamar urteak igaroak zirenean, Felix Maraña eta Jose Luis Padrónek *Geroaren aurpegia: 1967-1997* (2000) bildumari egindako hitzaurrean honela deskribatu zuten Lasaren olerkigintza, maitasuna poemon ardatz aurkeztuz, beste behin ere:

Amaia Lasak *emasabelezko lengoaia* eratzen du. Hor du bere lanak oinarri erritmikoa eta sustrai emankorra. Barne arnasa da, arnasartzeko jariora. Amaia Lasaren poesia *bihotz jaioberria* da. Grina eta memoria iturburu izaki, erantzunik gabeko besarkadatzat jotzen du maitasuna, *itxaroaldi naufragoa*. Amaia Lasarengan maitasuna, *maitasunaren agonia* da. Ahotsa bilutsik jasotzen du eta bere hodeiertzeraino aireratzen da. Hegan eginez bezala bere emasabeletik jaiotzen da (Maraña & Padrón, 2000, 27. or.; azpimarra, gurea).

Adierazgarriak dira oso Marañaren eta Padrónen (2000) hitzok. Maitasuna aipatzen dute, hiru bider, eta maitasunarekin batera «agonia» eta «itxaroaldi naufragoa». Bali-rudike marinel haren alabaren hasperenetik mintzo zaigun ahots poetiko bat dugula Lasarena, pasiboa eta agentziarik gabea. Alta, Amaia Lasaren olerkigintzako subjektu poetikoa ez da itsasoan itxaropena jarri eta esperoan egotekoa. Argitaratutako bigarren poemategitik, *Hitz nahastuak* (1977) lanetik, hartutako poema hau dugu, besteren artean, horren erakusgarri. Arestiren «Egia bat esateagatik» (1964, 64.-66. or.) olerkiaren ihardespen gisa ere irakur daitekeen olerki honetan, tinko mintzo da subjektu poetikoa indar zapaltzaile eta itogarrien aurrean:

Hutsik dauden itsasoetan igeri egiten utzi didate.	jantzi liluragarritz apaindu didate.
Haizerik gabeko zeruetan arnasa hartzea behartzen naute.	Pentsaturik, nere besoak nere behatzak ez direla gehiago mugituko, beren eskuak eskaini dizkidate.
Nere begiek itotakoaren begiekin so, egiten dutenean, argiz betetako kolorez inguratzen naute.	Eta nik besoak moztu dizkiet. (Lasa, 1977, 53. or.)
Nere gorputza hilotz bihurtuz gero,	

Maitasunarekin batera, «emasabela» da aipamenean birritan ageri den hitza. «Emasabelezko lengoaia» gisa deskribatzen dute Lasaren olerkigintza Maraňak eta Padrónek (2000), terminoak dituen konnotazioen jakitun, areago «sustrai eman-kor» eta «bihotz jaioberria» ere konposizioan direnez gero. Amatasuna iradokitzen duten irudiak dira Lasaren poetika definitzeko baliatu dituztenak, nahiz eta zuzenki *ni* poetikoak gaiarekiko duen harremanari aipamenik ez egin. Egia esatera, amatasuna subjektu poetikoaren gatazka gunea da, maiz burua eta sabelaren irudien bitartez artikulatzen dena, *Nere paradisuetan* (1979) bildumako olerki hone-tan bezala:

Burua estalirik buru makurtua ezin jasorik. emakumetasuna bortxatzen jarraitzen digute behin eta berriro.	emakume bihurturik haurrak panpinak kopinak maramak norentzat?
Sabela hustutzen denean eta burua betetezen denean besoak zabaldu- haurrak lurrera erortzen zaizkio panpin marama kopin haur guztiak esnetan lehertzen zaizkio.	Emakumearen burua bete eta sabela hustutzen denean. Gilborretik gora onartuak garenean, nik zu maiteko zaitut haur maitea Panpin polita Kopin kutuna marama goxoa. (Lasa, 1979, 25. or.)
Emea	

Gisa berean, *Poema bildumako* (1971) ondoko testuan ere, oraingoan Mari Sorgi-naren gaineko hartan baliatutako ibilbide kromatiko bera ekarriz, baina alderantziz, «beroa hoztuko» duen bidea eginez honakoan:

Luzaroan zai, behar bada urdinari, behar bada gorriari, edo beltzari, edo hutsari; bainan zentzurik gabeko beroa hoztuko da, kolore nahasiak, nabarrak, urdindu, gorritu, edo beztu egingo dira, edo hustu.	Bizitzak, emakume idortuaren sabela maizago bigunduko du, Oihanaren zuri nazkagarri hau lehertuko da. Eta berdin da amaian, burua haundia, beltza, hutsa, hotza, latza ikuitzea. (Lasa, 1971, 29.-30. or.)
--	--

Emakumeari inposatutako amatasuna da olerkiotako gaia. Lehenean, subjektu poetikoa sumindurik mintzo zaigu, «emetasuna bortxatzen jarraitzen» duen gizartearekin amorraturik eta bortxaz ezarritako haur horiek ezin maitaturik. Emakumea otzan, «burua estalirik / buru makurtua ezin jasorik» nahi duen gizartearen salaketa egiten du eta sabel hustuaren eta buru betearen arteko antitesiaren bidez gatazkan ezartzen du amatasunari galdegiten zaion seme-alabenganako zaintza eta maitasuna. Zortzi urte lehenago argitaratu zen bigarren olerki horretan, ahots poetikoaren tonua desberdina da, etsiagoa eta zalantziagoa. Bilduma bereko beste bertso lerro hauek ere dudaren berri ematen digute: «Zentzurik gabeko heriotza; / hala ari naiz pentsatzen, / neure sabelari bizia ukatzen ari naizenean» (1971, 45. or.). Gatazka hori errepikaria da Lasaren poetikan eta, besteak beste, «diti idortuak, / sabel hustuak, / buru antzutuak» (1977, 27. or.) irudietan islatzen da.

Gizarte patriarkalak ezarritako emakume-ama binomioak, emakume izateagatiko gainerako zama sozial eta askatasun mugekin batean, ezintasunera daramate subjektu poetikoa, ondorengo olerkiko «ez emakume / ez ama / ez eme / ezin izanik» errepikan islatzen dena:

Ez emakume	ez eme
ez ama	ezin izanik.
ez eme	
ezin izanik.	Emakumetasunean
	amatasunean
Itzal tantolak sapaiaren ertz hartan	galduak,
jarraitzen zuen;	libertatearen ordezt,
beste ertz bat behar zuen,	segurantzari helduak.
bainan beldurtuta, beti bere ertzean	
jarraitzen zuen;	Ez emakume
Itzal tantolak beti ertz hartan	ez ama
ezin haunditurik,	ez eme
ezin zabaldurik,	ezin izanik,
argia	
ezin sorturik, jarraitzen zuen.	igarotzen genituen
	gure egunak.
Ez emakume	
ez ama	(Lasa, 1971, 47. or.; Lasa, 1977, 25. or.)

Birritan argitaratutako poema hori emakume bizitzeak ekarritako mugaren, askatasunik ezaren eta ezintasunaren adierazpena da. Era berean, ezarritako baldintzatzaile horien kontra ez egitearen pasibotasuna ere jartzen du zalantzan subjektu poetikoak, betikotzearen ideia azpimarratuz. Ezintasun beraren aurrean da subjektu poetikoa ondorengo bertso lerroetan ere: «Besterik ez bada ere / nire ezin ezinaren historia / kantatuko dut, / dantzatuko dut, / janari indartsuz / gosea hase nahiaz» (Lasa, 1977, 21. or.). Bertso lerro horietan are gehiago indartzen da agentziaren beharra, ezintasunaren aurrean ekitearena. Emakumeari inposatutako otzantasun horren aurka egiten du subjektu poetikoak *Nere paradisuetan* (1979) laneko ahapaldi honetan ere:

Ez gaitue
 gizarte hontarako hasi eta hezi
 besatu baizik.
 Arrosa kolorez jantzi gaitue
 arrastaka horma guztiak igurtzirik
 zazpi koloreen berri jakin dugu.
 [...].
 (Lasa, 1979, 19. or.)

«Bezatu» aditza darabil testuan subjektu poetikoak, basatiak diren animaliekin egin legez, emakumeak ere era horretan hezten dituztela salatuz. Arrosa koloreak iradokiko lukeen mundu femenino gutxietsi horrekiko loturari kontra egin eta indarrez lortuko du bestelako koloreen berri jakitea *ni* poetikoak, arrastaka, animaliairen mugimendu moldeekiko paralelotasunaren bidez izate basati hori berretsiz, eta gizartearen legeetatik at izatearen edo animalia bihurriaren ideia berresanguratzuz.

Emakumeei gizartean inposatua zaien rolaren gaineko kezka etengabea da Lasaren obran. Horrekin batean, gizontasuna ere izango du gogoetagai, ondoko olerkian egin bezala, luzaz «galtzek» ordezkaturako erdua zalantzan jarritz:

Gonak erori zaizkigu
 eta galtzak jantzi ezinik gabiltza.

Lehen zen histeria
 izan zen misterioa
 ez dugu berri paranoia
 argitzen ari da historia.
 [...]
 Lasaitu da histeria
 larritu historia.

Sabela eta Burua
 batera
 beti betirako hustuak.

Gonak erori zaizkigu
 galtzak jantzi ezinik gabiltza,
 galtzak ote gure jantzi bakarra?

Ez da argitu misterioa.
 (Lasa, 1977, 63. or.)

Gona eta galtzen arteko tenkaren bidez eredu bi kontrajartzen ditu ahots poetikoak olerki horretan. Gonak «histeria» eta «paranoiari» loturiko emakume irudia irudikatuko luke, etiketa horien pean gutxietsi eta isildua izan dena. Eraikuntza hori irauli eta bestaldean finkatua den gizontasun eredu arrazional zurrana, berriz, galtzak. Subjektu poetikoak biak ere zalantzan jarriko ditu banaketa metaforikoaren bidez genero bitartasunaz haragoko erdua irudikatuko du, gona eta galtzez bestelako «jantziak» aldarrikatuz.

Era berean, aipagarria da ere Lasaren poetikari darion sumindura. Ahots lirikoa haserre ageri da gizarteak emakumeari inposatu eta ukatutakoen aurrean. Garaiko kritikak ere erreparatu zion Amaia Lasaren olerkigintzaren alderdi horri. Andolin Eguzkitzak *Nere paradisuetan* (1979) laneko olerkiak «poema bakun, labur eta hizkuntza errazeko, halaz ere erritmo ikaragarri batez hornituak eta guztiz xarmant, gehienetan ere amorru izugarriaz idatziak» zirela idatzi zuen 1980. urtean *Anaitasunan* argitaratutako kritikan eta «liburu osoan zehar indarrez eta herraz» (Eguzkitza, 1980, 42. or.) ari zaigun ahots gisa definitu zuen Lasarena. Martin Ugaldek (1979) lan horri berari

egindako hitzaurrearen izenburuan ere «Emakumetasunaren garrasi bakarti» (5. or.) gisa deskribatu zuen poema bilduma, eta olerkietan tarteka agertzen den «amorrua eta gordintasuna» (6. or.) ere izan zituen aipagai.

Hala, esan dezakegu haserreak eta konformismorik ezak ere zeharkatzen duela Amaia Lasaren olerkigintza, bereziki emakumearen zapalkuntza bilakatzen denean gai poetiko. Desira ukatuez ari zaigun *Nere paradisuetan* (1979) bildumako ondorengo olerkiko ahots poetikoa ere ez da emakumea meneko nahi lukeen gizartearen marmarioaren aurrean isilduko:

Gizonik ez uki!	[...]	
-ez, ez dut ukituko		maitasuna isuririk
[...]		ahizpa eta biok
zurea ez den gizonik ez laztandu!		ohekide bihurtu ginen
-ez, ez dut laztanduko		
[...]		arratsalde euritsu batea [sic].
zurea ez den gizonaren ohekide ez izan!		(Lasa, 1979, 52. or.)
-ez, ez naiz izango		

Gizarte patriarkalak araututako harreman heterosexual itogarrien aurrean, lesbianismo feminista aldarrikatzen du subjektu lirikoak. Sexu praktika pribatutik haratago, proposamen politiko eta kolektibo gisa ulertuta, lesbianismo feministak sistema heteropatriarkalaren dekonstrukzioa bilatzen du. Hala, feminismoaren korrante teoriko-politiko honek heterosexualitatea erakunde zapaltzaile gisa arbuizatzea proposatzen du eta lesbianismoa, kokagune gisa, borondatez eta hautu kontziente gisa okupatzea, praktika kolektibo eta politiko gisa ulertuz.

Egindako irakurketak erakusten duenez, Amaia Lasaren olerkigintzak subjektu poetiko feminista kontziente bat dakarkigu; hala iradokitzen dute *Hitz nahastuak* (1977) laneko ondorengo bertso lerroek ere: «Historia dantzatzen ari gara / historia dantzatzera / behartzen gaitue» (55. or.). Historiaren dantza horretan da subjektu poetikoa, zapalketa horren berri badaki, eta ihardukitzaile ageri da egoera horren aurrean. *Nere paradisuetan* (1979) laneko olerki honetan ere historia eta dantza dakartza olerkira, eta ironia kutsuko hitzen bidez, berdintasunaz eta besterentzearen zailtasunaz mintzo zaio *zu* poetikoari:

TANGO BAT DANTZATZEKO	Berdintasuna ez da lozorroan
Zein zaila den historia aldatzea	lortzen
zu ni izatea	gaueko mozkorrean baizik
ni zu izatea	nik zu zaitut maiteago
ez goaz ezer aldatzera	zure ohea baino.
ez dago arrazoirik.	(Lasa, 1979, 60. or.)

Hortaz, esan dezakegu idazlearen bizi esperientziarekin elkarrizketan den poesia dela getariarrarena, eta horretan inguratzen duen gizartearen muga eta jazarpenen aurrean errebelatu egiten dela haren lanetako subjektu poetikoa. Bakartasunean topatzen dugu

maiz; alta, ez da mandatu hegemonikora makurtzen, *Hitz nahastuak* (1977) bildumako hitzotan irakurtzen dugunez: «Besterik ez bazen ere / ausardiaz betetako bizitza / egitera / abiatu nintzen» (1977, 39. or.).

Hortaz, Amaia Lasaren olerkigintzak subjektutasun feminista garatu zuen, kontzientea eta genero gatazka diskurtso poetikora ekarri zituen. Linda Whitek 1996. urtean egin zion elkarrizketa batean aitortu zuen Mugimendu Feministak eragin sakona izan duela bere idazkeran, pertsona gisa eraldatu duelako eta aldaketa horiek ezinbestean bere obran ere islatu direlako:

I always say that everyone has her own tendencies and her own conscience, and that is somehow reflected in her poetry. You don't begin by thinking, now I'll talk about feminism, or now I'll talk about I don't know what. No. You are a person and what you have inside you reflects in your work. The feminist movement has helped me as a person, by raising my consciousness about our marginalization. And that helps me (White, 1996, 274. or.).

Subjektu poetiko feminista garatzearekin bat, Lasaren olerkigintza bigarren olatuko feminismoaren eskutik AEBetan garatu zen poetika feministen ildoan irakur daitekeela agertuko dugu lan honetan. Horretarako, ondorengo atalean, aztergai ditugun *Poema bilduma* (1971), *Hitz nahastuak* (1977) eta *Nere paradisuetan* (1979) lanetan arakatu dugu eta poesia molde horren zantzuaren analisia egingo dugu.

3.2 Poetika feministen lehen harria euskal olerkigintzan

Euskal literaturako poetika feministaren abiarazlea izan zen Amaia Lasa; haren poemek jarri zuten mugimendu poetiko honen lehen harria gurean. Idazle getariarraren hastapeneko lanetan egikaritu zen euskal literaturan nazioartean bigarren olatu feministarekin batean garatzen hasi zen poetika feminista. Baieztapen hori aldeztuko dugu azterlan honetan.

1971., 1977. eta 1979. urteetan argitaratu ziren Lasaren *Poema bilduma*, *Hitz nahastuak* eta *Nere paradisuetan* lanak, Hego Euskal Herrian Mugimendu Feminista artean mamitzen ari zela. 1970eko hamarkada giltzarria izan, zen urte horietan indartu baitzen han Mugimendu Feminista, besteak beste, 1977. urtean egin ziren Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketek bultzatuta. Leioan egin ziren jardunaldi haietan parte hartu zuen Amaia Lasak, errotzen ari zen mugimenduan eragile aktibo zen erakusle, eta aipagarria da jardunaldietan jorratutakoaren emaitza izan zen aldizkarian getariarraren testurik ere argitaratu zela (ikus eranskinak: 1. eta 2. irudiak); «Gonak erori zaizkigu» (1977, 63. or.) eta «Ni ez naiz lore bat» (1979, 38. or.) poemak, hain zuzen ere. Azken hori, gainera, testu argitaragabea zen artean. Sinadurarik gabe argitaratu ziren bi olerkiak, aldizkariko gainerako testuak bezala, kolektibitatearen ideia indargarri.

Lasaren hastapeneko hiru lanon edukietan ere islatzen da idazlearen garaiko Mugimendu Feministarekiko harremana. Arestiko atalean ikusi berri dugunez, idazle getariarraren gai poetiko dira orduko Mugimendu Feministaren eztabaidagaiak

zirenak. Amodioaz bezala, sexuaz ere ari zaigu Lasaren laneko subjektu poetikoa, eta horretan gorputzaren ahotsa ere ekartzen du olerkietara ondorengoak bezalako adierazpenetan: «gorputza somatzen dut gogortzen» (1971, 18. or.), «aho batek bere gorputza laztandu zuen» (1971, 26. or.), «seksoa oihuka hasi zen» (1971, 27. or.), «Sekulan / goxatu ez dituzun / punta gorriko titi zuriak» (1971, 33. or.), «haren gorputza hurbil aurkitu nuen» (1971, 34. or.), «grina guztien asetasunean» (1971, 46. or.), «Ene gorputza / esnatu eginda berriro» (1979, 35. or.), «Punta zuriko diti gorriak / gogortu» (1979, 35. or.) eta «Grinak / ez dute ordezkariak» (1979, 54. or.). Emakumearen masturbazioa ere gai poetiko egin zuen (1971, 36. or.) eta abortua ere jorratu zuen (1971, 45. or.). Heteronormatibitatearen eta patriarkatuaren zapalkuntzaren aurrean lesbianismo politikoa aldarrikatu zuen orobat (1979, 52. or.), eta ahizparekiko maitasuna goratu horretan. Bide horretan, Lasaren poesia garaiko Euskal Herriko Mugimendu Feministan puri-purian ziren hainbat gogoetaren lekuko da. Idazleak zioskun «kontzientzia feminista hori hasierako lanetan beharbada ez [z]uela garatua» (Lasa, 2025, 89. or.); alabaina, egin dugun testuen irakurketak agertutakoa besterik da.

Poetika feministaren kontzeptualizazioaren arabera, poesiak eta teoria feministak elkar elikatzen dute eta, halatan, poeta ekintzaile feminista ere bada. Poesian islatutako bizipenak posizio teorikoa artikulatzeko oinarri enpirikoa dira, poesian gertatzen da esperientzia eta teoriaren gurutzaketa. Poetika feminista Mugimendu Feministaren baitako helburu, ardura eta diskurtsoekin elkarrizketan da, elkar elikatzen dute bata eta besteak: «feminist poets write out of a theorized poetics, [...] within the network of feminist dialogue in the ongoing women's movement» (Whitehead, 1996, xiv. or.). Milneri jarraikiz (2018, 11. or.), poesia teorizaziorako gune ere bilakatzen da poetika feministari lotu zaizkion idazleentzat. Autopo(e)(li)tika gisa definitu ditzakegun artefaktu hauek, hala, introspekzio ariketa gertatzen dira, bai eta kolektiboaren eraldaketarako ernamuin ere; Reedek (2005) dioenez, poesiagintza feminista teoriara eta ekintzara daraman prozesua da orobat: «Showing the experience of the self to be part of and in tension with the experience of the collective, the social group; [...] the poems become auto-theoretical works in which self-exploration, as in all good consciousness-raising, is the beginning, not the end, of a process leading to theory and action» (94. or.).

Amaia Lasa oinordetzan jasotako poesia eredu nagusitik aldendu zen, bai eta idazle garaikideak sortzen ari ziren moldetik ere. Bere lanek subjektu poetiko feminista ekarri zuten aurrenekoz euskal poesiara, eta horretan ukaezina da obra horien izaera berritzailea. Alta, Lasak (2025) aitortu zuen, haren ibilbide poetikoaren hastapenean, poesia sozialaren eredura egindako testuak sortzen zituela, erreferente zituen horien lanen imitazioz:

Poesia soziala edo deituriko horren ildoko olerkiak idatzi nituen orduan. Nik garai hartan sentitzen nuen poesia molde hori ederra zela, baina neuk idatzitako testuak ez zitzaizkidan batere gustatzen. Ohartu nintzen zerbait artifiziala zela nigan eta urte hartan idatzitako olerkiak biltzen zituen koadernoak puskatu nuen. Nire barruko gauzei begira idazten hasi nintzen orduan, pentsaturik maitasuna ere soziala dela eta

pertsonen arteko harreman afektiboek ere garrantzi osoa dutela. Hala egin nuen bat nire poetikarekin eta nire buruarekin (87. or.)⁴.

Hasiera hartan idatzitako testuak testuinguruak baldintzatuak izan ziren, hots, poesia sozialaren eta garaiko korrante filosofiko-politikoaren eraginpean idatzitakoak. Arrotzak zitzaizkion, baina, molde horretan sortzen zituen poemak, eta eredu poetiko horrekin hausteko beharra sentitu zuen. Gertaera hori adierazgarria da oso, eten hori gauzatzean lortu baitzuen bere «poetikarekin» eta bere «buruarekin» (Lasa, 2025, 87. or.) bat egitea; bereak ez ziren «lurralde hauetatik / ihes egin», bereak ez ziren «ur hauek / alde batera / utzi» (Lasa, 1971, 11. or.) eta berradiskidetu zen Lasa bere sor-kuntzarekin. «Nereak ez diren» (1971, 11. or.) poema fundazionalak biltzen duen ideia hori da, hain justu ere: poetaren «bizitzaren hitzari» (1971, 11. or.) leku egingo dion hizkuntza artistikoaren bilaketa. Javier Rojori (2009, 256. or.) jarraikiz, «hizkuntza berri bat asmatu behar du, poetika berri bat, idazleari tradizionalki heldu zaizkion ereduak ez baitira bere neurrikoak». Whiteheadek (1996) zionez, poetika feministen helburu nagusietarik bat izan zen emakumeen ahots ordura arte isilduak artikulatzeko gai izango zen kode literarioaren garapena: «feminists wanted a poetry in which they could name the experiences that societal and poetic taboos had previously kept them from expressing, in which they could make the hidden known» (xix. or.). Ideia horri lotu zitzaion Lasaren poetika ere.

«Pertsonala politikoa da» izan zen bigarren olatuko feminismoaren Emakumeen Askapenaren Aldeko Mugimenduen aldarri nagusia, eta aztergai izan dugun Lasaren olerkigintzaren muinean ere ideia hori bera topatu dugu; poesia sozialaren ulerkera zabaldu nahi duen ahots poetikoa, maitasuna, amatasuna, genero zapalkuntza eta bikote harremanak, bestek beste, gai osoro politikoak direla aldarrikatzen duena. Poesia soziala gure literaturan nagusi zen garaian, poetika feministaren abiarazle izan zen idazleak «maitasuna ere soziala» (Lasa, 2025, 87. or.) dela erakutsi nahi izan zuen, ordura arte intimoztat jotzen ziren gaiak, banakoari zetxezkiola uste zirenak, Arestiren gai poetikoak bezain sozialak zirela aldarrikatuz: «Azkenean, hori ere bazen poesia soziala, horiek ere orduko gizartearen kezka ziren, parte batenak baino ez izan arren, denonak behar zuketenak» (Lasa, 2025, 92. or.).

Amaia Lasaren testuetako subjektu poetikoarentzat hizkuntza ere gudu zelaia da. Hizkuntza bigarren olatuko feminismoaren idatzi teorikoen gogoetagai nagusietako bat izan zen, eta lengoaiaren bidez bermatzen den pentsamendu egitura zapaltzailearen salaketa. Pentsabide horrek ere eragina izan zuen poetika feministen garapenean, hizkuntza ekintza oro feminismoa den proiektu politikorako eraldaketa indarra zela ulertu baitzen. Bide horretan, Kristevaren (1974, 498. or.) arabera, hizkuntza poetikoak kontratu soziala berregiteko ahalmena zuen, eta ideia horri lotzen zaio Amaia

4 Ildo berean mintzo zen Lasa Emakume Poeten Nazioarteko VIII. bileran ere: «La poesía social era una de las temáticas dominantes de los años sesenta, aunque a mí me parecía interesante dicho tema, decidí no seguir por esos caminos y adentrarme en un tipo de poesía más intimista, pues consideraba que los sueños, deseos y anhelos de un ser humano tenían un interés social en la medida que la persona es parte integrante de una sociedad» (Lasa, 2006, 115. or.).

Lasaren olerki ezaguneko leloa: «a / e / i / o / u / berri bat esan nahi nuke» (Lasa, 1971, 11. or.). Subjektu poetikoak harenak ez diren lurretatik, ordena zapaltzaileak gobernatutik, ihes egin nahi duela dioenean, eta bere bizitzaren «hitza», subjektu menderatuarena dena, lortu nahi duela dioenean, hori ari baita eskatzen: bere errealitatea islatzeko gai izango den hizkuntza, kode poetiko berri bat. Egileak berak zioskunez, poema hori «aldarri bat da, gure kezkak, emakume izateagatik bizi ditugunak, azaltzeko beste hizkuntza baten aldarrikapena» (Lasa, 2025, 91. or.) da.

Poetika feministaren beste ezaugarri nagusietako bat hori da, hain zuzen ere, hizkuntza poetikoa formalismo tradizionaletik askatzeko nahia: «the desire to use more open poetic modes, to strip language and form of superfluous meaning and flourish, and to remove poetry from the realm of the elite which could twist it to suit its meanings and place it in the realm of the ‘common’ woman» (Whitehead, 1996, 27. or.). Lasaren hizkuntza poetikoa soila da forman eta idazkeran, zuzena eta ulerterraza. Lengoaia poetiko berri bat aldarrikatzearekin batera bera dugu hizkuntza berri horren sortzaile, poetika feministen muinean den ideiarekin arabera hizkuntza ekintza oro baita politikoa: «The fundamental tenet of feminist poetry, [...], is that all poetry, indeed *all* language, is political» (1996, 35. or.). Poetika feministari lotu zitzaion Adrienne Richek (1993, 54. or.) idatzi zuenez: «hitzak asmoak dira / hitzak mapak dira»⁵; eta Amaia Lasaren-tzat (1977) ere hitzetan datza «ihes egin» (21. or.) eta lurralde irrikatueta eramango duen bidea, «ezin ezinaren historia» (1977, 21. or.) agertuko duena. Beraz, «Nereak ez diren» poemarekin mugarri bat ezarri zuen Amaia Lasak: poetika feministaren lehen harria euskal literaturan. Testu hori, gainera, *Poema bildumako* (1971) aurreneko testua da. Hortaz, haren ibilbide poetikoaren zedarri gisa ere irakurtzen dugu olerkia; hor biltzen da Lasaren lanean beti-bateko izango den poesiaren zentzua.

Hizkuntza eta edukia ez eze, sorkuntza prozesuak eta argitaratze moldeak ere eraldatu nahi izan zituzten poetika feministen abiarazleak; haien hitzari entzungor egiten zien gizarte patriarkalean, aliantzan, elkarren babes eta sostenguan, oinarrituko zen kulturaren alde egin zuten. Lasaren kasuan, *Poema bilduma* (1971) eta *Nere paradisuetan* (1979) lanetan sorkuntza poetiko indibidualaren eredutik apur bat aldendu zela esan dezakegu. Azken bilduma horretarako Rosa Valverde artistari haren testuen lagungarri izango zen irudiak egiteko eskatu zion Lasak: «Nik eskatu nion Rosari poemategia ilustratzeko. [...] Gogoan dut garai hartan Rosaren erakusketa bat ikusi nuela eta orduan pentsatu nuela bilduma horretako testuak laguntzeko irudiak egiteko eska niezaiokeela. Hala egin nion proposamena. [...] Hala osatu genuen lana. Polita izan zen prozesua» (Lasa, 2025, 93. or.). Prozesu kolektiboa izan zen, hortaz, poemategi hura; *Poema bilduma* (1971) lanaren kasuan, nork bere olerkiak idatzi bazituen ere, bien testuak liburu berean bildu zituzten.

Bi lan horietan, hala, Amaia Lasa poetaren irudikapen tradizionaletik ere aldentzen da. Sorkuntza indibidualaren mugak gainditu zituen, hein batean, lan horietan. *Nere paradisuetan* (1979) lanaren kasuan, gainera, bi artisten lanak elkarriketan dira eta

5 Jatorrizkoa: «The words are purposes. The words are maps» (Rich, 1993, 54. or.).

prozesua batera osatu ez zuten arren, sorkuntza bien artean elkarrekikotasunik bada. Horregatik diogu Lasaren hastapeneko lan horietan egindako bidea gizartetik isolatutako poeta jainkotiarren iruditik aldentzen den sorkuntza moldearen bilaketatzat irakur daitekeela. Ideia horren indargarri, Lasak 1979. urtean Mariasun Landak egindako elkarrizketa batean zioena, *Nere paradisuetan* (1979) bilduma hizpide zuela: «Nik amets bat daukat... Egun batean, poema hoiek, Maite Zugadik dantzatzea... Nola? Ez dakit. Bidea jorratuz joan gintezke eta ea zer ateratzen den...» (Lasa, 1975, 38. or.). Poetika feministaren helburua irisgarritasuna denez, hizkuntza poetiko elitista arbuiatu zuten mugimendu poetiko honen baitako olerkariak eta sorkuntza literario eskuragarriagoaren alde egin zuten. Bide horretan, bigarren olatuko feminismoaren artikulazioan poesiaren idazketa, irakurketa, eta performanceek berebiziko garrantzia izan zuten. Horretan garatu zen poetika feminista, feminismoa den proiektu politikoari ekarpena egingo dion arte sorkuntza; olerkia bide, esperientzia pertsonala bidaia kolektiborako indar egiten duena. Lasaren adierazpenak bide hori jorratzeko nahia erakutsiko luke.

Poesia egin eta ulertzeko bestelako moldeen bilaketan, Lasaren belaunaldiko emakume idazleak ez zuten kasik erreferenterik izan, «gizonen mundua» (Lasa, 2025, 88. or.) baitzen hura. Horiek horrela, emakume haien bide urratzaile izan ziren artisten eta pentsalarien aitortza ere izan zuten helburu poetika feministen abiarazleak: «In an effort to establish themselves apart from the male-dominated tradition, [...] they looked for some confirmation of their vision, some clues that the formal and thematic directions they were taking shared a common history. This search for exemplars issued in explorations and tributes by individual women readers and poets» (Whitehead, 1996, 10. or.). Poetika feministak tradizio berritua sortu nahi du eta, bide horretan, genealogia feminista eraiki. Sortzaile horiek aitzindari izandako emakumeen lanak aitortu nahi izan zituzten, eta ordura arte gizonak nagusi ziren tradizioetik baztertuak izandako artistak ikusgarri egin, Voycek (2013, 182. or.) dioenez, «to confront and denaturalize the ostensible timelessness of a patriarchal past and present».

Bide horretan, eta komunitate feministaren eraikuntzan, Lasaren lanak ere genealogia feministaren balioa azpimarratzen du. Mari Sorgina (1971, 26. or.), Rosa Luxembourg (1977, 11.-13. or.), sorgina (1977, 18. or.), Anbotoko Damia (1977, 46. or.), Safo (1977, 46. or.), Sorgin Zuria (1977, 56.-61. or.) eta Isadora Duncan (1979, 11. or.) aipatzen dituenean, baita eskaintzetan aipatzen dituen izenak agertzean ere (Julia Alegria, Edurne Alegria, Mari Aristondo, Maite Zugadi, Lore Elustondo) emakume horiek ikusgarri egin eta balioan jartzen ditu ahots poetikoak; eta, areago, erreferente dira harentzat. Emakume horiek testuratzean, haien bizimodu eta pentsaerak eredugarri aurkeztzen ditu, egilearen beraren asmoari erantzunez: «guk gure gorputzak aldarrikatzen genituen, gure sexualitatea, gure maitatzeko moduak aldarrikatu nahi genituen. Gure erreferente zen orduan Simone de Beauvoir esaterako. Eta idatzitako horretan ere islatzen ziren ideia hauek, noski» (Lasa, 2025, 91. or.).

Horiekin batean, poetika feministaren xedeetako bat emakumeen eguneroko bizitzaren xehetasunak, esperientzia aurrez isildu eta ezkutatuak, agertzea zen: «feminists wanted a poetry in which they could name the experiences that societal and poetic

taboos had previously kept them from expressing, in which they could make the hidden known» (Whitehead, 1996, xix. or.). Isiltasunari ahotsa jarri eta argitara ekarri zituzten zapalkuntzaren esperientzia banako bezain unibertsalak zirenak. Lasak ere tradizio heteropatriarkalak baztertutako emakumeak agertzen ditu eta «paranoia», «histeria» eta «historia» (1977, 63. or.) aipagai dituen olerkian, besteak beste, izenik gabeko hamaika emakume horiei ere egiten die aitortza, historian zehar emakume historiko izendatu eta mespretxatu direnei, isilaraziak izan direnei.

Histerikotasuna luzaz lotu da eromenarekin, eta emakume sortzaile askok landu izan duten asoziazioa izan da hori; Literatur Kritika Feministan ere emankorra izan da emakume eroaren irudiaren azterketa, Sandra Gilberten eta Susana Gubarren *The Madwoman in the Attic* (1979) lanaren ardatz izan zena, besteak beste. Teorialarien artean ere, saio lan ugariren jomuga izan da, eta are batzuek aldarrikatu egin dute emakume eroa irudi iraultzaile gisa. Hélène Cixousek eta Claude Clémentekin batera osatutako *La jeune née* (1975) lanean, esaterako, honako baieztapena egin zuten bi egileek: «L'hystérique, à mes yeux, c'est la femme-type dans toute sa force [...] si la scène tourne et si la femme commence à parler autrement, serait une force capable de démolir ces structures-là» (284. or.). Lasaren laneko ahots poetikoak, ordea, arbuia egiten du histerikotasunaren gorazarrea eta feminitatea irrazionaltasunarekiko loturatik askatu nahi du. «Gonak erori zaizkigu» (1977, 63. or.) poeman, elkarren aurrean ezartzen ditu ondorengo izen pareak: gonak-galtzak, histeria-historia eta sabela-burua. Gona emakumearen jantzi adierazgarri gisa agertuko da, eta galtzak ezaugarri maskulinoen adierazle. Sabela, emozioen ordezkatzailerik; burua, berriz, arrazoiaren ikur. Histeria eta historia ere gertaera berberen aurki eta ifrentzu. Testuan dikotomia horiek gainditzera eramango duen trantsizioa proposatzen du subjektu poetikoak. Bikoiztasun hori nagusi zen garai iluna lehenaldia da; «argitzen ari da historia» (1977, 63. or.) diosku *ni* poetikoak, eta biko horien arteko muga zurrinak gainditzera eramango duen bidea egingo du. *Nere paradisuak* (1979) laneko ondorengo olerkiak ere dualismo hori du kritikagai: «BIHOTZA BURUA / gilborretik gora egonik / eta / gu / beti / burua sabelean sartuta izanik / ezin maitatu bihotzarekin / ezin amest [sic] egin buruarekin» (1979, 26. or.). Horrela, arrazoiaren eta emozioaren arteko harreman dikotomikoa deuseztatzea proposatzen du Lasaren laneko subjektu poetikoak. Poetika feministak poesia ezagutza sortzaile, teorizazio bide, eta afektu emozioen agerpide dela ulertzen du eta bide horretan hautsi egiten du emozioaren eta arrazoiaren arteko harreman dikotomikoa edo balizko muga. Poetika feminista esperientzia pertsonal eta gorpuztuetan oinarritzen da zapalkuntza sistema eta egiturak izendatzeko, lekukotza afektibo-emozionalek ere ezagutzaren sorkuntzarako duten baliagarritasuna aitortuz, emozio indibidualaren eta historia publikoaren arteko zubi lana bilakatzen da poesia, eta horretan Audre Lordek (2020) zionez, denik eta ideiarik erradikal edo iraultzaileenerako piztaile: «our feelings and the honest exploration of them become sanctuaries and spawning grounds for the most radical and daring of ideas» (17. or.). Lasaren laneko ahots poetikoak ere balioan jartzen ditu lekukotza afektibo-emozionalak eta afektu horiek historiaren ezagutzan, eraketan, eta berrirakurketan duten indarra zilegitu. Horretan bat egiten du Lasaren lanak feminismoaren helburu funtsezkoetako batekin: afektuaren ulerkera intimoa gainditu eta horien balio politikoa aitortzea.

3.3 Harrera eta kritika

Ikusi dugu Amaia Lasaren olerkigintza poetika feministen lehen harria dugula euskal literaturan, «fundazionala» Izagirrek (2001) esango zuenez:

Ezerk ez zion balio, artean egindakorik. Dena zeukan zerotik eraiki beharra. Zentzu horretan, Amaia Lasaren poesia fundazionala da, gerora garatu den emakumezkoen literatura baten aldarria, laudorio faltsu guztien dekoratua suntsitzeko behar zen aurreneko mailukada. Bera da gure literaturaren lehen emakumea, berak dakarrelako lehenengoz emakumea gure letretara (7. or.).

Alta, idazle getariarraren obrak ez du gurean bere merezien araberako aitortzarik jaso; urriak izan dira haren lanaren gaineko azterketa kritikoak, eta euskaraz orduan idatzi zuten beste emakume zenbaiten kasuan bezalatsu, antologia eta historia liburuetan apenas den haren liburuen gaineko aipamenik eta azterketa kritikorik.

1970eko eta 1980ko hamarkadetan ez zitzaion, oro har, Amaia Lasaren olerkigintzari ikuspegi horretatik begiratu eta egindako kritiketan⁶ idazlearen generoa⁷ eta gaztetasuna izan ziren nagusiki aipagai. Ezaugarri horien aitzakian obraren beste alderdi batzuk azpimarratu ziren eta esandakoaren erakusgarri dira garaiko iruzkintan poema bildumak deskribatzeko baliatu ziren terminoak: «bakun», «xarmant» eta «ximple» (Eguzkitza, 1980, 42. or.); «ausart», «garratz» eta «bortitz» (Altuna, 1971, 15. or.), besteak beste; eta horiekin batean adierazle dira txikigarritz lagunduriko «olerki xorta» (Altuna, 1971, 15. or.) eta «poemaño eder» (Eguzkitza, 1980, 42. or.) izenak ere. Garaiko kritikaren artean, azken hura –Andolin Eguzkitza– izan zen, beharbada, Lasaren olerkigintza bide urratzaile irakurri zuen kritikari bakana, adierazpen aski lausoan egin bazuen ere: «gauza berri bat da euskal literaturan [...] emakume batek emakumeen alde egin oihu bat delako, beste edozein tokitan baino botere gehiago ukan arren, eta kanpotik ibili den edonork soma zezakeen hori, ez delako falta gure artean arrismo edo eta matxismo horren aztarnarik» (Eguzkitza, 1980, 43. or.).

Euskal literaturaren historiografiak ere maiz utzi du Amaia Lasaren olerkigintza aipamenik gabe. Ikusezintasunaren erakusgarri, aipagarria da Jon Kortazarren *Literatura vasca: siglo XX* (1990) lana. Olerkigintza garaikideari eskainitako atalean, Kortazarrek *Poema liburua* (1971) bilduma du aipagai, baina egile bakarreko lana balitz bezala: «La profundización más clara sobre el devenir poético se debe a Mikel Lasa [...]. En 1971 publica su primer y por ahora único libro con el nombre de *Poema bilduma*» (1990, 158. or.). Olerki bildumaren gaineko iruzkin bat ere gehitu zuen literatur kritikariak lanaren xehetasun zenbait eskainiz, baina Amaiaren izena inon

6 Kritiken hemerotekara jotzen badugu bi hamarkada horietan Amaia Lasari egindako bi kritika baino ez ditugu topatuko: nebarekin batera argitara emandako *Poema bilduma* (1971) lanari egindakoa bata eta *Nere paradisuetan* (1979) bildumari egindakoa bestea. Ez da *Hitz nahastuak* (1977) poemategiari egindako kritikarik atari honetan jaso.

7 *Poema bilduman* (1971) Amaia Lasak idatzitako atalari Altunak egindako 155 hitzeko kritika laburrean, esaterako, 7 bider errepikatu zuen «emakume» hitza eta beste behin aipatu «metasuna».

aipatu gabe. Egia da gerora Mikel Lasak *Poema bilduma* (1984) izenburu bereko olerki bilduma argitaratu zuela, lehen argitalpen hartako bere testuak soilik biltzen zituen. Lan hura, baina, 1984. urtean plazaratu zuen eta Kortazarrek berak 1971. urtea aipatzen du iruzkinean. Gauza bera egin zuen Josu Landak ere *Gerraondoko poesiaren historia* (1983) lanean: *Poema bilduma* (1971) lanari erreferentzia egin bai, baina Amaia Lasa aipatu gabe. Jon Juaristik, *Literatura vasca* (1987) lanean, Mikel Lasa aipatzen du zeharka; ez, ordea, Amaia Lasaren obra. Ildo berean, Iñaki Aldekoaren *Zirkuluaren hutsmina: jatorrizko Erromantizismotik euskal poesia modernora* (1993) lanean ere ez zaio Amaia Lasaren lanari erreferentziarik egiten, nahiz baden Mikel Lasaren lanaren zehar aipamenik. Liburua ixten duen «Itsasoa eta basamortua: itsasoaren Ikonografia erromantikoa euskal poesiagintza» amaierako kapituluari Joseba Sarrionandiaren itsaso literarioak ditu hark aipagai eta Mikel Lasaren olerki-gintzaren oihartzunak ere batzen ditu elkarriketa horretara (Aldekoa, 1993, 147. or.); aipamenik ez, ordea, Amaia Lasaren poemei, «itsasoaren mari gora, maria beheran hartutako hitz» horiei.

Berrikiago argitaratu diren euskal literaturaren historiaren gaineko lanetara etorrira, Iñaki Aldekoaren *Euskal literaturaren historia* (2008) lanean, esaterako, «Mikel Lasaren poesiari» berriazko atalburua eskaini zitzaion; Amaia Lasaren olerki-gintza, ordea, «Beste izen batzuk» goiburua baita aipatua da, pasadan, haren iritzian Amaia Lasak ez baitu «anaiaren fintasun poetikoa» (Aldekoa, 2008, 268. or.). Adierazgarria da orobat Mikel Lasaren poema bilduma bakarra izandako lanaren berrargitalpen hautua: 1971. urteko testu berak, hurrenkera berean, argitaratu zituen 1984. urtean, Erein Argitaletxean, Amaia arrebarekin partekatutako liburuaren izenburua bere egi-nez baina azken honen testuak jaso gabe.

Bide horretan, idazleak berak ere salatu izan du haren literatur ibilbidean jasandako bazterkeria eta gutxiespena. 1977an argitaratu zen *Euskal idazleak gaur* lanaren harira ondorengo adierazi zuen: «Juan Mari Torrealdaik Arantxa Urretabizkaia eta biok aipatu gintuen lan horretan, idazle garaikide gisa. Gizonezko idazleak, berriz, argazki eta guzti atera zituen. Eta kexatu ginenean, burla egin ziguten. Betikoa da. Idazten utzi ez, eta idatzi dugunean gure literatura intimista dela esan izan dute, sinplea dela ere bai, gutxiesteko» (Lasa, 2022, 41. or.). Torrealdairen (1977) lan hartan, «La cultura literaria de la postguerra (1936-1975)» azpiatalean, hainbat euskal idazleren argazki eta biografia laburrak bildu ziren –denak ere gizonak–. Lasa eta Urretabizkaia izenak 25-35 urte bitarteko hazaldi berriaren zerrendan agertu ziren; Lasak salatu zuenez, belaunaldi berekoak ziren gizonen aldean –Anjel Lertxundi, Ibon Sarasola eta Ramon Saizarbitoria, besteak beste– bestelako informazio gehigarriak gabe.

Desoreka horren aurrean, Linda Whitek (1996) ere aldarrikatzen duenez, ezinbestekoa zaigu gure literatur kanona zalantzan jartzea eta literatura historiografia horien ifrentzua agertzea; honela salatu zuen Lasa neba-arreben lanen harreraren desoreka: «We should question the literary canon that consistently includes Mikel Lasa, who authored one book of poems twenty-five years ago, and consistently excludes his sister, Amaia Lasa, who has written five times as much and whose work includes poetry and fiction. In addition, Amaia is still writing» (White, 1996, 322.-323. or.).

Berrikiago egindako irakurketetan aintzatetsi da Amaia Lasaren obra, literaturara ekarritako «kontzientzia moderno poetikoa» (Sarasola, 2013a, 93. or.) eta genero gatazka objektu poetiko gisa garatzen aitzindaritza. *Poema bilduma* (1971) lanaren argitalpenaren 50. urteurrenaren harira omenaldia egin zitzaion Amaia Lasari Geta-rian, *Amaia Lasa Alegria, kaiuaren begaldia* izenburu izan zuten ekitaldi sortarekin. Ekimen haren harira *Pérgolan* argitaratutako zutabeen Amaia Lasaren olerkigintzaren aipatu alderdi horiek agertu zituen Jose Luis Padrónek eta *Poema bilduma* (1971) lana- ren izaera mugarria nabarmendu: «Funtsezko liburua da Amaia Lasaren ekarpenean zein euskal poesiaren bilakaeran. Izan ere, liburu horretan aldi berean jaio ziren Amaia Lasa bera euskal poeta modura; eta ia zerotik emakumezko baten ni poetikoa kon- plexurik gabe, tapakirik gabe, formalismoak alde batera utzita, orduko gizarte erabat maskulino eta erlijioso hartan» (Padrón, 2021, 2. or.).

Lasak berak ez zuen poema bilduma horiek argitaratu zirenean aitzindari izatearen sentipenik izan; egilearen beraren hitzetan: «Ez, ez nintzen kontziente. [...] Orduan ez nintzen konturatzen, ezta gutxiago ere. Nahiko lan neukan onartua izatearekin. Lite- ratura gizonen mundua izan zen ordura arte Euskal Herrian behintzat» (Mutiozabal, 2021, 3. or.). Aitortza gerora etorri den zerbait izan dela dio, Kritika Feminista euskal literaturan arakatzen hastean: «Hori gerora etorri den zerbait izan da, kritikari femi- nistak lanean hasterakoan. Orduan ez zen horrela ikusten, ez zitzaion baliorik ematen zentzu horretan. Gerora hasi da nire poesia begirada horretatik aintzatesten, gure lite- raturaren berrirakurketak egiten hasi garenean» (Lasa, 2025, 92. or.).

Finean, Amaia Lasaren hastapeneko olerkigintzaren azterketak berretsi egiten du atzera Literatur Kritika Feministaren egitekoa, hala orainaldiko nola iraganeko sor- kuntzen gaineko harrera eta irakurketara itzultzekoa, bai eta berrirakurketen premia ere.

4 ONDORIOAK

Amaia Lasaren olerkigintzak zabaldu zuen euskal literaturan poetika feministen bidea. Aztergai izan ditugun *Poema bilduma* (1971), *Hitz nahastuak* (1977) eta *Nire paradisuetan* (1979) olerki bildumetako ahots poetikoa dugu euskal literaturako lehen subjektu poetiko feminista, genero gatazka eta kontzientzia feminista diskurtso poetikoan artikulatzen aurrena. Amaia Lasaren poetika fundazionala da horretan. Bigarren olatuko feminismoarekin batera garatu zen poetika feministarekin batera- garriak diren hainbat ezaugarri ere identifikatu ditugu getariarraren hastapeneko lanotan: zapalkuntza eta botere harremanak gai poetiko egin zituen, eta hizkuntza lirikoari eraldaketa ahala aitortu zion «a, e, i, o, u berri» baten deia egitean; isilta- suna izendatu zuen, zapalkuntzaren esperientziari ahotsa emanez eta horretarako testuartekotasuna eta genealogia feminista baliatuz. Dimentsio publikoan uztartu zituen pertsonala eta kolektiboa, arrazoiaren eta emozioaren arteko harreman diko- tomikoa arbuia zuen eta teoria feministarekiko elkarrizketan zen poesia ekarri zuen; aldarrikatu egin zuen intimitatearen izaera soziala, maitasuna ere soziala dela erakutsiz.

Lasaren lana berritzailea izan zen, apurtzailea, ez bakarrik modernitate poetikoaren eredua besarkatu zuelako, baizik eta horretan poetika feminista ere garatu zuelako. Haren olerki bateko irudia baliatuz, Lasaren sorkuntza literarioarekin *emakume bat aldapa igotzen hasi zen, bakarrik*. Eta ez zen malda makala, idazleak berak berriki Jakinen argitaratu den elkarrizketa batean aitortu zuenez:

Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakume bat naiz ni idazti nuen, bai, denak otoitzean zebiltzanean. Idazle izatea, nik erabili nituenak bezalako hitzak erabiltzea, barrutik ateratakoak izanik ere, eta zenbait jarrera publikoki erakustea, ondo ordainaraziak izan dira. Nire poema haiek argitaratutakoan pasatu nituenak ikusita, fundazionala ez dakit, baina aurrenetakoa izan nintzela esatea ez da harrokeria izango (Lasa, 2022, 38. or.).

Lasaren ibilbide poetikoak jarraipena izan du, gainera, eta oraindik ere jardunean den idazlea da. Azterketa honek haren hastapeneko lanen inguruko irakurketa proposamena egin du, artean egin diren azterlan kritikoekin elkarrizketan. Alabaina, Lasaren literatur sorkuntzak, ordukoak eta etorri zenak, baditu artean ere aztertzeokoak diren hamaika ertz.

5 ERREFERENTZIAK

- Aldekoa, I. (1991). Tradizioa eta modernitatea: kontzientzia poetikoaren garapena XIX eta XX. mendeetako euskal literaturan. *ASJU*, 2, 5-23. <https://doi.org/10.1387/asju.9283>
- Aldekoa, I. (1993). *Zirkuluaren hutsmina: jatorrizko Erromantizismotik euskal poesia modernora*. Alberdania.
- Aldekoa, I. (2008). *Euskal literaturaren historia*. Erein.
- Aldekoa, I. (2010). Euskal poesia modernoa (Arestiren eta Potten oinordekoak). *Egan*, 63(1-2), 49-61.
- Altuna, L. (1971). Poema bilduma. *Zeruko Argia*, 429, 15.
- Apalategi, U. (2015). Noiz hasten da modernitatea euskal literaturan? Galdera zahar baten aktualitatea. In B. Fernandez & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre: Homenatje, Homenaje* (77.-93. or.). EHU.
- Aresti, G. (1964). *Harri eta herri*. Itxaropena.
- Arteatx, I. (2007). Amaia Lasa: soy una mujer. In J. Sabadell-Nieto (koord.), *Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y vasco: estructuras poéticas, pautas críticas* (493.-501. or.). Peter Lang.
- Atxaga, B. (1983). *Etiopia*. Erein. (Jatorrizko obra 1978an argitaratua)
- Borda, I. (2021, apirilak 21). Euskal literatura, sexualitatea eta feminismoa [Bideoa]. *Gasteizko Jabetze Feministarako Eskola*. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=hOVyNvlb0gg>
- Carruthers, M. (1979). Imagining women: notes towards a feminist poetic. *The Massachusetts Review*, 20(2), 281-307.
- Cixous, H. & Catherine, C. (1975). *La jeune née*. Union Générale d'Éditions.
- Clausen, J. (1982). *A movement of poets: thoughts on poetry and feminism*. Long Haul Press.

- Clausen, J. (1989). *Books and life*. Ohio State University Press.
- Eguzkitza, A. (1980). Amaia Lasaren paradisetan. *Anaitasuna*, 400, 42-43.
- Frost, E. (2003). *The feminist avant-garde in American poetry*. University of Iowa Press. <https://doi.org/10.2307/j.ctt20q209v>
- Gilbert, S.M. & Gubar, S. (2000). *The madwoman in the attic: the woman writer and the nineteenth-century literary imagination*. Yale University Press. (Jatorrizko obra 1979an argitaratua)
- Izagirre, K. (2001). Sarrera. In A. Lasa, *Amaia Lasa: poesia kaiera* (3.-4. or.). Susa.
- Juaristi, J. (1987). *Literatura vasca*. Taurus.
- Juhász, S. (1979). Transformations in feminist poetry. *Frontiers: a journal of women studies*, 4(1), 23-30. <https://doi.org/10.2307/3346663>
- Kinnahan, L.A. (2004). *Lyric interventions: feminism, experimental poetry, and contemporary discourse*. University of Iowa Press. <https://doi.org/10.1353/book8864>
- Kortazar, J. (1990). *Literatura vasca: siglo XX*. Etor.
- Kortazar, J. (2009). *Eguno euskal poesiaren historia*. EHU.
- Kristeva, J. (1974). *La révolution du langage poétique*. Éditions du Seuil.
- Landa, J. (1983). *Gerraondoko poesiaren historia*. Erein.
- Lasa, A. (1971). Itsasoaren maria gora marie beheran hartu nituen hitzak. In A. Lasa & M. Lasa, *Poema bilduma* (9.-52. or.). Herri Gogoa.
- Lasa, A. (1977). *Hitz nahastuak*. Leopoldo Zugaza.
- Lasa, A. (1979). *Nere paradisetan*. Ediciones Vascas.
- Lasa, A. (1979). Amaia Lesarekin (sic) mintzo [Elkarrizketatzailea: Mariasun Landa]. *Anaitasuna*, 393-394, 38.
- Lasa, A. (2006). Amaia Lasa: reflexiones íntimas. In A. Serna (ed.), *Actas del VIII Encuentro de mujeres poetas: diversidad de voces y formas* (115.-116. or.). Arabako Foru Aldundia.
- Lasa, A. (2022). Historia bizia. Amaia Lasa alegriari elkarrizketa [Elkarrizketatzailea: Amagoia Gurrutxaga Uranga]. *Jakin*, 250, 9-51.
- Lasa, A. (2025 [2022]). Poesia niretzako lagun mina da, bidaidea. In A. Arrastoa (arg.), *Poetika feministak Afektuaren Ikasketen argitan. Euskal poesia garaikidearen irakurketa proposamen bat (1971-2020)* (I. eranskina: 86.-95. or.). [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. EHU.
- Lorde, A. (2020). Poetry is not a luxury. In R. Gay (arg.), *The selected works of Audre Lorde* (16.-19. or.). W.W. Norton & Company. (Jatorrizko obra 1985ean argitaratua)
- Maraña, F. & Padrón, J.L. (2000). Etorkizun-sena eta iradokizuna Amaia Lasaren poesiagan. In A. Lasa, *Geroaren aurpegia: el rostro del futuro (1967-1997)* (11.-37. or.). EHU.
- Mejuto, M. (2022, martxoak 10). Donación de obra en papel de Rosa Valverde a San Telmo. *San Telmo Museoa*. https://www.santelmomuseoa.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=13164&Itemid=30&lang=es&idn=107976
- MHLI. (d.g). *Zentsura-fitxen datu basea*. <https://mhli.net/zentsura-fitxak/>
- Milne, H. (2018). *Poetry matters*. University of Iowa Press. <https://doi.org/10.2307/j.ctvvnf7k>

- Miner, K. (2014). Emakume gorputzak eta gorputz emakumetuak: Leire Bilbao eta Miren Agur Meaberen gorputz poetikoen arteko elkarrizketa bat. In A. Álvarez-Uria & G. Lasarte (koord.), *Gorputza eta generoa: teoria, didaktika eta esperientziak* (51.-63. or.). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Mujika, L.M. (1986). Euskal lirika modernoaren urratsak. *RIEV*, 31(3), 909-920.
- Mutiozabal, A. (2021). Amaia Lasa: beti askatasunaren atzetik doan bizitza izan da nirea. *Urola Kostako Hitza*, 5.004, 3.
- Otaegi, L. (2013). Distopia eta paradisua Euskal Hirian: Bernardo Atxagaren *Etiopia* makrotestuaren irakurketa semiotikorako hausnarketa kritikoak. *Lapur-dum*, 17, 109-173. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2425>
- Padrón, J.L. (2021). Neska da okerrena! *Pérgola*, 330, 2.
- Reed, T.V. (2005). *The art of protest: culture and activism from the Civil Rights Movement to the streets of Seattle*. University of Minnesota Press.
- Rich, A. (1993). Diving into the wreck. In B. Gelpi & A. Gelpi (arg.), *Adrienne Rich's poetry and prose* (53.-54. or.). Norton. (Jatorrizko obra 1972an argitaratua)
- Rich, A. (1995). *Blood, bread, and poetry: selected prose 1979-1985*. W.W. Norton & Company. (Jatorrizko obra 1986an argitaratua)
- Rojo, J. (2009). Geroaren aurpegia (2000). Amaia Lasa Alegria. In J. Kortazar (zuz.), *Egungo euskal poesiaren historia* (255.-262. or.). EHU.
- Sarasola, B. (2013a). *Harri eta Herri eta Etiopia* artean: modernitatea euskal poesian. 452°F: *Revista de Teoría de la Literatura y Literatura Comparada*, 9, 78-94.
- Sarasola, B. (2013b, azaroak 23). Mikel eta Amaia Lasaren *Poema bildumaren* iruzkina. *Sautrela* [Bideoa]. <https://www.eitb.eus/eu/bideoak/osoak/1774336/bideoa-mikel-eta-amaia-lasaren-poema-bilduma--benat-sarasola/>
- Torrealdai, J.M. (1977). *Euskal idazleak gaur*. Jakin.
- Ugalde, M. (1979). Ematasunaren garrasi bakartia. In A. Lasa, *Nere paradisuetan* (5.-8. or.). Ediciones Vascas.
- Voyce, S. (2013). *Poetic community. avant-garde activism and Cold War culture*. University of Toronto Press.
- White, L. (1996). *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque women writers of the twentieth century* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. University of Nevada.
- Whitehead, K. (1996). *The Feminist Poetry Movement*. University Press of Mississippi.
- Wolosky, S. (2011). Relational aesthetics and feminist poetics. *New Literary History*, 41(3), 571-592. <https://doi.org/10.1353/nlh.2010.a408299>
- Zarate, M. (1978). *Euskal literatura II*. Leopoldo Zugaza.

6 ERANSKINAK

-19-



Gonak erori zaiakigu
eta galtzak jantzi ezinik gabiltza


Lehen zen histeria
izan zen misterioa
ez dugu berri paranoia
argitzen ari da historia.

Begiak zabaldu nituenean
ez nekien
zure begiak ala zerua
zen.
Urdina zen,
zure begien kolorea.
Zerua,
zure begien urdina zen.

Lasaitu da histeria
larritu historia.
Sabela eta Burua
batera
beti betirako hustuak

Gonak erori zaizkigu
galtzak jantzi ezinik gabiltza,
galtzak ote gure jantzi bakarra?

Ez da argitu misterioa.



1. irudia. Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketetako aldizkarian agertu zen Amaia Lasaren «Gonak erori zaizkigu» poema.

•22•

- ¿Por qué la violencia física no está nunca castigada?
¿Por qué la violencia física es casi imposible de probar?
¿Por qué se le manda siempre, a la mujer violada, a la Ley?
La violencia física no es más que el paso al acto de una realidad ideológica cotidiana.

oo

NI EZ NAIZ LORE BAT
EZ NAIZ LOREA BEZALA ZABALTZEN
Aldagai sozialetatik hizkuntza-aldagai askeetara igarota, numeroari dagokionez, pluralean singularrean baino askoz hobeki eutsi zaie **edun* aditzeko formei. Aldeak handiak dira, bai batez besteko gordinei, bai batez besteko estimazioei dagokienez. Lehenbizikoak bigarrenak baino altuxeagoak dira. Bi taldeak elkarrengandik ongi bereizita daude. Dena den, kontuan izan beharra dago pluralean askoz adibide gutxiago bildu dugula, eta, hori dela eta, besteak beste, talde horrek probabilitate-espazio zabala hartzen duela. Kasu honetan aldaketa morfologikoa (*eduki*) maiztasun handiko eta konplexutasun morfologiko txikiko formetan hedatu da lehenik.

4.6.6 Denboraren arabera




23. irudia. **Edun* (*dut*) erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak denboraren arabera.

Orainaldiaren batez bestekoa %21,88koa da [% 6,39, % 53,45] eta lehenaldiarena, berriz, % 24,25koa [% 4,1, % 70,56].

Denboraren arabera oso alde txikia dago hizkuntza-aldagai honi dagokionez, bai batez besteko gordinen artean, bai batez besteko estimazioen artean ere. Dena dela, *eduki* gehiago zabaldu da iraganaldian. Kontuan hartu beharrekoa da, zernahi gisaz, orainaldian iraganaldian baino adibide kopuru handiagoa bildu ahal izan dela. Hori dela eta, iraganaldiak probabilitate-espazio zabalagoa hartzen du.

4.6.7 Ergatiboko pertsonaren arabera



24. irudia. *Edun (dut) erabiltzearen batez besteko gordinak eta hiztun bakoitzaren batez bestekoak ergatiboko pertsonaren arabera.

Adibide kopururik handiena ergatiboa lehen pertsona eta hirugarren pertsona singularra denean bildu da. Hirugarren pertsona plurala denean, ordea, adibide bana baino ez dugu aldaera bakoitzeko. Hori dela eta, datuak tentuz hartu beharra dago. Oro har, aldeak ez dira oso handiak, baina badirudi zenbat eta adibide kopuru handiagoa izan ergatiboko pertsonan, *edukiren* presentzia ere handiagoa dela; maiztasunak badu eraginik, beraz.

5 ONDORIOAK

Lanaren atal honetan, lehenik eta behin, ikerketaren hasieran planteatutako hipotesiak berresten diren ala ez ikusiko dugu.

Lehenik eta behin, esan beharra dago *interceptaren* eta aldaera aske sozialen arteko aldeak, oro har, ez direla estatistikoki esanguratsuak izan, eta aurreikusleen efektuei dagokienez ere, ez dugu ikusi desberdintasun nabarmenik. Gainera, talde zenbaiten konfiantza-tarte zabalek datu kopurua txikia dela iradokitzen dute. Hori dela eta, komenigarria litzateke hiztun gehiagorekin, eta, beraz, datu gehiagorekin ikerketa osatzea zehatzago ikusi ahal izateko ia aldagai sozial aske horiek hizkuntza-aldakortasuna baldintzatzen duten eta ia alde esanguratsurik ez izatea datu faltaren ondorio den. Horixe bera dela eta, ondorioen atal hauetan dakartzagun gogoetak joeratzat baino ez litezke har, ez baieztapen sendo eta irmotzat.

Generoaren arabera, alde nabarmenik ez dagoela esan daiteke, izan ere, neskek zein mutilek maila beretsuan erabili dute aldagai bat ala bestea. Desberdintasun nabarmenenak honako ezaugarri hauetan aurkitu dira: **edun* vs *eduki* aditzen gainean eraikitako aditzetan, *izan*-en absolutiboko 3. pertsona singularrean eta **edun* aditzeko *-e-* vs *-u-* erroetan. Lehenbizikoan eta hirugarrenean neskak gordetzaileagoak dira (nahiz eta hirugarrenean batez besteko gordinei erreparatuz berritzaileago diren), eta, bigarreanean, berritzaileak. Datu horiek islatzen dute ez dagoela homogeneousutasunik generoen arabera. Ondorioz, esan daiteke Irungo gazteen artean generoa ez dela aldagai esanguratsua Irungo gazteengan dagoen erdialdeko euskararen eragina azaltzeko.

Euskararen transmisioari dagokionez, esan liteke hipotesia neurri batean baieztatu dela, nahiz eta konfiantza-tarteak kasurik gehienetan handiak diren, eta ateratako ondorioak ere tentuz hartu beharra dagoen. Esaterako, *dut* erako formak (Irungo euskarakoak eta euskara batukoak) gehiago agertu dira euskararen transmisioa etxetik jaso duten hiztunen artean. Aldiz, *det* bezalako formak euskaraz hitz egiten eskolan ikasi dutenen artean erabili dira gehien. **Edun* aldaerari euskara etxean ikasiek eutsi diote hobekien, era berean. *Deus* vs *ezer*-en ez da analisi estatistikorik egin, baina batez besteko orokorrekin joera bera erakusten dute. *Zera* eta *gera*ren kasuan, batez besteko gordinei dagokienez, etxean ikasiek egin dute *-e-*ren alde, baina aurreikusleen estimazioei dagokienez, hipotesietan zehaztu bezala, baliteke eskolan ikasiak izatea aldaketaren buru. Dena den, aldeak txikiak dira eta konfiantza-tarteak handiak; beraz, joeraz baizik ez gaitezke mintza. Alabaina, erdialdeko euskarako *dan* eta *zan* gehiago erabili dituzte etxean ikasiek, baina kasu horretan ere, eskolan ikasiekiko aldea ez da handia.

Ikastetxeari erreparatuz, Txingudi Ikastolakoak Irungo euskara «tradizionalari» gehiago lotzea espero zen, euskarak eskola horretan duen pisu nabariagoa dela eta. Hala izan da jabegoa adierazteko **edun* aditzari dagokionez. Joera bera erakutsi dute *deus*-ek eta *-u-* aldaera duten **edun* aditzeko formei ere. *Den* eta *zen* erako formetan Irungo euskara «tradizionalari», eta, beraz, euskara batuari lotuta agertu dira, baina La Salle eskolakoekin batera. Haatik, kontrako joera erakutsi dute *izan* aditzaren *-e-* aldaeran, hots, erdialdetik heldu diren *zera* eta *gera* aldeztu dituzte, nahiz eta aurreikusleen efektuetan batez besteko gordinetan baino alde askoz txikiagoa egon.

La Sallen ikasitako ikasleen artean erdialdeko euskararen eragin handiagoa izatea espero zen. Jasotako datuetan, oro har, joera horren aldeko zantzuak ageri dira: La Salleko ikasleen artean *det* eta *ezer* bezalako formek presentzia handiagoa dute. Lehen kasuan ez, baina bigarreanean Sainte Marierekiko aldea txikia da. *Eduki*-ren gainean eraikitako formetan, Sainte Mariekoak izan dira berritzaileen, baina La Sallekoak ez dira horiengandik urrun ibili. Alabaina, *izan* aditzaren absolutiboko 3. pertsona singularrean La Sallekoek eutsi diete ongien *den* eta *zen* formei, baina beste bi ikastetxeekiko aldea oso txikia da.

Aipagarria da Donibane Lohizuneko Sainte Marie ikastetxeko ikasleen kasua, izan ere, testuinguru soziolinguistikoko oso ezberdina bizi izan dute Irunen ikasitakoekin alderatuta: frantsesa da hizkuntza nagusia eta euskarak presentzia txikia du. Gainera, Iparraldeko batuak edota nafar-lapurterak presentzia handiagoa dute han. Hori

dela eta, baliteke Irunen ikasitakoengandik hizkuntza-joera desberdinak izatea. Bertako gazteek bi patroi erakutsi dituzte: *zaralgara* edota *deus* bezalako formak gehien erabili dituzte, baina beste batzuetan, aldiz, erdialdeko euskaratik datozen formak gehien erabili dituzte (*dan* eta *zan* edota *edukiren* gainean eraikitako formak). Zaila da nafar-lapurteraren edota iparraldeko batuaren eragina baieztatzea; izan ere, *zaralgara*-ri dagokienez, Iparraldeko batuan azkenaldian ekialdeko *zira* eta *gira* (EHHako 1276. eta 1277. mapak) nagusitzen ari direlakoan gaude, eta oso hiztun gazte gutxi eusten diete lapurterako *zeri* eta *geri* (<*zarelgare*> edota *zari* eta *gari* (<*zarelgare*? edo *zaralgara*?); beraz, ez dugu uste euskal barietate horiek *-a*-dun formei eusten lagundu dutenik. *Deusen* kasuan, berriz, datu gutxiegi eta beste ikas-tetxeekiko alde txikiegia dago hori frogatzeko. Bestalde, baliteke Gipuzkoako edo Hegoaldeko izaera azpimarratzeko ahalegina egotea erdialdeko formen alde egitearen atzean; hau da, Irun Hegoaldean eta Gipuzkoan dagoenez, baliteke *dan* eta *zan*, eta *eduki*-ren gainean eraikitako formak, Gipuzkoako euskararen ezaugarri adierazgarri edo *salientak* izatea, eta horiek erabiltzen saiatzea. Aldeak, ordea, txikiak dira ondorio sendoak atera ahal izateko. Garaziri dagokionez ere, Erdialdeko euskarako hainbat aldaera Luzaidera heldu zirela ikusi zen, besteak beste, *nun* eta *zenun* erako aditzak (Artzelus, 2020b, 2021). Gainera, mugatik iparraldeko garaztarrek Luzaideko gazte baten solasa Hegoaldekotzat hautematen zuten, hein batean, eta zenbaitek irriz hartzen zuten (Artzelus, 2021, 2022b). Horrek frogatzen du badela «Hegoaldeko euskara» bat mugatik iparraldekoen gogoetan, eta badituzkeela *salient* edo adierazgarri diren ezaugarri zenbait; horien inguruko azterketa zehatzak falta zaizkigu, hala ere.

Azkenik, hizkuntza-aldagai askeei dagokienez, ikusi dugu ergatiboko lehen pertsona singularrak aldeztu duela *-e*- erroa gehienik **edun* aditzaren formetan, bigarren pertsona singularrekin eta lehen pertsona pluralarekin konparatuz. Jabegoa adierazteko **edun* eta *eduki* aditzen kasuan, berriz, ergatiboko hirugarren pertsona singularrak aldeztu du erdialdeko euskararen *eduki* aldaera. Denborari dagokionez, *interceptaren* eta lehenaldiaren arteko aldea *izan*-en absolutiboko 3. pertsona singularrean *-e*- edo *-a*- erabiltzean izan da estatistikoki esanguratsu; hain zuzen ere, lehenaldian erabili da erdialdeko *-a*- aldaera gehien. Azkenik, numeroa jabegoa adierazteko aditzetan baino ez da aztertu eta *interceptaren* eta pluralaren arteko aldea esanguratsua izan da estatistikoki: singularrean erabili da *eduki* gehien. Ez liteke, beraz, konplexutasun morfologikoaren edota maiztasunaren arabera ondorio sendorik atera.

Erdialdeko euskararen presentziarik nabarmenena lexikoan dagoela ondoriozta dezakegu, baita *eduki* aditzaren formetan ere. Dena den, etorkizunera begira, interesgarria litzateke aurreko belaunaldiekiko konparaketa egitea, ikusteko ia gazteen belaunaldian sartu diren berrikuntza horiek indartsu edota adintsuenen artean ere jada ohikoak ziren. *Izan* aditzari dagokionez, neurri beretsuan erabili dituzte informatzaileek *-e*- eta *-a*- erroak. Kasu horretan badakigu Sagarzazuri (2005, 74. or.) esker, *-e*-dunak ere adintsuen ahotan maiz erabiltzen direla, baina gazteek oraindik ere *-a*-dunak franko erabiltzen dituzte; beharbada euskara batuak horretan izan duke zerikusirik. *izan*-en absolutiboko 3. pertsona singularrean eta **edun* aditzetan erdialdeko euskarak ez du hain presentzia handirik izan: % 50 baino gutxiagotan erabili dituzte erdialdetik hedatzen ari diren formak; beraz, eragina ez da oso handia izan.

Nahiz eta badakigun hizkuntza-ideologiengatik inguruan ikertzeko metodologia zorrotza goa erabili beharko genukeela, elkarrizketa erdi-gidatuaren bukaeran aztergai ditugun hizkuntza-ezaugarriak buruzko galderak egin dizkiegu hiztunei jakiteko ia horien inguruko iritzirik baduten edota konnotazio jakin batzuk atxikitzen dizkieten⁵. Askotan, Irungo gazteek hizkera informala «Gipuzkoako» euskararekin edo Irundik mendebaldeko Gipuzkoako gazteek erabiltzen dituzten hizkuntza-ezaugarriekin lotzen dutela koan gaude, eta horrek eragina izan dezake erdialdeko euskara zabaltzearekin Irunen. Adibidez, elkarrizketatutako neska batek (La Sallen ikasitakoak eta euskara eskolan ikasitakoak) aitortu du Donostiara joan zela ikastera, eta han hasi zela lehen aldiz lagunartean euskaraz hitz egiten. Bere esanetan, unibertsitatean egindako lagunak bere euskara aberasteko aukera eman zioten, erregistro informalean hitz egiteko gaitasuna eskuratu baitzuen. Prozesu horrekin batera hainbat hizkuntza-ezaugarri bereganatu zituela esan du, hala nola, *det*:

Nere bueno nik unibertsitaterea iritxi baino len ba euskara batua itz egite nuen batu-batua bai bai bai eta nik uste ba ori Gipuzkoako erri txikiko jendearekin egon eta gero ba nere euskera aldatu in dala [...] ba bitu ni leno *dut* ta ola erabiltzen nitun baina orain bai itzak pixkat motzagoak biurtzen ditut baino nik uste ori izan dala ba ori jendeareki bueno unibertsitateko jendearekin egon eta gero.

Sainte Marien ikasi eta euskara eskolan ikasi duen mutil batek, berriz, adierazi du Hegoaldeko hiztunekin aritzeko bere hizkera egokitzeko beharra sentitu zuela, eta horregatik bere ustez Hegoaldekoak diren hizkuntza ezaugarriak erabiltzen hasi zela:

Gainera asi nintzen Iparraldeko jendiakin ta Iparraldeko bueno euskalkia ez baino azentoarekin *erreak* egiten nituen *e[ʎ]e* ta ola ta neretzat zen normala zen azkenian frantsesa asi nintzen ikasten ta euskera baita biak gutxi gorabera azentu berarekin itz egiten ziren ta era como normala azkenian joe ta beti gogoratuko naiz leen aldia Egoaldeko norbaitekin itz egin nula euskeraz ta izan zen uste et *como el mas txok* izan zen udaleku batzutan iritxi nintzen nire euskerarekin ta: *kaixo ni oie[ʎ] naiz zo[ʎ]tzi u[ʎ]te ditut*. Jende guztia asi zen nitaz farre egiten izan zen *como ze?* ta ba asi nintzen ba ya or konturatu nintzen ya ba igual nire euskera etzan normala *entre comillas* ta asi nintzen hori aldatzen saiatzen nintzen *erreak* egiten ta ez *e[ʎ]eak*.

Dena den, esan beharra dago, beste kasu batzuetan hiztunek aitortu dutela ez direla kontziente erabiltzen dituzten hizkuntza-ezaugarriez eta ez dietela konnotazio jakinik atxikitzen.

Datuek iradokitzen dute hiztunak sozializatu diren inguruak beren hizkera baldintzatzen dukeela, besteak beste, ikastetxearen eta transmisioaren araberrako aldeek, nahiz eta txikiak diren. Beste etsenplu bat Sainte Marien ikasitako eta euskara etxean ikasitako mutil batek erabilitako *ukan det* dugu. Argi dago *ukan* aditza erabiltzea

⁵ Bukaeran galdetzearen arrazoia izan da hizkuntza-ezaugarriak buruzko galdera horiek beren jardun espontaneoan eraginik ez izatea; hots, hiztunek beren solasa ez monitorizatzea.

Iparraldean ikasi izanari zor zaiola, baina, bestalde, erdialdeko euskararen ezaugarri bereizgarri den *det* ere erabili du. Hori zalantzarik gabe, sozializazio-sare konplexu baten adierazgarri da; hain zuzen ere, ikasketak egin dituen Donibane Lohizuneko nafar-lapurterak edo Iparraldeko batuak badu eraginik, baina baita Irundik mendebaldera dagoen Gipuzkoak ere.

Bukatzeko, lan honen mugak eta etorkizuneko ikerbide posibleak zehaztu nahiko genituzke. Komeni da, alde batetik, aldagai aske guztien konbinazio bakoitzeko hitzun gehiago elkarriketatzea, emaitzak fidagarriagoak izan daitezen. Oso interesgarria da, bestalde, beste belaunaldi batzuetako hitzunak ere kontuan hartzea, hizkuntza-ezaugarri hauen bilakaeraren berri zehatzagoa izan dezagun. Hizkuntza-ideologien ildotik ere, interesgarria litzateke *matched guise* erako probak egitea hitzunek inkontzientean dituzten erdialdeko euskararen inguruko usteak zein diren jakiteko. Dena den, balio beza iker-lan honek hain kokapen eta izaera interesgarria duen Irun bezalako inguru bateko gazteen euskararen argazki bat izateko.

6 ERREFERENTZIAK

- Amorrortu, E. (2000). *Linguistic attitudes in the Basque Country: The social acceptance of a new variety*. UMI: University of Southern California.
- Artzelus, A. (2020a). Garaziko euskararen azterketa diafasikoa. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpen berriak euskararen ikerketari* (63.-80. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.4>
- Artzelus, A. (2020b). Garaziko gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre* (89.-114. or.). EHU.
- Artzelus, A. (2021). Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna. [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/51354>
- Artzelus, A. (2022a). Generoa Garaziko hizkuntza-aldakortasunaren baitan. In A. Lizardi, S. Monforte, L. Vela & A. Arriortua (arg.), *Kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan* (33.-55. or.). UEU.
- Artzelus, A. (2022b). Muga politikoaren eragin linguistikoa Garazin lekukoen oharmentzen arabera. In D. Krajewska, S. Monforte & E. Zuloaga (arg.), *Aziti-Bihia. Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzaren adarrak* (6.-32. or.). EHU.
- Artzelus, A. (2026). *Pluralgileen aldakortasuna Azpeitiko euskarako tratamendu alokutiboan* [Eskuizkribu argitaragabea]. UPNA/NUP.
- Auer, P. & Hinskens, F. (1996). The convergence and divergence of dialects in Europe. New and not so new developments in an old area. *Sociolinguistica*, 10, 1-30. <https://doi.org/10.1515/9783110245158.1>
- Aurrekoetxea, G. (2006). Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak. *ASJU*, 40(1-2), 133-160. <https://doi.org/10.1387/asju.4378>
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Ormaetxea, J.L. & Videgain, X. (2019). *Euskalkien sailkapen berria*. EHU.

- Azkarate, M. (1992). Euskara estandarra eta hizkuntza-sexismoa. *AEK*, 11-12, 91-98.
- Badihardugu Euskara Elkarte. (2025). *Irun*. www.ahotsak.eus. <https://ahotsak.eus/irun/>
- Bates, D., Maechler, M., Bolker, B. & Walker, S. (2015). Fitting linear mixed-effects models using lme4 [R paketea]. *Journal of Statistical Software*, 67(1), 1-48. <https://doi.org/10.18637/jss.v067.i01>
- Bereziartua, G. & Muguruza, B. (2019). Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpak berriak euskararen ikerketari* (129.-140. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.8>
- Boersma, P. & Weenink, D. (2020). *Praat: doing phonetics by computer, Version 5.1*. [Programa informatikoa]. <http://www.praat.org>
- Bonaparte, L.L. (1863). *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*. Stanford's Geographical Establishment.
- Camino, I. (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar.
- Chambers, J.K. & Trudgill, P. (1998). *Dialectology*. Cambridge University Press. (Jatorrizko obra 1980an argitaratua)
- D'Onofrio, A., & Benheim, J. (2019). Contextualizing reversal: Local dynamics of the Northern Cities Shift in a Chicago community. *Journal of Sociolinguistics*, 24(4), 469-491. <https://doi.org/10.1111/josl.12398>
- Duncan, D. (2021). Secondary education as a group marker in St. Louis, Missouri. *Language in Society*, 50(5), 667-694. <https://doi.org/10.1017/S0047404520000378>
- Echeverria, B. (2001). Privileging masculinity in the social construction of Basque identity. *Nations and Nationalism*, 7(3), 339-363. <https://doi.org/10.1111/1469-8219.00020>
- Eckert, P. (1989). The whole woman: Sex and gender differences in variation. *Language Variation and Change*, 1(3), 245-267. https://doi.org/10.1007/978-1-349-25582-5_18
- Eckert, P. & McConnell-Ginet, S. (1992). Think practically and look locally: Language and gender as community-based practice. *Annual Review of Anthropology*, 21, 461-490. <https://doi.org/10.1146/annurev.an.21.100192.002333>
- Eguskiza, N. (2019). Hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian [Doktorre-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/33204>
- Ensunza, A. (2012). Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait. *ASJU*, 46(2), 177-244. <https://doi.org/10.1387/asju.13452>
- Ensunza, A. (2015). Busturialdeko euskararen aldakortasuna denboran eta espazioan [Doktorre-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/16701>
- Etchebest, X. (2017). Zuberotar Dardarkarien Bariazio Sozio-Fonetikoa [Doktorre-tesia, Paue eta Aturrialdeko Unibertsitatea & EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/24870>
- Euskaltzaindia. (2008-2019). *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa [EHHA]* (10 liburuki). Euskaltzaindia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. (2021). *Euskararen Adierazle Sistema*. <https://www.euskadi.eus/web01-apeusadi/eu/eusadierazle/graficosV1.apl?idioma=e&indicador=159>
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa. (2023). VII. *Inkesta soziolinguistikoa*

- (EAE). https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA_laburpena.pdf
- Franco-Landa, E. (2025). Variation in nominal ergative marking and its social meaning: A linguistic and ideological comparative study between the US Basque Diaspora and the Basque Country [Doktore-tesia, University of Miami]. <https://scholarship.miami.edu/esploro/outputs/991032728632702976>
- Gaindegia. (2019). *Euskal Herria eskualdeka. Argazki sozioekonomikoa 2019*. <https://www.gaindegia.eus/index.php/es/eskualdeak?language=eu>
- Gaminde, I., Romero, A. & Legarra, H. (2012). *Gramatika eta hizkuntza bariazioa Bermeon*. Bermeoko Udala.
- Garcia-Palomino, A. (2021ko uztailaren 2a). *Euskararen aldakortasunaren eragile sozialez Teoria soziolinguistikoaaren barruan* [Kongresuko aurkezpena]. Hizkuntzalari euskaldunen V. topaketa: kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan. Eibar.
- Garcia-Palomino, A. (2021). Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz jarrerren garrantziaz. *FLV*, 131, 113-145. <https://doi.org/10.35462/flv131.5>
- Garcia-Palomino, A. (2022). Hizkuntz aldakortasunaren eragile sozialak: Euskal bariazionismoan dakigunetik ez dakigunera. In A. Lizardi, S. Monforte, L. Vela & A. Arriortua (arg.), *Kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan* (57.-86. or.). UEU.
- Garcia-Palomino, A. (2023). Itxurazko egonkortasun linguistikoa eta hazkunde indexikala Bermeoko (lako) aldagaian. *FLV*, 135, 11-52. <https://doi.org/10.35462/flv135.2>
- Gondra, A., Rodríguez-Ordóñez, I. & Franco-Landa, E. (2024). Variation in the production of Basque ergativity: Change or stable variation? *Language Variation and Change*, 36, 95-120. <https://doi.org/10.1017/S0954394524000048>
- Haddican, B. (2003). Dialect contact in a Southern Basque town. *Language and Variation and Change*, 15(1), 1-35. <https://doi.org/10.1017/S0954394503151010>
- Haddican, W.F. (2005). *Aspects of language variation and change in contemporary Basque* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. New York University.
- Haddican, B. (2007). Suburbanization and language change in Basque. *Language in Society*, 36, 677-706. <https://doi.org/10.1017/S0047404507070923>
- Hernández-Campoy, J.M. (1999). *Geolingüística. Modelos de Interpretación Geográfica para Lingüistas*. Murtziako Unibertsitatea.
- Hernández-Campoy, J.M. & Almeida, M. (2005). *Metodología de la investigación sociolingüística*. Comares.
- Hurtado, I. (2001). *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkaoko Udala.
- Ibarra, O. (1994). *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Nafarroako Gobernua.
- Ibarra, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. UPNA/NUP.
- Irizar, P. (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro septentrional (Estudio dialectológico)*. Euskaltzaindia.
- Kasstan, J.R. (2015). *Variation and change in Francoprovençal: A study of an emerging linguistic norm* [Doktore-tesia, University of Kent]. KAR. <https://kar.kent.ac.uk/56637/>

- Kasstan, J.R. (2017). New speakers: Challenges and opportunities for variationist sociolinguistics. *Language and Linguistic Compass*, 11(8), e12249. <https://doi.org/10.1111/lnc3.12249>
- Kintana, X. (1992ko ekainaren 18a). Gaurko euskara batuaren inguruan. *Euskaldunon Egunkaria*.
- Labov, W. (1990). The intersection of sex and social class in the course of linguistic change. *Language Variation and Change*, 2(2), 205-254. <https://doi.org/10.1017/S0954394500000338>
- Labov, W. (2001). *Principles of language change: External factors*. Blackwell.
- Labov, W., Fisher, S., Gylfadottir, D., Henderson, A. & Sneller, B. (2016). Competing systems in Philadelphia phonology. *Language Variation and Change*, 28, 273-305. <https://doi.org/10.1017/S0954394516000132>
- Lantto, H. (2018). New Basques and code-switching: Purist tendencies, social pressures. In C. Smith-Christmas, N. Ó Murchadha, M. Hornsby & M. Moriarty (arg.), *New speakers of minority languages: Linguistic ideologies and practices* (165.-187. or.). Palgrave MacMillan. https://doi.org/10.1057/978-1-137-57558-6_9
- Lenth, R. & Paiskowski, J. (2025). *Emmeans: Estimated Marginal Means, aka Least-Squares Means*. R package version 2.0.1. <https://rvlenth.github.io/emmeans/>
- Lourido, G.T. (2019). The effects of language dominance switch in bilinguals: Galician new speakers' speech production and perception. *Bilingualism: Language and Cognition*, 22, 637-654. <https://doi.org/10.1017/s1366728918000219>
- Lujanbio, O. (2016). *Hizkuntza-aldakortasuna euskaran. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/19581>
- Maia, J. (2000). *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan* [Doktore-tesia, EHU]. Eusko Jaurlaritza. <https://www.euskadi.eus/tesiker/eskolako-hizkera-ereduaz-euskara-batuaren-eta-euskalkiaren-arteko-harremanen-testuinguruan/julian-maia-larretxe/euskal-herriko-unibertsitatea/letren-fakultatea/tesia/147>
- Meyerhoff, M. (2002). Communities of practice. In J.K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The handbook of language variation and change* (526.-548. or.). Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9781118335598.ch20>
- Milroy, L. (1980). *Language and social networks*. Blackwell.
- Milroy, L. & Gordon, M. (2003). *Sociolinguistics. Method and interpretation*. Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9780470758359>
- Mitxelena, K. (1968). Ortografia. *Euskera*, 13, 203-219.
- Muxika-Loitzate, O. (2020). *The role of bilingualism in phonological neutralisation: Sibilant mergers in the case of Basque-Spanish contact* [Doktore-tesia, University of Ohio State]. OhioLINK. http://rave.ohiolink.edu/etdc/view?acc_num=osu1591977014269108
- Nance, C. (2018). Linguistic innovation among Glasgow Gaelic new speakers. In C. Smith-Christmas, N. Ó Murchadha, M. Hornsby & M. Moriarty (arg.), *New speakers of minority languages: Linguistic ideologies and practices* (213.-230. or.). Palgrave Macmillan. https://doi.org/10.1057/978-1-137-57558-6_11

- Olano, M. (1998). *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*. Nafarroako Gobernua; Aresoko eta Leitzako udalak.
- Olano, M. (2000). Gipuzkoa ondoko bi hizkera nafar: Areso eta Leitzako paradoxa. In K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak* (121.-147. or.). Arabako Foru Aldundia.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Uranga, B. (2015). Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 85-105. <https://doi.org/10.1515/IJSL-2014-0033>
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal biztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Palazio, G. (1992ko urtarrilaren 14a). Euskara batuari buruzko hausnarketak. *Euskaldunon Egunkaria*.
- Prichard, H. & Tamminga, M. (2012). The impact of higher education on Philadelphia vowels. *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics*, 18(2), 87-95.
- R Core Team. (2025). *R: A language and environment for statistical computing* [software]. R Foundation for Statistical Computing. <http://www.r-project.org>
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2016). *Differential Object Marking in Basque: grammaticalization, attitudes and ideological representations* [Doktore-tesia, University of Illinois Urbana-Champaign]. IDEALS. <https://hdl.handle.net/2142/92712>
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2019). Changes in the pitch-accent system of Gernika Basque. *FLV*, 127, 123-151. <https://doi.org/10.35462/FLV127.4>
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2020). New speakers of Basque: a Basque-Spanish contact approach. *Linguistic Minorities in Europe Online*. <https://doi.org/10.1515/lme.9967442>
- Sagarzazu, T. (2005). *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Alberdania.
- Salaburu, P. (1994). Euskara batuaren egungo premiak. *Euskera*, 39, 675-695.
- Siadeco. (2017). *Euskararen erabilera errealean neurketak Irunen*. Irungo Udala.
- Sims-Williams, H. (2022). Token frequency as a determinant of morphological change. *Journal of Linguistics*, 58(3), 571-607. <https://doi.org/10.1017/S0022226721000438>
- Txikis del Bidasoa. (2025). *Escolarizar en Iparralde: colegios de Francia*. <https://txikis-delbidasoa.com/escolarizar-en-iparralde-colegios-de-francia/>
- Txingudi Ikastola. (2026). *Aurkezpena eta hezkuntza proiektua*. <https://txingudikas-tola.hezkuntza.net/eu/presentacion-e-historia>
- Urla, J. (1993). Cultural politics in an age of statistics: numbers, nations, and the making of Basque identity. *American Ethnologist*, 20(4), 818-843. <https://doi.org/10.1525/ae.1993.20.4.02a00080>
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2018). Basque standardization and the new speaker: Political praxis and the shifting dynamics of authority and value. In P. Lane, J. Costa & H. De Korne (arg.), *Standardizing minority languages: competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery* (25.-46. or.). Routledge.
- Urreta, I. (2026). Hizkera-mailaren araberako ahoskera aldakortasuna: euskara ikas-teko modua aztergai [Eskuizkribu argitaragabea]. EHU.

- Vandekerckhove, R. (2009). Dialect loss and dialect vitality in Flanders. *International Journal of the Sociology of Language*, 196-197, 73-98. <https://doi.org/10.1515/IJSL.2009.017>
- Wickham, H. (2016). *ggplot2: Elegant graphics for data analysis* [R paketea]. Springer-Verlag New York. <https://ggplot2.tidyverse.org>
- Zabala, J. (2013). Ahozko hizkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 87-88, 127-148.
- Zuazo, K. (1988). *Euskararen batasuna*. Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (1989). Euskalkien geroaz. *Jazten*, 1, 29-35.
- Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *FLV*, 30, 191-233. <https://doi.org/10.35462/flv78.1>
- Zuazo, K. (2003). *Euskalkiak: euskararen lekukoak*. Elkar.

Maskulinitate eta feminitate ereduak Ramon Saizarbitoriaren ipuingintzan

Modelos de masculinidad y feminidad en los cuentos de Ramon Saizarbitoria

Models of masculinity and femininity in the short stories of Ramon Saizarbitoria

Nagore Fernandez-Zabala
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
nagore.fernandez@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0003-1389-0017>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.4>

Artikulu honek *Euskal ipuingintza garaikidea (1980-2021): Kontzeptualizazioa, sistematizazioa eta maskulinitate/feminitate ereduak azterketa* tesi-lanean du jatorria.

Jasotze data: 2026/02/26. Behin-behineko onartze data: 2026/04/03. Behin betiko onartze data: 2026/04/30.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honetan, Ramon Saizarbitoria idazlearen *Gorde nazazu lurpean* (2000) ipuin liburuan maskulinitate eta feminitate ereduak duten lekua eta errepresentazio moduak aztertuko ditugu. Horretarako, hizpide dugun obra autorearen ibilbide literarioan kokatu ostean, diziplinarteko metodologian oinarrituz, genero ikasketetan eta ikasketa kulturaletan ardatz diren alderdi narratologikoei erreparatuko diegu. Maskulinitate eta feminitate hegemonikoak, eta horiekin bat ez hegemonikoak, hibridoak, amata-suna, maitasun erromantikoaren mitoa, gorputza eta haren errepresentazioak, genero indarkeria eta espazio publiko eta pribatuak izango dira, besteak beste, abiapuntu ikerketa-lan honetan.

Gako hitzak: Maskulinitate eta feminitate ereduak; genero ikasketak; Ramon Saizarbitoria; euskal ipuingintza garaikidea.

RESUMEN

El objetivo de este artículo es analizar la presencia y la relevancia de los modelos de masculinidad y feminidad en el libro de relatos *Gorde nazazu lurpean* (2000) de Ramon Saizarbitoria. Para ello, primeramente, contextualizaremos esa obra en la trayectoria literaria del autor. A continuación, siguiendo una metodología interdisciplinar, examinaremos los aspectos narratológicos que se centran en los estudios de género y culturales. Las masculinidades y feminidades hegemónicas, no hegemónicas e híbridas, la maternidad, el mito del amor romántico, los cuerpos y sus representaciones, la violencia de género y los espacios públicos y privados serán algunos de los puntos de partida de esta investigación.

Palabras clave: Modelos de masculinidad y feminidad; estudios de género; Ramon Saizarbitoria; cuento vasco contemporáneo.

ABSTRACT

The aim of this paper is to analyse the presence and significance of models of masculinity and femininity in Ramon Saizarbitoria's short story collection *Gorde nazazu lurpean* (2000). To this end, we will first contextualise this work within the author's literary career. Next, following an interdisciplinary methodology, we will examine the narratological aspects that focus on gender and cultural studies. Hegemonic, non-hegemonic, and hybrid masculinities and femininities, motherhood, the myth of romantic love, bodies and their representations, gender-based violence, and public and private spaces will be some of the starting points for this research.

Keywords: models of masculinity and femininity; gender studies; Ramon Saizarbitoria; Basque short story collection.

1 SARRERA. 2 MASKULINITATE ETA FEMINITATE EREDUAK AZTERTZEN.
3 RAMON SAIZARBITORIAREN IBILBIDE LITERARIOAZ. 4 ANALISIA.
4.1 Gorputzak eta jarrerak. 4.2 Praktikak. 4.3 Espazioak. 5 ONDORIOAK. 6 ERRE-
FERENTZIAK.

1 SARRERA

Maskulinitate eta feminitate ereduez hitz egingo dugu artikulu honetan. Izan ere, literatura, filosofiarekin batera, egitura sozialen arteko dialektikan sortutako eraikuntza baldin bada (Puleo, 2000, 67. or.), garrantzitsua bezain ezinbestekoa iruditzen zaigu literaturatik inguratzen gaituen gizartera begira jartzea, eta, zehazki, gaur egun lehen lerroan den auzi bati erreparatzea: genero ikuspegiari. Gero eta gehiago dira genero ikasketak ardatz teoriko-metodologikotzat dituzten lan akademikoak, dela gurean dela nazioartean, izan ere bogan dagoen ikerketa-adarra dugu, eta ez bakarrik literatura ikertzeko.

Hala ere, identitate ereduen azterketak, alegia, maskulinitate eta feminitate ereduenak, ez du lehentasunezko trataerarik izan euskal literatur sisteman: esplizituki maskulinitatea helduentzako euskal literaturan aztergai duen lan bakarra Lasarterena (2014) dugu, *Hegats* literatur aldizkarian argitaratutako 30 orrialde inguruko artikulu bat, zeinak maskulinitate berriak bakarrik ikertzen dituen. Autore berberak Amaia Serranorekin elkarlanean (2017) argitaratutako maskulinitate berriak ikergai dituen beste artikulu bat aipa daiteke esplizituki hizpide dugun gaia lantzeagatik, baina, ikerketa hori euskal Haur eta Gazte Literaturan (HGLn) zentratzen da. Azken autore horrek, bere aldetik, identitate ereduen auzia gatazka armatuarekin lotuta aztertu izan du, eta eurekin batera, González-Allende (2018, 2019, 2022); Alvarez (2012, 2023) eta Egaña (2019, 2020, 2024) ikerlariak ere identitate ereduarekin lotutako alderdiak euskal ipuin liburuetan aletu dituzten hainbat lan akademiko utzi dizkigute. Dena den, ikerketa puntualak kenduta, euskal ipuingintzarekin lotuta, ez dugu identitate ereduak sistematikoki aztertu dituen lanik aurkitu gaur gaurkoz.

Azken urteetan, ordea, identitate ereduaren azterketak kontrako bilakabidea izan du nazioartean; genero ikasketen eta gizarte eraikuntzaren inguruko ikerketa etnografikoen barnean, ikerlerro emankorra ari da izaten (Connell, 2005/2022). Munduan horren zentrala den maskulinitate eta feminitate ereduaren azterketa euskal esparru akademikoan ere gehiago ikertu beharko litzatekeela sinesten dugu, euskal gizarteaz sortu dugun irudia eta sortzen ari garena hobeto ulertzen eta deskribatzen lagun diezagukeelakoan.

Modu partzialean bada ere, hutsune horri erantzutera dator artikulua. Hain zuzen ere, Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean* (2000) lan sarituan (2001eko Euskadi Literatura Saria eta Narratibako Kritika saria) maskulinitate eta feminitate ereduak nola testuratzaren diren aztertzea da artikulua honen helburu nagusia, ikusteko gaur egun zein den indarrean dagoen ereduak, eta zein helbururekin errepresentatu den delako diskurtsoa. Izan ere, konbentziturak gaur egun ere ideologia hegemonikoaren ideiek edozein arte sorkuntzatan, baita literaturan ere, presente egoten jarraitzen dutela. Besterik da, ordea, zein helbururekin errepresentatzen diren, hots, ideologia normatibo hori betikotzeko, edo, askotariko estrategien bitartez –hala nola, parodia, ironia, sarkasmoa, besteak beste–, ideia hegemoniko horiek auzitan jartzeko. Analisia deskribapen hutsean ez gelditzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu alderdi horiei ere erreparatzea. Era berean, hasieratik argi utzi dugunez, artikulua honetan aztergai dugun lana ipuin liburutzat hartu dugu, eta hala irakurriko datoen lerroetan; aurrerago justifikatuko dugu gure hautua.

Horretarako, atariko lehen azpiatal honen ondotik, bigarren atalean, gizartearen identifikatutako maskulinitate eta feminitate ereduak definitzen eta deskribatzen saiatuko gara. Horiek izango dira, hain justu, Saizarbitoriaren ipuinetako pertsonaiak sailkatzeko eta aletzeko baliatuko ditugun ardatz teoriko-kontzeptualak. Hirugarren atalean autorea eta haren ibilbide literarioa aurkeztu ondoren, laugarrenean, analisi kuantitatibo, eta batez ere kualitatiboan bertaratuko gara. Horretarako, egungo literaturaren teoriarik eta kritikan nagusi den diziplinartekotasunean oinarrituko gara. Batetik, ipuinak aletzeko eta horietan agertzen diren estrategia tekniko eta estetikoak interpretatzeko, narratologiaz baliatuko gara (Bal, 1985), aztertuko ditugunak testu narratiboak izaki. Bestalde, ipuinetan irudikatu diren identitate ereduak sailkatzeko eta deskribatzeko, genero ikasketetan, gorputzaren teoria sozialean eta ikasketa kulturaletan oinarrituko gara, besteak beste. Bosgarren atalean, ondorioetan, bildu ditugu analisisian jasotako emaitzak eta horiek eragin dizkiguten hausnarketak. Bibliografiak biribildu du artikulua, seigarren atalarekin.

2 MASKULINITATE ETA FEMINITATE EREDUAK AZTERTZEN

Mendebaldeko kulturaren, identitatearekin loturiko tipologia eta arau-multzoko bat izan da nagusi betidanik: dimorfismoan, heterosexismoan, eta (mota guztietako) botere asimetriaren oinarritutako eredu patriarkala, zeina, besteak beste, literaturaren bitartez ere transmititu eta betikotu zaigun (Carabí, 2000, 15. or.). Patriarkatuak eraikitako

diskurtso hegemoniko horrek gizon eta emakumeak nola bizi behar diren ezarri du, nola jantzi behar diren, zer egin behar duten, nola hitz egin behar duten. Esan gabe doa historikoki maskulinoa, eta beraz, maskulinitatea, gizonezkoekin zuzenean lotu den ezaugarria dela; ordea, femeninoa, emakumeekin (Valcuence & Blanco, 2003). Banaketa edo antolaketa bitar horretan, baina, gizon eta emakumeak ez daude posizio simetrikoan, gizonak emakumearen gainetik baitihardu bizitzako esparru guztietan, Bourdieuk (2000) *dominazio maskulino* deritzona, hain zuzen. Boterearen banaketa asimetriko zehatz hori, gainera, inguratzen eta antolatzen gaituen sistema edo aparatu oso batek sostengatzen du: politika, kultura, hezkuntza, komunikabideak eta, batez ere, botere gune nagusiak (Lasarte, 2012).

Era berean, gorputzak egituraz eta ekintzaz blaitutako identitate eta genero eraikitzaile gisa ulertuta (Esteban, 2004), mendealdeko ikuspegi heteronormatiboak gorputzaren inguruko exijentzia desberdinak ez ezik, batuezinak ere eraiki ditu gizonak, eta, horiekin bat, maskulinitateak, eta emakumeak eta feminitateak eraikitzerako unean ere.

Praktikak ere ideologia patriarkal berberak antolatu ditu. Hala, gizonezkoen gorputza instrumentalizatu egin denez, batetik, lan astun eta gogorrekin lotu izan da maskulinitatea. Bestetik, botere maskulinoaren maximari eusteko, lan boteretsuenak ere eurekin lotu izan dira, hala nola, politika, ekonomia eta kultura, eta euren boterea bermatzeko, ondorioz, emakumeak esfera horietatik kanpo utzi dituzte. Etxeko lanei dagokienez, ordea, emakumeei esleitutako betebeharra izanik, etxeko lanetan bai eta haurren zaintzan ere gizon eta emakumeek lanaren banaketa asimetrikoa izatea ziurtatu du diskurtso hegemonikoak: emakumeek etxea dute langai nagusi; gizonezkoek etxetik kanpo dihardute lanean, eta beraiek dira etxearen sostengu ekonomikoaz arduratzen direnak (Lomas, 2004).

Espazioaren erabilerak eta horren errepresentazioek, halaber, gizonen nagusitasuna bermatzen eta berrindartzen laguntzen dute; izan ere, Ryanek (2010) azpimarratzen duenez, kulturak paisaietan eta espazioetan ezinbestean bere marka uzten du. Eta, hain zuzen ere, espazio publikoa *vs.* espazio pribatua dikotomiak erreparatzen dio zuzenean genero rolen inguruan eraiki denari (Majuelo, 2023, 55. or.). Hala, diskurtso normatiboak gizonezkoak lanera eta emakumeak etxeko beharretara zokoratu dituzte, diskurtso kulturalak bi espaziook karga semantikoz jantzi dizkigu; espazio publikoak produzitzea esan nahi duenez, maskulinoan ulertu izan dira, espazio pribatuak, oster, erreproduzitzearekin lotuta, femeninoan.

Ezaugarri horiekin bat datorren ereduari *maskulinitate hegemoniko* (Connell, 2005, 76. or.) esaten zaio, eta hedaturaz, baita *feminitate hegemoniko* ere; azken termino hori bere horretan formulatu ez bada ere, guk halaxe erabiliko dugu koherentzia kontzeptualaren alde egiteko. Egungo gizartean, hala ere, hegemonikoaz bestelako ereduak ere aurki ditzakegu. Badira, batetik, aipatu eredu hegemoniko hori guztiz ezetsi eta baztertzen dituzten ereduak, mugimendu feministekin bat egin eta berdintasunean sinesten dutenak, hain zuzen. Halakoei *maskulinitate/feminitate eredu ez hegemoniko* deritzegu, hegemonikoekiko modu guztiz bestelakoan eta askotarikoan eraiki direla

kontuan izanik. Bada, halaber, aipatu diren bi eredu horien ezaugarriak aldi berean barnebiltzen dituen beste tipo bat, adituek *maskulinitate hibrido* izendatu dutena (Bridges & Pascoe, 2014), eta beste behin, hedaduraz, *feminitate hibrido* ere erabiliko duguna.

1. taulan bildu ditugu maskulinitate eta feminitate eredu hegemonikoen ezaugarriak, proposatu dugun hiruko sailkapenaren arabera banatuta¹. Hala, taula horretaz baliatuko gara, aztertuko ditugun ipuin guztietan, pertsonaia hegemonikoak sistematikoki eta modu bertsuan deskribatzeko eta sailkatzeko; alegia, beti ezaugarri berberei erreparatuta. Eredu hibridoak deskribatzeko ere baliagarria izango zaigu taula, kontuan izanik eredu zehatz hori bietariko ezaugarriez osatzen dela (Bridges & Pascoe, 2014), nahiz eta zerrendatuta ageri ez diren bestelako ezaugarriei ere erreparatuko diegun kasu horietan. Eredu ez hegemonikoak identifikatzeko, osteraz, bestela jokatzeko dugu: identitate eredu zehatz horiek anitzak eta norberaren arabera izaki, eta, ez, aldiz, eskema zurrin eta itxiak (Emakunde, 2008), ez dugu taula tipologikorik proposatu nahi izan. Eredu ez hegemonikoa jarraitzen duten pertsonaiak identifikatzeko, hortaz, hegemonikoak diren neurriei ematen dieten erantzuna izango dugu kontuan, alegia, eredu normatiboa zalantzan jartzen eta erreforma feministak babesten dituzten ala ez, kasuan kasu argudiatuko dugunez.

3 RAMON SAIZARBITORIAREN IBILBIDE LITERARIOAZ

Ramon Saizarbitoria Zabaleta Donostian jaio zen 1944an. Friburgon, Suitzan, soziologia ikasi zuen, eta, orduz geroztik soziologo aritu izan da, egun erretiraturik dagoen arren. Donostiako SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendaria izateaz aparte, *Gaur Soziologia Azterketa* taldeko kidea ere izan da, eta gizarte zerbitzuen arloan argitalpen ugari egin ditu. 1960ko hamarkadan hasi zen euskal literaturara hurbiltzen, bai idazle, 1969an argitaratu baitzuen *Egunero hasten delako* bere lehen eleberria, baina baita sustatzaile ere. Adituen ustetan, idazlearen lehen aroa osatzen duten obrak, hain zuzen ere, aipatu nobelaren ondotik etorri ziren, 1970eko hamarkadan: *100 metro* (1976a) eta *Ene Jesus* (1976b) (Narratibako Kritika Saria) nobelak.

1 Hiruko sailkapena ez da arbitrarioa izan. Aztergai ditugun maskulinitate eta feminitate ereduak definitzerako unean, beharrezkoa izan zaigu alderdi bati baino gehiagori erreparatzea, ereduok konfigurazio edo eskema konplexuak diren heinean. Ezaugarritze horretan, batetik, ikusi dugu horiek izan direla gehien errepikatu diren patroiak aztertu diren iturri bibliografikoetan; bestetik, eta, batik bat, Connellen (2005/2022) hitzok gidatu gaituzte sailkapenean: «Maskulinitatea objektu gisa definitzen saiatu baino (karaktere mota naturala, batez besteko jokamoldea, araua), hobe dugu prozesu eta harremanetan jarri arreta, horien bitartez bizi baitituzte gizon eta emakumeek bizitza generodunak. Terminoa inondik ere labur-labur defini badaiteke, 'maskulinitatea' aldi berean da leku bat genero-harremanen baitan, gizon eta emakumeek generoaren baitan leku horri heltzeko dituzten praktikak, eta praktika horiek gorputz-esperientzia, nortasunean eta kulturean duten eragina» (Conell, 2022, 89. or.).

1 taula. Maskulinitate eta feminitate eredu hegemonikoen ezaugarriak. Iturriak: Bonino (2000); Bourdieu (2000); Cantero (2003); Carabí (2000); Connell (2005); Emakunde (2008); Esteban (2004); Gilmore (1990); Iturra (2003); Lasarte (2012); Lipovetski (1999); Lomas (2004); Puleo (2000); Rich (1978/1996); Rodriguez (2019); Sau (2000); Valcucene eta Blanco (2003)

	Maskulinitate eredu hegemonikoa	Feminitate eredu hegemonikoa
Gorputzen eta jarrearen arabera	• Gorputzak: indartsuak, zakil handidunak, ernaltzeko gaituak, gorputzaren instrumentalizazioa. • Jantziak: trajeak eta gorbatak. • Afektiboki: babeskorrak, arrazionalak, emozionalki kontrolatuak, oldarkorrek eta bortitzak, zakarrak eta zikinak. • Jarrerak: ez femeninoak, aktiboak, subjektuak, sexualki aktiboak, arduratsuak, independenteak, beraian segurtasuna izan behar dute, arrakastatsuak, anbiziotsuak, dirudunak, lehiakorrek, liderrak izateko prestatuak, borrokan egiteko prest, ausartak, gaizkileak.	• Gorputzak: delikatuak, ahulak, ugalduek izateko prestatuak, argalak, gazteak eta ederrak. • Jantziak: soinekoak, gonak, takioiak, euren sentsualitatea nabarmentzen duen edozein elementu. • Afektiboki: emozioak eta sentimenduak erakutsi behar dituzte, xamurtasuna. • Jarrerak: femeninoak, pasiboak, objektibizatuak, otzanak, isilak, gizonak limurtzeko gaitasuna, sedukzioa emanak (baina ez gehiegi), asexualak batez ere, maitatzeko beharra, ezkonduak.
Praktiken arabera	• Lana: lan boteretsu eta garrantzitsuetan, ekonomikoki buruaskiak. • Maitasunean eta desioan: konkistatzaileak, maitasuna bigarren maila batean, heterosexuak. • Heziketa: kalean ibiltzen irakatsi, jostailuak: pilota, pistola, eskolan porrot gehiago. • Ekintzak: kirol zehatzak (kirol arriskutsuak eta futbola), gerra, alkoholismoa, ehiza, nekazaritza eta merkataritza. • Sexualitatea: sozialki eta publikoki eraikitzen dute. • Hizkuntza: sexista eta maskulinoa, gizonaen nagusitasuna bermatzeko. • Agency edo agentziaren arabera: subjektuak dira. • Genero indarkeriaren eskeman: erasotzaileak.	• Lana: garrantzirik gabeko lanak, etxeaz eta zaintzaz arduratzen dira, ekonomikoki ez buruaskiak, ardura nagusia amak izatea. • Maitasunean eta desioan: konkistatuak, maitasuna lehen mailan, heterosexuak. • Heziketa: gizonen beharretan oinarritutako hezkuntza, jostailuak: ama eta etxeokandrea izatera bideratuta (panpinak, sukaldeak lisatzeko makina), eskolan porrot gutxiago. • Ekintzak: kirol zehatzak (igeriketa sinkronizatua, gimnasia erritmikoa eta patinajea). • Sexualitatea: pribatua da horren eraikuntza. • Hizkuntza: sexista eta maskulinoa, gizonaen nagusitasuna bermatzeko. • Agency edo agentziaren arabera: objektuak dira. • Genero indarkeriaren eskeman: biktimak.
Espazioen arabera	Eremu publikoa: boteredun espazio guztiak gizonaenak.	Eremu pribatua: etxea; emakumeen bazterketa sorkuntza kulturaletik.

19 urteko lozorroaren ostean, *Hamaika pauso* (1995) nobelarekin berragertu zen euskal literaturaren panoraman (1996ko Euskadi Literatura Saria eta Narratibako Kritika Saria), eta obra horrekin eman zion hasiera, gainera, adituek *bigarren aro* izen-datut duten garaiari. Bigarren aroko lehen obra horren ondotik etorri ziren *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) (Narratibako Kritika Saria eta 1997ko Zabalpen Saria); aztergai daukagun *Gorde nazazu lurpean* (2000) (2001eko Euskadi Literatura Saria eta Narratibako Kritika saria); gazte literaturako *Kandinskyren tradizioa* (2003); *Martutene* (2012) (2013ko Euskadi Literatura Saria); *Lili eta biok* (2015); eta *Miren eta erromantizismoa* (2019) azken obra. Badago, dena den, *Martutene* kenduta, aipatu

ditugun azken hiru argitalpenok autorearen hirugarren aro baten parte kontsideratzen eta ulertzen duen ikerlaririk. Izan ere, Kortazarrek (2023, 120. or.) oraintsu argudiatu duenez, liburuok helburu pedagogikoagoa dute, eta emakume gazteen heziketa emozionala erdigunean jartzeagatik desberdintzen dira besteetatik.

Bitarte horretan, halaber, han eta hemen argitaratu dituen narrazio solteak ere idatzi ditu Saizarbitoriak. Horietako bat dugu «Kapitaina» kontakizuna, Itxaropena argitaletxeak plazaratutako eta Juan San Martinek eta Serafin Basaurik apailatutako *Hegatsez* (1971) liburu kolektiboaren parte dena. Ipuin hori berori, gainera, Alberdania etxean argitaratu zen Iñaki Aldekoak prestatutako *Euskal ipuinen antologia bat* (1993) obran. Azkenik, *Begiz jotako ipuinak* (2003, Alberdania) antologian «Hemen nago liburuz inguratuta, zutaz pentsatzen» ipuina argitaratu zuen.

Ikus daitekeenez, narratiba izan da bere produkzio literarioa gidatu duen fikziozko genero nagusia; hala ere, *Mendebaldeko ekonomiaren historia* (1970) eta *Aberriaren alde (eta kontra)* (1999) saiakerak ere plazaratu ditu.

Autorearen konta-teknikari dagokionez, istorioa baino gehiago, kontatzeko modua bera interesatzen zaion autore moderno bat bezala deskribatu dute adituek. Hautu estetiko horrek lotura zuzena du Saizarbitoriak tradizio literario frantsesetik mailegatutako eta bere liburueta ez ezik euskal literaturara ere ekarritako mugimendu batekin: *nouveau roman* deritzotenarekin (Olaziregi, 2002, 11. or.). Hala ere, Hernandez-Abaituak bere tesi-lanean (2008) argudiatu duenez, Saizarbitoriaren lehen aroko eleberrigintza, zenbait ezaugarritan *nouveau roman* estetikara hurbiltzen bada ere, *Egunero hasten delakon*, *100 metron* eta *Ene Jesusen* batez ere, badira beste hainbat ezaugarri estetika zehatz horretatik urruntzen dutenak, eta existentzialismoa hurbiltzen (Hernandez-Abaitua, 2008, 379. or.). Era berean, iragan hurbileko euskal testuinguru gatazkatsua da, hots, Gerra Zibila, frankismoa eta *euskal gatazka* deiturikoa Saizarbitoriaren obra guztietan presente dagoen beste ardatz edo gai nagusietako bat (Apalategi, 2009; Arroita, 2015; Serrano, 2019). Bada beste gerra bat, halaber, Saizarbitoriaren lanetan oso presente dagoena: gizon eta emakumeen arteko harremana eta komunikatzeko ezintasuna, hain zuzen (Olaziregi, 2004).

Aztergai dugun *Gorde nazazu lurpean* ipuin liburua ere bi obsesio nagusi horien inguruan hezurmamitzen da: batetik, Espainiako Gerra Zibila eta, bestalde, emakumeen eta gizonen arteko harreman gatazkatsuak. Hain zuzen ere, bi-biak paralelismoz beterik ekartzen ditu orrietara (Kortazar, d.g.). Eta mezuan ere bat egiten dute alderdi biek, irekita dauden eta min egiten duten zauri gisa erakusten baitzaizkigu. Liburuan biltzen diren ipuin guztiak lotzeko *leitmotiv* bat bera darabil konposizio guztietan, liburuaren azaletik ikusgarri zaiguna: narrazio guztietan kontatzen da desobiratze bat. Eurretari hiru desehorzketa fisikoak dira; gainontzeko biak literarioak. Hala ere, liburuari egin zaizkion irakurketetan proposatu denez, egiazki desobiratzen direnak ez dira ipuinez ipuin agertzen diren gorpuzki erreal nahiz fikziozkoak, idazlearen beraren barneko obsesio (literarioak) baizik (Olaziregi, 2001, 88. or.).

Konposizio guztietan errepikatzen den hari tematiko horrek, ezinbestean, genero literarioaren auzira, eta zehazki, *short story cycle* delakora begira jartzen gaitu. Izan ere, hainbatek nobela txikiz osatutako nobela handi bat bezala deskribatu izan duten arren (Ezkerra, 2001), badira ipuin luzez osatutako ipuin liburu bezala etiketatu dutenak ere (Egia, 2001; Rojo, 2001; Urdangarin, 2002). Kritikarien artean badirudi ez dagoela argi, Juaristik (2001) azpimarratzen digunez, obrak nobela laburrak edo narrazio luzeak biltzen dituen. Edozelan ere, argi dago bietariko iritziak daudela euskal esparru akademikoan, eta anibalentzia terminologikoak baten edo bestearen alde hautatzera eramán gaituela; kontsultatu ditugun iturri² gehienetan esandakoaren alde egin dugu, eta ipuin liburu bezala, zehatzago, ipuin ziklo bezala aztertu.

4 ANALISIA

Jarraian argudiatuko dugunez, *Gorde nazazu lurpean* ipuin liburuan, guztira, bost kontakizun eta 30 pertsonaia aztertu ditugu. Horietatik gehienak, 22 (% 73) eredu hegemonikoaren arabera deskribatu zaizkigu; 7 (% 23) eredu hibridoaren arabera, eta gainontzeko 1a (% 4) eredu ez hegemonikoaren arabera³.

4.1 Gorputzak eta jarrerak

«Gudari zaharraren gerra galdua» lehen kontakizuneko narratzaile heterodiegetikoak gudari zaharra fokalizatzen du batik bat. Bere deskribapen fisikoetan hasieratik bertatik egiten da ikusgarri Gerra Zibilean, Elgetako frontean, galdutako hankaren hutsunea, eta hutsune hori betetzen duen zurezko ordaina: «Biak zituen laburrak: zurezko hanka –makila bat, gomazko tope bat zuena– eta hura bezala zurezkoa zen makulua» (9. or.)⁴. Aditzera ematen da, gainera, protagonistari galera hori mingarri zaiola: «Muinoa erakutsi beharko zien. [...] Gorroto zuen, umiliatu egiten zuelako, une hori, benetan amaigabea egiten zitzaiona» (21. or.).

2 Ondorengoak izan dira kontsultatu ditugun iturriak: *Euskal Literaturaren Apalategia* (ELA); *Literaturaren zubitegia*; *Kritiken hemeroteca* eta EAEko Udal Liburutegien Katalogo bateratua.

3 Eredu hegemonikoa errepresentatu dituzten pertsonaiak hauek izan dira, zehazki: «Gudari zaharraren gerra galdua»-ko guztiak, Elias Elortza, Jose Egia, Luis Amiano, gudari zaharra, Amianoren alaba, prostituta eta Miren; «Rossetti-ren obsesioa»-ko Sedano; «Marcel Martinen aitatasun ukatua»-ko protagonista, Joe Castello, Marcel Martin eta Hélène Daudet; «Bi bihotz, hilobi bat»-eko Benito eta bere emaztea, Flora, protagonista eta ehorzlea; eta «Asaba zaharren baratza»-ko protagonistaren ama, aita, Bioleta/Sabine, Felipe eta Aita Altuna.

Eredu hibridoaren arabera ezaugarritu direnak, berriz, ondokoak izan dira: «Rossetti-ren obsesioa»-ko Juan Martin, Victoria eta Eugenia; «Marcel Martinen aitatasun ukatua»-ko Marga, Barbara eta Annie Parmentier; eta «Bi bihotz, hilobi bat»-eko Bioleta.

Azkenik, eredu ez hegemonikoaren arabera egikaritu den pertsonaia bakarra «Asaba zaharren baratza»-ko Polikarpo protagonista izan da.

4 Liburu bakarria dugunez aztergai, eta, hortaz, erraz uler daitekeenez mota horretako aipamen guztiak zein liburutatik hartu ditugun, errepikapenak saihesteko, *Gorde nazazu lurpean* liburuko ipuinetako hitzez hitzeko aipamen guztiak modu horretan emango ditugu beti, hots, orrialde zenbakia bakarrik aipatuta.

Eta ez bakarrik gerrako trauma bat bezala ulertzen duelako, alegia, bere memorian egiten diolako hazka; bere maskulinitatea ukatzen diolako ere bada lotsagarria mui-noi hori erakustea. Izan ere, behin, prostituten etxera joaten da ikusteko emakumeren batek bere gabezia hori onar dezakeen, eta haxe gertatzen zaio bertan:

Izterraren indar hutsez mantendu zuen muinoa airean, kentzen hasitako benda berriro lotzen zuen bitartean. Pentsatu gabe egin zuen. Gero galtzen berna jaitsi eta zutitu egin zen makuluaren laguntzarik gabe. Ez zion neskari atletik aldentzeko agin-durik eman behar izan. Bere kabuz alendu zen. Ez zen ergela; bazekien, nonbait, bere burutik elektrizitatearen indarraren lastertasunaz pasatzen ziren ideiak irakur-tzen, eta, horregatik, jakin behar zuen belarrondoko bat ere eman ziezaiokeela. Eskua patrikan sartu, eta ohe gainera bota zuen prest zeraman dirua. Orduan, ea ez ote zuen nahi zerbait egin ziezaion galdetu zion neskak. Horrela: «Ez al zenuke nahi zer-bait egin diezazudan?» Ez zela agian hain neska argia pentsatuz, ezetz erantzun zion. Geroztik ez zuen inoren aurrean zurezko hanka kendu (24. or.).

Guaschek (2003, 120. or.) azpimarratu duenez, gizon helduak, haurrak bezalaxe, maskulinitate hegemoniko hori jada galduta duten pertsonak dira, eta ikus dezakegu-nez, gudari zaharraren kasuan, heldua izateak ez ezik, muinoa izateak ere are gehiago azpimarratzen du maskulinitatearen galeraren sentsazio hori. Protagonistak minetik deskribatzen duela kontuan izanda, bere atzean ideologia hegemonikoa dagoela ondo-rioriozta dezakegu: gizartearen begietara aski maskulinoa ez izatea lotsatzeko besteko ezaugarria da.

Esandakoarekin bat dator Arroita (2015a, 2015b), egin dituen irakurketetan. Izan ere, haren hitzetan: «Gerrako oroitzapenak burutik kendu ezinda bizi da (GZGG, 41), eta gerrak betiko markatuta ageri da bere gorputz mutilatua ere. Elbarritasun hori, falta zaion hanka da bere ezaugarriarik nagusienetakoa, bere estigma, eta umiliatu egi-ten du muinoa inori erakustek (GZGG, 21)» (Arroita, 2015a, 193. or.). Ez hori baka-rrik, hankak galera errepresentatzen duela azpimarratzen digu adituak; alegia, galera fisikoa nahiz psikologikoa, kontuan izanik gorputz atal bat falta duela, galdu zuten gerran mutilatu zutena eta gerra berberak eramane zuela, gainera, bere hanka ez ezik, maite zuen emakumearen bizitza ere (Arroita, 2015b, 275. or.). Olaziregiren (2009, 1043. or.) hitzetan: «lo que perdió en la contienda, su pierna, es una señal exterior de lo que también perdió en su foro interno, su amada Miren, una pérdida a todas luces irreparable». Aurreko guztiari, argudiatu dugunez, beste galera bat erantsi behar zaiola iruditzen zaigu: maskulinitatearena; Ezkerrak (2023, 12. or.) azpimarratzen duenez: «For the narrator, his lost limb is both a sign and a reminder that the rebels not only won the war but they also deprived him of a leg, and with it, they took part of his mas-culinity and sense of self». Hala, galeraz galera, heroikotasunik gabeko pertsonaia bat eraikitzen zaigula ondorioztatzen du Arroita (2015a).

Galeraren bestelako irakurketarik ere egin da, zeinetan, muinoa talde minorizatu-eko kideen zauritzat hartu den, kontakizuna metaliterarioki ulertuta, eta Gerra Zibila eta haren errepresentazioa euskal sistema eta espainiar sistema literarioaren arteko harramenaren alegoriatzat (Apalategi, 2008, 2012). Edozelan ere, interpretazio baten

edo bestearen alde eginda ere, gorputzak bi-bietan leku zentrala duela ikusi dugu; haren erabilera sinbolikoaren bitartez, esanahiak gehitzen zaizkio narrazioari. Hala, gorputza eta haren galera, «Gudari zaharraren gerra galdua» kontakizunean, gerrak eragindako sentimenduen eta emozioen gordailu bihurtzen da (Ezkerra, 2023, 16. or.), gerraren galerak biltzeko testu: «Ezinbestean, mutilazio hori gerrako oroitzapen traumatikoei lotuta ageri da, narrazioaren amaiera iruzkintzean ere iradoki dugunez. Hain zuzen ere, gorpu(tz)ek esperientzia traumatikoaren memoria transmiti dezaketela azaltzen du Winter-ek» (Arroita, 2015, 275.-276. or.).

Gorputzak, edo hobeto esanda, gorpuzkiek, balio sinboliko handia hartzen dute azken kontakizunean ere, hots, «Asaba zaharren baratza»-n, hainbat esanahi erreprezentatzen dituen heinean. Kontakizun horretan, Sabino Arana EAJren (Euzko Alderdi Jeltzalearen) sortzailearen hezurtxoek hartzen dute zentraltasun osoa. Protagonistaren aitak Aranaren lurperatzean jasotako hezurak lepotik behera zintzilik eraman izan ditu bizi artean, eta harrotasunez erakutsi, gainera, Aranaren bigarren izena hartzen duen semeari, Polikarpo protagonistari. Alde horretatik, Aranaren hezurrek nazionalismoaren ideologia eta haren iraunkortasuna irudikatzen dute (Laraway, 2007, 363. or.).

Aitak behin eta berriz gogorarazten dio Polikarpori iduneko hori noizbait berak eramango zuela zintzilik, aitak estimatzen zuen nazionalismoa semeak herentzian jaso eta onartuko zuela sinetsirik. Aita-seme transmisio horri *patrilinealtasun* deritzote adituek⁵, eta kasu honetan, hitzez ez ezik, sinboloz ere erakusten da. Kontuan izanik nazionalismo aranarraren sistema eredu matxismoan (ere) oinarritzen dela zentzu askotan (esaterako, espazioaren banaketari edo eginkizunei erreparatuta), banaketa hegemoniko asimetrico bera betikotzen baitu (Aresti, 2014) haren ideologia iraunaraztearekin batera, heteropatriarkatuari ere jarraipena ematen zaiola iruditzen zaigu. Kontakizunean, gainera, hitzez ez ezik, sinboloz ere transmititzen dela ikusi dugu, eta adituek ere hori berretsi digute. Izan ere, Aranaren hezurrekin batera, aitak semeari etengabe erakusten dizkion Aranaren erretratuek ere ideologia berori elikatzen dute, eta transmisioa hauspotzen (Arroita, 2015b, 404. or.).

Transmisio hori, hala ere, pisutsua zaio semeari, mingarria, eta hori transmititzeko ere hainbat sinbolo darabiltza autoreak. Aranaren hezurak jasotzen dituen kutxak Polikarporen begietara bala baten itxura hartzen du (Arroita, 2015b, 407. or.), hots, hiltzeko erabiltzen den tresna batena. Aitaren jarrera horren indargarria da, halaber, protagonista ohean dagoenero, aita bere alboan eseri eta haren gorputzaren pisua, hark eragiten dion presioa jasangaitza baitzaio:

Ez dakit nola, ohean esertzean askotan zangoak hartzen zizkidan azpian, baina bera ez zen konturatzen, antza, edo ez zitzaion iruditzen min egin behar zidanik, eta, noski, ez zen hala izaten, izango baitzituen erraz laurogeita hamar kilo. Ni, noski, pentsatzen

5 *Patrilinealtasun* deritzote gizonek herentzian jasotako maskulinitate eredu –hegemonikoa, eta, ondorioz, matxista– katebegan hurrengo den irudi maskulinoari transmititzeari eta, hala, belaunaldiz belaunaldi heteropatriarkatua iraunarazteari (González-Allende, 2022, 166. or.).

dut saiatuko nintzela hurbiltzen zitzaidanean zangoak ahalik eta gehien atzera bazter-tzen, baina kontua da –ohea oso zen estua, beharbada– oroimen hori dudala: asko-tan hartzen ninduela azpian, eta, gezurra dirudien arren, ez nintzela gai min ematen zidala esateko (404. or.).

Kontuan izanda behin baino gehiagotan errepikatzen duela protagonistak pasarte horrek eragiten dion mina, esan dezakegu jarrera eta ekintza hori traumatikoa zaiola protagonistari, eta konnotazioz eta sinbolismoz betetzen duela pasarte. Izan ere, aitaren gorputzaren pisua aitzak transmititu nahi baina berak hartu nahi ez duen balore eta ideologiaren legatua dela interpretatu dugu, zeinaren transmisioan, diskurso hegemonikoak ezarri legez, aitzak bere botere hori inposizioz ezartzen duen, are semearekin ere. Semeak pisu hori bere bizitza osoan zehar darama: «Baina betirako geratu zait sentipen hori, nola adierazi ez dakidana: izan beharko nukeena izatera iritsi ez naizen norbait naizela eta –edonola ere, nire izena banaiz behintzat– ez naizela nire aitzak espero zuena» (411. or.).

Arroitak (2015b, 196. or.) azpimarratu duenez, aitaren jarrerak zein gorputzak «bere herentzia abertzalearen pisua irudikatzen du». Gure iritziz, baina, haratago doa presio hori, nazionalismoa ez ezik, maskulinitate eredu zehatz bat ere transmititzen ari baitaio semeari gorputzaren eta jarreraren bitartez. Semeari eragiten dion zamak eta ezintasunak gizonezkoei txikitatik sistema heteropatriarkalak ezartzen dien presio eta irizpide bati begira jartzen gaitu: gizonaren identitatearen mitoari begira (Sau, 2000, 32. or.). Mito horren arabera, edozein gizonek gizarteari bere maskulinitatea etengabe erakutsi behar dio, eta erakustea lortzen ez badu, ez da aski maskulinoa, eta, hortaz, aski gizona ere ez besteentzat. Protagonistak ere presio berori bizi du, aitarengandik oinordetzan hartzen duen gizon ereduaren errezatutako behar duen heinean, nahiz eta jakitun izan saiakera horretan porrot egingo duela.

Azken kontakizuna zeharkatzen duen patrilinealtasunak are esangura handiagoa hartzen du azken eszenan, eta hori ere gorpuzkien bitartez errepresentatzen dela ikusi dugu. Aita hilzorian dela, semeari Aranaren hezurtxoak haren hilobira bueltatzeko eskatzen dio bera hil hurren. Semeak, ordea, ez ditu hilobira bueltatzen, aitaren lagunaren alabarekin batera, hots, Sabine-Bioletarekin batera, Sukarrietako uretan –ikurrina sortzeko funtsezkoa izan zen tokian (Aldekoa, 2010)– isurtzen dituzte. Hala, bukaera askatzaile horrekin eta gorpuzkien bitartez (Arroita, 2015b), sinbolikoki, Polikarpok nazionalismoari uko egiten diola interpretatu dute ikerlariek Lizardiren poemari dei egiten dion kontakizunean (Aldekoa, 2010, 2011; Arroita, 2011, 2015a, 2015b; Laway, 2007; Olaziregi, 2009; Otaegi, 2002). Gure iritziz, baina, argudiatzen saiatu garenez, nazionalismoari ez ezik, aitaren oinordetza ideologiko guztiari egiten dio muzin Polikarpok, alegia, baita haren maskulinitate hegemonikoaren transmisioari ere. Ideia hori berrestera dator Olaziregik (2009) jasotzen duen Mariasun Landaren irakurketa psikoanalista:

Al final del relato, cuando el protagonista decide desprenderse del legado que le ha dejado su padre y lanzar al mar los huesecillos de Sabino, en realidad, lo que está haciendo es, tal y como dijo la psicoanalista Mariasun Landa Lizarralde (2002),

liberarse del legado ideológico que le ha llegado del padre, legado simbolizado por esa reliquia con claro valor fálico (2009, 1044.-1045. or.).

Gorputzak, hortaz, beste behin, fisikoaz haratagoko esangura hartzen du Saizarbitoriaren unibertso literarioan, eta, memoria historikoaren eta ideologia politikoaren errepresentazioa izatearekin batera, maskulinitate hegemonikoaren patrilinealtasuna (ez) transmititzearen sinbolo bihurtzen da.

Aurreko bi adibideetan gorpuztasuna pertsonaia maskulinoekin loturik agertu bazaigu ere, gainontzeko ipuin eta adibideetan emakumeei lotuta agertu zaigu, euren ezaugarri nagusi bezala, horiek istorioan lehen mailako edo, are, bigarren mailako lekurik ere ez dutenean. Horren adibide da «Gudari zaharraren gerra galdua» kontakizuna. Horretan, gudari zaharrarekin batera agertzen diren bigarren mailako pertsonaiak notarioaren aurrean lekuko agertu zaizkigun bere bi adiskide dira: Elias Elortza eta Jose Egia. Eurekin batera, Luis Amiano ere agertzen zaigu, azken hori hiltzorian. Guztiak ere hirugarren maila batean agertzen diren emakumeak baino garrantzitsuagoak dira istorioan eta, hala ere, ez dira euren gorpuztasunetik deskribatzen, eta deskribatu diren kasu bakanetan euren zahardadea eta hark eragindako gainbehera fisikoa azpimarratzeko izan da –nekea, eztula, lerdea, besteak beste–; emakumeak, hirugarren mailako pertsonaiak, bai, ordea. Estebanek (2004) diosku, edertasuna aitzakiatzat harturik, diskurtso kultural hegemonikoak emakumeak sexualizatu, eta, ondorioz, objektibizatu egin dituela. Horixe bera esplizitatzen zaigu gudari zaharrak ezagutzen duen prostituta deskribatzen zaigunean, adibidez (23. or.). Protagonistak maite izan duen emakumea, Miren deskribatzerakoan, ostera, ez dira horren iruzkin sexualizatuak egiten, baina emakumea txori batekin alderatzen da, berez delikatu eta ahula den izaki bizidun batekin (40. or.); erantsi dugun taulan (ikus § 2, 1. taula) antzeman dezakegunez, emakumeen eredu hegemonikoarekin lotu izan den jarrera, hain zuzen.

«Marcel Martinen aitatasun ukatua» kontakizunean ere protagonistak badakar emakumeak deskribatzerakoan edertasunaren aipamenik. Nabarmena da, gainera, edertasunaren mitoak eragiten dituen deskribapen manikeoen erabilera kontakizun horretan, baina, klase sozialarekin lotuta, eta ondorioz estetika batekin. Alde batetik, Annie Parmentier agertzen zaigu, ederra izanik ere, klase gehiegirik gabeko emakume gisa deskribaturik: «Ama, berriz, Annie Parmentier, esan dudanez, emakume horaila da, begi-urdina, alsaziar petoa, garai hartan ederra oraindik, eta ziur asko klase gehiegirik gabeko neska osasuntsu eta mardula izandakoa, edertasun arrunt eta oparoegiaz hornitua» (239. or.).

Txanponaren beste aldean, Hélène Daudet agertzen zaigu dikotomikoki deskribaturik; alegia, Annie bezala ederra bada ere, bien arteko aldea klase sozialean duten posizioan datza: «Alarguna saloi bateko tximiniaren aurrean hitz eginez dut gogoan. Emakume mehea zen, ez oso garaia, beltzarana; estilo handikoa, zuhurra eta eztia zirudien» (249. or.). Deskribapen horretan, aipamen fisikoak ez ezik, jarrerarekin loturiko zenbait adjektibo ekartzen ditu protagonistak, dotorea eta eztia, kasu, biak ere emakume eredu hegemonikoari oso lotuta erabili diren kontzeptuak.

Ipuin berberarekin jarraituz, protagonistaren maitalea den Barbara edertasunetik edo gorpuztasunetik baino gehiago, seduzitzeko duen gaitasunaren bitartez deskribatzen du protagonistak. Diskurtso hegemonikoak ezartzen duen bezala, emakumeei gizonak limurtzeko gaitasuna izatea dagokie, nahiz eta neurtua izan, eta alde horretatik eredu hegemonikoa betetzen duela esan dezakegu (251. or.).

«Bi bihotz, hilobi bat»⁶ ipuineko edertasunaren aipamenak, beste behin, emakumeen karakterizazioarekin lotuta aurkitu ditugu. Protagonista autodiegetikoak honela deskribatzen du bere emaztea: «Flora ez da orain kalean burua birarazten dizuten emakume horietakoa, baina bere denboran, 'gerezien garaian' alegia, ederra zen, eta maiteminduta ezkondu nintzen berarekin» (285. or.). Bioleta aipatzerakoan are gehiago azpimarratzen du haren edertasuna, eta horrekin justifikatzen erakarrita sentitzea (317. or.). Azken ipuinean ere, «Asaba zaharren baratza» izenekoan, gainontzeko ipuinetan legez, ez da edertasunaren inguruko juzkurik falta, oraingoan ere emakume bat deskribatzeko unean. Izan ere, Sabine-Bioletak «gorputz lerdena zuela» (457. or.) esplizitatzeaz gain, «jausitako txori bat» (457. or.) bezala deskribatzen zaigu. Berriro ere, emakumea sexualizatuta eta ahul testuraten zaigu, gizon batek noiz babestuko zain.

Pertsonaia maskulinoak eraikitzerakoan, oster, ikusi dugu gorputzak baino gehiago, haien jarrerak esplizitatzen eta baliatzen direla gehiagotan, gorago aipatu ditugun bi adibide horiek albo batean utzita. Gogora dezagun zorrozetasunak, alegia, ahula ez izateak, ezaugarritzen duela maskulinitate eredu hegemonikoa, eta hori erakusten digu, adibidez, «Asaba zaharren baratza»-ko Sabine-Bioletaren aita izandako Felipek: «nire aita gogorragoa izan zen» (458. or.). Baina, are erradikalagoa da gogortasuna Aita Altuna pertsonaiarengan, Polikarpok gizon autoritario (439. or.) bezala deskribatzen duen heinean.

Duintasuna ere maskulinitatea elkarri erakusteko aitzakia bihurtzen da «Gudari zaharraren gerra galdua»-n, behin eta berriro errepikatzen baita kontakizunean pertsonaia nagusien ahoetan: «Horregatik, beste askotan bezala 'gerra bai, baina duintasuna ez genuen galdu' eta antzekoak esaten ari ziren batean» (32. or.). Duintasun hori, baina, kasu honetan, maskulinitate hegemonikoarekin lotuta ez eze, memoria historikoarekin ere lot daitekeela proposatzen digu Arroita (2015b). Izan ere, bere tesian azaltzen zaigunez, autoreak bere zenbait testutan –«Gudari zaharraren gerra galdua»-n kasu–, gudari izandakoen ohore eta duintasun hori errepresentatu nahi izan du, «gerra duintasunez galdu zuten gudarien harrotasuna», hain zuzen (2015b, 197. or.). Harrotasun hori, hala ere, zalantza bezala ere itzultzen zaigu testura, protagonistaren azalean, esaterako, baina, edozelan ere, guztiz lotuta dago kontakizunean agertzen diren gudariak sentitzen duten kontatzeko beharrarekin.

6 Kontakizuna 1996ko *Bihotz bi* nobelaren berridazketa edo bertsio bat da (Ayerbe, 2016, 196. or.; Olaziregi, 2001, 2004; Otaegi & Otsagabia, 2019), eta, nobelari egin zaizkion irakurketak, batik bat, genero ikuspuntutik egindakoak, baliagarriak izango zaizkigu kontakizun horren iruzkinerako, bi-biek komunean duten ezaugarrietako bat izaki.

Dena den, ikusi dugu kontatzeko behar hori ez dagoela kasu horretan espreski emozionalitatearekin lotuta, edo bestela esanda, kontatzeko beharrak gerran gertatukoei soilik begiratzen diela, ez horrenbeste gudari bakoitzak sentitzen duenari. Azken alderdi hori, duintasunarekin lotuta egoteaz batera, maskulinitate hegemonikoari dagokion heziketa emozionalarekin estuki lotuta dagoela iruditu zaigu. Izan ere, gizartean hegemonikoa den 0 joerako heziketa emozionalaren bitartez (Emakunde, 2008, 28. or.), euren baitara bilduta egoten eta euren sentimenduak ahalik eta gutxien erakusten irakatsi zaie gizonei txikitatik, nahiz eta gertakari traumatikoez hitz egiten egon. Hori gertatzen zaio, hain zuzen ere, lehen kontakizuneko gudari zaharrari: «Orduan, notarioaren aurrean, auskalo zergatik, gerraren amaieraz hitz egiteko beharra-edo sentitu zuen; beharra, beharbada, gehiegizko hitza zen arren» (33. or.).

Sentimendurik ez erakustearen muturreko errepresentazioa dakar «Bi bihotz, hilobi bat» kontakizuneko protagonistak. Izan ere, sentimenduak adierazteko ezintasuna ez ezik, horiek sentitzeko ezintasuna izatea ere leporatzen dio amaginarrebak protagonista maskulinoari (299. or.). Kasu horretan, baina, hurrengo atalean garatuko dugunez, jarrera eta karakterizazio erradikal (hegemoniko) hori, *Bihotz biko* protagonista maskulinoarekin eta «egileak gizon matxistaren munstrokeria agertzeko» (Otaegi & Otsagabia, 2019, 193. or.) izan duen asmoarekin lotzen dugu. Nobela horretan nola ipuinean, protagonista maskulinitate hegemonikoaren erakusgarri behinena da, eta horretarako bere zenbait jarrera eta praktika erradikalizaturik agertzen zaizkigu.

Flora emaztea, oster, emakume sentikor bezala definitzen zaigu, diskurtso hegemonikoak ezarri legez, emakumeekin soilik erlazionatzen den jarrera (309. or.). Eta, Bioleta, are sentiberago dakar kontakizunak: «Florari ere malkoak atera ohi zitzaizkion batzuetan amaren presentzia zelaiko margaritetan sentitzen nuela esaten nionean, baina Bioleta errazago hunkitzen da» (319.-320. or.). Bioleta, gainera, sentibera ez ezik, otzana ere bada, eta jarrera horrek, hain zuzen ere, protagonistaren maskulinitatea goratzen du (352. or.). Sexuan, ordea, jarrera otzana erakutsi beharrean, jarrera aktiboa dakar Bioletak, are protagonista maskulinoak baino gehiago, eredu hegemonikoak ezarri ez bezala: «Ni urduri eta larri samar nengoenez, gelaren erdian geratu nintzen zer egin ez nekiela, zutik. Bera [Bioleta] irribarretsu inguratu zitzaidan; nirekin zer egin behar zuen oso ongi zekiela zirudien» (354. or.).

Salbuespen bezala ulertu ditugu, oster, «Marcel Martinen aitatasun ukatua» ipuineko Marga eta «Asaba zaharren baratza»-ko Polikarpo. Lehenengoaren kasuan, nahiz eta emakumea izan eta feminitate ereduak hala ez ezarri, apatiatik deskribatu zaigu (245. or.). Eta, kontrara, ezarpen normatiboari ezin eutsita honetan ere, Polikarpo, oster, negarrez irudikatu zaigu (444. or.).

Maskulinitate hegemonikoari dagozkion jarreretara bueltatuz, ausartak eta arrakastatsuak izatea ere eredu zehatz horrekin lotzen diren ezaugarriak direla aipatu dute Bonino (2000) eta Sau (2000) adituek, eta horren erakusgarri dugu «Marcel Martinen aitatasun ukatua» kontakizunari izenburua ematen dion pertsonaia; hiltzeko dagoen tinko eta ausart testuratzen baita, eta narratzaile protagonistak, gainera, gizontasunarekin erlazionatzen du jarrera hori (232. or.).

Azkenik, «Rossetti-ren obsesioa» kontakizunak, deskribatzen diren gorputz zein jarrerai dagokienez, aparteko aipamena merezi duela iruditzen zaigu protagonista maskulinoa pertsonaia neurotiko obsesibo bat bezala agertzen baitzaigu (Olaziregi, 2004, 540. or.), eta, ondorioz, haren karakterizazioa eta diskurtsoa klabe horietan ulertu behar dela begitantzen zaigulako. Egoera horren berri ematen digu Sedano pertsonaiak, Juan Martini, alegia protagonistari, behin baino gehiagotan errepikatzen dienez. Olaziregik azaltzen digunez, neurotiko obsesibo batek ez du arrakastarik besteen desiraren aurrean, eta, ondorioz, inpotentziak jaten du (Olaziregi, 2004, 542. or.). Ezintasun horrekin, edo ezintasun horri beldur izatearekin lotu ditugu Juan Martin ezaugarritzen dituzten hainbat alderdi, maskulinitate hegemonikoa ere ezaugarritzen dituztenak. Izan ere, aurrerago argudiatuko dugunez, autoreak Juan Martinen neurosiaren bitartez, maskulinitate eredu hori eta hegemoniaren presioa parodiatzea bilatzen duela iruditu zaigu. Hala, esaterako, bere emozioak adierazteko ezgai dela erakusten zaigu ipuinean, hauxe aitortzen baitio irakurleari Victoriak sentitzen duenaren inguruan: «Orain, beranduegi jada, betirako galdu dudala dakidanean, argiago ikusten dut buru eta bihotz maite nuela, eta berari ere ni axola nintzaiola; horretaz ere ziur bainago. Begi bistakoa iruditzen zait orain, besterik gabe, nire sentimenduak azaldu behar nizkiola: ‘zutaz maitemindurik nagoela uste dut, Victoria’, hitz horiexek erabiliz» (68. or.).

Baina, ezintasun horren atzean beldurra dagoela esplizitatzen du narratzaile autodiegetikoak (69. or.). Eta porrot egiteko ikara hori bera ikusi dugu jarraian ekarriko dugun pasartean ere, eredu hegemonikoari, gizonen identitatearen mitoak (Sau, 2000, 12. or.) txikitatik erakutsi dien bezala, une oro erakutsi behar baitute maskulinoak direla denen aurrean: «[...] ‘zu gabe ezingo naiz bizi; nire ondoan behar zaitut betirako’, baina ez nintzen hitzak paperera eramateko gai; porrot egiteko ikarak eragotzi egiten zidan idaztea» (164. or.).

Olaziregik (2004) erakutsi duenez, halaber, beldur horietatik apur bat gotortzeko espazioa baliatzen du Juan Martinek; ibilia da, neurotiko obsesibo prototipiko batek bere-berea duen bezala, desiratik disoziatzeko darabilen estrategia. Espazioa azpiatalean zehaztuko dugunez, arreta beste eremu batera bideratzeko saiakeran, bide batez, ibilbide eta bidaia bat proposatzen zaio irakurleari, zeinak, ezinbestean, testuartekotasunari dei egiten dion, bai eta hainbat elementu sinbolikori ere. Izan ere, izenburuak berak aurreratzen digunez, nabaria da kontakizunak Dante Gabriel Rossettiren obsesioari eta bizitzari egiten diola keinu; Juan Martinek Rossettiren obsesio berbera badu ere, zeinak bere emaztea objektu bat bailitzan artatu baitzuen gizarte victoriarrean indarrean zegoen kode moral misoginoa jarraikiz (Olaziregi, 2004), Victoriaren begietara guztiz kontrako irudia eman nahi du. Azkenean eginahalak alferrikakoak zaizkion arren, Juan Martinek maskulinitate hibridoaren eredu behinena dakarrela ondoriozta dezakegu: funtsean hegemonikoak diren jarrerak erreproduzitzen ditu, baina, mozorroturik (Bridges & Pascoe, 2014, 246. or.).

Hori gauzatzeko Victoria ez ezik, Eugenia pertsonaia ere deskribatzen zaigu kontakizunean. Gainera, deigarria da hainbat alderditatik kontraktasunez beterik edo dikotomikoki eraikitzen zaizkigula, nahiz eta hasiera batean oso parekoak izan bien

kalifikatzaileak. Kontakizunak aurrera egin ahala, Juan Martinentzat maila berean egongo ez diren arren, bi-biak, objektu pasibo bezala baino, buruaskiak diren emakume kulturadun eta boteretsu bezala ekartzen ditu: «Eugeniarekin baliagarria izan zen izkribuak eragin bera izango zuela Victoriarengan ere, ezaugarri antzekoak zituztela kontuan hartuta: maila sozial bertsukoak izateaz gain, argiak, kulturadunak eta literatura estimatzen zutenak biak» (70. or.). Ikus dezakegunez, intersekzioan deskribatzen ditu: ez bakarrik euren jarduerari erreparatuta, baizik eta euren posizio sozial eta kapital kulturalari erreparatuta ere.

Hala ere, fisikoki egiten da bereizketarik. Hasiera batean Eugeniaren gorputza desiragarri zaio protagonistari (88. or.). Baina, kontakizunak aurrera egin ahala, «usain sarkor eta mingots» (207. or.) baten antzeko bihurtzen da Eugeniaren presentzia Juan Martinentzat. Ostera, Victoria ez sentsuala, baizik eta elegantea den edertasun batek ezaugarritzen du hasi eta buka: «Victoriak, ordea, atentzioa ematen zuen. Hori iruditzen zitzaidan behintzat: bere dotoreziak, edertasunak, ahotsak, begirada guztiak erakartzen zituela» (131. or.). Pasarte horretan esplizitatzen denez, Juan Martin Victoriaren alderdi fisiko guztiek erakartzen dute, eta, partziala da, ordea, Eugenia sentitzen duena, oso aldakorra baita istorio osoan zehar. Alde horretatik, «Juan Martinen begietara 'goiegi'» (Olaziregi, 2004, 146. or.) dagoen emakume bat errepresentatzen digu Victoriak, eta horren aurrean protagonista maiz txikiegi sentituko da, horrek berarekin dakarzkion ikara eta jarrera neurotiko obsesibo guztiekin batera.

Jarrerai dagokienez ere badago alderik Victoriaren eta Eugeniaren artean. Olaziregi (2004, 546-547. or.) diosku Victoriak samurtasuna irudikatzen duela, baina, aldi berean, hoztasuna ere bai, ez baita gai desirarik sentitzeko ezta erakusteko ere, Seda-nok hasiera batetik iragarri bezala. Arrazoi horrengatik Juan Martinek, emakumearen izenak paradoxikoki adierazi bezala, ez du arrakastarik izango haren sedukzioan, eta gorago azpimarratu bezala, haren neurosian eragin zuzena izango du horrek. Bestetik, Eugeniak, guztiz kontrakoa gorpuzten du; desira sexuala irudikatzen du, hasieran protagonistari gustagarri zaiona, baina, bukaeran guztiz arbuiatzen duena. Kultur jakintzari dagokionez, hainbatetan, irrigarri antzean testuratzen zaigu Eugenia, *Babelia* irakurle eta balizko idazle baten amorante baten gisa. Bien arteko dikotomia hori, aurrerago garatuko dugunez, espazioaren bitartez ere errepresentatzen zaigu. Bi emakumeak, antitetikoki eraiki diren arren, kontakizunaren bukaeran ondorio berera heltzen dira: «Biek leporatzen diote bere maitatzeko ezintasuna estaltzeko erabiltzen duen sorkuntza, literatura, objektu anal argia dela» (Olaziregi, 2004, 547. or.), Rossettiren kasuan bezala.

Narratzaile-protagonistak bi emakumeak deskribatzeko erabiltzen dituen hitzen eta begiradaren atzean, beste behin, Dante Gabriel Rossettiren begirada bertsuarekin egin dugu topo. Ikusi dugunez, bi emakumeak dominazio maskulinoak gidatutako begiradak zizelkatzen ditu fisikoki, eta gogora dezagun, kontakizunean bertan ere esplizitatzen zaigunez, «Pre-Raphaelite Brotherhood» delakoaren aitzindarietako bat izan zela margolaria (Olaziregi, 2004, 531. or.). Mugimendu horretan androzentrismoa zen nagusi, eta euren lanetan ere islatzen zen. Hori dela eta, ez zaigu kasualitatea iruditzen

Victoriak eta Juan Martinek, Londresen daudela, Rossettiren koadroak bisitatzea eta iruzkintzea, haiekiko eraikitzen den lotura metaliterarioaren isla.

Juan Martinek Victoriarekin eta Eugeniarekin duen harremana klabe metaliterarioetan irakurri duenik ere bada ikerlarien artean. Izan ere, Apalategik (2018) kontakizunaren atzean euskal literatur sistemako egoeraren irakurketa bat proposatzen du. Hala, euskal literaturako bi idazle kanonikoen egoerak adibidetzat hartuta, hots, Atxagarena eta Saizarbitoriarena, erdigune literarioan egoteko eta nazioartekotzeko modu oso bestelakoez mintzo zaigu ikerlaria, pertsonaien bitartez (2018, 39. or.). Joko hori artikuluaen muina ez ezik, idazlearen beraren gai narratibo eta fikzional garrantzitsuenetariko ere bihurtzen da *Fikzioaren izterrak* (2010) obrako «Bernardo et Ramon» kontakizunean, zeinetan «Rossetti-ren obsesioa»-ko zenbait eszena errepikatzen diren.

4.2 Praktikak

Lanbideak ere hegemonikoki eta asimetrikoki banatuta daude (ikus § 2, 1. taula). Hala, lanpostu boteretsuenak edo indarraren instrumentalizazioan oinarritutakoak gizonen esku utzi dira; bigarren mailakoak, oster, emakumeen esku, are gehiago zain-tza-lanekin loturaren bat badute.

Banaketa antitetiko hori «Bi bihotz, hilobi bat» kontakizunean islatzen da ondoen. Protagonista bere emaztearekin, Florarekin, eta emaztearen gurasoekin bizi da, eta argi adierazten du lan banaketa asimetriko hegemonikoa: «Flora eta bere ama askoz hobeto arduratzen zirelako nire behar guztiez ordu arte apopilo egonda ezagutu nituen etxeakoandre guztiak baino» (285. or.). Benito, Floraren aita hilzorian dagoenean bere emazteak zaintzen du, inork lehenago egin ez bezala (287. or.). Eta protagonistaren amaginarrebak iktusa izaten duenean ere, espero izatekoa den bezala, alaba Florak hartzen du haren zaintzaren ardura (308. or.). Ama-alaben artean, hortaz, zaintza lanen kate feminizatua errepresentatzen zaigu.

Ez da kasualitatea genero bereizketan oinarritutako zereginen banaketa ondoen erakusten zaigun kontakizun berean genero indarkeria ere ondoen testuratu izana. Alde batetik, etxeko lan ordaindu gabeak emakumeen esku (bakarrik) uztea, eta ondorioz, euren denbora librea ukatzea emakumeek sistemaren partetik jasaten duten esplotazioaren sintometako bat da (Sagastizabal, 2020). Bestetik, indarkeria hori are esplizituago egiten da, manipulazio psikologikoa baliatuz, protagonistak emaztea heriotzara bultzatzen duenean. Protagonistak kontakizunean zehar izandako jarrera eta praktika guztiz hegemoniko eta matxistek azken eszenan jotzen dute gailurra. Hitzezko manipulazioa baliatuz, eta ez horrenbeste zuzeneko indarkeria esplizitua eta fisikoa, senarrak Flora heriotzara bultzatzen du: «Gertaturikoaz errudun sentitzen naiz noski, ez baitakit zein neurritan ez nintzen neu izan ehorzlearen pala astindu zuena. Dena dela ez dago dudarik nik bultzatu nuela harengana» (396. or.). Saizarbitoriak kontakizun guztietan darabilen ironia eta sarkasmoa antzeman dezakegu hitzotan, eta argi uzten du, zeharka bada ere, protagonista genero indarkeria ageriko horren erruduna dela. Genero indarkeria bertsua testuratzen zaigu, nahiz eta esplizituagoa eta fisikagoa

izan, *Bi bihotz* nobelan. Hala, iruditzen zaigu, Otaegik eta Otsagabiak (2019, 193. or.) nobelako protagonistaz esandakoa baliagarri zaigula ipuineko protagonistaren ekin-tzak eta soslaia deskribatzeko: «Euskal senar arrunt, mokofin, alkoholzale, bakarti, alfer eta miserablea irudikatu du egileak, bere harremanak tenkatzen direnean tratu txar-emaileen profil psikologikoaz hornituz, eta bere barneko erresumin eta biolen-tziari ekintzeraino joaten utziz».

Beste adibide hegemoniko bat «Bi bihotz, hilobi bat»-eko Bioletak ekarri digu, kasu honetan, baina, ez horrenbeste zaintza-lanekin lotuta, ezpada boterearen hierar-kian emakumeek bete izan duten mendeko posizioarekin lotuta. Lanpostu garrantzi-tsu batean egonda ere, oraindik hierarkiaren erpinean dauden posizio horietara iri-tsi gabeko langilea baita, eta narratzaileak ñabardura hori berori transmititzen digu inplizituki bere hitzekin (319. or.). Bioletaren egoerak agenda feministetan hainbatetan aipatu izan den kristalezko sabaiaren metafora (Valcárcel, 1997, 125. or.) ilustratzen eta errepresentatzen digu.

Badira salbuespenak, hala ere, «Rossetti-ren obsesioa»-ko Eugeniak lanpostu bote-retsuetan bat duela azaltzen baitzaigu; Eugenia abokatua da, eta bulegoan pasatzen du denbora gehiena lanez lepo (83. or.). «Marcel Martinen aitatasun ukatua»-k ere bote-redun lanpostua aipatzen du, baina, kasu horretan, narratzaile-protagonista gizonez-koa dugu, eta, ondorioz, hegemonikoa: «Niri, berriz, ez zitzaidan zaila gertatu nire enpresak Frantziako ordezkariartzara, zeinarekin nazioarteko eskubidean aditua naize-nez tratu estua nuen aspalditik, urtebeterako bidal nintzan» (237. or.).

Azkenik, hizkuntzaren erabilera sexistari erreparatuta ikusi dugu sistematikoa dela «Rossetti-ren obsesioa» kontakizunean, protagonistaren karakterizazio neurotikoa obsesioa eta hegemonikoak bere-berea duenez. Narratzaile-protagonista, maiz, emakumezkoenak edo gizonezkoenak diren jarreraz, ezaugarri fisikoez, jardueraz mintzo baita, orokorrean, eta, diskurtso hegemonikoak egin legez, identitate eredu genitali-tatearekin lotuta dakar, bi aukera posible soilik egongo balira bezala: edo gizonezkoa zara, edo emakumezkoa, aipatu ezaugarrien arabera, kontakizuneko pasarte honek erakutsi bezala: «Emakumeentzat oso desatsegina baita gizonezkoen joera hori: berek adiskidetasun maila soilean mantendu nahi luketen harremana guk harantzago eraman nahi izatea» (69. or.). Horrekin batera, protagonistak, Eugenia mintzo denean, *histe-riko* iraina darabil (210. or.), historikoki emakumeekin soilik lotu izan dena (Sabuco i Cantó *et al.*, 2003, 146. or.). Orokorkeria sistematiko eta etengabe horien atzean diskurtso maskulinoaren misoginia salatzen dela iruditzen zaigu, hain zuzen ere, kon-takizunak hasieratik bertatik dakarren tonu parodikoa baliatuz, bukaeran garatuko dugunez.

Orokorkeria sexista antzekoak antzeman ditugu «Marcel Martinen aitatasun uka-tua» kontakizuneko narratzaile autodiegetikoaren diskurtsoan ere: «Alferrik zen hitz egitea; zientziak huts egiten zionean, emakume intuizioaz baliatzen zen Marga» (239. or.). Horrekin batera, emakumei soilik ezarri zaizkien irainak darabiltza prota-gonistak: «Duintasun kontua omen zen: Marcel Martin ezin makurtu zitzaion azter-keta biologiko bat egin beharrari, edozein urdangak, mari-purtzilek edo auskalo zerk,

esan zuen, ume bat egin izana leporatzen ziolako» (240. or.). Marga protagonistaren emazteak ere erabiltzen ditu han-hemen iruzkin sexista horietako batzuk: «Emakume batek badaki» (244. or.). Esaldi horrek, gainera, izenburuaren bigarren atalera garamatza ezinbestean: «Marcel Martinen aitatasun ukatua (edo, ‘La femme, elle, sait’)), alegia «emakumeak, berak, badaki». Izenburuak ere, hortaz, hizkuntza sexista eta orokorkeria binarista berberaren bitartez, diskurtso hegemonikoa betikotzen du.

Gauza bera aurkitu dugu «Bi bihotz, hilobi bat» kontakizuneko protagonistaren mintzoan ere: «[...] emakumeek ohi dutenez, erratza behin eta berriz hankak dituzun lekutik pasatzeko keinu horrekin» (293. or.). Hitzok aditzera ematen dute protagonistak oso barneratuta duela etxeko lanak emakumeen lanak direla soil-soilik, eta, hortaz, argi geratzen da bere ideiek islatzen duten eite hegemoniko eta matxista. Are nabarmenagoak dira mota horretako iruzkinak protagonistak sexuaz hitz egiten duenean (356. or.). Kontakizun bereko ehorzleak ere, kontakizuna klimaxera heltzen denean, hizkuntza sexista darabil Florari hitz egiteko unean, ehorzlearen jarrera hegemonikoaren erakusle: «‘vete de aquí, loca; que a ti un hombre te tenía que haber metido en cintura’ esaten ziola [ehorzleak]» (395. or.). «Asaba zaharren baratza» ipuinean emakume baten ahotsetik irakur ditzakegu mota bertsuko iruzkin sexistak, kasu horretan ere, bere jarrera hegemonikoaren isla: «‘zuek gizonok’, esan zuen irribarrez, ‘gauza guztiez beranduegi konturatzen zaretelako’» (459. or.).

4.3 Espazioak

Jakina denez, espazioak ere banatuta daude generoen arabera, eta hala, historikoki, emakumei (edo feminitate erduei) eremu pribatuak gorde zaizkie; gizonei (edo maskulinitate erduei) publikoak (ikus § 2, 1. taula.). Kontakizunetan errepresentatu diren espazio utilitarioei dagokienez, banaketa hegemoniko argiena «Bi bihotz, hilobi bat» ipuinean aurkitu dugu. Protagonistaren emaztea, Flora eta bere ama dira, gorago argudiatu dugunez, etxeaz arduratzen diren bakarrak, eta amaren faltan, Florak hartzen du lan karga guztia. Benito eta protagonista, ostera, Kanoietara elkartean agertzen dira maiz: «Esan beharra dago, bestalde, Benitorekin Kanoietara joaten hasi banintzen, Florak etxetik ateratzeko gogorik izaten ez zuelako hasi nintzela» (292.-293. or.). Baina, hasieran, aitzakia bezala darabilen argumentu hori ez zaio aski Kanoietara egindako bisita konstanteak azaltzeko, eta hauxe onartzen du:

Azkar joan ohi da denbora elkartean; giro hura gizonezkoontzat baketsua delako, nik uste. Inork ez dizu esaten jaten baldarra zarenik edo ez edateko hainbeste, eta lasaitasunean azkarrago egiten du denborak ihes. Sarritan hitz egin izan nuen gai horretaz Benitorekin, eta iritzi berekoa zen hura ere, alegia, lasaitasunaren eraginez iruditzen zaigula joaten dela arinago denbora elkartean gaudenean (303.-304. or.).

Argi dago, hortaz, familia hegemoniko horretan, emakumeak direla etxeaz eta etxeko betebeharez arduratzen diren bakarrak eta, ondorioz, esparru pribatuaren karga guztia emakumeengan soilik uzten da. Horrek berarekin dakar, emakumeak, etxearen zaintzan dihardutenean, bere aisialdirako denbora libre gutxiago izatea, eta gizonak, ordea, gehiago. Horra hor, denbora fisikoaren kontrolaren adibideetako bat,

Boninok (1995) *mikromatxismo koertzitibo*⁷ definitu duena. Marina Sagastizabalen *Hiruki gatazkatsuak* (2020) ere hori berori salatzen du: sistema kapitalistak bultzatuta, ordaindutako lana da soilik garrantzitsua eta boterea ematen duena gizartearentzat, ondorioz, maskulinizatutakoa; etxeko lan ordaindugabeek, oster, ez dute botererik eragiten, eta ordaindutakoak direnean ere, baldintza prekarioetan egiten dira. Egungo gizarte kapitalistan emakumeak ordaindutako lanetan ez ezik, ordaindu gabeko lanetan eta espazioetan ere aritzen dira, gizonezkoak (hegemonikoak, behintzat) ez bezala, eta ondorioz, euren kontuetarako, edo, are, gizartearentzat ezinbestekoak diren gaietarako, politika adibidez, denbora gutxiago izaten dute.

Eta kontakizun horretako protagonista maskulinoa ez ezik, «Gudari zaharraren gerra galdua»-ko gudari zaharra eta bere lagunak ere Paco Bueno tabernan ikusi ditugu maiz, eta bitartean, aipatzen diren emakumeak etxeetan edo eremu pribatuetan, Amianoren alaba, esaterako. «Marcel Martinen aitatasun ukatua»-ko Joe Costello piano-jolea ere eremu publikoan agertu zaigu soil-soilik.

Saizarbitoriaren ipuinetan, baina, ikusi dugu espazio utilitario edo fisikoek baino gehiago, sinbolikoek garrantzi handiagoa hartzen dutela, are pertsonaien soslaia erakitzeke unean ere. Izan ere, gudaria izatea da lehen kontakizuneko protagonista maskulinoa ezaugarritzen duen alderdi nagusietarikoa, eta izendapen horrek, ezinbestean, Gerra Zibileko testuinguru gatazkatsu eta maskulinizatura garamatza: «convertidos en símbolo de la eterna lucha de Euskadi por la libertad, su heroísmo destacaba aún más, al ser hombres de paz, sin experiencia militar previa a 1936» (Pablo, 2012a *apud* Arroita, 2015b, 266. or.).

Pablaren aipuan zehazten denez, gizonak ziren –eta ez, ordea, emakumeak– Gerra Zibilari loturiko testuinguru eta espazioetan ibiltzen zirenak, eta Saizarbitoriaren lehen kontakizunak hori berori berresten digu analepsiz eraikitzen den protagonistaren bizitza gogorarazterakoan. Are gehiago indartzen da mezu hori gudari zaharra hanka galdu zuen eszenatokira bueltatzen denean, hots, Elgetara, eta, noizbait egin bezala, hango lurretan, beste behin, bere odola isurtzen duenean: «Ildo horretan, esan genezake bizitza traumatizatu baten amaiera irudikatzen duela gudari zaharra gudu-zelaira itzuli eta, berriz ere, bere odola han isurtzeak» (Arroita, 2015b, 286. or.). Horrekin lotuta, Serranok (2019) ere hau azpimarratzen du Saizarbitoriaren obran Intxorta bezalako memoria-guneek eragiten dutenaz: «errealitate faktikoarekiko existentziarekin analogia eginez, espazio horren benetakotasun historikoa azpimarratu nahi du Saizarbitoriak «Gorde nazazu lurpean» (2000) narrazioan Intxorta mendiak baliatzen dituen bezala» (2019, 81. or.).

⁷ Boninok azaltzen duenez, mikromatxismo koertzitiboa mikromatxismo mota bat da, isilpeko eta krisiko mikromatxismoekin batera. Koertzitibotzat hartzen da gizonak bere indarraz baliatuz (indarra zentzu zaballean, moralari, ekonomiari edo nortasunari dagokionean), emakumearen askatasuna mugatzeko egiten duen edozein ekintza. Gogora dezagun mikromatxismoak egunerokoan normalizat hartzeagatik ikusezinak egiten zaizkigun zapalkuntza matxista betikotuak direla, eta horiek ere, ageriko indarkeriak bezala, emakumeak hertsatzea eta zapaltzea dute xede (Bonino, 1995, 197. or.).

Sukarrieta da memoriari, eta zehazki, nazionalismo aranatarari dei egiten dion beste espazio sinboliko bat, «Asaba zaharren baratza» azken kontakizunaren bukaran agertzen zaiguna. Gorago aipatu dugunez, bertara biltzen dira bai Polikarpo, bai Sabine-Bioleta bien aitek utzitako erlikiarekin, hots, Sabino Aranaren hezur zatiekin zer egin erabakitzeke. Azkenean, Sukarrietako uretan bertaratu, eta han isurtzea adosten dute. Aldekoak (2011, 101. or.) azpimarratzen duenez, espazio fisiko hori erabakigarria izan zen Arana anaientzat ikurrinaren sorrerarako eta hain zuzen ere, Aranaren hezurak ur horietan askatzeak esanahi sakonago bat hartzen du. Izan ere, ekintza hori nazionalismoarekiko eta gurasoengandik jasotako oinordetza ideologikoarekiko haustura bezala ulertuta (Arroita, 2011; Olaziregi, 2009; Otaegi, 2002), Aranaren hezurak bere jaioterrira itzultzen dira, baina ez nazionalismoari jarraipena emateko, ezpada etena errepresentatzeko. Alde horretatik, espazioaren bitartez, kontakizunaren mezua osatu egin dela iruditu zaigu.

Are esanguratsuagoa da espazioaren errepresentazio sinbolikoa «Rossetti-ren obsesioa» kontakizunean, ipuinaren mezuaosatzeaz gainera, protagonista maskulinoaren soslaia ere ertzez jantzen baitu. Donostiarekin batera Madril eta Londres dira esanguratsuki gehien agertzen diren espazioak, bakoitzak, baina, esanahi desberdin bat hartzen du, eta alde hori deskribapenen bitartez eta, batik bat, bakoitzean egiten den ibilbideak iradokitzen digu. Londres Victoriarekin estuki lotuta agertu zaigu, eta gogora dezagun pertsonaia femenino horren arretaren peskizan egiten dituela Juan Martinek patetikotasunera daramaten peripezia guztiak. Bada, Londres hiria bera ere askoz sakonago deskribatzen zaigula ohartarazten digu Olaziregik (2004, 525. or.), Madril lekin alderatuta.

Londresen Victoriarekin egiten dituen geldialdiek, gainera, Rossettiren bizitzara begira jartzen gaituzte, eta Juan Martinek harekiko dituen antzekotasunak areagotzen dizkigute, aldi berean. Hala, margolariaren bizitzan esanguratsuak izandako lekuetatik paseatzera gonbidatzen gaituzte bi pertsonaiek: «Errealitate eta fikzioaren arteko jolas horretan, benetako lekuak, erreferentzia literarioz beteak, bilatu ditu Saizarbitoriak» (Olaziregi, 2004, 526. or.). Horren kontrapuntua da, aldiz, Madril eta harekin Juan Martinek eraikitzen duen harremana, Londresek ez bezala –alegia, Victoriak ez bezala–, Eugeniaren irudikapen bezala irakurri den Madrilek ez baitu protagonista horrenbeste kitzikatzen. Ondorioz, hiriburu espainiar horretako erreferentziek eta deskribapenek ez dute horrenbeste ñabardura hartzen, eta, zenbaitean, etxean bezala –hau da, Euskal Herrian bezala– sentitzera iristen da protagonista, Reina Sofian ikusten duten Chillidaren eskulturarekin, han-hemenka agertzen diren euskal jatetxeekin, edo, are, Eugeniarekin izandako enkontru erotikoko eszenatoki nagusia den Chamartineko hotelarekin –«Aita Martin»-etik erator litekeen toponimoa izaki–: «Metafora erraza erabiliz, Eugeniarekin benetako bidaiairik ez dagoela esango genuke, Juan Martinek ez duela lortzen bere malenkonia egoeratik ateratzea» (Olaziregi, 2004, 101. or.).

Lotura berberari eusten dio Apalategik (2018) kontakizunari egiten dion irakurketa metaliterarioan, ondorioztatzeko Eugeniak eta harekin batera deskribatzen den Madril lek espainiar literatur esparrua errepresentatzen dutela; Victoriak, eta harekin batera

agertzen den Londresek, ostera, baita, leku batetik bestera mugiarazten duen lanbidea izanik, Londresekin batera agertzen diren gainontzeko espazioek ere unibertsalizazio literarioa ekartzen dutela. Hala, Juan Martin bera, euskal literatur sistemaren irudikapen bezala ulertuta, ez dute Madrilek eta Eugeniak seduzituko –hots, espainiar literatur sistemak–, ezpada nazioartekotzeak, hots, Victoriaren ingurumarietan agertzen diren sistema postmoderno eta unibertsalagoek.

Triangelu espazial horren hirugarren eta azken erpina Donostia dugu, Juan Martinen jaioterria ez ezik, Apalategiren (2018, 106. or.) irakurketa metaliterarioari jarraikiz, euskal literaturaren epizentroetako bat. Horra begira jartzen gaitu ez bakarrik protagonista maskulinoak, baizik eta pertsonaia femeninoen izenek ere, Victoria Eugenia, jakin dakigunez, Donostia hiriko erdigunean kokatuta dagoen antzoki esanguratsua da.

5 ONDORIOAK

Gorago ekarri ditugun emaitza kuantitatiboetan ikusi dugunez, Saizarbitoriaren kontakizunetan eredu hegemonikoa gailentzen da. Eredu hegemoniko gehien dakarren ipuina lehenengoa izan dela ikusi dugu, «Gudari zaharraren gerra galdua», baina eredu hegemonikoaren muturreko ereduak, tradizionalenak, «Bi bihotz, hilobi bat» kontakizunak deskribatu dizkigu. Azken horretan, diskurtso hegemonikoak ezarritako estereotipo indartsu eta ohikoenak, tradizionalenak, erreproduzitu direla antzeman dugu, izan gizon edo emakume baten azalean: emakumeak izan dira etxeaz arduratu direnak, lan ordaindu gabea izanda, botere eta buruaskitasun ekonomiko gutxiago dutenak, eta etxean karakterizatu direnak beti; hots, eremu pribatu eta feminizatuan. Gizonezkoak eta batik bat protagonista, berriz, horien dikotomikoak izan dira: etxera dirua daramatenak, beti etxetik kanpo eta edaten dihardutenak, emazteari adarrak jartzen dizkietenak, eta, are, manipulazioz, emaztea heriotzara bultzatzen dutenak. Eredu ez hegemoniko guztiak emakumezko pertsonaien azalean hezurmamituta identifikatu ditugu, eta, ondorioz, esan daiteke Saizarbitoriak, emakumeak eraikitzerako unean askotariko ereduak dakartzan arren, gizonezkoak sortzerako unean, bi eredu bakarrik erabili dituela: hibridoa, eta, batik bat, hegemonikoa.

Analisian zehar argudiatzen saiatu garenez, halaber, kualitatiboki, pertsonaien sozialak eraikitzeke unean, gorputzetan eta jarreretan oinarritu da batik bat autorea. Emakumeen kasuan, inperatibo kulturalari jarraikiz, gorputzek gidatu dute euren karakterizazioaren zatirik handiena, beti ere begirada maskulinitatik eta sexualizaturik eta jarrerak gizonezkoak deskribatzeko funtsezkoak izan dira. Horietan nagusi izan dira, batetik, sentimendu eta emozioak adierazteko ezintasun eta inkomunikazioa, eta, bestetik, gizonen identitatearen mitoa, eta, ondorioz, pertsonaia maskulinoek euren maskulinitatearekin izandako etengabeko norgehiagoka. Era berean, ezaugarriok testuratzeko baliatu den perspektibari dagokionez, kanpo begirada nagusitu dela erakutsi dizkigute adibide zehatzek. Kanpo begirada hori are nabarmenagoa izan da, gainera, pertsonaia femeninoak karakterizatzeko unean, ipuinetan nagusitu den begirada maskulinoak eta emakumeen deskribapen sexualizatuak erakutsi digutenez. Protagonisten karakterizazioa kenduta, bai eta arestian ekarri ditugun unean uneko pertsonaien

hitzartzeak ere, errepresentatu diren identitate ereduaren soslai, nagusiki, kanpo begiradak osatu du, eta gogora dezagun ideologia hegemonikoa egitura sozial nahiz kulturalen bidez, hots, gizarteari begira antolatzen eta betikotzen dela (Connell, 2005).

Kuantitatiboki eta kualitatiboki eredu hegemonikoa irudikatu bada ere, iruditu zaigu, hain zuzen ere, eredu hegemoniko hori irrigarri uzteko ekarri eta eraiki direla maskulinitate eta feminitate eredu zehatz horiek. Izan ere, ironiaren eta sarkasmoaren erabilera esanguratsua izan da ipuinez ipuin, eta horrek Saizarbitoriak proposatzen duen maskulinitate eredu hegemonikoa patetikotasunetik ulertzera eraman gaitu. Maskulinitate hegemonikoa barregarri antzean jartzeko hainbat estrategia egin ditu bere autoreak, ipuin batzuetan besteetan baino ageriagoak egin dituenak. Hori da, esaterako, «Gudari zaharraren gerra galdua»-ko protagonistaren kasua. Gudari zaharra galtzaile irudikatu zaigu zentzu ugaritan, ez bakarrik gerra galdu duelako, ezpada gerran bertan, hanka eta, are, bere bizitzari zentzua ematen zion emakumea ere galdu dituelako: «Gudariaren maitasun istorioa patetikoa da, ez bakarrik baserritarraz maitemintzean hanka galtzen duelako, baizik eta Miren gaztea tropa etsaien erasoaldi horretan hiltzen baita» (Apalategi, 2012, 108. or.). «Rossetti-ren obsesioa»-ko Juan Martin, bere neurosiak bultzaturik, hainbatetan agertu zaigu pertsonaia patetiko bat bezala testuraturik; Victoria konkistatzeko saiakeretan edozer egiteko prest agertu zaigu: «Beste eszena gehienek ere, Juan Martinen patetikotasuna azpimarratu besterik ez dute egingo» (Olaziregi, 2004, 528. or.). Azkenik, «Bi bihotz, hilobi bat»eko protagonista ere gizon matxista eta baztergarri bat bezala agertu zaigu; Otaegik eta Otsagabiak (2019) *Bi bihotz* nobelako protagonistaz esandakoak baliagarri zaizkigu alde horretatik kontakizuneko protagonista ere deskribatzeko: «eleberri honetan ez dago egiazko protagonista duin eta garaile moralik, protagonista maskulino nagusia gaizkilea baita eta haren inguruko emakumeak biktima gisa agertzen baitira» (2019, 138. or.).

Guztiarekin ere, «heroirik gabeko unibertso literarioa da Saizarbitoriak begitantzen diguna» (Olaziregi, 2004, 523. or.), eta epikotasunik gabeko pertsonaia gizatiar eta mundutar horien (Laraway, 2007, 359. or.) errepresentazioekin, eredu hegemonikoaren epikotasun eza eta patetikotasuna agerian jartzen ari zaizkigula ulertu dugu.

6 ERREFERENTZIAK

- Aldekoa, I. (1993). *Euskal ipuinen antologia bat*. Alberdania.
- Aldekoa, I. (2010). Gerra Zibila Ramon Saizarbitoriaren narrazio gintzan. *Euskera*, 54(2/2), 1127-1147. <http://doi.org/10.59866/eia.v2i54.235>
- Aldekoa, I. (2011). La Guerra Civil en la obra narrativa de Ramón Saizarbitoria. *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas*, 45, 86-102.
- Apalategi, U. (2008). Guerra civil y literaria en la novelística reciente de Ramón Saizarbitoria. In R. Macchiuci (zuz.), *Siglos XX y XXI. Memoria del I Congreso Internacional de Literatura y Cultura Españolas Contemporáneas* (1.-14. or.). Universidad Nacional de La Plata.
- Apalategi, U. (2009). Gerra Zibila Saizarbitoriaren *Bihotz bi*-n: literalitasuna, alegoria eta beste zenbait hipotesi. *Euskera*, 54(2), 1109-1126. <http://doi.org/10.59866/eia.v2i54.233>

- Apalategi, U. (2010). *Fikzioaren izterrak*. Susa.
- Apalategi, U. (2012). *Gudari zaharraren gerra galdua* edo Gerra Zibila lehia literarioaren alegoria gisa. In J. Kortazar & A. Serrano (arg.), *Gatazken lorratzak. Euskal arazoaren isla narratibean 1936tik gaurdaino* (93.-112. or.). Utriusque Vasconiae.
- Apalategi, U. (2018). Basque identity, otherness and narcissistic enjoyment in *Rossetti's Obsession* by Ramon Saizarbitoria. In X. Payá & L. Sáez (arg.), *National identities at the crossroads: literature, stage and visual media in the Iberian Peninsula* (36.-43. or.). Francis Boutle Publishers.
- Aresti, N. (2014). De heroínas viriles a madres de la patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco (1893-1937). *Historia y Política*, 31, 281-308.
- Arroita, I. (2011). Memoria e identidad en la obra de Atxaga y Saizarbitoria. In M.J. Olaziregi (koord.), *Literaturas ibéricas y memoria histórica* (126.-139. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Arroita, I. (2015a). Gudaria memoria gune gisa Ramon Saizarbitoriaren nobeletan. In I. Arroita & L. Otaegi (arg.), *Oroimenaren lekuak eta lekukoak* (185.-200. or.). EHU.
- Arroita, I. (2015b). *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15964>
- Askoren artean. (2003). *Begiz jotako ipuinak*. Alberdania.
- Ayerbe, M. (2016). *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarriollandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/19554>
- Bal, M. (1985). *Teoría de la narrativa*. Cátedra.
- Bonino, L. (1995). Develando los micromachismos en la vida conyugal. Una aproximación a la desactivación de las maniobras masculinas de dominio. In J. Corsi (arg.), *Violencia masculina en la pareja. Una aproximación al diagnóstico y a los modelos de intervención* (191.-208. or.). Paidós.
- Bonino, L. (2000). Varones, género y salud mental: deconstruyendo la «normalidad» masculina. In M. Segarra & A. Carabí (arg.), *Nuevas masculinidades* (41.-65. or.). Icaria.
- Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina*. Anagrama.
- Bridges, T. & Pascoe, C.J. (2014). Hybrid masculinities: New directions in the Sociology of men and masculinities. *Sociology Compass*, 8(3), 246-258.
- Cantero, P. A. (2003). Hombrear. Modos de aprender a ser hombre. In J.M. Valcuenca & J. Blanco (arg.), *Hombres: la construcción cultural de las masculinidades* (53.-65. or.). Serie Arcoiris.
- Carabí, A. (2000). Construyendo nuevas masculinidades: una introducción. In M. Segarra & A. Carabí (arg.), *Nuevas masculinidades* (15.-27. or.). Icaria.
- Connell, R.W. (2005). *Masculinities*. University of California Press.
- Connell, R.W. (2005/2022). *Maskulinitateak*. Elkar.
- Egia, L. (2001). Armiarma sarea. *Deia*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=250>
- Emakunde. (2008). *Gizonak, berdintasuna eta maskulinitasun berriak*. Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea.
- Esteban, M.L. (2004). *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Edicions Bellaterra.

- Ezkerra, E. (2001). Lurpean gordetzeko sekretu eta saminak. In *Euskaldunon Egunkaria*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=158>
- Ezkerra, E. (2023). Wrestling the past. War, loss, and the politics of memory in Iban Zaldúa's «Gerra zibilak» and Ramon Saizarbitoria's *Gudari zaharraren gerra galdua*. *RIEV*, 68(1), 51-60.
- Gilmore, D.D. (1990). *Manhood in the making. Cultural concepts of masculinity*. University of Yale.
- González-Allende, I. (2022). Maskulinitatea, patrilinealtasuna eta feminismoa Karmele Jaioaren ipuinetan. In M.J. Olaziregi & A. Elizalde (arg.), *Karmele Jaioaren literatura, emozio gorpuztua* (153.-174. or.). EHU.
- Guasch, O. (2003). Ancianos, guerreros, efebos y afeminados: tipos ideales de masculinidad. In J.M. Valcuenca & J. Blanco (arg.), *Hombres: la construcción cultural de las masculinidades* (113.-124. or.). Serie Arcoiris.
- Hernandez Abaitua, M. (2008). *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza*. EHU.
- Iturra, R. (2003). La construcción social de la masculinidad. In J.M. Valcuenca & J. Blanco (arg.), *Hombres: la construcción cultural de las masculinidades* (25.-52. or.). Serie Arcoiris.
- Juaristi, F. (2001). Obsesioak. *El Diario Vasco*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=172>
- Kortazar, J. (d.g.). *Gorde nazazu lurpean* (2000), Ramon Saizarbitoria. *Euskal Literaturaren Hiztegia (ELH)*. <https://www.ehu.eus/ehg/literatura/>
- Kortazar, J. (2000). *Euskal literatura XX. mendean*. Prames S.A.
- Kortazar, J. (2023). Teoría de la traducción y noción de la realidad en la novela *Martutene* (2012) de Ramon Saizarbitoria. *EHumanista/IVITRA*, 24, 118-137.
- Laraway, D. (2007). Nationalism in mourning: An epitaph for ideology in Ramon Saizarbitoria's *Gorde nazazu lurpean*. *Journal of Spanish Cultural Studies*, 8(3), 357-378.
- Lasarte, G. (2012). *Feminist Agenda Euskal narratiba garaikidean*. EHU.
- Lasarte, G. (2014). Maskulinitate berriak euskal literaturan: irakurketa proposamen bat. *Hegats: literatur aldizkaria*, 52, 45-76.
- Lipovetski, G. (1999). *La tercera mujer*. Anagrama.
- Lomas, C. (2004). ¿Los chicos no lloran? In C. Lomas (arg.), *Los chicos también lloran. Identidades masculinas, igualdad entre los sexos y coeducación* (9.-32. or.). Paidós.
- Majuelo, I. (2023). *Euskal eleberrigintza urbanoaren irakurketa feminista bat. Flâneuse garaikidearen aukerak eta mugak* [Dokortesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.eus/handle/10810/66666>
- Medeak (2013). Manifestu TransFeminista. In A. Alvarez Uria (arg.), *Genero-ariaketak. Feminismoaren subjektuak* (59.-72. or.). Edo!
- Olaziregi, M.J. (2001). *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*. Labayru Ikastegia.
- Olaziregi, M.J. (2002). 100 metroren hamargarren argitalpenean. In R. Saizarbitoria, *Ehun metro* (7.-13. or.). Erein.
- Olaziregi, M.J. (2004). Ramon Saizarbitoria: obsesioez haratago literatura. *RIEV*, 49, 521-549.
- Olaziregi, M.J. (2009). La recuperación de la memoria histórica en la novela contemporánea vasca. *Euskera*, 54(2), 1027-1047.

- Otaegi, L. (2002). Asaba zaharren baratzaz orainik: Ramon Saizarbitoriaren ‘Gorde nazazu lurpean’ irakurtzeko modu bat. *Egan*, 1/2, 59-78.
- Otaegi, L. & Otsagabia, G. (2019). *Beste Gerrako Kronikak. Bikote harremanak eta indarkeria Ramon Saizarbitoriaren eleberrigintzan*. Labayru Ikastegia.
- Puleo, A.H. (2000). De «eterna ironía de la comunidad» a sujeto del discurso: mujeres y creación cultural. In M. Segarra & A. Carabí (arg.), *Nuevas masculinidades* (65.-82. or.). Icaria.
- Rich, A. (1978/1996). *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*. Cátedra.
- Rodriguez, E. (2019). *Lisipe. Idazleen gorputzak: egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian*. Susa.
- Rojo, J. (2001). Hildakoen bakea. *El Correo*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=153>
- Ryan, M. (2010). *Cultural studies: a practical introduction*. Blackwell Publishing.
- Sabuco i Cantó, A. & Valcuenca del Río, J.M. (2003). La «homosexualidad» como representación hiperbólica de las masculinidad. In J.M. Valcuenca & J. Blanco (arg.), *Hombres: la construcción cultural de las masculinidades* (135.-154. or.). Serie Arcoiris.
- Sagastizabal, M. (2020). *Hiruki gatazkatsua: etxeko eta zaintza lanak, enplegua eta parte hartze soziopolitikoa*. Susa.
- Saizarbitoria, R. (1969). *Egunero hasten delako*. Lur.
- Saizarbitoria, R. (1970). *Mendebaldeko ekonomiaren historia: merkantilismotik 1914-era arte*. Lur.
- Saizarbitoria, R. (1976a). *100 metro*. Kriseilu.
- Saizarbitoria, R. (1976b). *Ene Jesus*. Kriseilu.
- Saizarbitoria, R. (1995). *Hamaika pauso*. Erein.
- Saizarbitoria, R. (1999). *Aberriaren alde (eta kontra)*. Alberdania.
- Saizarbitoria, R. (2003). *Kandinskyren tradizioa*. Erein.
- Saizarbitoria, R. (2012). *Martutene*. Erein.
- Saizarbitoria, R. (2015). *Lili eta biok*. Erein.
- Saizarbitoria, R. (2019). *Miren eta erromantizismoa*. Erein.
- Salinas, C. (2018). *Cuechy Nucuiñi, hombre... la construcción de las masculinidades entre mixtecos residentes en Tijuana*. El colegio de la Frontera Norte.
- San Martín, J. & Basauri, S. (1971). *Hegatsez*. Itxaropena.
- Sau, V. (2000). De la facultad de ver al derecho de mirar. In M. Segarra & A. Carabí (arg.), *Nuevas masculinidades* (29.-40. or.). Icaria.
- Serrano, A. (2019). *1936ko gerra euskal nobelagintzan. Memoria ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik*. [Doktor-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/38590>
- Urdangarin, E. (2002). Gorde nazazu lurpean. *Maxixatzen*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=513>
- Valcárcel, A. (1997). *La política de las mujeres*. Cátedra.
- Valcuenca, J.M. & Blanco, J. (2003). A modo de introducción: una aproximación a las masculinidades. In J.M. Valcuenca & J. Blanco (arg.), *Hombres: la construcción cultural de las masculinidades* (9.-21. or.). Serie Arcoiris.

Egitura arazoleak mendebaldeko euskaraz: *arazo eta eragin*

Estructuras causativas en el dialecto occidental del euskera: *arazo y eragin*

Causative structures in the western dialect of Basque: *arazo and eragin*

Jon Etxebarria Zarandona
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
jon.etxebarriaz@ehu.eus
<https://orcid.org/0009-0006-4124-4011>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.5>

Lan honek Espainiako Gobernuko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko PID2023-147383NB-I00 kodea duen ikerketa proiektuaren zein Eusko Jaurlaritzako IT1962-26 kodea duen ikerketa proiektuaren babesa jaso du. Eskerrak eman nahi dizkiet artikulua lehen idatzaldia hobetzeko iruzkin eta iradokizun ezin baliagarriak helarazi dizkidaten bi berrikusle izengabeei. Halaber, Ane Berrori ere eskerrak eman gura dizkiot lanaren alderdi batzuen gainean eman dizkidan argibideengatik. Horrezaz gain, Koldo Zuazori eta Euskaltzaindiari eskertzen diet lanean agertzen diren argazkiak erabiltzeko baimena. Beste alde batetik, ezin dut albo batera utzi Mendatako datu-emaileak lan honetan izan duen parte-hartzea. Azkenik, Beatriz Fernández ere eskertu gurako nioke lan honi eskainitako ardura eta prestutasun guztiagatik, horiek barik lan honek ez zukeelako aurrera egingo.

Jasotze data: 2026/02/03. Behin-behineko onartze data: 2026/03/23. Behin betiko onartze data: 2026/05/25.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honetan mendebaldeko euskararen egitura arazleak aztertuko dira, zehazki, *arazo* morfemak eta *eragin* aditzak, gainerako hizkeretako *arazi* arazlearekiko antzekotasunik edo alderik ote duten ikusteko. Batetik, mendebaldeko egitura arazleen perpaus-bakuntasuna erakutsiko dut hainbat hizkuntzatan erabili diren ebidentzia berak baliatuz eta, horrez gain, *eragin* arazlearekin sor daitekeen [-t(z)ea + *eragin*] egitura perpaus-bikoa berretsiko dut. Bestetik, erakutsiko dut euskararen gainerako hizkeretan arazia Funtzioen Hierarkiaren arabera markatzen den bitartean, mendebaldeko hizkeretan biziduntasunaren arabera markatzen dela, arazi bizidun guztiak datiboz markatzen dira-eta.

Gako hitzak: egitura arazleak; *arazo*; *eragin*; perpaus bakuntasuna; biziduntasuna.

RESUMEN

En este artículo se analizarán las estructuras causativas del euskera occidental, concretamente, el morfema *arazo* y el verbo *eragin*, con el fin de determinar si se asemejan o difieren del causativo *arazi*, atestiguado en las demás variedades. Por una parte, mostraré, mediante evidencias usadas en otras lenguas, la monoclausividad de las causativas occidentales, además de sostener la biclausividad de la estructura [-t(z)ea + *eragin*]. Por otra parte, demostraré que, mientras que en las demás variedades del euskera el causado se marca mediante la Jerarquía de Funciones, en la variedad occidental se marca mediante la Jerarquía de Animación, ya que todo causado animado se marca con el dativo.

Palabras clave: estructuras causativas; *arazo*; *eragin*; monoclausividad; animación.

ABSTRACT

In this article, I analyze the causative structures of western Basque, specifically the morpheme *arazo* and the verb *eragin*, aiming to determine if they resemble or differ from the causative *arazi* found in remaining varieties. On one hand, I show that the western causative structures are monoclausal, based on diagnostics commonly used across languages. I also argue that the structure [-t(z)ea + *eragin*] is biclausal. On the other hand, whereas in other Basque varieties the causee is marked based on a Hierarchy of Grammatical Functions, I argue that in western Basque the marking depends on the Animacy Hierarchy because animate causees are marked with the dative case.

Keywords: causative structures; *arazo*; *eragin*; monoclausality; animacy.

1 SARRERA. 2 MENDEBALDEKO EGITURA ARAZLEAK. 2.1 Aditzoina edo partizipio burutua? 2.2 *Arazo* morfema. 2.3 *Eragin* aditza. 3 PERPAUS BAKUNTASUNA MENDEBALDEKO EGITURA ARAZLEETAN. 3.1 Mendeko aditzaren inflexio marka falta. 3.2 Mendeko aditza ezeztatzeko ezintasuna. 3.3 [aditza + arazleak] predikatu konplexuaren banaezintasuna. 3.4 Denbora adberbioen interpretazioa. 3.5 Araziaren markatzea. 3.6 [-t(z)ea + *eragin*] egitura arazlea. 4 MENDEBALDEKO ARAZIAREN MARKATZEA. 4.1 Mendeko aditz iragankor, inergatibo eta ditrantsitibodun egitura arazleak. 4.2 Mendeko aditz inakusatibodun egitura arazleak. 4.3 Arazi gizakiak: 1./2. pertsona eta 3. pertsona. 4.4 Arazi bizidunak: ez-gizakiak. 5 ONDORIOAK. 6 ERREFERENTZIAK.

1 SARRERA

Munduko hizkuntzetan hiru estrategia tipologiko nagusi daude arazleak adierazteko: morfologikoa (sintetikoa), analitikoa eta lexikoa. Arazle morfologikoak morfema arazle baten bidez sortzen dira, aditz forma batekin (aditzoinarekin, partizipioarekin, eta abarrekin) batera konbinatuta. Arazle analitikoa, berriz, predikatu arazlea adierazten duen aditz batek eta arazitako ekintza adierazten duen mendeko aditz batek osatzen dute. Azkenik, arazle lexikoek ez dute morfema edo predikatu arazle baten beharrik, beren predikatuek barnebiltzen dutelako egoera aldaketa bat (Comrie, 1989; Dixon, 2000; Song, 2011a, 2011b). Euskaraz, egitura arazleak eraikitzekeko estrategiarik ohikoenak eta emankorrenak arazle lexikoak zein arazle morfologikoen dira. Bate-tik, inkoatibo/arazle alternantzia duten aditzak ditugu, hau da, *arazle lexikoak* ere deitu izan direnak. Aditzok forma berbera dute (*hil*) bi aldaeretan (*hil da* vs *hil du*), eta aditz laguntzailea da, besteak beste, bi aldaera horiek bereizten dituen (Berro, 2015; Berro *et al.*, 2018; Oihartzabal, 2003; Ormazabal, 2008). Bestetik, euskalkia- ren arabera aditzoinari edo partizipio burutuari lekuan lekuko *arazi*, *erazi*, *erazo* edo *arazo* morfema arazlea gaineratuz eraikitzen den arazlea dago (Ortiz de Urbina, 2003). Alabaina, mendebaldean *eragin* aditz arazlea ere agertzen da. Lan honetan azken bi horiei erreparatuko zaie, hau da, *arazo* zein *eraginekin* sortutako arazle morfologikoei –[aditza + *arazo/eragin*]– eta *eragin* aditz arazlearen bitartez sortzen den arazle anali- tikoari –[-t(z)ea + *eragin*].

Euskalaritzan batez ere aztertu den egitura arazlea *arazi* arazle morfologikoarekin sortutakoa izan da, alegia, euskara batuan zein erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan erabiltzen den morfemaz baliatuz sortzen dena (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández,

2026; Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia [DHM], 1989; de Rijk, 2008; Ortiz de Urbina, 2003, 2019). Morfema arazle hori euskalkien aldakortasunaren mende dago, eta lekuan lekuko morfemaz gain (1a), *eragin* aditza (1b) ere erabiltzen da egitura arazleak sortzeko mendebaldeko euskaraz¹.

- (1) a. Anek Joni liburua ekarrarazi dio.
b. Anek Joneri liburua ekarri eragin deuto.

Oro har, egitura arazleak sortzen direnean, Aissenek eta Perlmutterrek (1976) *perpaus batzea* (ing. *clause reduction*) deitu izan dutena gertatzen da. Ondorioz, mendeko aditzak eta arazleak sortzen duten predikatu konplexua dela eta, egitura arazleetan perpaus bakarra dago, edo beste era batera esanda, *perpaus bakuntasuna* (ing. *monoclausality*) ageri du egiturak euskaraz (Berro & Fernández, 2026; Berro *et al.*, 2025; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), gaztelaniaz (Aissen & Perlmutter, 1976; Tubino, 2011), frantsesez (Kayne, 1975), katalanez (Fontich, 2021; Pineda & Sheehan, 2022; Villalba, 1992, 1993), gaskoieraz (Fernández *et al.*, 2025), edota turkieraz (Cetinoğlu *et al.*, 2008).

Beste alde batetik, egitura arazleko predikatu konplexuaren osaerarekin batera, argumentu bat gaineratzen zaio mendeko aditzak berez duen argumentu sortari (Comrie, 1989; Dixon, 2000; Song, 2011a, 2011b). Literaturan aipatu izan denez, egitura arazleako argumentuen kasu eta komunztadura markatzeak funtzioen araberrako ondoko hierarkia jarraitzen du: *Subjektua > Osagarri zuzena > Zehar osagarria > Bestelakoa* (Comrie, 1989, 176. or.). Egitura arazlean arazleari subjektuaren funtzioa esleitzen zaionez, arazia, hots, mendeko aditzaren subjektu logikoa, ezin daiteke jada subjektu sintaktikoa izan (Ortiz de Urbina, 2019). Hala, subjektuak jaso ohi duen kasua arazleari ezartzen zaionez, araziak *Funtzioen Hierarkian* esleituta ez dagoen funtzio gorenaren kasua hartzen du (Comrie, 1989). Ondorioz, egitura arazlean (2b) parte hartzen duten argumentuen artean batzuek oinarritzko egiturari, hau da, arazlea ez den egiturari (2a) ez bezalako kasu markak jasotzen dituzte (DHM, 1989):

- (2) a. Zuk *Txoria txori* kantatu duzu.
b. Jonek zuri *Txoria txori* kantarazi dizu.

(2a) adibidean ikus daitekeenez, subjektuak (*zu-k*) -*k* ergatibo kasu marka jasotzen du eta osagarri zuzenak (*Txoria txori*) absolutibo kasu marka dauka, alegia, kasu ez-markatua (-Ø). Bestalde, argumentuok ergatibo eta absolutibo komunztadura eragiten dute aditz laguntzailean. (2b) adibideko egitura arazlean, aldiz, argumentu arazlea (*Jon-ek*) gaineratzen da eta subjektu funtzioa bereganatzen du; beraz, ergatibo kasua jasotzen du. Horrez gain, mendeko aditzaren (*kantatu*) osagarri zuzenak (*Txoria txori*) bere funtzioa eta absolutibo kasu marka gordetzen ditu. Hala ere, (2a) adibideko subjektua

1 (1b) adibidea Labayruk arautzen duen mendebaldeko euskaraz idatzi da, horregatik aldatzen da (1a)tik (1b) rako aditz laguntzailearen forma. Lan osoan zehar ere, mendebaldeko euskaraz idatzita dauden adibideek Labayruren irizpideak jarraitzen dituzte.

izan denak (*zuk*) Funtzioen Hierarkiako subjektuaren eta osagarri zuzenaren kasuak esleituta daudenez, datibo kasu marka jasotzen du egitura arazlean (2b) (*zu-ri*), eta aditz laguntzaileak, ondorioz, datibo komunztadura egiten du.

Lan honetan mendebaldeko egitura arazleak aztertuko ditut, hau da, *arazol/erazo* morfemarekin eta *eragin* aditzarekin eraikitakoak. Literaturan *arazi* morfemaz esan izan dena baliatuz, mendebaldeko egitura arazleak arakatuko ditut bi ardatz nagusiren ikuspuntutik. Batetik, mendebaldeko egitura arazleak ere perpau bakunak direla frogatuko dut, gurean eta beste hizkuntza askotan erabili izan diren ebidentziak eremu dialektal horretako arazleetara ekarriz: (i) mendeko aditzaren inflexio marka falta; (ii) mendeko aditza ezeztatzeko ezintasuna; (iii) [aditza + *eragin/arazo*] predikatu konplexuaren banaezintasuna; (iv) denbora adberbioen interpretazioa, eta azkenik, (v) araziaren markatzea. Horrez gain, mendebaldeko *eragin* arazlearekin sor daitekeen [-*t(z)ea* + *eragin*] egituran bi predikatu beregain eta bi perpau daudela azalduko dut, hau da, *perpau-bitasuna* (ing. *biclausality*) dagoela.

Bestetik, *arazi* arazledun hizkeretan egiten den lege, mendebaldean ere Funtzioen Hierarkia betetzen ote den arakatu nahi dut. Izan ere, mendebaldeko egitura arazleetan *arazi* bizidun guztiak –eta ez gizakiak bakarrik– datiboz markatzen dira. Horrek neurri batean, mendebaldeko eta gainerako hizkeren arteko aldea erakutsiko luke Comriren (1989) Funtzioen Hierarkiarekiko, mendebaldean arazia datiboz markatzeko irizpide bakarra biziduntasuna da eta, mendeko aditzaren iragankortasuna gorabehera. Horrenbestez, mendebaldeko hizkeretan Funtzioen Hierarkia jarraitu beharrean, *Biziduntasunaren Hierarkia* (Comrie, 1989; Silverstein, 1976) jarraitzen dela argudiatuko dut. Biziduntasunaren Hierarkiak izen sintagmak biziduntasunaren arabera sailkatzen ditu –hierarkiak bereizten dituen multzoei *sail* deituko diet–. Biziduntasunaren Hierarkia jarraitzen dela argudiatzeko, mendeko aditz iragankor, inergatibo eta ditransitiboekin eraikitako egitura arazleak, zein mendeko aditz inakusatiboekin eraikitakoak aztertuko ditut, azken horiekin eraikita dauden egiturek erakusten dutelako biziduntasunaren araberrako markatzea. Ildo beretik, Biziduntasun Hierarkian dauden sailtako arazien datibo markatzea zilegiztatzen dela frogatuko dut. Lanerako datuak Mendata eta Zornotzako hizkeretakoak izango dira². Mendata zein Zornotza mendebaldeko bi azpieuskalkiak lotzen dituen Busturialdeko tarteko hizkeratzat sailkatzen dira (Zuazo, 2014, 180. or.). Baina aintzat hartu behar da Zornotzak muga zurruna zehazten duela Arratia eta Durangaldearen artean (Lizaso, 2021, 14. or.), eta, horrenbestez, Mendata ez bezala, hego-sartaldeko hizkera multzoei harreman estuagoa duela.

Artikulu honek honako egitura hau jarraituko du. Lehenik eta behin, aztergai ditudan arazleen oinarriko deskribapena egingo dut (§ 2), mendebaldeko arazleak aditzoinari edo partizipio burutuari gaineratzen ote diren zehaztu ostean (§ 2.1), *arazo*

2 Artikulu honetarako, nire juzkuak baliatuko ditut Zornotzako hizkerarako, nire hizkera delako, eta beste datu-emaile batenak Mendatako euskararako. Bestalde, Etxebarria (2025) lanean datu-bilketa esanguratsu bati ekin diot *arazo* morfemaren erabilera-esparruko 15 hiztunen eta *eragin* aditza erabiltzen den eremuko 30 hiztunen onargarritasun juzkuak bilduz.

morfema alde batetik (§ 2.2), eta bestetik, *eragin* aditzaren gorabeherak (§ 2.3) aztertuko ditut. Jarraian, mendebaldeko egitura arazleen perpaus bakuntasunari ekingo diot (§ 3) aldez aurretik aipatutako ebidentzietan oinarrituz. Ondoren, biziduntasunaren araberrako kasu eta komunztadura markatzearekin zer gertatzen den azalduko dut (§ 4). Amaitzeko, ondorioak laburbilduko ditut (§ 5).


2 MENDEBALDEKO EGITURA ARAZLEAK

Zuazok (2014, 2017) dioenez, mendebaldeko euskalkia Bizkaian, Deba ibarraren eremu handi batean eta Arabako Aramaion zein Legution kokatzen da, eta mendebaldeko eta erdialdeko euskalkien arteko tarteko hizkeratzat hartzen dira Elgoibar, Mendaro eta Mutrikun egiten direnak. Orobat, beheko mapak (1. irudia) erakusten duen legez, bi azpieuskalki bereizten dira mendebaldeko euskararen barruan, iparraldean Busturialdeko hizkerak eta hegoaldean Otxandio-Oleta-Ubide-Legutio ingurukoek lotzen dituztenak; alde batetik, sartaldekkoa, eta bestetik, sortaldekkoa.



1. irudia. Mendebaldeko dialektoaren mapa (Zuazo, 2017, 69. or.).

Mendebaldeko euskararen eremuan *eragin*, *erazo* edo *arazo* baliatzen dira egitura arazleak sortzeko (Ortiz de Urbina, 2019), eta bakoitzak bere eremua betetzen du euskalki beraren barruan.



2. irudia. EHHako 1778. mapa (Euskaltzaindia, 2008-2020). Irudi hau erabiltzeko haren eskubideak dituen titularraren baimena beharko da).

Goiko mapak (2. irudia) erakusten duenaren arabera, bi arazle bereiz daitezke mendebaldeko hizkeretan. Alde batetik, *-azo* atzizkia dugu. Atzizki horrek hartzen duen eremu hertsia ikus daiteke mapan, Zuazok (2014, 2017) sartaldeko azpieuskalkiaren barnean kokatzen duen hego-sartaldeko hizkera multzoa kokatzen den gunea hain zuzen: Arratia ibarra (ikus Larrea & Rekalde, 2012), Zeberio, Orozko, Arrankudiaga, Arakaldo eta Galdakao. Horrez gain, Txorierrri gehienez eta Zornotzan zein Durangaldeko mendebaldeko herrietan ere aurki daiteke (Zuazo, 2017, 135. or.), aintzat hartuz Zornotzak muga zurruna irudikatzen duela Arratia eta Durangaldearen artean (Lizaso, 2021, 14. or.), 2. irudian ikus daitekeenez. Hizkera multzo horretako *-azo* atzizkiak *erazo* edo *arazoren* bilakabide fonetikoaren emaitza dirudi³. Bestetik, mendebal zabal batera hedatzen den *eragin* arazlea dago, muga administratiboa gaingitu eta Gipuzkoako mendebaldera (Elgoibarrerako, ikus Makazaga, 2009) zein Arabako ipar-ekialdera (Aramaierako, ikus Ormaetxea, 2005) heltzen dena⁴.

Euskalaritzan mendebaldeko egitura arazle horiei ez zaie asko erreparatu, ezta herrian herriko hizkera deskribatzen dituzten monografietan ere (Arrasaterako, ikus Elortza *et al.*, 1999; Basaurirako, ikus Arretxe, 1994; Deba ibarrerako, ikus Zuazo, 2018; Eibarrerako, ikus Agirrebeña *et al.*, 2005). Agertzekotan, bi lerro edo adibide eskas batzuk baino ez diete eskaintzen arazleei (Aranberri, 1996, 130. or.; Makazaga, 2009, 352. or.). Hori dela eta, artikuluko honetako mendebaldeko egitura arazleak zehazki deskribatzea du helburu.

3 Hizkera horietan *-azo* ahoskatzen den arren, lanean zehar morfema bere osotasunean idatziko dut. Izan ere, hemendik aurrera *arazo* zein *erazo* adierazteko *arazo* baino ez dut erabiliko, Arejita *et al.*-en (2002) gramatikan oinarrituz.

4 Landucciren (1562) hiztegian ere aditz arazle gisa agertzen da (Zuazo, 2017, 157. or.), bere garaian Arabako euskararen erabiltzen zen seinale.

2.1 Aditzoina edo partizipio burutua?

Euskalaritzan egitura arazleak aztertu izan direnean (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), erdialdeko eta ekialdeko euskararen jasotzen den *arazi* aztertu izan da bereziki, baina esan dudana legez, mendebaldekoak ez dira hainbeste jorratu, beharbada, *arazirekiko* alde esanguratsurik aurkituko ez zelakoan.

Alabaina, ezberdintasunak badira. Begi-bistakoa den lehen ezberdintasuna mendeko aditzaren forman ikus daiteke, zeren *arazirekin* osatutako arazleetan mendeko aditzak oina darabil nagusiki (3a); *arazo* eta *eraginekin*, aldiz, partizipio burutuaren itxura du (3b,c)⁵.

- (3) a. Udaltzainak kotxea mugiarazi dit aparkalekutik.
- b. Udaltzainak kotxea mobiduarazo deust aparkalekutik.
- c. Udaltzainak kotxea mobidu eragin deust aparkalekutik.

Partizipio burutua egoteak zalantza teoriko bat azaleratzen du: mendebaldeko egitura arazleak perpaus bakunak badira, geroago defendatuko dudana legez (ikus § 3), mendeko aditzak inflexio markarik ez izatea espero da eta mendebaldean partizipio burutuaren erabilera nagusitzen dela esan berri dut. Hortaz, itxuraz behintzat, inflexio marka egon badago. Horrek gatazka teoriko batean jartzen nau: batetik, mendeko aditzak partizipioa duela esan dut, eta bestetik, geroago esango dut (§ 3.1) mendeko aditzak ez duela aspektu markarik. Hori dela eta, atal honetan argudiatuko dut morfema hori aditzetan agertzen dela, baina inflexioarekin zerikusirik ez duela.

Mendeko aditzak duen partizipio itxurako *-tu* horrek emankortasun handia du, eta, aldi berean, partizipio burutua adierazten duen atzizkia da (Euskaltzaindia, 2021). Atzizki horren bitartez, adjektibo eta izen kategoriako oinarria (4a) aditza bihurtzen dela dirudi, eta aspektu marka balitz bezala jokatzeko du (4b).

- (4) a. Mutil handia.
- b. Mutila handitu da.

Hualdek (2003) ere inflexioarekiko hurbiltasuna nabarmentzen du. Hala ere, *-tu* izen kategoriarekin lotuago dagoela argudiatu izan da (Berro, 2015; de Rijk, 2008; Hualde, 2003). Berrok (2015) dioenez, [-*tu* + determinatzailea] duten predikatuak (5a) [izen/adjektibo + determinatzailea] predikatuen (5b) baliokideak dira, eta biek sortzen dute DS bat.

5 Halere, aipatzekoa da *arazo* morfema partizipio burutuari ez ezik, aditzoinari ere gaineratu dakiokela Arejita *et al.*-en (2002, 47. or.) zein *Labayru gramatikaren* arabera (Labayru Fundazioa, d.g.): «Aditza + *arazo* aditz arazlea beti loturik idazten da, aditzoinaren gainean ia beti». Kontuan izan, baina, Labayruk mendebaldeko euskara arautu nahi duela. Hortaz, ez dakigu iradokizun horren atzean benetan zer ote dagoen: erabilera bera edo erabilera jarraitzen ez duen araua.

- (5) a. bezeroak etorri-i-a-k dira (Berro, 2015, 220. or.)
 b. mendi-a-k (Berro, 2015, 220. or.)
 c. mendi altu-a-k (Berro, 2015, 221. or.)

Halaber, *-tu* predikatu batzuk izen kategoriako elkartu kopulatiboak sor ditzakete (6) (Berro, 2015; de Rijk, 2008; Euskaltzaindia, 2021), eta determinatzaileekin elkar daitezke argumentu batek hartzen duen lekuan (7). Azken hori gertatzen denean, plural marka har dezake eta komunztadura plurala eragin dezake aditz laguntzailean (7a).

- (6) a. hartu-eman
 b. sartu-irten
- (7) a. Urteen joan-etorriek erakutsi dute. (Urrutia, 2009, 39. or.)
 b. Sartu-irten bat egin zuen atezainarenean. (Urteaga, 2002, 21. or.)

Berrok (2015) *-tu* buru duten predikatuek atzizkiekin duten jarrera ere izen kategoriatzat hartzeko ebidentzia gisa baliatzen du: geroaldia eraikitzeko *-tu* horren hautaketa, denborazko perpausetan *Ardatz Zatiak* (ing. *Axial Parts*) buruen osagarria izateko aukera, eta *gabe* atzizkiaren osagarria izateko aukera.

Horrez gain, mendebaldean *-tu* atzizkia onartzea lotuta egon daiteke beste hainbat testuingurutan ere beste euskalki batzuetan aditzoina dagoen testuinguruan mendebaldean *-tu* erabiltzearekin.

- (8) Aulkia sar dezagun / sartu dagigun.

Halakoetan *-tu* gehitzeak ez dakar ez sintaktikoki ez semantikoki aditzoinarekiko desberdintasunik. Beraz, izan liteke arazleetan ere partizipio itxurako *-tu* agertzeak orokorragoa den hautua islatzea. Beraz, *-tu* marka inflexioarekin lotuta egon beharrean, aditz bat dagoela markatzeko erabiltzen den atzizkia dela esan daiteke. Ikusi den legez, askotariko testuinguruetan –ez aspektu burutua dagoenetan bakarrik– ager daiteke, eta agertzen den guztietan ematen du bertan aditz bat dagoela markatzeko erabiltzen dela. Ondorioz, aditzak sortzeko baliabidea -Ø da, eta ez *-tu* atzizkia bera (Euskaltzaindia, 2021).

2.2 Arazo morfema

Arazo arazlea Comriek (1989) arazle morfologiko moduan definitzen duenarekin bat dator, egileak zehaztutako bi ezaugarriak betetzen ditu-eta. Batetik, mendeko aditz bati gaineratzen zaion morfema bat da. Bestetik, baliabide hau emankorra da, edozein aditzi morfema hori gaineratuta egitura arazle bat sor daitekeelako. Alde bietara begira, beraz, ez dirudi erdialdeko eta ekialdeko hizkeretako *arazi* ez bezalakoa denik (9a), beharbada, arestian aipatutako partizipio itxura duen mendeko aditzaren kontua albo batera utzita (9b).

- (9) a. Gurasoak kotxea garbituarazo deuste.
 b. *Gurasoak kotxea garbiarazo deuste

Dena dela, euskal arazle guztiek duten beste ezaugarri bat jokaturako osagarriak hartzeko ezintasuna litzateke. Hala, mendeko aditzak ez du inflexio markarik.

Beraz, *arazo* morfema arazlearekin ere gauza bera gertatuko da, hau da, ezin izango du jokatura dagoen osagarririk hartu⁶:

(10) *Jonek Aneri liburua irakurri dagian arazo deutsa

Banaketari dagokionez, alderdi askotan subjuntiboz jokaturako perpausen antzera, jokatu gabeko osagarri nominalizatuak –aditz-izenak– oso noizean behin egoten dira *arazo*, *eragin* eta *eginarazi* arazleen osagarri gisa partizipio formaren ordeztzat (Ortiz de Urbina, 2019, 280.-281. or.). Halakoak ez dira gramatikalak mendebaldeko hiztunentzat, behintzat, mendeko aditz nominalizatuari morfema arazlea zuzenean gaineratuta agertzen denean (11).

(11) *Gurasoak kotxea garbitzerarazo deuste

(11)n ikusten denez, *arazo* morfema partizipio itxurako aditzari gaineratu beharrean (9a), aditz-izen bati atxikitzen bazaio, perpausa ez da gramatikala. Gauzak horrela, partizipio itxura duen aditza baino ezin da izan *arazo* morfemak hartzen duen osagarria, alegia, [aditza + *arazo*] egitura erabiliko da arazleak sortzeko, eta ez bestelakorik.

2.3 *Eragin* aditza

Lehen begiratuan behintzat, mendebaldeko *eragin* arazle analitikotzat har genezake, arazle analitiko prototipikoen antzera, arazlea bera eta mendeko aditzak adierazten duten predikatuak bereiziak datoz-eta (Comrie, 1989; Dixon, 2000; Song, 2011a, 2011b). Halaber, hizkuntza erromantzeetako *fer* (kat.), *faire* (fr.), *hacer* (gazt.) aditzekin besteak beste gertatzen den legez, *eragin* aditz gisa erabil daiteke modu beregainean, *arazo* eta *arazi* ez bezala. Alde horretatik, *eragin* hizkuntza erromantzeetako ‘*hacer/faire*-infinitibo’ egiturako arazleen antzekoa dela pentsa genezake. Halakoetan, egitura osatzeko *hacer/faire* aditz arazleak eta mendeko aditzak parte hartzen dute, eta azken horrek, arazlearen mendekoak alegia, arazitako ekintza adierazten du (Berro *et al.*, 2025).

(12) Anek Joneri etorri eragin deuto.

Mendebaldean erabiltzen den *eragin* aditz arazleak ezaugarri horiek ditu. Kontuan hartu behar da orain arte aipaturako euskal arazle guztiak diakronikoki *-ra-* marka arazle arkaikoa aditz erroari gaineratuz sortzen direla (de Rijk, 2008, 375. or.). Arazle arkaiko hau, *-ra-*, jada ez da emankorra eta, ondorioz, hasiera batean erantsitako aditz

6 Ortiz de Urbinak (2019, 280. or.) dioenez, euskal egitura arazleetan subjuntiboz jokaturako perpaus osagarriak *egin* aditzarekin baino ez dira agertzen (i).

(i) Egizuz beraz guztiak maita datzadan. (Brtc 207)

erroen esanahia ez da guztiz gardena hiztunentzat (de Rijk, 2008; Ortiz de Urbina, 2019). Gainera, *eragin* dugu arazle arkaiko horren adibiderik esanguratsuen; *egin* aditzaren forma arazle arkaiko garbia da-eta hizkuntzalariarentzat, ez hiztunentzat (Ortiz de Urbina, 2019, 277. or.). Izan ere, *eragin* aditza *lan egin*, *negar egin* edo *lo egin* bezalako aditz inergatiboen arazle gisa ere jasotzen da (de Rijk, 2008; Ortiz de Urbina, 2019).

- (13) a. Umeak negar egin dau.
b. Umeari negar eragin deusie.

(13b) aditz inergatibo baten gainean eraikitako arazlea den arren, hiztunarentzat *eragin* aditz beregainak *egin* aditzarekiko duen harreman gardena galdu du. Are gehiago, *eragin* aditzak hainbat hiztegitan sarrera lexikoa du, esaterako, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (Euskaltzaindia, 2026) zortzi adiera ditu eta *Orotariko Euskal Hiztegiaren* (Mitzelena & Sarasola, 1987-2005) arabera, Pouvreau (XVII. mendea), Urte (1727), Harriet (1741), Lécuse (1741), Duvoisin (XIX. mendea) eta Maurice Harrieten (XIX. mendea) hiztegitan ere bere sarrera lexikoa du. Horrez gain, *eragin* aditzari eransten zaion *arazi* bezalako egitura arazle emankorra ere dokumentatuta dago OEHn ‘eginarazi, mugiarazi’ esanahiarekin (Ortiz de Urbina, 2019, 278. or.).

- (14) ene tristeziak ihez eragiñ arazitzen baitarot gizonen konpainietarik. (Gç 47)

(14)n ikus daitekeenez, *eragin* aditzak ez du bere jatorrizko arazlearen funtzioa betetzen, mendeko aditz soiltzat hartzen da-eta egitura horretan. Hiztunarentzat *eragin* jada ez denez *egin* aditzaren arazle, *arazi* morfemaz baliatzen da egitura arazlea sortzeko. Alabaina, kontuan izan behar da (14)ko adibidea Ziburuko idazle baten pasarte batetik eskuratu dela, eta ez mendebaldeko euskaraz duen erabilera bereko testu batetik. Horrenbestez, *eraginek* bi eratara joka dezakeela esan daiteke: euskalki gehienetako aditz beregain gisa eta mendebaldeko euskaraz arazleak sortzeko aditz gisa⁷.

Osagarriari begira, *arazi* eta *arazo* morfemen antzera, *eragin* aditzak ere ezin du subjuntiboz jokaturako osagarriarik onartu bere egituretan (15).

- (15) *Jonek Izaskuni liburua irakurri dagian eragin deutso

Baina *arazo* zein *arazi* morfemekin gertatzen ez den bezala, (16b) nominalizazioa onartzen du osagarri moduan (16a), hau da, mendeko aditza aditz izena bada gramatikaltzat jotzen da.

- (16) a. Haizeak Donostiako seigarren solairu bateko balkoi bat erortzea eragin du.
(Euskal Irrati Telebista [EiTB], 2022)
b. *Haizeak balkoi bat erortzearazi du
c. *Haizeak balkoi bat jaustearazo dau

⁷ Gainerako euskalkietan *eragin* aditza arazleak sortzeko baliabide gisa testuinguru bakarrean baino ez da erabiltzen, (13a) bezalako *egin* aditzarekin sortutako predikatu inergatiboetan.

Beraz, badirudi *eragin* aditzak bi aukerak dituela egitura arazleak sortzean. Batetik, partizipio itxura duen mendeko aditzarekin batera sor dezakeena $[-\text{aditza} + \text{eragin}]$ -, eta bestetik, nominalizatutako mendeko aditzarekin batera $[-\text{t(z)ea} + \text{eragin}]$ - sor daitekeena. Lehen aukerari dagokionez, *arazo* zein *arazi* (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019) arazle morfologikoekiko antzekotasunak ditu, ondoren argudiatuko dudana legez, predikatu konplexua sortzen delako eta, ondorioz, egitura perpaus bakuna da-eta. Bigarrenak, berriz, arazle analitikoek duten banaketarantz lerratzen da, perpaus-bitasunaren zantzuak dituelako nagusiki.

3 PERPAUS BAKUNTASUNA MENDEBALDEKO EGITURA ARAZLEETAN

Hasieran esan dudanez (§ 1), mendeko aditza eta arazlea elkarrekin konbinatzean, predikatu konplexu bat buru duen egitura bat sortzen da (Comrie, 1989; Dixon, 2000; Song 2011a, 2011b). Hasierako bi egituretatik egitura arazlera heltzeko, *perpaus batzea* (ing. *clause union*) dagoela proposatu izan da euskaraz (DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), gaztelaniaz (Aissen, 1979; Aissen & Perlmutter, 1976), katalanez (Fontich, 2021; Pineda & Sheehan, 2022; Villalba, 1992, 1993), gaskoieraz (Fernández *et al.*, 2025), eta turkieraz (Çetinoğlu *et al.*, 2008). Hau da, perpaus bakarrek predikatuak direnez, perpaus bakunak dira.

Hortaz, perpaus bakuntasunaren alde erabili izan diren ebidentziak aztertuko ditut ondoren mendebaldeko egiturak perpaus bakunak direla defendatzeko: (i) mendeko aditzaren inflexio marka falta; (ii) mendeko aditza ezeztatzeko ezintasuna; (iii) $[\text{aditza} + \text{eragin/arazo}]$ predikatu konplexuaren banaezintasuna; (iv) denbora adberbioen interpretazioa, eta azkenik; (v) araziaren markatzea. Amaitzeko, *eragin* aditzak egitura arazleak sortzeko duen bigarren aukeraz ere jardungo dut, $[-\text{t(z)ea} + \text{eragin}]$ predikatua- ren perpaus-bitasuna berresteko.

3.1 Mendeko aditzaren inflexio marka falta

Mendeko aditzek inflexio markarik ezin hartzea egitura arazleetan predikatu konplexu bakarra dagoela adierazten duen ebidentziatzat hartu da euskaraz (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), katalanez (Villalba, 1993), eta gaskoieraz (Fernández *et al.*, 2025). Mendebaldeko euskararen kasuan ere, mendeko aditzak eta arazleak sortzen duten predikatu konplexua da egitura bakunaren buru eta, horregatik, espero izatekoa da predikatu konplexu horrek baino ez izatea inflexioari dagokion marka, eta halaxe dela dirudi.

- (17) a. Zuk niri goiz helduarazoten/heldu eragiten deustazu.
- b. Zuk niri goiz helduarazoko/heldu eragingo deustazu.
- c. Zuk niri goiz helduarazo/heldu eragin deustazu.

Arazleek edozein aspektu marka onartzen dute (17)ko adibideetan ikus daitekeenez. Bestalde, perpaus bakuntasunik badago, mendeko aditzak aspektu markarik ez izatea espero da eta halaxe gertatzen da (18)n.

- (18) a. *Zuk niri goiz heltzenarazo/heltzen eragin deustazu
 b. *Zuk niri goiz heldukoarazo/helduko eragin deustazu

Mendeko aditzak duen murriztapen horrek adierazten du arazlea eta partizipioa gertaera konplexu bakar baten osagaiak direla. Are gehiago, lehen (§ 2.1) eztabaidatu dudan partizipio itxura duen mendeko aditzaren auziak perpaus bakuntasunaren aldeko hipotesia indartuko luke, *-tu* horrek ez lukeelako inflexioari lotutako aparteko ekarpen sintaktiko edo semantikorik egingo.

3.2 Mendeko aditza ezeztatzeko ezintasuna

Mendeko aditza ezeztatzeko ezintasunak iradokitzen du egitura arazleetako predikatu konplexua osatzen duten bi osagaien, hots, arazlearen eta mendeko aditzaren arteko lotura erabatekoa dela (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; Ortiz de Urbina, 2003, 2019). Hala gertatzen da mendebaldeko egitura arazleetan ere (19), mendeko aditza ezin daitekeelako ezeztatu, ondoko perpausak erakusten duten legez:

- (19) a. *Edariak zuzen ez ibiliarazoten deutsu
 b. *Edariak zuzen ez ibili eragiten deutsu

Hizkuntza erromantzeetan ere antzekoa gertatzen dela ikus daiteke (20)n. '*Hacer/ faire-infinitibo*' predikatu osoa ezeztatu behar da egitura gramatikala izan dadin katalanez (Villalba, 1993) (20a), gaskoieraz (Fernández *et al.*, 2025) (20b), eta italieraz (Burzio, 1981) (20c). Aldiz, gaztelaniaz (21) mendeko aditzaren predikatua ezeztatu daiteke predikatu konplexu osoa ezeztatu gabe (Villalba, 1993).

- (20) a. *El Joan ha fet no treballar la Maria (Villalba, 1993, 29. or.)
 b. *Anna hè a non vier as mainatges (Fernández *et al.*, 2025, 7. or.)
 c. *Gianni ha fatto non lavorare Maria (Villalba, 1993, 29. or.)

- (21) La bebida te hace no caminar recto.

Beraz, mendebaldeko egitura arazleetan mendeko aditza ezin ezeztatzea arazleak eta mendeko aditzak predikatu konplexu bakarra osatzearen ondorio da (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; Ortiz de Urbina, 2003, 2019).

3.3 [aditza + arazlea] predikatu konplexuaren banaezintasuna

Aurreko bi ebidentziekin batera, Berrok eta Fernándezek (2026) [aditza + arazlea] predikatu konplexuaren banaezintasuna jasotzen dute perpaus bakuntasunaren ebidentzia gisa, hots, bi osagaien artean ezin da beste elementurik agertu. Atal honetan mendebaldeko bi arazleak bereiz jorratuko ditut, *eragin* aditza arazle analitikotzat jo dudan heinean (§ 2.3), *arazo* eta bestelako morfema arazleek ez duten ezaugarri bereizgarriak izan ditzakeelako.

Morfema arazleari dagokionez, bere atalean zehaztu dudan legez (§ 2.2), mendeko aditzak eta *arazo* morfemak hitz fonologiko bakarra osatu behar dute eta biak batera

ahoskatu ohi dira (Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), hau da, morfema arazlea ez da fonologikoki beregaina. Hortaz, predikatuko argumenturik ezin da haien artean agertu, arazia bera ere ez (22) (Ortiz de Urbina, 2019, 281. or.).

(22) *Liburua ekarri *niri* arazo deusta

Horri dagokionez, mendebaldeko *arazok*, *arazi* morfemak bezala, katalanak (23a) (Fontich, 2021; Villalba, 1992, 1993), frantsesak (23b) (Kayne, 1975; Rouveret & Vergnaud, 1980) eta italierak (23c) (Burzio, 1981; Dixon, 2000) bezala jokutzen du. Gaztelaniaz (23d) (Tubino, 2011; Wang, 2019), eta ingelesez (23e) (Comrie, 1989), aldiz, arazia arazolearen eta mendeko aditzaren artean ager daiteke.

- (23) a. *El Joan va fer *la Maria* comprar un llibre. (Villalba, 1992, 363. or.)
- b. *Marie fera *Jean* lire ce livre. (Rouveret & Vergnaud, 1980, 156. or.)
- c. *Piero fece *Giovanni* riparare el auto. (Burzio, 1981, 409. or.)
- d. Me ha hecho *a mí* traer el libro.
- e. He made *me* bring the book.

Bestalde, *eragin* aditz arazoleari dagokionez, ez dirudi arazia mendeko aditzaren eta aditz arazolearen artean ager daitekeenik (24). Horrek euskal morfema arazle eta katalaneko (23a), frantseseko (23b), edota italierako (23c) egitura arazoleetara hurbiltzen du *eragin* arazlea, partizipio itxurako mendeko aditza osagarritzat hartzen duenean, behintzat.

(24) *Liburua ekarri *niri* eragin deusta

(24)n *eragindun* egitura arazoleak ez du arazirik onartzen mendeko aditzaren eta arazolearen artean, *arazo* morfemarekin gertatu den legez. Halere, [aditza + *eragin*] predikatuko osagaiak bata bestetik bereiz daitezkeela adierazten du honako adibide honek:

(25) Atsegin eman ez ezen ederretsi ere eragiten didate. (Or Aitork 278)

Alderdi horretan badirudi *eragin* aditz arazoleak bat egiten duela gaztelaniazko (Tubino, 2011; Wang, 2019) edo ingelesezko (Comrie, 1989) egiturek duten [arazle + aditza] banatzeko aukerarekin. Egitura sortzen duten bi osagaien artean, alegia, mendeko aditzaren -(25)eko *ederretsi*- eta arazolearen -(25)eko *eragiten*- artean, predikatu konplexuko argumenturik sartzea ezinezkoa den arren, bestelako elementu batzuk badute lekuri haien artean -(25)eko *ere* partikula-. *Arazo* morfemak, aldiz, mendeko aditzarekin batera unitate fonologiko bakarra osatu behar duenez, ez du halako banaketarik; katalanak (Fontich, 2021; Villalba, 1992, 1993), frantsesak (Kayne, 1975; Rouvert & Vergnaud, 1980) eta italierak (Burzio, 1981; Dixon, 2000) ere erakusten duten legez.

3.4 Denbora adberbioen interpretazioa

Denbora adberbioak bezalako adjunktuek predikatu konplexuarekiko duten harremana erabili izan da egitura arazleen perpaus bakuntasuna edo perpaus-bitasuna frogatzeko turkieraz (Çetinoğlu *et al.*, 2008), katalanez (Villalba, 1993) eta euskaraz (Berro

et al., 2025; Berro & Fernández, 2026), besteak beste. Denbora adberbioak arazlea edo mendeko aditzarekiko edo biak modifikatzen baditu, egitura arazleak duten egituraren berri eman diezaguke (Çetinoğlu *et al.*, 2008).

Denbora adberbioek arazleak eta mendeko aditzak sortutako predikatu konplexu osoa modifikatzen dute arazleek partizipio itxurako mendeko aditza hartzen dutenean (Berro & Fernández, 2026). Ezinezkoa dute arazlea bazterturik, mendeko aditzaren predikatua bakarrik aldatzea. Horregatik, (26a)n *gaur* adberbioak *irakurriarazo* predikatu osoa modifikatzen du.

- (26) a. Arratek umeari gaur liburuak irakurriarazo deutzaz.
b. Arratek umeari liburuak (*bihar) irakurriarazo deutzaz gaur.

Ikus daitekeenez, arazle morfologikoarekin sortutako egitura arazleak ez ditu onaritzen kontrajartzen diren bi denborazko adjunktuk (26b). Arazle morfologikoak perpaus bakarra duen heinean, kontrajartzen diren denbora adberbioak ez dira onargarriak.

Orain arte aurkeztutako ebidentziak erakusten duenaren arabera, *arazo* arazleak eta mendeko aditzak perpaus bakunean biltzen den predikatu bakarra osatzen dute. Baina, *eragin* eta mendeko aditzaren artean *ere* partikula agertzeko aukera dagoela ikusita, *arazok* ez bezalako ezaugarriak izan litzake *eragin* aditzarekin sortutako egitura arazleak.

- (27) a. Arratek umeari gaur liburuak irakurri eragin deutzaz.
b. Arratek umeari liburuak (*bihar) irakurri eragin deutzaz gaur.

Ikus daitekeenez, *eragin* aditz arazleak *arazo* morfemaren antzera jotzen du denborazko adberbioen interpretazioari (27a) eta murriztapenei begira (27b). Beraz, arazle sintetikoek duten banaketara lerratzen da berriz ere. Ildo beretik, katalaneko (28a) eta gaskoierako (28b) egitura arazleek ere joera bera dute. Egitura arazleek predikatu konplexu osorako denborazko islapen bakarra dutenez, denborazko adberbio bakarra onar dezakete (Fernández *et al.*, 2025; Villalba, 1993).

- (28) a. Ahir el Joan va fer atacar el campament (*avui). (Villalba, 1993, 31. or.)
b. Ager Joan hec a atacar eth campament (*aué). (Fernández *et al.*, 2025, 6. or.)

Hori dela eta, perpaus bakuntasuna duela baieztatzen duen beste ebidentzia baten aurrean gaude, (26) eta (27)ko *gaur* adberbioak zein (28)ko *ahir/lager* adberbioak predikatu osoa modifikatzen dutelako, eta predikatuak ez dituelako onartzen kontrajartzen diren bi denbora adberbio.

3.5 Araziaren markatzea

Perpaus bakuntasunaren aldeko azken ebidentzia araziaren markatzea litzateke, hau da, araziak jasotzen duen kasu marka eta hark eragindako komunztadura. Sarre-ran esan dudanez (§ 1), egitura arazleetako predikatu konplexuaren osakeraz gain,

argumentu bat gaineratzen zaio mendeko aditzak berez duen argumentu sortari, eta horrek erabat aldatzen du mendeko aditzak dituen argumentuen markatzea. Literaturan aipatu izan denaren arabera, egitura arazleetak argumentuen markek funtzioen ondoko hierarkia jarraitzen du (Comrie, 1989, 176. or.): *Subjektua > Osagarri zuzena > Zehar osagarria > Bestelakoa*. Egitura arazlean arazleari subjektuaren funtzioa esleitzen zaionez, arazia, hots, mendeko aditzaren subjektu logikoa, ezin daiteke jada subjektu sintaktikoa izan (Ortiz de Urbina, 2019), perpaus-bitasunik ez badu, behintzat. Egiturak perpaus-bitasuna balu, orduan perpaus horietako bakoitzaren subjektuak subjektuari kanonikoki dagokion marka jasoko luke. Alabaina, perpaus bakun batean, arazleari esleitzen zaio subjektuak jaso ohi duen marka eta, ondorioz, araziak esleituta ez dagoen hierarkiako funtzio gorenaren marka hartzen du (Comrie, 1989).

Euskal egitura arazleetan ere hala izatea espero dugu, hau da, arazleak subjektu iragankorretako ergatibo marka hartzea. Berriz, araziaren marka mendeko aditzaren izaerak baldintzatuko du (de Rijk, 2008). Mendeko aditza inakusatiboa bada, bere subjektu logikoa absolutiboz markatuko da eta horrela markatuko da egitura arazlean, osagarri funtzioak hartu ohi duen kasua hartuta. Aldiz, mendeko aditza iragankorra bada, jatorrian ergatiboz markaturiko subjektu logikoa datiboz markatuko da egitura arazlean eta, itxuraz, zehar osagarritzat hartuko da Comrieren hierarkian. Laburbilduz, gaztelaniazko (Aissen & Perlmutter, 1976; Tubino, 2011; Wang, 2019), frantsezko (Kayne, 1975), italierazko (Dixon, 2000; Song, 2011b), katalanezko (Ciutescu, 2018; Fontich, 2021; Pineda & Sheehan, 2022; Villalba, 1992, 1993), edota gaskoierazko (Fernández *et al.*, 2025) egitura arazleetan gertatzen den legez, mendeko aditzak osagarria behar duenean araziak datibo marka izatea espero da, absolutiboaren marka mendeko aditzaren osagarriari esleitzen zaiolako lehenago; aldiz, arazia absolutiboz markatuko da mendeko aditzak osagarririk ez duenean⁸.

(29)ko perpausak batzearen ondorioz, arazia, hau da, mendeko aditzaren subjektu logikoa, ez da subjektu gisa markatzen, zehar osagarri gisa baizik. (29) adibidean, Comrieren (1989) hierarkiak ezarritakoa betetzen da: arazleak ergatibo kasu marka du *-Ane-k-*, osagarriak absolutiboa *-liburuak-Ø-* eta araziak datiboa *-Jone-ri-*. Are gehiago, *eutsazan* aditz laguntzaileak ere gauza bera berresten du argumentu horiek eragindako komunztaduraren bitartez. Araziak datibo markatzea jasotzen du predikatu konplexuko beste argumentuek haien markatzea jaso ostean, mendeko aditzaren subjektu logikoa izanagatik, hierarkian beherago dagoen markatzea ezartzen zaio-eta.

(29) Anek Joneri liburuak ekarriarazo/ekarri eragin eutsazan.

8 Mendeko aditz inergatiboekin eraikitako egitura arazleetak arazien markatzea ezberdina da, nahiz eta itxuraz osagarririk ez izan, arazia datiboz zein absolutiboz marka daitekeelako haren biziduntasunaren arabera. Mendeko aditz inergatiboaren subjektu biziduna bada, datiboz markatuko da arazia (iia); aldiz, bizigabea denean, absolutiboz markatuko da (iib):

(ii) a. Batzordeak Aneri dimitiarazi dio.

b. Jonek ura irakinarazi du.

Horri lotuta, *Pertsona Kasuaren Murritzapena* (aurrerantzean PKM) (Rezac, 2007, 2011) (ing. *Person Case Constraint*) egotea ere, komunztadura harremanei dagokienez, perpaus bakuntasunaren aldeko ebidentzia bat da.

- (30) a. *Zuk karnizeruari ni saldu neutsazu
 b. Zuk karnizeruari liburua saldu deutsazu. (Laka, 1993, 27. or.-tik moldatua)

Ikus daitekeenez, (30)eko egitura ditransitiboetan osagarria 1. edo 2. pertsonakoa bada, egitura ez-gramatikala izango da (30a) (Laka, 1993), hau da, osagarria 3. pertsona izan behar da PKMrik ez izateko eta, beraz, gramatikala izateko (30b).

Gauza bera gertatzen da arazleekin. Osagarria hirugarren pertsona denean gramatikala izango da (31a), bestela ez (31b):

- (31) a. Anek Joneri liburuak ekarriarazo/ekarri eragin deutsaz.
 b. *Anek Joneri ni ekarriarazo/ekarri eragin neutsa

Beraz, hemen ere perpaus bakuna dela esan daiteke, aditz laguntzailearekiko komunztadurari dagokionez, behintzat (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019).

Dena den, (32) adibidea ez dator bat Comrieren hierarkiarekin, ezta orain arte euskarazko egitura arazleen markatzeaz esan izan denarekin.

- (32) Lagunak anaiari etorriarazo/etorri eragin deutsie.

Bestalde, (32)ko mendeko aditza inakusatiboa izanda ere, arazlea (*lagunak*) gaineratzean, araziak ez du Funtzioen Hierarkian esleituta ez dagoen funtzio gorenaren kasua hartzen, absolutiboa, alegia. Hau da, (29)n subjektuaren eta osagarriaren kasuak esleituta daudenez, araziak zehar osagarriak izan ohi duen kasua hartu du, hots, datiboa. Aldiz, (32)ko araziak osagarriari ezartzen zaion absolutiboa eskura du, baina haren ordeaz, datibo kasu marka (*anaia-ri*) du eta, ondorioz, datibo komunztadura eragiten du aditz laguntzailean (*deutse*). De Rijken (2008) esanetan, «mendebaldeko arazleek, mendeko aditzaren izaera gorabehera, arazian beti ezarriko dute datibo markatzea» (380. or., nik itzulia). Alegia, mendebaldeko hiztunek (33) bezalako egitura arazleetan, non mendeko aditza inakusatiboa den, arazia datiboz markatzeko hautua egiten dute hura biziduna denean (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; Ortiz de Urbina, 2003, 2019). Beraz, badirudi Funtzioen Hierarkia jarraitu beharrean, bestelako hierarkia bati jarraitzen zaiela⁹. Hurrengo atalean (§ 4) jorratuko dut gai hori.

⁹ Gaztelaniako hizkera batzuetan ere antzekoa gertatzen da. Kataluniako gaztelanian, esaterako, *le* datibo klitikoa mendeko aditz iragankorrekin zein iragangaitzekin eraikitako egitura arazleetan aurki daiteke (Ordóñez & Roca, 2017).

Hala ere, (32) bezalako egitura arazleek perpaus bakunak izaten jarraitzen dute markatzeari dagokionez. Izan ere, ez daude kasu marka bera duten bi argumentu eta kasu markek dagokien komunztadura eragiten dute aditz laguntzailean. Hortaz, mendebaldeko arazleekin *-arazo* morfemarekin zein *eragin* aditzarekin– eraikitako egitura arazleak perpaus bakunak dira kasu markari eta komunztadura harremanei dagokienez, Comrieren Funtzioen Hierarkiari jarraitzen ez zaien arren.

3.6 [-t(z)ea + *eragin*] egitura arazlea

Orain arte ikusi denez, mendebaldeko arazleak eta partizipio itxura duen mendeko aditza elkarrekin konbinatzean, bakuna den [aditza + *eragin/arazo*] egitura arazlea sortzen da. Alabaina, (§ 2.3) atalean azaldu dudanez, *eragin* aditzak badauka egitura arazleak sortzeko beste aukera bat: [-t(z)ea + *eragin*] alegia. Atal honetan argudiatuko dut bigarren aukera horrek [aditza + *eragin/arazo*] egiturak ez bezalako ezaugarriak dituela, zehazki, predikatuaren perpausari dagokionez. Funtsean, [-t(z)ea + *eragin*] perpaus-bitasunerako joera duela argudiatuko dut, Mejías-Bikandik (1990), Berrok eta bestek (2025) eta Berrok eta Fernándezek (2026) iradoki duten legez.

Lehenik eta behin, mendeko aditza ezeztatzeko gaitasuna [-t(z)ea + *eragin*] egituraren perpaus-bitasunaren aldeko ebidentzia izan daiteke. Lehen erakutsi dudanez, mendeko aditza ezin daiteke ezeztatu [aditza + *eragin/arazo*] duten egituretan, perpaus bakunak diren heinean, ezin daitekeelako arazlearen osagarria bakarrik ezeztatu. Hala ere, Berro eta besteren (2025, 6. or.) esanetan, egitura arazleetan mendeko aditza ezeztatzeko bide bakarra [-t(z)ea + *eragin*] egitura da, bi perpausetan daudelako arazlea eta mendeko aditza (33).

(33) Logureak (zuk) ondo ez gidatzea eragiten dau.

Bigarrenik, egitura arazleetako predikatu konplexuko bi osagaiak ezin banatzea ere perpaus bakuntasunaren aldeko ebidentziatzat hartu dut literaturari jarraituz, bi osagaiak unitate bakarra sortzen dute eta. [-t(z)ea + *eragin*] egitura analitikoek, aldiz, hitzen hurrenkera askeagoa dute, euskararen hurrenkera askeko izaerarekin bat datorrena, *eragin* aditz arazlea eta mendeko aditza hainbat eratarik bereiz daitezke eta (34b-e).

- (34) a. Jonek nik ordenagailuak ekartea eragin dau.
 b. Jonek eragin dau nik ordenagailuak ekartea.
 c. Jonek eragin dau ordenagailuak nik ekartea.
 d. Ordenagailuak nik ekartea Jonek eragin dau.
 e. Nik ordenagailuak ekartea eragin dau Jonek.

Hirugarrenik, denborazko adberbioei dagokienez, [aditza + *eragin/arazo*] egituretan horrelakoek predikatu osoa modifikatzen dutela frogatu dut, ez mendeko aditzarena soilik, eta, gainera, egitura horiek ez dituzte kontrajartzen diren bi denbora adberbio onartzen. Aldiz, [-t(z)ea + *eragin*] duten egiturek kontrako jarrera dute (35):

- (35) a. Jonek nik ordenagailuak gaur ekartea eragin dau.
 b. Nik ordenagailuak bihar ekartea eragin dau Jonek gaur.

(35a)n *gaur* adberbioak *ekarri* aditza baino ez du modifikatzen, kanpoan uzten du predikatu nagusiko aditz arazlea, hots, *ekarri* aditzera baino ez da mugatzen adberbioaren modifikazioa. Horrez gain, (35b) gramatikala dela azaltzeko bi predikaturen beharra dugu, hau da, bereiz daitezkeen bi predikatu daude eta bakoitzak bere denbora adberbioa izan dezake (Berro & Fernández, 2026).

Amaitzeko, argumentuen markatzeak agerian jartzen du [-t(z)ea + *eragin*] egitura ez dela perpaus bakuna. Aurreko atalean (§ 3.5) ikusi dugunez, kasu markak eta aditz komunztadura [aditza + *eragin/arazo*] egitura arazlea bakuna delako ebidentzia argiak dira: argumentu bakoitzak kasu marka jakin bat jasoko du hierarkia baten arabera (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; Comrie, 1989; de Rijk, 2008; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019) eta aditz laguntzaileak hori bera islatuko du. Ondorioz, argumentu bakoitzari marka bat eta bakarra dagokio. Alabaina, [-t(z)ea + *eragin*] egitura arazleetan argumentu arazlea ez ezik, arazia ere ergatiboz markatzen da, eta, horrenbestez, bi argumentu egongo dira ergatiboz markatuta (36): arazlea eta arazitako ekintzaren subjektua, zeina nominalizatutako egituraren subjektua ere baden (Berro & Fernández, 2026).

- (36) Jonek nik ordenagailuak ekartea eragin dau.

(36)k erakusten duenez, arazitako subjektuak (*nik*) ez du komunztadurarik eragiten aditz laguntzailean, Berroren eta Fernándezen (2026) esanetan, aditz laguntzailean komunztadura eragin dezakeen argumentu bakarra arazlea delako (*Jonek*). Perpaus-bitasunak egitura hau azal lezake. Batetik, *eragin* aditz nagusia izango genuke, *Jon* perpaus nagusiko subjektua litzateke eta nominalizazioa (edo aditz izena) *eragin* aditzaren osagarria. Bestetik, *nik* subjektua eta *ordenagailuak* osagarria daude, baina horiek ez dute predikatu nagusiko aditz laguntzailean komunztadurarik eragiten, hain zuzen, ez direlako predikatu nagusiko argumentuak. Are gehiago, aditz laguntzaileak mendeko aditzaren argumentu batekin komunztadura egiten badu ez-gramatikala litzateke (Mejías-Bikandi, 1990, 682. or.), esaterako, *ordenagailuak* osagarri pluralarekin komunztadura egingo balu (37).

- (37) *Jonek nik ordenagailuak ekartea eragin dauz

Laburbilduz, mendebaldeko hizkeretan bi motatako egitura arazleak daude, batetik, bakunak diren [aditza + *eragin/arazo*] egiturak, eta bestetik, perpaus-bitasuna duten [-t(z)ea + *eragin*] egiturak. Aintzat hartu behar da hizkuntza berean egitura arazleek aukera ezberdinak izan ditzaketela, hau da, araztea egitura analitiko baten (38a) edo perpaus bakun baten (38b) bitartez adieraz daiteke (DHM, 1989, 89.-91. or.).

- (38) a. Aitak [Anek lebatza jatea] eragin dau.
 b. Aitak Aneri lebatza janarazo/jan eragin deutso.

(38a)n bi perpaus ditugula ematen du, bi predikatuek eskatzen dituzten argumentu sarea islatzen dituztenak. (38b)n, aldiz, mendeko aditzak eta arazleak predikatu konplexu bakarra osatzen dute. Alegia, (38a) guztiz analitikoa den perpausa dugu, eta [aditza + *eragin/arazo*] perpaus bakarreko predikatu konplexua duena (38b), aldiz, sintetikoa da.

4 MENDEBALDEKO ARAZIAREN MARKATZEA

Orain arte, mendebaldeko egitura arazleen predikatu konplexuaz aritu naiz, [aditza + *eragin/arazo*] egituren perpaus bakuntasuna zein [-t(z)ea + *eragin*] egituren perpaus-bitasuna argudiatzeko asmoz. Atal honetan baina, egitura arazleak sortzerakoan agertzen den markatzea jorratuko dut, mendebaldeko hizkerek gainerako euskalkiek ez duten markatzea dute eta: «The Biscayan dialect [...] speakers use other causative auxiliaries, such as *eragin* and *erazo*, which impose the dative case on all causees» (de Rijk, 2008, 380. or.). De Rijk esandakoa gehiago finduz, alde aurretik esan dudana legez (§ 3.5), mendebaldeko hiztunek datiboa ezartzen diete bizidunak diren araziei (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; Ortiz de Urbina, 2003, 2019).

Markatze horren nondik norakoak azaldu baino lehen, aintzat hartu behar da egitura arazleak hartzen duen mendeko aditzak baldintzatzen dituela egiturak berak izango dituen ezaugarriak. Hori dela eta, atal honetan, batetik, mendeko aditz iragankor, inergatibo eta ditransitiboak dituzten euskarazko egitura arazleak aztertuko ditut, eta bestetik, mendeko aditz inakusatiboak dituztenak. Gainera, bizidunak diren arazi guztiek datibo kasu eta komunztadura markatzea onartzen dutela frogatuko dut (ikus § 4.3 eta § 4.4).

4.1 Mendeko aditz iragankor, inergatibo eta ditransitibodun egitura arazleak

Esan dudana bezala, egitura arazleen mendeko aditzaren izaeraren arabera, argumentuen kasu eta komunztadura markatzea aldatzen da. Hala, egitura arazleak mendeko aditz iragankor (39a), inergatibo (40a) edota ditransitiboen (12a) gainean eraikitzen direnean, argumentu arazleak ergatibo kasu marka hartu zein ergatibo komunztadura eragiten du eta araziak, bere aldetik, datibo kasu marka hartzeaz gain, datibo komunztadura eragiten du. Ikus (39b), (40b), (41b) adibideetan, hurrenez hurren:

- (39) a. Guk sukaldeko mahaia goiko solairura igo dugu.
b. Amak sukaldeko mahaia goiko solairura igoarazi digu.
- (40) a. Anek futbolera jokatu du.
b. Jonek Aneri futbolera jokarazi dio.
- (41) a. Nik amari oparia eman diot.
b. Gure aitak niri oparia emanarazi dit amari.

Mendeko aditza iragankorra, inergatiboa edo ditrantsitiboa bada, berez ergatiboz markatuko litzatekeen subjektua –(39a), (40a), (41a)– datiboz markatuko da egitura arazlean eta horren araberako komunztadura ere eragingo du –(39b), (40b), (41b)–. Hau da, oinarritzko egituren –(39a), (40a), (41a)– subjektua den argumentuaren ergatibo markatzea argumentu arazleari ezartzen zaio (Berro *et al.*, 2025). Bestalde, Berro eta besteren esanetan (2025), mendeko aditza iragankor, inergatibo eta ditrantsitiboa denean, arazia biziduna izan behar da (42a), horrelako mendeko aditzekin eraikitako egitura arazleek ez dutelako bizigabea den arazirik onartzen (42b)¹⁰; alegia, egileon hitzetan, *araziaren biziduntasunaren baldintza* (ing. *animacy condition of the causee*) indarrean dago:

- (42) a. Jonek Aneri leihua apurtarazi dio. (Berro *et al.*, 2025, 1.290. or.)
 b. *Jonek abarrari leihua apurtarazi dio (Berro *et al.*, 2025, 1.290. or.)

Mendebaldeko arazleekin ere gauza bera gertatzen dela ikus daiteke, mendeko aditz iragankor (43), inergatibo (44) eta ditrantsitiboekin (45) eraikitako egituretan, argumentu arazleak ergatiboa jaso ohi du eta argumentu araziak, aldiz, datiboa (43b), (44b), (45b):

- (43) a. Guk ezkaratzeko mahaia goiko solairura igon dogu.
 b. Amak ezkaratzeko mahaia goiko solairura igonarazo/igon eragin deusku.
- (44) a. Anek futbolera olgau dau.
 b. Jonek Aneri futbolera olgauarazo/olgau eragin deutso.
- (45) a. Nik amari oparia emon deusatz.
 b. Gure aitak niri oparia emonarazo/emon eragin deust amarentzat¹¹.

Adibideotan ikus daitekeenez, mendeko aditz iragankorrekin, inergatiboekin edo ditrantsitiboekin eraikitako egitura arazleetan, jatorrizko egituretan –(43a), (44a), (45a)– ergatiboz markatutako subjektuak datiboa jasotzen du egitura arazleko arazia izatera igarotzean –(43b), (44b), (45b)–. Gainera, *arazi* morfemarekin gertatzen den lege (42), mendeko aditz horiekin eraikitako egitura arazleetan arazia biziduna izan behar da (46a), eta ez bizigabea (46b):

10 8. oin-oharrean iradoki dudanez, mendeko aditz inergatibo batzuk bizigabea den subjektua eskatzen dute –*funtzionatu* edo *distiratu*, esaterako. Horrelakoetan, araziaren biziduntasunaren baldintza ez dago indarrean (ikus Berro *et al.*, 2025).

11 (45a)ko *amari* argumentuaren datibo kasua aldatu egin dut eta postposizio bihurtu (45b)n. Mendeko aditz ditrantsitiboekin eraikitako egitura arazleetan printzipioz lau argumentu izango genituzke: arazlea, arazia, osagarria eta hartzaile rola duen argumentua. Lehenengo hiru argumentuek ergatibo, absolutibo eta datibo kasu marka jasotzen dute, hurrenez hurren. Egitura arazlean, beraz, datiboz markatutako bi argumentu egon daitezke, arazia eta hartzaile rola duen argumentua, alegia. Hala ere, argumentu bietako batek baino ez du datibo komunztadura eragingo, hau da, araziak (41b). Alabaina, hego-mendebaldeko hizkeretan printzipioz onartzen ez denez datibo komunztadurarik eragiten ez duen datibozko argumenturik, hartzaile rola duen argumentuak destinatibo kasu marka hartzen du (de Rijk, 2008, 380. or.). Hori bera da nire intuizioa datu horiekiko.

- (46) a. Jonek Aneri leihoa apurtuarazo/apurtu eragin deuto.
 b. *Jonek abarrari leihoa apurtuarazo/apurtu eragin deuto

Hortaz, egitura arazleetako mendeko aditza iragankor, inergatibo edota ditrantsitiboa denean, ergatiboz markatutako arazlea izango dugu, datiboz markatutako arazia eta absolutiboz markatutako osagarri zuzena (mendeko aditz inergatiboetan izan ezik). Gainerakoan, halako mendeko aditzetako egitura arazleetan arazia biziduna izan behar da derrigorrez, egitura ez-gramatikala sortuko ez bada –(42b), (46b)–.

4.2 Mendeko aditz inakusatibodun egitura arazleak

Mendeko aditz inakusatiboa duten egitura arazleak aurreko atalean (§ 4.1) azaldu ditudan egitura arazleak ez bezalako ezaugarriak dituzte. Euskara batuan eta beste hizkera batzuetan, egitura arazleen mendeko aditza inakusatiboa bada, araziak absolutibo kasu marka jasoko du (47b), oinarritzko egituraren egiten duen bezala (47a):

- (47) a. Lagunak Egiptora joan ziren oporretan.
 b. Gurasoek lagunak Egiptora joanarazi zituzten oporretan.

(47)n ikus daitekeenez, argumentu berak (*lagunak*) (47a) oinarritzko egiturako absolutibo kasu marka bera gordetzen du egitura arazlean (47b), nahiz eta batean eta beste funtzio ezberdina duen. Absolutibo argumentua subjektua da oinarritzko egituraren (47a); egitura arazlean (47b), berriz, osagarriaren funtzioak hartu ohi dituen argumentuak absolutiboa jasotzen du (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), argumentu arazlea (*Gurasoek*) gaineratu zaiolako mendeko aditzak berez duen argumentu sortari eta subjektu funtzioa bereganatu duelako. Hau da, Comrienen (1989) Funtzioen Hierarkian espero den legez, mendeko aditzak osagarria eskatzen duenean, araziak datibo marka izan ohi du, absolutiboaren kasu marka mendeko aditzaren osagarriari ezartzen zaiolako lehenengo; aldiz, arazia absolutiboz markatuko da mendeko aditzak osagarriarik ez duenean (47b).

Horrez gain, mendeko aditz iragankor, inergatibo eta ditrantsitiboetako araziekin gertatzen ez den bezala, mendeko aditza inakusatiboa denean, araziak ez du zertan biziduna izan behar (Ortiz de Urbina, 2003, 603. or.). Halakoetan, arazia biziduna (48a) zein bizigabea (48b) izan daiteke:

- (48) a. Politika horrek prezioak jeitsiarazi zituen. (Ortiz de Urbina, 2003, 605. or.)
 b. Irakasleak gu etorerrarazi gintuen. (Berro & Fernández, 2026, 1295. or.)

(48)ko adibideetan ikus daitekeenez, mendeko aditza inakusatiboa denean ez dago araziaren biziduntasunaren baldintzarik, arazia bizigabea ere izan daiteke eta (Berro *et al.*, 2025).

Mendebaldeko egitura arazleetan ere, mendeko aditz inakusatiboekin eraikitako egituretan arazia biziduna (49a) zein bizigabea (49b) izan daiteke. Halaber, mendeko aditz inakusatibodun egitura arazleak beste hizkeretan agertzen ez den biziduntasunaren

araberako kasu eta komunztadura markatzea dute, arazi bizidunak datiboz markatzen direlako (49a), eta arazi bizigabeak, berriz, absolutiboz (49b) eta ez datiboz (49c)¹²:

- (49) a. Jonek Aneri etorriarazo/etorri eragin deutso.
 b. Inflazioak prezioak igonarazo/igon eragin dauz.
 c. *Inflazioak prezioai igonarazo/igon eragin deutse

Ezaugarri hori mendeko aditz inakusatiboa duten egitura arazleetan baino ez da agertzen, dagoeneko erakutsi dudana legez, gainerako aditzak dituzten egituretan arazia biziduna izan behar delako. Beraz, mendebaldeko egitura arazleetan arazi bizidunek datibo kasu zein komunztadura marka jaso ohi dute –edozein delarik mendeko aditzaren izaera–. Aldiz, arazi bizigabeei, zeinak mendeko aditz inakusatiboekin sortutako egitura arazleetan baino agertzen ez diren, absolutibo kasu eta komunztadura marka ezarri ohi zaie.

Orain arte literaturan erakutsi izan denaren arabera (Berro *et al.*, 2025; de Rijk, 2008; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), biziduntasuna bera da kasu eta komunztadura marka batetik bestera dagoen mugarria. Hortaz, badirudi, neurri batean behintzat, mendeko aditz inakusatibodun egitura arazleetako araziaren markatzea Biziduntasunaren Hierarkiaren bitartez azal daitekeela, eta ez Comriren (1989) Funtzioen Hierarkiaren arabera. Hona, beraz, Biziduntasunaren Hierarkia (Comrie, 1989; Silverstein, 1976):

- (50) 1./2. pertsonako izenordainak > 3. pertsonako izenordainak > izen bereziak > izen arrunt gizakiak > izen arrunt bizidunak > izen arrunt bizigabeak.

(50)eko Biziduntasunaren Hierarkiak izen sintagmak biziduntasunaren arabera sailkatzen ditu. Hierarkian ezkerren –hau da, goren– kokatzen dira biziduntasun maila handiena dutenak, eta eskumatarago –hots, beheago–, berriz, biziduntasun maila txikiagoa dutenak. Edozein hierarkia tipologikotan gertatzen denez, hierarkian eragina duen bereizketa formal edo gramatikal orok ebaki-puntu batetik aurrera doan segmentu bat hartzen du, ebaki-puntu horrek dena delako argumentua markatzeko bi multzo sortzen dituen (Igartua & Santazilia, 2018, 383. or.). Biziduntasunaren Hierarkian ere ebaki-puntu bat egongo da, izan ere, Aissenek dioenez, «the higher in prominence a direct object, the more likely it is to be overtly case-marked» (Aissen, 2003, 436. or.)¹³, alegia, zenbat eta hierarkian gorago egon, orduan eta aukera gehiago daude datiboz markatzeko. Gainera, goragotasun (ing. *prominence*) hori biziduntasunaren eta zehaztasunaren arabera neurtzen da (Aissen, 2003, 436-437. or.). Ildo horretatik, hizkuntzaren batean, edozein sailtako osagarriari kasu marka bat ezartzen bazaio,

12 Aurreko oin-ohar batean (8. oin-oharrean) erakutsi dudana legez, mendeko aditz inergatiboko egitura arazleetan ere gauza bera gertatzen da: arazi biziduna datiboz markatzen da (iia), baina arazi bizigabea absolutiboz (iib).

13 Aissenek (2003) dioena *Osagarriaren Markatze Bereizgarria* (ing. *Differential Object Marking*) fenomenoan gertatzen dela ikusi zuen.

hierarkian ezkerretara –hau da, gorago– dauden osagarriak ere marka berberaz marka daitezke, baina ez eskumatarago –alegia, beheago– daudenak (Aissen, 2003; Comrie, 1989; Kittilä *et al.*, 2011; Ortmann, 1998; Silverstein, 1976).

Orain arte, mendebaldeko egitura arazleetakoko datibo/absolutibo alternantziaren atzean dagoen faktore eragilea arazien biziduntasuna dela esan izan da (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), baina ikertzeke dago hierarkiak bereizten dituen sailen artean zeinetan onartzen den datibo markatzea, hau da, berdina da arazia gizakia ala animalia (ez-gizakia) izatea datiboa ezartzeko? Edo 1./2. pertsonako izenordaina zein 3. pertsonakoa izatea? Hori zehazteko, Biziduntasunaren Hierarkiako sailean oinarrituz, honako arazi hauek aztertuko ditut jarraian datibo markatzea onartzen duten ikusteko asmoz: 1./2. pertsonako araziak, 3. pertsonako arazi gizakiak, eta arazi bizidun ez-gizakiak.

4.3 Arazi gizakiak: 1./2. pertsona eta 3. pertsona

Biziduntasun Hierarkiak erakusten duenez (50), gorenen dauden izenak gizakienak dira, zehazki, hierarkian goren daudenak lehen edo bigarren pertsonako izenordainak dira, hirugarren pertsonako izenordainen aurretik. Biziduntasunaren Hierarkiak erakusten duen biziduntasun mailaren bereizketa hori esanguratsua da euskaraz agertzen diren bestelako fenomenoetan, esate baterako, Osagarriaren Markatze Bereizgarrian (OMB aurrerantzean). OMBren kasuan, datibozko marka gizakiak diren osagarriek baino ez dute onartzen (Fernández & Rezac, 2010, 2016; Mounole, 2012; Odria, 2017, 2019). Are gehiago, hiztun batzuek datiboa ezartzeko orduan bereizi egiten dituzte lehen eta bigarren pertsonako izenordainak alde batetik, eta hirugarren pertsonakoak bestetik (Fernández & Rezac, 2010, 2016; Mounole, 2012; Odria, 2017, 2019). Hau da, absolutibozko marka sarriago agertuko da hirugarren pertsonako izenordainetan, lehen eta bigarren pertsonakoetan baino.

Egitura arazleetara jotzen badugu, aldiz, bizidunak eta gizakiak diren arazi guztien datibo markatzea zilegi da, arazi hori lehen pertsonako izenordaina (51a), bigarren pertsonakoa (51b), zein hirugarren pertsonakoa (51c) izan:

- (51) a. Niri etorriarazo/etorri eragin deust.
- b. Zuri etorriarazo/etorri eragin deustu.
- c. Hareri etorriarazo/etorri eragin deutso.

(51)ko mendeko aditza inakusatiboa den arren, kanonikoki egitura arazlean absolutiboz markatzen den arazia, mendebaldeko hizkeretan datiboz markatzen da (-ri) eta datibo komunztadura eragiten du aditz laguntzailean, arazia gizakia delako. Gauza bera gertatzen da 3. pertsonako izenordain arazi hori izen berezia (52a) edo izen arrunt gizakia (52b) bada, hau da, mendebaldeko hizkeretan datibo markatzea zilegiztatzen da arazia gizakia den heinean:

- (52) a. Joneri etorriarazo/etorri eragin deutso.
- b. Ikasleei etorriarazo/etorri eragin deutse.

Beraz, Biziduntasunaren Hierarkian goren dauden arazi guztiek onartzen dute datibo markatzea, OMBn ez bezala, azken horrek pertsonen arteko bereizketa egiten du eta; lehen eta bigarren pertsonako osagarrien datibo markatzearen joera, hirugarren pertsonako osagarriena baino handiagoa delako. Horrenbestez, mendebaldeko egitura arazleetan ez da pertsonaren arabera bereizketarik egiten datibo markatzea ezartzean, (51)k eta (52)k berresten duten legez.

4.4 Arazi bizidunak: ez-gizakiak

Atal honetan bizidunen hierarkian beherago dauden araziei erreparatuko diet, gizakiak ez diren bizidunei, alegia. Aurreko atalean azaldu dudana bezala (§ 4.3), euskaraz OMB gizakiekin baino ez da onartzen. Hortaz, bizidunak izan arren, gizakiak ez diren argumentuen datibo markatzea ez da zilegi OMBn (Fernández & Rezac, 2010, 2016; Mounole, 2012; Odria, 2017, 2019). Hala ere, mendebaldeko egitura arazleetan datiboz marka daitezke bizidunak diren arazi ez-gizakiek ere (53), alegia, gramatikaltzat jotzen da datibo kasu eta komunztadura markatzea duen arazi bizidun ez-gizakia:

- (53) a. Txakurrari etorriarazo/etorri eragin deusat.
b. Katuari etorriarazo/etorri eragin deusat.

Hemen ere, badirudi biziduna den arazi ez-gizakiaren datibo markatzeak biziduntasunaren arabera markatzea berresten duela eta, beraz, mendebaldeko hizkerak Biziduntasunaren Hierarkiari jarraitzen diotela egitura arazleetako araziak markatzeko. Ondorioz, biziduntasunaren arabera markatze horren ebaki-puntua Biziduntasunaren Hierarkiako izen arrunt bizidunen eta izen arrunt bizigabeen sailen artean egongo litzateke, literaturan esan izan den legez (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; Ortiz de Urbina, 2003, 2019). Datuok hasierako inpresioak baino ez dituzte jasotzen eta hiltunen lagin handiago bat beharko genuke hala ote den berresteko, baina bildutako datu gutxi horiek erakusten dute mendebaldeko egitura arazleetan arazia datiboz markatzeko baldintza bakarra biziduntasuna dela eta ez gizatasuna.

Laburbilduz, mendebaldeko egitura arazleak mendeko aditz iragankor, inergatibo edo ditransitibo baten gainean eraikitzen direnean, arazia biziduna izango da eta datiboz markatuko da –(43b), (44b), (45b)–. Hortaz, mendeko aditz inergatibo batzuetako arazi batzuk izan ezik, inoiz ez da bizigabea izango (46b). Aldiz, mendeko aditz inakusatibo baten gainean eraikitzen denean, arazia biziduna (49a) zein bizigabea (49b) izan daiteke eta biziduntasunaren arabera kasu eta komunztadura markatzea egiten da: arazia biziduna denean datiboz markatzen da (49a) eta bizigabea denean, berriz, absolutiboz (49b), eta ez datiboz (49c). Orain arte literaturan erakutsitakoaren arabera (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), bereizketa hori biziduntasunaren arabera denez, mendebaldeko egitura arazleek Biziduntasunaren Hierarkiari jarraitzen diotela berretsi dut beren argumentuen markatzea ezartzeko. Erakutsi dudanez, Biziduntasunaren Hierarkiako hainbat sailek, zehazki, 1./2. pertsonako izenordainen (51a, 51b), 3. pertsonako izenordainen (51c), izen berezien (52a), izen arrunt gizakien (52b), eta izen arrunt bizidunen (53) sailek datibo kasu eta komunztadura markatzea onartzen dute. Hiltun gehiagoren

juzkuak biltzea komenigarria litzateke, artikulua honetan esandakoa berresteko; alegia, mendebaldeko hiztunek, oro har, Biziduntasunaren Hierarkiaren arabera markatze hori onartzen duten ala ez zehazteko. Izan ere, esku artean ditugun datuen arabera, datibo markatzea arazi bizidunekin baino ez da onartzen, arazi bizigabeak absolutiboarekin baino ez dira-eta markatzen. Alabaina, ikusteke dago joera hori orokorra den, ala Biziduntasunaren Hierarkiako beste sail batzuen artean dagoen datibo eta absolutibo markatzearen arteko ebaki-puntua.

5 ONDORIOAK

Artikulu honetan mendebaldeko arazleekin *-arazo* morfemarekin eta *eragin* aditzarekin– eraikitako egitura arazleak aztertu ditut, gainerako euskal hizkeretako egitura arazleekiko alderik edota antzekotasunik duten erakusteko. Batetik, mendebaldeko egitura arazleak, *arazidun* egiturak bezala (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; DHM, 1989; Ortiz de Urbina, 2003, 2019), perpaus bakunak direla erakutsi dut, hots, predikatu konplexu bakarra dagoela [aditza + *eragin/arazo*] egituretan. Hori baieztatzeke literaturan baliatu izan diren ebidentzia hauek bildu ditut: (i) mendeko aditzaren inflexio marka falta; (ii) mendeko aditza ezeztatzeko ezintasuna; (iii) [aditza + *eragin/arazo*] predikatu konplexuaren banaezintasuna; (iv) denbora adberbioen interpretazioa; eta (v) araziaren markatzea. Dena den, *eragin* aditzarekin perpaus bitasuna duen egitura arazlea sortzeko aukera ere badago: [-*t(z)ea* + *eragin*]. Beraz, mendebaldeko hizkeretan arazleak adierazteko bi estrategia tipologikoak daude; batetik, sintetikoa den eta gainerako hizkeretako arazleekiko *-arazi* edo *erazi*– antzekoa den [aditza + *eragin/arazo*]; eta bestetik, guztiz analitikoa den [-*t(z)ea* + *eragin*].

Bestetik, gainerako euskal hizkerekin konparatuz gero, mendebaldeko egitura arazleekiko araziek bestelako markatzea dutela azaldu dut. Gainerako euskal arazleetan Comrie (1989) zehaztutako hierarkia jarraitzen da, horietan mendeko aditzaren izaeraren arabera banatzen delako markatzea: mendeko aditza iragankorra, inergatiboa edo ditransitiboa denean araziak datibo markatzea du eta biziduna izan behar da, mendeko aditza inakusatiboa denean, aldiz, arazia absolutiboz markatzen da eta biziduna zein bizigabea izan daiteke. Mendebaldeko hizkeretan baina, Comrie (1989) Funtzioen Hierarkiarekin zerikusirik ez duen kasu eta komunztadura markatzea dago arazietan, haren markatzea biziduntasunean baino ez delako oinarritzen (Berro *et al.*, 2025; Berro & Fernández, 2026; de Rijk, 2008; DHM, 1989; Elordui, 1996; Iglesias, 2014; Larrea & Rekalde, 2012; Makazaga, 2009; Ormaetxea, 2005; Ortiz de Urbina, 2003, 2019). Mendeko aditzaren izaerari erreparatu gabe, mendebaldeko hiztunek datiboz markatuko dute biziduna den arazia eta bizigabeak absolutiboz. Hori horrela izanik, Biziduntasunaren Hierarkia (Comrie, 1989; Silverstein, 1976) litzateke mendebaldeko egitura arazleen markatzea ezartzeko jarraibidea, dirudienez, hiztunek biziduntasunaren arabera markatzen dute-eta arazia. Ikusi dugunez, 1./2. pertsonako araziek, 3. pertsonako araziek (izenordainak, izen bereziak edota izen arrunt giza-kiak dituztenek), zein izen arrunt biziduneko araziek datibo markatzea onartzen dute. Ondorioz, Biziduntasunaren Hierarkiako ebaki-puntua izen arrunt bizidunen sailaren eta izen arrunt bizigabeen sailaren artean loko.

Esan dudan bezala, baina, aurreragoko ikerketetan lan honetan ateratako ondorioak berrestea komeniko litzateke, ikusteko ea hitzun gehiagoren datuek ere araziaren markatzea biziduntasunaren araberakoa dela erakusten ote duten. Bestalde, zehazteke dago ea bizidunen sailen artean ere, datibo markatzea onartzeari dagokionez, alderik dagoen ala ez. Hemen bildutako datuetan ikusi denez, datiboz markatutako bizidunak onartzen dira. Nolanahi ere, interesgarria litzateke bizidunen sailen arteko onartze-maila hitzunen lagin zabalagoarekin arakatzea. Izan ere, datiboa bizidunetara mugatu arren, litekeena da bizidunen artean sail batzuek bestek baino errazago onartzea datibo markatzea bera.

Amaitzeko, lan honetan erakutsi denez, datiboa onartzen da arazi bizidunen artean, baina interesgarria litzateke ikustea ea, gainerako euskalkietan gertatzen den legez, mendebaldekoan ere absolutiboa onartzen ote den datiboz marka daitezkeen arazi horietan. Hau da, Biziduntasunaren Hierarkian izen arrunt bizidunen sailetik gora dauden araziek absolutiboa ere onartzen duten arakatzea, eta bi markatzeen artean alderik dagoen zehaztea.

6 ERREFERENTZIAK

- Agirrebeña, A., Sarasua, A. & Zenarruzabeitia, L. (2005). *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinuak eta berbak*. Eibarko Udala.
- Aissen, J. (1979). *The syntax of causative constructions*. Garland Publishing.
- Aissen, J. (2003). Differential object marking: Iconicity vs. economy. *Natural Language & Linguistic Theory*, 21, 435-483. <https://doi.org/10.1023/A:1024109008573>
- Aissen, J. & Perlmutter, D. (1976). Clause reduction in Spanish. In H. Thompson & K. Whistler (koord.), *Proceedings of the Second Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society* (1.-30. or.). Berkeley Linguistics Society.
- Aranberri, F. (1996). *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermuko Udala.
- Arejita, A., Oar-Arteta, A., Legarra, H., Alberdi, D., Etxebarria, O., Insunza, G., Zallo, E., Astigarraga, A., Atxikallende, N., Egia, M., Elorriaga, U., Erdoiza, A., Mugartegi, N. & Urrutibeaskoa, F. (2002). *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuk. 2. argitaraldi birlandu eta ugaritua*. Labayru Ikastegia; Bilbao Kutxa Fundazioa.
- Arretxe, J. (1994). *Basauriko euskararen azterketa geolinguistikoa* [Doktore-tesia, Deustuko Unibertsitatea]. DeustoTeka. <https://deustoteka.deusto.es/items/b3db05ba-a4bc-4c62-b8fc-96943f4a866d/full>
- Berro, A. (2015). *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/16077>
- Berro, A. & Fernández, B. (2026). Morphological causatives. In *Voice and argument structure in Basque* (151.-176. or.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/9781009072472.007>
- Berro, A., Odria, A. & Fernández, B. (2025). Indirect causatives in Basque: The syntax of implicit causees. *Natural Language & Linguistic Theory*, 43, 1285-1325. <https://doi.org/10.1007/s11049-024-09637-1>

- Berro, A., Oihartzabal, B. & Fernández, B. (2018). Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratoritzen. *Fontes Linguae Vasconum*, 126, 365-388. <https://doi.org/10.35462/FLV126.4>
- Burzio, L. (1981). *Intransitive verbs and Italian auxiliaries* [Doktore-tesia, MIT]. DSpace. <https://dspace.mit.edu/handle/1721.1/15849>
- Çetinoğlu, Ö., Butt, M. & Oflazer, K. (2008). Mono/bi-clausality of turkish causatives. In S. Ay, Ö. Aydın, İ. Ergenç, S. Gökmen, S. İşsever & D. Peçenek (arg.), *Essays on Turkish linguistics. Proceedings of the 14th International Conference on Turkish Linguistics* (43.-52. or.). Harrassowitz Verlag.
- Ciutescu, E. (2018). *Defective causative and perception verb constructions in Romance. A minimalist approach to infinitival and subjunctive clauses* [Doktore-tesia, UAB]. DDD. <https://hdl.handle.net/10803/665630>
- Comrie, B. (1989). *Language universals and linguistics typology*. The University of Chicago Press.
- De Rijk, R.P.G. (2008). *Standard Basque. A progressive grammar*. Chicago University Press.
- Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia (1989). Inkorporazioa perpaus kausatiboetan. In P. Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara* (87.-119. or.). EHU.
- Dixon, R.M.W. (2000). A typology of causatives: Form, syntax and meaning. In R.M.W. Dixon & A.Y. Aikhenvald, (arg.), *Changing valency: Case studies in transitivity* (30.-83. or.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511627750.003>
- Elordui, A. (1996). Hegomendebaldeko bizkaieraren aditz egituraren aldaketa-bilakabidea eta hizkuntz desagerpena. *ASJU*, 30(2), 713-752. <https://doi.org/10.1387/asju.8671>
- Elortza, J., Garro, E., Ormaetxea, J.L., Garai, J.M. & Plazaola, E. (1999). *Arrasateko euskara*. Arrasateko Udala.
- Etxebarria, J. (2025). *Araziaren markapena eta biziduntasuna: noiz datiboa, noiz absolutiboa* [Argitaratu gabeko Master Amaierako Lana]. EHU.
- Euskal Irrati Telebista (2022ko otsailak 12). Haizeak Donostiako seigarren solairu bateko balkoi bat erortzea eragin du, baina ez du inor zauritu. *Orain*. <https://orain.eus/eu/aktualitatea/gizartea/2024/02/12/bideoa-haizeak-donostiako-seigarren-solairuko-balkoi-bat-erortzea-eragin-du-baina-ez-du-inor-zauritu/>
- Euskaltzaindia. (2008-2020). *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* [11 liburuki]. Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (2021). *Euskararen gramatika*. Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (2026). *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu-ES
- Fernández, B., Berro, A. & Suils, J. (2025). Construccions causatives en gascó. *Verba*, 52, 1-14. <https://doi.org/10.15304/verba.52.9238>
- Fernández, B. & Rezac, M. (2010). Datibo osagarri bitxiak Eta datiboaren lekualdatzea: «ari nai diyot» eta «kanta egin nazu» bidegurutzean. In B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai* [Ale berezia] (113.-149. or.). <https://doi.org/10.1387/asju.9875>

- Fernández, B. & Rezac, M. (2016). Differential Object Marking in Basque varieties. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque* (93.-138. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.05fer>
- Fontich, A. (2021). *Veu i cas en la sintaxi de la causació i la reflexivització* [Doktore-tesia, UAB]. DDD. <https://ddd.uab.cat/record/257704>
- Hualde, J.I. (2003). Derivation. In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (328.-350. or.). John Benjamins.
- Igartua, I. & Santazilia, E. (2018). Asimetrías gramaticales asociadas a la animacidad en la lengua vasca: una perspectiva tipológica. *ASJU*, 52(1/2), 381-395. <https://doi.org/10.1387/asju.20209>
- Iglesias, A. (2014). *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/18416>
- Kayne, R.S. (1975). *French syntax: The transformational cycle*. MIT press.
- Kittilä, S., Västi, K. & Ylikoski, J. (2011). Introduction to case, animacy and semantic roles. In S. Kittilä, K. Västi & J. Ylikoski (eds.), *Case, animacy and semantic roles* (1.-26. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/tsl.99.01kit>
- Labayru Fundazioa. (d.g.). Loturik ala bereiz: Arazo. *Labayru Gramatika*. Labayru Fundazioa. <https://gramatika.labayru.eus/loturik-ala-bereiz#arazo>
- Laka, I. (1993). The Structure of inflection: A case study in Xo syntax. In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque Linguistics. Current Issues in Linguistic Theory* (21.-70. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.105.02lak>
- Larrea, A. & Rekalde, J. (2012). *Arratiako berbataren gitxieneko hiztegia*. Mendebalde Kultur Alkartea.
- Lizaso, N. (2021). *Zornotzako hizkeraren kokapen linguistikoz: lehen hurbilketa* [Gradu-amaierako lana, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/55840>
- Makazaga, J.M. (2009). *Elgoibarko hizkera* [Doktore-tesia, EHU]. Tesiker. <https://www.euskadi.eus/tesiker/elgoibarko-hizkera/jesus-mari-makazaga-eizagirre/euskal-herriko-unibertsitatea/letren-fakultatea/tesia/1063>
- Mejías-Bikandi, E. (1990). Construcciones causativas en euskera. *ASJU*, 24(3), 669-668. <https://doi.org/10.1387/asju.8155>
- Mitxelena, L. & Sarasola, I. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Mounole, C. (2012). The evolution of transitive verbs in Basque and the emergence of dative-marked patients. In G. Authier & K. Haude (arg.), *Ergativity, valency and voice* (355.-380. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110227734.355>
- Odria, A. (2017). *Differential Object Marking and datives in Basque syntax* [Doktore-tesia, EHU]. <http://hdl.handle.net/10810/29766>
- Odria, A. (2019). Differential Object Marking in Basque and Spanish dialects. In A. Berro, B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Basque and Romance: aligning grammars* (243.-275. or.). Brill. https://doi.org/10.1163/9789004395398_009
- Oihartzabal, B. (2003). Lexical causatives and causative alternation in Basque. In B. Oihartzabal (arg.), *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque* (223.-253. or.). EHU. <https://doi.org/10.1387/asju.9721>

- Ordóñez, F. & Roca, F. (2017). Causativas y leísmo generalizados en dialectos del español. In A.J. Gallego, Y. Rodríguez & J. Fernández (koord.), *Relaciones sintácticas. Homenaje a Josep M. Brucart y M. Lluïsa Hernanz* (531.-546. or.). Universitat Autònoma de Barcelona.
- Ormaetxea, J.L. (2005). *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)* [Dokortetesia, EHU]. Tesiker. [https://www.euskadi.eus/tesiker/aramaioko-euskara-\(azterketa-dialektologikoa\)/jose-luis-ormaeuxea-lasaga/euskal-herriko-unibertsitatea/filologia-eta-geografia-historia-fakultatea/tesia/30](https://www.euskadi.eus/tesiker/aramaioko-euskara-(azterketa-dialektologikoa)/jose-luis-ormaeuxea-lasaga/euskal-herriko-unibertsitatea/filologia-eta-geografia-historia-fakultatea/tesia/30)
- Ormazabal, J. (2008). Kausatibo aldizkatzeak euskaraz eta inguruko hizkuntzetan. In X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez* (643.-663. or.). EHU.
- Ortmann, A. (1998). The role of [±animate] in inflection. In R. Fabri, A. Ortmann & T. Parodi (arg.), *Models of inflection* (60.-84. or.). Max Niemeyer.
- Ortiz de Urbina, J. (2003). Causatives. In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (592.-607. or.). John Benjamins.
- Ortiz de Urbina, J. (2019). Complex causative verbs and causees in Basque (and Romance). In A. Berro, B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Basque and Romance: aligning grammars* (276.-316. or.). Brill.
- Pineda, A. & Sheehan, M. (2022). When restructuring and Clause Union meet in Catalan and beyond. *Catalan Journal of Linguistics*, 21, 109-128. <https://doi.org/10.5565/rev/catjl.383>
- Rezac, M. (2007). Escaping the Person Case Constraint: Referential computation in the phi system. *Linguistic Variation Yearbook*, 6, 97-138. <https://doi.org/10.1075/livy.6.06rez>
- Rezac, M. (2011). *Phi-features and the modular architecture of language*. Springer. <https://doi.org/10.1007/978-90-481-9698-2>
- Rouverert, A. & Vergnaud, J.R. (1980). Specifying reference to the subject: French causatives and conditions on representations. *Linguistic Inquiry*, 11, 97-202.
- Silverstein, M. (1976). Hierarchy of features and ergativity. In R. Dixon (arg.), *Grammatical categories in Australian languages* (112.-171. or.). Australian National University.
- Song, J.J. (2011a). Non-periphrastic causative constructions. In M.S. Dryer & M. Haspelmath (arg.), *The world atlas of language structures online*. Max Planck Digital Library. <http://wals.info/chapter/111>
- Song, J.J. (2011b). Periphrastic causative constructions. In M.S. Dryer & M. Haspelmath (arg.), *The world atlas of language structures online*. Max Planck Digital Library. <http://wals.info/chapter/110>
- Tubino, M. (2011). Spanish productive causatives: hacer. In W. Abraham & E. van Gelderen (arg.), *Causatives in Minimalism* (213.-276. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.179.06spa>
- Urrutia, A. (itzul.) (2009). *Jean Étienne Marie Portalis. Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*. Jakin.
- Urteaga, J. (2002). *Ordaina zor nizun*. Elkar.
- Villalba, X. (1992). Case, incorporation, and economy: An approach to causative constructions. *Catalan Working Papers in Linguistics*, 2, 345-390.

- Villalba, X. (1993). *Les constructions causatives en catalá* [Lizentziatura-tesia, UB]. DD. <https://hdl.handle.net/2445/183439>
- Wang, Z. (2019). *Verbos causativos morfológicos: estudio contrastivo español-chino desde un modelo neoconstruccionista* [Doktore-tesia, UAM]. Repositorio UAM. <https://repositorio.uam.es/handle/10486/691819>
- Zuazo, K. (2014). *Euskalkiak*. Elkar.
- Zuazo, K. (2017). *Mendebaleko Euskara*. Elkar.
- Zuazo, K. (2018). Deba Ibarreko euskara. *ASJU*, 52(1/2), 899-908. <https://doi.org/10.1387/asju.202325>

Initial peaks and final contours in wh-questions from Irun

Hasierako gailurrak eta amaierako doinuak Irungo galdera partzialetan

Picos iniciales y contornos finales en interrogativas parciales de Irún

Nerea Delgado
Wenzhou Business College
ndelgadofernandez@outlook.com
<https://orcid.org/0000-0003-4473-1465>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.6>

I would like to thank all the participants in this study for their time and contribution. A special thanks goes to Carolina González for her guidance in designing the study, and to Elena Arenas, Nagore Barrena and Ane Castro for their assistance with the translation and recording of my Basque materials. I also thank Sigma Delta Pi for funding this study through a Summer Research Grant, and the reviewers for their valuable comments and suggestions. Any remaining errors are my own.

Received: 05/12/2025. Provisionally accepted: 27/03/2026. Accepted: 22/05/2026.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

ABSTRACT

This study provides an intonational description of wh-questions in Spanish and Basque from Irun, Gipuzkoa. Thirteen participants completed a contextualized reading task in both languages, and the analyses focused on the initial peak and the final contours. Results show that initial peaks predominantly occur on the post-tonic syllable of the wh-pronoun, whereas final contours were mainly rising ($L^* H\%$), followed by falling ($L^* L\%$). Cross-linguistic comparisons revealed no significant differences, and participants tended to maintain consistent contour patterns across both languages. All in all, these findings suggest a shared intonational inventory in this bilingual community for wh-questions.

Keywords: Wh-questions; intonation; bilingualism; Basque; Spanish.

LABURPENA

- Cruttenden, A. (1986). *Intonation*. Cambridge University Press.
- Delgado, N. (2024). The intonation of yes-no questions in bilingual Gipuzkoan Spanish and Basque from Irun. In S. McKinnon & M. Gradoville (Eds.), *Recent developments in Hispanic Linguistics: Studies in structure, variation, and bilingualism* (pp. 69-95). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/ihll.41.03del>
- Duguine, M. & Irurtzun, A. (2020, May 25-28). Prosody and language contact: An experimental investigation of interrogative strategies in Navarro-Labourdin Basque. *Tenth International Conference on Speech Prosody*, Tokyo, Japan.
- Elejabeitia, A., Iribar, A. & Pagola, I. (2008). La prosodia del castellano en tres ciudades vascas: Oraciones con y sin expansión. *Language Design*, 10, 147-154.
- Elordieta, G. (1998). Intonation in a pitch accent variety of Basque. *ASJU*, 32, 511-569. <https://doi.org/10.1387/asju.8723>
- Elordieta, G. (2003a). The Spanish intonation of speakers of a Basque pitch-accent dialect. *Catalan Journal of Linguistics*, 2, 67-95. <https://doi.org/10.5565/rev/catjl.44>
- Elordieta, G. (2003b). Intonation. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (Eds.), *A grammar of Basque* (pp. 72-113). De Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.72>
- Elordieta, G. & Calleja, N. (2005). Microvariation in accentual alignment in Basque Spanish. *Language and Speech*, 48(4), 397-439. <https://doi.org/10.1177/00238309050480040401>
- Elordieta, G. & Hualde, J. I. (2014). Intonation in Basque. In S.-A. Jun (Ed.), *Prosodic typology II: The phonology of intonation and phrasing* (pp. 405-463). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199567300.003.0014>
- Elordieta, G. & Irurtzun, A. (2016). Pitch accent tonal alignment in declarative sentences in the Spanish of the Basque Country: A study of language contact. In M. Armstrong, N. Henriksen & M. del M. Vanrell (Eds.), *Intonational grammar in Ibero-Romance: Approaches across linguistic subfields* (pp. 25-44). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/ihll.6.02elo>
- Elordieta, G. & Romera, M. (2020). The influence of social factors on the prosody of Spanish in contact with Basque. *International Journal of Bilingualism*, 25, 1-32. <https://doi.org/10.1177/1367006920952867>
- Escandell Vidal, M. V. (1999). Los enunciados interrogativos. Aspectos semánticos y pragmáticos. In I. Bosque & V. Demonte (Eds.), *Gramática descriptiva de la lengua española* (pp. 3929-3992). Espasa.

- Estebas-Vilaplana, E. & Prieto, P. (2010). Castilian Spanish intonation. In P. Prieto & P. Roseano (Eds.), *Transcription of intonation of the Spanish language* (pp. 17-48). Lincom Europa.
- Etxebarria, A., Eguskiza, N. & Gaminde, I. (2018). NZ galderak. In A. Etxebarria & N. Eguskiza (eds.), *Bariazona esaldien intonazioan* (pp. 129-44). EHU.
- Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (2021). *Población de 2 y más años de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales, lengua, sexo y periodo*. https://es.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/DB//PX_010123_cepv3_lhc01.px/table/tableViewLayout2/
- Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (2023). *Población de 2 y más años de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales según nivel global de euskera*. https://es.eustat.eus/elementos/ele0020800/ti_43-poblacion-de-2-y-mas-anos-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-nivel-global-de-euskera-2021/tbl0020887_c.html
- Face, T. (2003). Intonation in Spanish declaratives: Differences between lab speech and spontaneous speech. *Catalan Journal of Linguistics*, 2, 115-131.
- Face, T. & Prieto, P. (2007). Rising accents in Castilian Spanish: A revision of Sp_ToBI. *Journal of Portuguese Linguistics*, 6, 117-146. <https://doi.org/10.5334/jpl.147>
- Fernández-Rei, E. (2019). Galician and Spanish in Galicia: Prosodies in contact. In I. Molina Martos, F. Paredes García & A. M. Cestero Mancera (Eds.), *Spanish in context: Sociolinguistic patterns and processes of convergence and divergence in Spanish* (pp. 438-461). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/sic.00046.fer>
- Gaminde, I., Romero, A., Garay, U. & Etxebarria, A. (2011). Los tonos de frontera de las oraciones interrogativas absolutas producidas por hablantes bilingües vasco-español. *Estudios de Lingüística Aplicada*, 54, 61-79. <https://doi.org/10.1515/zrp-2014-0005>
- Gaminde, I., Romero Andonegi, A., Garay Ruiz, U. & Etxebarria, A. (2014). Los tonos de frontera de las oraciones interrogativas pronominales producidas por hablantes bilingües precoces en vasco y español. *Zeitschrift für Romanische Philologie*, 130(1), 1-16. <https://doi.org/10.1515/zrp-2014-0005>
- González, C. & Reglero, L. (2018). Dime una cosa: Are wh-in-situ questions different in Spanish? Evidence from intonation. In L. Repetti & F. Ordóñez (Eds.), *Romance languages and linguistic theory 14. Selected papers from the 46th Linguistic Symposium on Romance Languages (LSRL)* (pp. 85-102). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/rllt.14.06gon>
- González, C. & Reglero, L. (2020). The intonation of yes-no questions in Basque Spanish. In J. Colomina-Almiñana & S. Sessarego (Eds.), *Language patterns in Spanish and beyond* (pp. 223-242). Routledge. <https://doi.org/10.4324/9781003091790-14>
- González, C. & Reglero, L. (2023). Intonation correlates of canonical and non-canonical wh-in-situ questions in Spanish. *Journal of Linguistics*, 60, 29-50.
- González, C., Reglero, L. & Delgado, N. (2023). The prosody of narrow focus in Basque Spanish. In I. Barberia & A. Iribar (Eds.), *Papers on Basque linguistics in honor of Jon Andoni Franco Elorza* (pp. 205-239). University of Deusto.

- Henriksen, N. (2009). Wh-question intonation in Peninsular Spanish: Multiple contours and the effect of task type. *Journal of Portuguese Linguistics*, 8(1), 47-74. <https://doi.org/10.5334/jpl.121>
- Hualde, J. I. & Prieto, P. (2015). Intonation variation in Spanish: European and American varieties. In R. Frota & P. Prieto (eds.), *Intonation in Romance* (pp. 350-391). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199685332.003.0010>
- Jiménez, M. L. (1997). Semantic and pragmatic conditions on word order in Spanish [Unpublished doctoral dissertation]. Georgetown University.
- Kozminska, K. (2019). Intonation, identity and contact induced change among Polish-speaking migrants in the U.K. *Journal of Sociolinguistics*, 23, 29-53. <https://doi.org/10.1111/josl.12318>
- Mennen, I. (2004). Bi-directional interference in the intonation of Dutch speakers of Greek. *Journal of Phonetics*, 32, 543-563. <https://doi.org/10.1016/j.wocn.2004.02.002>
- Muntendam, A. & Torreira, F. (2016). Focus and prosody in Spanish and Quechua: Insights from an interactive task. In M. Armstrong, N. Henriksen & M. Vanrell (Eds.), *Intonational grammar in Ibero-Romance: Approaches across linguistic sub-fields* (pp. 69-90). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/ihll.6.04mun>
- Navarro Tomás, T. (1944). *Manual de entonación española*. Colección Málaga.
- O'Rourke, E. (2004). Peak placement in regional varieties of Peruvian Spanish intonation. In J. Auger, J. Clancy Clements & B. S. Vance (Eds.), *Contemporary approaches to Romance linguistics: Selected papers from the 33rd Linguistic Symposium on Romance Languages (LSRL)* (pp. 321-41). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.258.17oro>
- O'Rourke, E. (2009). The realization of contrastive focus in Peruvian Spanish intonation. *Lingua*, 122, 494-510. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2011.10.002>
- Prieto, P. (2004). The search for phonological targets in the tonal space: H1 scaling and alignment in five sentence types in Peninsular Spanish. In T. L. Face (ed.), *Laboratory approaches to Spanish phonology* (pp. 29-60). Mouton de Gruyter.
- Queen, R. M. (2001). Bilingual intonation patterns: Evidence of language change from Turkish-German bilingual children. *Language in Society*, 30, 55-80. <https://doi.org/10.1017/s0047404501001038>
- Queen, R. M. (2012). Turkish-German bilinguals and their intonation: Triangulating evidence about contact-induced language change. *Language*, 88, 791-816. <https://doi.org/10.1353/lan.2012.0078>
- Quilis, A. (1993). *Tratado de fonología y fonética españolas*. Gredos.
- R Core Team. (2022). R: A language and environment for statistical computing. R Foundation for Statistical Computing. www.R-project.org/
- van Rijswijck, R. & Muntendam, A. (2014). The prosody of focus in the Spanish of Quechua-Spanish bilinguals: A case study on noun phrases. *International Journal of Bilingualism*, 18(6), 614-632. <https://doi.org/10.1177/1367006912456103>
- Robles-Puente, S. (2011). Absolute questions do not always have a rising pattern: Evidence from Bilbao Spanish. In S. M. Alvord (Ed.), *Selected proceedings of the 5th Conference on Laboratory Approaches to Romance Phonology* (pp. 98-107). Cascadilla Proceedings Project.

- Robles-Puente, S. (2012). Two languages, two intonations? Statements and yes/no questions in Spanish and Basque. *ASJU*, 46(1), 252-262. <https://doi.org/10.1387/asju.12617>
- Rodríguez Vázquez, R. (2019). The intonation of wh-questions in a language contact situation: The case of Galician and Galician Spanish bilingual speakers. *Estudios de Fonética Experimental*, 28, 81-124.
- Romera, M. & Elordieta, G. (2013). Prosodic accommodation in language contact: Spanish intonation in Majorca. *International Journal of the Sociology of Language*, 221, 127-151. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2013-0026>
- Romera, M. & Elordieta, G. (2020). Information-seeking question intonation in Basque Spanish and its correlation with degree of contact and language attitudes. *Languages*, 5(4), 1-21. <https://doi.org/10.3390/languages5040070>
- Sichel-Bazin, R., Buthke, C. & Meisenburg, T. (2012). The prosody of Occitan-French bilinguals. In C. Gabriel & K. Braumüller (Eds.), *Multilingual individuals and multilingual societies* (pp. 349-64). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/hsm.13.23baz>
- Sichel-Bazin, R., Buthke, C. & Meisenburg, T. (2015). Prosody in language contact: Occitan and French. In E. Delais-Roussarie, M. Avanzi & S. Herment (eds.), *Prosody and language in contact* (pp. 71-99). Springer. https://doi.org/10.1007/978-3-662-45168-7_5
- Simonet, M. (2009). Nuclear pitch accents in Majorcan Catalan declaratives: Phonology, phonetics, diachrony. *Studies in Hispanic and Lusophone Linguistics*, 2(1), 77-115. <https://doi.org/10.1515/shll-2009-1036>
- Simonet, M. (2011). Intonational convergence in language contact: Utterance-final F0 contours in Catalan-Spanish early bilinguals. *Journal of the International Phonetic Association*, 41(2), 157-184. <https://doi.org/10.1017/S0025100311000120>
- Sosa, J. M. (1999). *La entonación del español: su estructura fónica, variabilidad y dialectología*. Cátedra.
- Sosa, J. M. (2003). Wh-questions in Spanish: Meanings and configuration variability. *Catalan Journal of Linguistics*, 2, 229-247. <https://doi.org/10.5565/rev/catjl.51>
- Uth, M. & Gutiérrez-Bravo, R. (2020). Language contact and intonation: Evidence from contrastive focus marking and loanwords in Yucatec Spanish and Yucatec Maya. *Bulletin of Hispanic Studies*, 20, 31-57. <https://doi.org/10.3828/bhs.2020.3>

9 APPENDIX

Target sentences in Spanish:

- 1) ¿A dónde viajas mañana?
- 2) ¿Dónde tienes la manguera?
- 3) ¿Cómo vuelve la abuela?
- 4) ¿Cómo haces la mermelada?
- 5) ¿A qué hora vuelve?

- 6) ¿Qué pasteles hago?
- 7) ¿Cuándo te dicen si has aprobado?
- 8) ¿Cuándo tienes libre?
- 9) ¿Cuánto lleva con el yoga?
- 10) ¿Cuánto pagaste por el móvil?
- 11) ¿Quién prefieres que gane?
- 12) ¿Quién te ha dado un regalo?

Target sentences in Basque:

- 1) Nora zoaz bihar?
- 2) Non daukazu ureztagailua?
- 3) Nola dator amona?
- 4) Nola egiten duzu mermelada?
- 5) Zer ordutan itzuliko da?
- 6) Zer pastel eramango ditugu?
- 7) Noiz duzu azken proba?
- 8) Noiz zaude libre?
- 9) Zenbat denbora daramazu yoga egiten?
- 10) Zenbat kostatu zaio ordenagailua?
- 11) Nor da zure irabazlea?
- 12) Nork eman dizu opari hori?

Aditz trinkoen osaeraren gaineko proposamen berri bat

Un nuevo análisis sobre la formación de los verbos sintéticos en euskara

A new proposal on the formation of Basque synthetic verbs

Aitor Lizardi Ituarte
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
aitor.lizardi@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-3213-6725>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.7>

Artikulu hau Eusko Jaurlaritzaren Doktoretza Ondoko Programari (2024-2027) esker idatzi da, *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia* (IT1534-22) ikerketa-taldearen barruan. Eskerrak eman nahiko nizkioke Karlos Arregiri, proposamena hobetzen eta artikulua fintzen emandako laguntzagatik. Bi berrikusle anonimori ere eskerrak eman nahiko nizkieke artikulua hobetzeko eginiko iruzkinengatik. Egon litezkeen akatsen erantzule bakar, nolanahi ere, ni neu naiz.

Jasotze data: 2025/10/17. Behin-behineko onartze data: 2026/03/16. Behin betiko onartze data: 2026/04/08.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honetan euskarazko aditz trinkoen osaerari buruzko analisi berri bat proposatuko dut. Ohiko analisisietako A-Denb mugimenduak AS eta DenbS arteko proiektzioak onartzen ez duela-eta (ezeztapena, partikula modalak), Arregiren eta Nevins-en (2012) aditz perifrastikoen eredua hartu eta trinkoetara hedatuko dut. Aditz tasuna Denb-ek deribazioan jasotzen dituen tasunetarik bat dela proposatuko dut, A-tik Komunztatu (*Agree*) bidez jaso, eta aditz trinkoen erroa, perifrastikoen legea, zatiezina dela, Denb-eko tasunen gauzapean den neurrian. Bide horretatik, aditz trinkoen zenbait propietate azaltzen ere saiatuko naiz, hala nola trinkoak osatzeko gai diren aditzen berezitasuna.

Gako hitzak: aditz trinkoak; ezeztapena; partikula modalak; Morfologia Banatua.

RESUMEN

Este artículo propone un nuevo análisis de los verbos sintéticos en euskara. Desde la observación de que el movimiento V-T no deja lugar para otras proyecciones entre SV y ST (negación, partículas modales), asumiré el modelo de verbos analíticos de Arregi & Nevins (2012) para ampliarlo a los sintéticos. Propongo que, durante la derivación, T, entre otros rasgos, adopta un rasgo verbal mediante la concordancia con V, y que la raíz de los verbos sintéticos, al igual que el de los analíticos, es indivisible, ya que es la realización de los rasgos en T. Asimismo, intentaré dar respuesta a ciertas propiedades de estos verbos, como la propiedad distintiva del reducido grupo de verbos que acepta formas sintéticas.

Palabras clave: verbos sintéticos; negación; partículas modales; Morfología Distribuida.

ABSTRACT

This work presents a novel analysis of Basque synthetic verb formation. Since traditional V-to-T movement excludes further projections between VP and TP (such as negation or modal particles), I adopt Arregi & Nevins' (2012) model for analytic verbs and extend it to synthetic ones. I argue that, along with other features, T acquires a verbal feature via Agree with V, and that the verbal root is not decomposable, as in analytic verbs, since it reflects the features present in T. I also account for certain properties of Basque synthetic verbs, including in what sense the limited number of verbs that allow synthetic forms are different.

Keywords: synthetic verbs; negation; modal particles; Distributed Morphology.

1 SARRERA. 2 A-DENB ONDOKOTASUNA HAUSTEKO HAUTAGAIK: EZEZ-TAPENA ETA PARTIKULA MODALAK. 2.1 Ezeztapena. 2.2 Partikula modalak. 3 ADITZ LAGUNTZAILEEN OSAERA ARREGIREN ETA NEVINSEN (2012) PROPOSAMENEAN. 4 EUSKAL ADITZ TRINKOAK SISTEMAN INTEGRATZEN. 4.1 Aditz trinkoen morfologiaz bi hitz. 4.2 Aditz trinkoen osaera. 4.3 Bazterbide labur bat: honek guztiak aditz laguntzailearen ereduari nola deragion. 4.4 Ez, Part eta Denb buruen arteko besarkadura harremanez. 5 ONDORIOAK. 6 ERREFERENTZIAK.


1 SARRERA

Euskal aditzak, oro har, arreta nabarmena jaso du euskal hizkuntzalaritzan, eta hainbat izan dira haren osaeraren azalpen moduan proposatu diren analisiak (Albizu, 2001, 2002; Arregi & Nevins, 2012; Laka, 1993; Rezac, 2006). Horien artean, Lakaren (1993) lana nabarmengarri da, ikuspuntu formal batetik euskal aditz sistemaren morfologiarako lehenetariko analisia izaki, haren berezitasun zenbait azaltzeko gai izan zen eta; besteak beste, ergatiboaren lekualdatzea edota adizki trinko eta perifrastikoen arteko bereizketa. Horregatik, eragin aipagarria izan du analisi horrek euskal aditz morfologiaren edozein lanetan.

Zorrotz dezagun arreta aditz trinkoetara. Lakaren (1993) arabera, euskaraz aditz perifrastiko eta trinkoak izatearen arrazoia Aspektu Sintagmaren (AspS) presentzian edo faltan datza. Zehazki, honela azaltzen du Lakak (1993) aditz trinkoen sorrera. Euskaraz, aditz nagusiaren erroa, Aditz (A) buruan sortua, morfema lotua da eta, beraz, oinarri bati batu beharrean gertatzen da. Aspektu burua A-ri behar duen oinarri hori eskaintzeko gai da eta, (1a)k darakutsan bezala, AspS egituran presente badago, A-k Asp-era mugitzea nahikoa du; hala, A ez da Inflexiora (I)¹ mugitzen eta, ondorioz, aditz perifrastikoa sortzen da. Aitzitik, AspS-rik ez den kasuetan, A-k I-ra jo behar du oinarri bila eta mugimendu horren bidez sortzen da aditz trinkoa, (1b) adibidean ikusten den gisa. Analisi honen alde on bat da datu enpiriko esanguratsu bat azaltzeko gai dela,

1 Garai bateko *Inflexio Sintagmaren* (IS) baliokide eguneratutzat erabiliko dut *Denbora Sintagma* (DenbS) izendapena, egun oro har halaxe egiten da eta.

hots, aditz trinkoek aspektu balioan oposiziorik ez dutela agertzen, aspektu puntukaria baita euren balio posible bakarra.



(Laka, 1993, 31. or.)

Hainbat dira halako analisi baten ondorioak. Artikulu honen asmoei dagokienez, horien artean hau dateke garrantzitsuena: aditz trinkoa osatzeko A-tik I-rako mugimendua gertatzen bada, A eta I artean ezin da tarteko beste proiektziorik izan. Izan ere, Travis-en (1984) Buru Mugimenduaren Murriztapena (*Head Movement Constraint*) aintzat hartzen badugu, «X⁰ bat zuzenean gobernatzen duen Y⁰ batera soilik mugi daiteke»² (Travis, 1984, 131. or.).

Lakak (1993) bere analisisia plazaratu zuen garaian, A eta I bitartean ez zen beste proiektziorik, AspS-z gain. Alabaina, euskal gramatikaren gaineko lanak hazi ahala, posizio horretarako zenbait elementu proposatu izan dira; besteak beste, ezeztapena (Arriortua, 2017; Ortiz de Urbina, 1993, 1994) edota partikula modalak (Lizardi Ituarte, 2024; Monforte, 2020). Analisi bide horiek, baina, talka egiten dute A eta I-ren artean beste proiektziorik egon ezin den ideiarekin.

Gatazka horren aurrean bi konponbide-lerro posible daude, zilegiak bi-biak ere: (i) elementu horiek (ezeztapena, partikula modalak) beste posizio batean sortzen direla proposatzea, edo (ii) aditz trinkoaren osaerarako A eta Denb arteko ondokotasunik gabeko analisi bide bat marraztea. Oraino, lehen hautu horretan miazteari ekin zaio, beherago ikusiko dugunez. Bide hori posible dela ukatu gabe, baina, artikulu honen helburua bigarrenari leiho bat irekitzea da, bide horretatik aurrera egitea ere posible dela erakuste aldera. Horrenbestez, artikulu honetara aditz trinkoen osaerarako beste proposamen bat ekarriko dut, Arregiren eta Nevinsen (2012) aditz laguntzaileen osa- ketarako eredua oinarri hartuta.

Hona artikulu honetan aurkeztuko dudan proposamenak dakarren ideia nagusia: A eta Denb buruen arteko harremana Komunztatu (*Agree*) bidezkoa da, ez, esan izan den

2 Jatorrizkoan: «Head Movement Constraint: an X⁰ may only move into the Y⁰ which properly governs it» (Travis, 1984, 131. or.).

bezala, buru mugimendu bidezkoa. Ikusiko dugunez, ikuspegia bide horretara zuzentzeak, A eta Denb artean bestelako proiektioei bide emateaz gain, aditz trinkoen beste zenbait ezaugarri azaltzen ere lagun diezaguke, hala nola forma trinkoak onartzen dituzten aditzen ezaugarri bereizgarria. Laburki azaltze aldera, aditz trinkodun perpausen deribazioa onartzeko, aditzek A buruan, Asp-ekin buru konplexurik osatu gabe ere, interpretazio fonologikoa izan behar dutela proposatuko dut hemen. Hala, euskarazko aditz gehienek Asp-en testuingurutik landa esponente araurik ez dutenez, aditz trinkorik osatu ezinda geratzen dira. Ildo horri tiraka, gainera, aditz trinkoen galerrako joera historikoaren gaineko aurreikuspena egin dezakegu, _Asp testuingurutik kanpoko Ø morfema markatuak desagertzeko joera dutela planteatuz.

Artikulu hau bost ataletan banatuta dago. Bigarren atalean, ezeztapena eta partikula modalak hartuko ditut mintzagai, haiek baitira, analisi batzuen arabera, A eta Denb-en arteko ondokotasuna oztopa dezaketen elementuak. Hirugarren atalean, Arregiren eta Nevinsen (2012) aditz jokatuaren osaketarako eredua aurkeztuko dut, aditz trinkoetarako nire proposamena eredu horren hedapena izango da eta. Laugarren atalean, aditz trinkoetarako analisi berri bat aurkeztuko dut eta, aditz trinkoen osaeraz gain, ezeztapenarekiko eta partikula modalekiko harremanaz ere mintzatuko naiz. Azkenik, bosgarren atalean ondorioak aurkeztuko ditut.

2 A-DENB ONDOKOTASUNA HAUSTEKO HAUTAGAIK: EZEZTAPENA ETA PARTIKULA MODALAK

Aurretik esan bezala, euskal gramatika aztertu duten lan batzuek zenbait elementu egitura sintaktikora AS-ren gainean eta DenbS-ren azpian lotzen direla proposatu dute. Horien artean bi nabarmen daitezke: ezeztapena eta partikula modalak. Analisi horiek bidean zenbait oztopo topatu dituzte, eta, ziur aski, horietan handiena aditz trinkoen osaeran eragozle izatea izan da. Kritika horien ihardespenez gisa, bestelako analisi batzuk proposatu dira, elementu horien elkartzeko puntua DenbS-ren gainetik kokatzen dutenak.

Egoera hobeki ulertze aldera, ezagut ditzagun hurbilagoetik analisi horiek eta proposatutako alternatibak.

2.1 Ezeztapena


Ezaguna denez, ezeztapenak euskaraz perpausoko elementuen hurrenkera lineala alda dezake. Zehazki, ezeztapenak perpausetan bi hurrenkera eredu daude euskaraz: (i) *ez*-Laguntzailea-[...]-Aditza (2a), eta (ii) Aditza-*ez*-Laguntzailea (2b). Lehena perpaus nagusietan eta mendeko perpaus mota batzuetan ageri da; bigarrena, ostera, zenbait mendeko perpausetara mugatzen da³.

3 Perpaus mota bakoitzak zein hurrenkera onartzen duen xeheago ezagutzeko, ikus Artiagoitia (2003), Duguine (2022) eta Elordieta eta Haddican (2018), besteak beste. Ikuspuntu historiko baterako, ikus Salaberri (2021).

- (2) a. Ez du Jonek liburua irakurri. (ez-du-[...]-irakurri; ez-Lag-Ad)
- b. Jonek irakurri ez duen liburua. (irakurri-ez-du; Ad-ez-Lag)

Datuek ez dute analisi argi bat iradokitzen eta, oraindik orain, gramatikarien artean euskarazko ezeztapenaren analisiaren gaineko eztabaida hetsi gabe dago. Funtsean, auziaren muinean datza ea (2)ko zein hurrenkerak islatzen duen hierarkia sintaktiko oinarritzkoagoa eta zein hurrenkera den, aitzitik, bestetik eratorria: oinarritzkoa (2a) ko ez-Lag-Ad delakoan bagaude, ezeztapena DenbS-ren gainetik sortuko litzateke, Lakaren (1990) bidetik; (2b)ko Ad-ez-Lag hartzen badugu, ordea, ezeztapenak AS eta DenbS arteko lekua hartuko luke.

Azken ildo horretatik abiatzen da Ortiz de Urbinaren (1989, 1993, 1994) analisia. Proposamen horren arabera, euskarazko ezeztapen morfema AS eta DenbS-ren artean kokatzen den EzS baten buru gisa sortzen da; hala, mendeko perpausetako Ad-ez-Lag hurrenkera lortuko genuke. ez-Lag-[...]-Ad ordenan, alabaina, beste urrats bat gehiago jazotzen da: ezker periferiako proiektzio batek Ez⁰ burua erakartzen du, Denb⁰-tik igarota. Horrenbestez, Ortiz de Urbinaren proposamenek (3)ko egituretara eramango gintuzkete euskarazko ezeztapenaren analisi gisa⁴.




Halako analisi bati egin zaizkion kritiken artean, badira nabarmentzeko zenbait, haren bideragarritasuna zail lezaketenak. Hemen artikuluaeren gaiarekin zuzenean lotzen den kritika horietako bat hartuko dugu hizpide: EzS AS eta DenbS (IS) artean kokatzen bada, aditz trinkoak eratzea oztopatu beharko luke.

Horixe da, esate baterako Elordietak eta Haddicanek (2018, 422. or.) aipatzen duten arazoetako bat: euskaraz aditz trinkoa osatzeko A-Denb mugimendua jazotzen dela onartu ohi da, eta ezeztapena AS eta DenbS-ren tartean gertatuko balitz,

4 Ortiz de Urbinaren (1993, 766. or.) arabera, (3a) adibideko ez-Lag-[...]-Ad hurrenkerari dagokion I-Konp mugimendua ezeztapenaren besarkadura propietateengatik agitzen da. Bestetik, mendeko perpausetan, (3b) adibidean kasu, konplementatzailea laguntzaileari klitizatzen zaiola onartzen du. Analisi honen xehetasunetarako, irakurleak jo beza Ortiz de Urbina (1993, 1994) lanetara.

mugimendu hori oztopatuko luke. (4)ko egiturek argiago erakusten dute zeri buruz dihardugun.

(4) a. Ez datoz. (Elordieta & Haddican, 2018, 422. or.)




Har dezagun (4a)ko adibidea, aditz trinkoa duen ezezko perpaus bat, *ez datoz* bezalakoa. Oro har, *datoz* bezalako aditz trinko bat osatzeko, A-tik Denb-erako mugimendua gertatzen dela onartu ohi da (Laka, 1993). Bi buru horien artean beste proiektzio bat, EzS kasu, tartekatzen dela onartzen badugu, ordea, A eta Denb buruen ondokotasuna hausten da, eta, ondorioz, aditz trinkoaren osaera morfologikoa ezin gerta litekeela dirudi. Izan ere, ondokotasun horri eusteko (4b)n dugun egiturako operazioen bat izan beharko litzateke, hots, A buruak Denb burua bilatzea Ez burutik igaro gabe; horrek, ordea, Buru Mugimenduaren Murriztapena (Travis, 1984) hautsiko luke⁵. Horrenbestez, A burua Ez-etik igaro beharko da Denb bururako bidean. Hala, Denb⁰-ko buru konplexuak Baker-en (1985) Ispilu Hatsarrea (*Mirror Principle*)⁶ bete behar duela onartzen badugu, hots, buru konplexuak jatorrizko egitura sintaktikoa errespetatu behar badu, (4c)ko egitura izango genuke. Kasu horretan ere, alabaina, A eta Denb ez leudeke ondokotasunean Denb konplexuaren barruan, Ez oraindik oztopo litzateke-eta, eta horrek aditz trinkoa eratzea ezezko egingo luke.

Auzi hau eta beste batzuk konpontzeko, Elordietak eta Haddicanek (2018) eta Haddicanek (2004, 2008), besteak beste, proposatu duten bide bat *ez* morfema DenbS azpiko proiektzioaren baten espezifikatzaile gisa sortzen dela iradokitzea izan da. Hala,

5 Buru Mugimenduaren Murriztapenaren arabera, «X⁰ bat zuzenean menderatzen duen Y⁰ batera bakarrik mugitu liteke [An X⁰ may only move into the Y⁰ which properly governs it]» (Travis, 1984, 131. or.; egilearen itzulpena). Hau da, X⁰-tik Y⁰-rako bidean ezin da tartean dagoen beste Z⁰ bat igaro gabe utzi.

6 Ispilu Hatsarreak dioenez, «deribazio morfologikoei deribazio sintaktikoak zuzenean islatu behar dituzte (eta alderantziz) [The Mirror Principle: Morphological derivations must directly reflect syntactic derivations (and vice versa)]» (Baker, 1985, 375. or.; egilearen itzulpena).

ez luke A eta Denb buruen ondokotasun fonologikoa oztopatuko adizki trinkoak osatzean⁷.



Proposamen hori bideragarri izanagatik, artikulu honetan beste bide batetik joko dugu afera hau konpontzen aldera. *Ez* morfemaren buru izaera auzitan jarri ordez, aditz trinkoa osatzeko eredua birpentsatuko dugu, eta buru mugimendu bidez baino, Komunztatu bidez lortzen dela mahaigaineratuko. Ikuspegi horrek A eta Denb buruen arteko ondokotasunaren gaiari erantzuna ematen dio, eta Ortiz de Urbinaren (1993, 1994) ezeztapenaren analisiaren ildoari, AS eta DenbS arteko buru gisa sortzen dela dioenari, egotzen zaizkion arazoak konpontzen.

2.2 Partikula modalak

Euskarak badu partikula modal sail bat, perpausari hiztunaren arabera balio epistemiko edo ebidentzialen bat gehitzen diona, ondoko elementu hauek osatua: *ei*, *omen*, *ote*, *bide*, *ahal* eta *al* (Duhalde & Monforte, 2021; Etxepare & Uria, 2016;


⁷ (5) Elordieta eta Haddican (2018) laneko egituretan inspiratua dago, (75b) eta (77b) adibideetan, zehazki. Adizki trinkodun egiturarik ematen ez badute ere, ohiko onarpenetatik tiraka irudikatu dut: AspSrik gabe eta A-Denb mugimendua onartuta. Hautu horiek analisia erarik sinpleenean erakusteko asmotan egin ditut; egileek ez diote deus adizki trinkodun perpausetan AspSrik badeneko eztabaidan. Nolanahi ere, lan horretan trinkoak osatzeko A-Denb mugimendua onartzen dute: «Itxura guztien arabera, aditz horiek A-Denb mugimenduz deribatzen dira (Laka, 1990) [By all appearances, such verbs are derived by V-T movement (Laka, 1990)]» (Elordieta & Haddican, 2018, 422. or.; egilearen itzulpena). Haddican (2004, 2008) lanetan, ezeztapenerako analisi antzekoa proposatzen da, aldaketa nagusi batekin: *ez*-en sorrera posizioa DenbS azpian kokatzen den buru isildun EzS baten espezifikatzaile posizioa da. Ondoren, *ez* Espez,ΣSra mugitzen da, *ez*-Lag-Ad hurrenkera lortzeko. Haatik, interpretazioa EzSren buru isilean gertatzen da, hori beharrezkoa da-eta partikula modalen eta ezeztapenaren arteko besarkadura zuzena lortzeko. Haddican (2004, 2008) lanetan trinkoei heltzen ez bazaie ere, A-Denb mugimendua erraz txerta daiteke lan horietako analisiaren barruan.

Euskaltzaindia, 1987, 501. or.; Garmendia, 2014; Haddican, 2004; Lizardi Ituarte, 2024; Monforte, 2020; Zubeldia, 2010). Alderdi semantikotik, nabarmentzekoa da perpausaren gaineko besarkadura hartzen dutela, ezeztapenaren eta bestelako operatzaileen gainetik (Haddican, 2008). Hurrenkeraren aldetik, bestalde, laguntzailearen aurretik agertzen dira. Zehazki, polaritate neutroko perpausetan aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean hartzen dute leku (6a), edo aditz trinkoaren aitzinean, bestela; ezezko (edo baiezkoko indartuzko) polaritatedun perpausetan, *ez* (edo *ba-*) eta laguntzailearen (edo aditz trinkoaren) artekoa da euren tokia (6b).

- (6)
- a. Ainhua gurekin *etorriko* **ei** da.

b. Ainhua *ez* **ei** da gurekin etorriko.

Ezeztapenaren aldean, euskarazko partikula modaletarako analisiak argiagoa irudi lezake lehen begi kolpean: sintagma bat (PartS, demagun) geneukake AS eta DenbS artean, partikula burutzat leukakeena. Horixe da zenbait ikertzaileek ibiliriko bidea (Elordieta, 1997; Elordieta, 2001; Monforte, 2020). Polaritate neutroko perpausetan, A-Part-Denb mugimendua proposatu ohi dute berauek (7a). Bide horretatik, ezezko (zein baiezkoko indartuzko) polaritatedun perpausetan, Ortiz de Urbinaren (1999) analisiari jarraikiko bagintzaizkio, Ez-Part-Denb- Σ mugimendua izango genuke (7b).



Azterketa mota honek beste hizkuntza batzuetako antzeko partikulen analisi ohikoe-
nekin egiten du bat, alemanezko partikula modalenarekin kasu (Bayer & Obenauer, 2011; Struckmeier, 2014). Hala eta guztiz ere, pare bat arazo egotzi izan zaizkio:

- (i)
- (7)ko egiturek hitz ordena azaltzeko balio badute ere, kale egiten dute semanti-
kari ihardesteko orduan: partikula modalek perpaus mailako besarkadura izanik,
DenbS eta Σ S proiektzioen gainetik beharko lukete, egiturak perpausak hartzen
duen esanahia isla dezan.
- (ii)
- Ezeztapenaren kasuan bezala, partikula modalak AS eta DenbS artean lotzen
badira, aditz trinkoak osatzeko beharrezkotzat hartzen den A-Denb mugimendua
galaraziko lukete.


Hasteko, hel diezaiegun besarkadura kontuei. Horixe zen, hain zuzen, Haddican-en
(2004, 2008) kezka iturri nagusietarikoa euskararako beste perpaus eredu bat

proposatzeko orduan. Partikula modalen gaineko ohar berri azpimarragarri bat zekarren horretarako: euskarazko partikula modalek besarkadura zabala hartzen dute, ezeztapenaren eta gisako perpaus mailako gainerako operatzaileen gainekoa, (8)ko perpausaren interpretazioak darakutsan legez.

- (8) Ez omen zen Oiartzunen jaio, #baina ez omen zen kanpoan jaio ere. (Haddican, 2004, 99. or.)

(8) adibidean, besarkadura harremana *ez* > *omen* balitz, perpausaren bigarren zatia egokia litzateke, hauxe genuke-eta interpretazioa: «ez dute esaten Oiartzunen jaio zela, baina ez dute esaten Oiartzundik kanpo jaio zela ere». Alabaina, interpretazio hori ez da posible, *omen* > *ez* baita besarkadura harreman posible bakarra eta, ondorioz, honela soilik uler liteke adibidea, logikarik gabeko interpretazio batean: «Esaten dute ez zela Oiartzunen jaio, baina esaten dute Oiartzundik kanpo ere ez zela jaio».

Horri erantzute aldera, euskararako perpaus egitura berri bat proposatu zuen Haddicanek (2004, 2008): antisimetrian oinarrituta (Kayne, 1994), partikula modalak DenbS gaineko ModS-ren buru gisa kokatzen ditu; *ez* morfema, ostera, DenbS azpiko EzS-ren espezifikatzaile gunean kokatzen du eta PolS-ren (=ΣS) espezifikatzaile mugitzen dela proposatzen; ezeztapenaren interpretazioa, ordea, ez dagokio *ez* morfemari, Ez⁰ buru isilari baizik, analisi honen arabera. Honatx, (9)ko diagraman, Haddicanen (2004, 2008) egitura argiago.



Haddicanen (2004, 2008) bideari atea itxi gabe, ordea, partikulen perpaus mailako besarkadura azaltzeko ere bada biderik (7)n erakutsi dugun analisi modutik abiatuta, hau da, partikula modalen sortze posizioa DenbS azpian eta EzS gainean kokatuta. Izan ere, Haddicanek (2004, 2008) besarkaduraren arazoari azalpen sintaktiko bat bilatzen badio ere, baliteke gakoa semantikan bertan egotea. Partikula modalak, finean,

oro har munduko hizkuntzei erreparatuz, egia baldintzen eremuan mugitzen ez diren elementuak dira, ez baitute perpausaren egia baldintzetan eragiten, hortik kanpoko elementuetan baizik, hizketaldiko parte-hartzaileen egoera epistemikoaren eta informazioaren iturriaren mailan, hain zuzen ere. Eta egia-baldintzetatik at mugitzen diren elementuen ikerketak dioskunez, halako fenomeno gramatikalen berezko tasuna da perpaus mailako ohiko operatzaileek (ezeztapenak, galderak...) ezin dutela euren gaineko besarkadura hartu. Horixe da, esate baterako, Potts-ek (2005, 42. or.) ateratzen duen ondorioetako bat, egia baldintzen dimentsiotik kanpo jokatzeko duten elementuak «besarkaduragabeak» direla dioenean.

Jar dezagun, esate baterako, hiztunaren jarrera negatiboa erakusten duten adjektiboaren adibidea, Gutzmann-en (2015, 31. or.) ildotik. Jarrera negatibodun adjektiboek eta partikula modalek darabilgun gairako esanguratsua diren bi ezaugarri partekatzen dituzte: (i) esanahi aldetik, biek ala biek egia balioetatik kanpoko esanahia adierazten dute, eta (ii) banaketa aldetik, ez dirudite ezker periferian kokatutako elementuak: jarrera negatibodun adjektiboek ohiko adjektiboaren posizio sintaktikoa dutela ematen du (DetS barruan, beraz), eta partikula modalen banaketak DenbS azpiko posizioaren bat iradokitzen du. Bi ezaugarri horiek partekatzeagatik, bien arteko paralelismoa marraz dezakegu.

(10)eko adibideetan, *Kraut* hitza *alemaniar* hitzaren baliokidea da, bere barnean konnotazio negatiboa gordetzen du, baina. Hala, *Kraut* hitza edozer motatako perpausetan gehitzen dugula ere, perpaus mailako gainerako operatzaileen gainetik kokatzen da, eta beti adierazten du hiztunaren une horretako jarrera negatiboa. Ikus dezagun⁸.

- (10) a. Lessing was a Kraut.
 Lessing izan.DENB D Kraut
 'Lessing *Krauta* zen.'
- b. Descartes was not a Kraut. #But I like Germans.
 Descartes izan.DENB ez D Kraut baina ni gustatu.DENB alemaniarrek
 'Descartes ez zen *Krauta*. Baina niri alemaniarrek gustatzen zaizkit.'
- c. A: Was Descartes a Kraut?
 izan.DENB Descartes D Kraut
 'Descartes *Krauta* zen?'
- B: #No, Germans are nice.
 ez alemaniarrek izan.DENB jator
 'Ez, alemaniarrek jatorrak dira.'

(Gutzmann, 2015, 31. or.)

(10a)n perpausa lehenaldian egon arren, hiztunaren alemaniarrekiko jarrera negatiboa ez da lehenaldikoa, lehenaldiak adjektiboaren gaineko besarkadura hartuko balu interpretatuko genukeen bezala, hizketaldiaren unekoa baizik. (10b)n *Kraut* ezezko perpaus batean dago, sintaktikoki ezeztapenaren besarkaduraren barruan, ohiko analisisien arabera; haatik, ezeztapenak ez dio *Kraut* hitzaren konnotazio negatiboari

8 Hona (10)eko glosetako laburdurak: D = determinatzailea; DENB = aditz jokatu.


eragiten, ez du adjektiboaren gaineko besarkadura semantikorik, eta horregatik da desegokia perpausaren jarraipena. (10c)n, azkenik, *Kraut* galde-perpaus batean agertuagatik, adierazten duen jarrera negatiboa ez da galdetzen, B-ren erantzuna desegokia izateak erakusten duen legetxe.

Beraz, (10)ek funtsean agerian uzten duena da konnotazio negatiboa adierazten duten adjektiboak ezin direla perpaus mailako operatzaileen besarkadura semantikoaren pean egon, sintaktikoki hala daudela badirudi ere. Hala, lagin modura darabilt (10) ezaugarri hori egia baldintzetatik kanpo eragiten duten elementuen adierazlegisa, Pottsen (2005) esana berretsiz. Guri dagokigunerako interesgarriena, nolanahi ere, zera da: *Kraut*-en sintaxiari so eginez gero, atributu posizioan dagoen adjektibobat dela ikusten dugu; hots, ohiko adjektibo baten posizio sintaktikoa hartzen duela dirudi. Horregatik, ondorio bera ateratzeko euskarazko partikula modaletarako ere: euren «besarkaduragabetasuna» ezaugarri semantikoa dateke, egia baldintzetatik kanpoko esanahia edukitzearekin lotua, eta, beraz, «besarkaduragabe» izate hori sintaxitiki eratortzen ez denez, DenbS azpian kokatzen direla onar genitzake.

Gauzak horrela, konnotaziodun adjektiboen kasuan nola, partikula modalenean ere halaxe agi litekeela ondoriozta genezake⁹. Hau da, pentsa genezake Haddicanek (2004, 2008) bistaturiko arazoa maila semantikokoa dela, sintaxiak ez duela zeresanik gai horretan. Beraz, gai hau ez litzateke arazo partikula modalen sintaxiaren proposamen baterako, eta ez du galarazten (7)ko adibideetako perpaus egituraren bidea, partikula modalak EzS eta DenbS tartean sortzen direla iradokitzen duena.

Alabaina, bada (7)ko perpaus egitura bideraezina dela pentsatzeko bestelako arrazoirik ere. Partikula modalak AS eta DenbS artean sortzen badira, A-tik Denb-erako mugimendurako oztopo gertatzen dira. Halaxe adierazten dute, esate baterako, Elordieta & Haddicanek (2018, 423. or.): «zailtasun gehigarri bat [...] aditz trinkoen aitzineko partikulen kasutik dator, [...] A-Denb adjuntzioak Buru Mugimenduaren Murritzapena urratzea dakarke, aditzak partikulan zehar mugitu beharko du-eta Denb-erabatzeko». (11)ko egiturak darakutsa arazo hau.


(11) a. omen dator.



⁹ Puntu honetan aipagarriak dira, nolanahi ere, euskarazko partikula modalen azterketak. Izan ere, *omen* partikularen gainean egin diren testek darakutsatenez, *omen*-ek egia baldintzetan parte har dezake, parte hartzen ez dueneko interpretazioak ere posible diren arren (Korta & Zubeldia, 2014; Zubeldia, 2010).

Ikusgai denez, ezeztapenarekin ikusi dugun arazo bera dugu aitzinean partikula modalekin ere.

Arrazoi honegatik nahiz beste hainbategatik, Elordietak eta Haddicanek (2018), Haddicanen (2004, 2008) aurreko lan batzuen ildotik, perpaus eredu berri bat planteatzen dute. Xehetasunak laburtuz eta orain dagokigun helburuetara mugatuz, proposatzen dutena ondokoa da. Batetik, partikula modalak DenbS gainetik sortzen dira. Bestetik, polaritate neutroko perpaus nagusietan, AS zabaldua, euren PredS deitua, perpausaren ezker periferiako Σ S-ren espezifikatzaileira mugitzen da, Σ -ren EPP tasun bat asetzeko. Azkenean, partikula modalak eta aditz trinkoak dituzten perpausak (12)ko ereduaren bitartez azaltzen dituztela ondoriozta daiteke¹⁰.



(12)ko egitura partikula modalak perpausetan aditz trinkoaren osaera azaltzeko gauza dela dirudi. Ortiz de Urbinaren (1989, 1993, 1994, 1999) analitik aldentzen den euskal perpausaren egituraren eredu batetik bidea garbi izan dezakegula dirudi, beraz.

Nolanahi ere, ez da artikulu honen helburua bestelako eredu alternatiboak eztabaiatzea. Horren ordez, lan honek Ortiz de Urbinaren (1989, 1993, 1994, 1999) perpaus ereduaren ildotik ere bidea egiterik badela erakustea du jomuga. Atal honetan ikusi

10 Elordietak eta Haddicanek (2018) aditz trinkoak eta partikula modalak biltzen dituen perpaus baten egiturarik ematen ez badute ere, artikuluan zehar elementu horiez diotenetik (12)koaren gisako egitura bat litzatekeela ondorioztatzen dut.

dugu zein diratekeen ezeztapenaren eta partikula modalen moduko elementuak AS eta DenbS arteko proiektzioen burutzat proposatzearen erronkak. Funtsean, azalpenik gabe dirauen alderdi nagusia ondokoa da, aditz trinkoaren osaerarako oztopo izatea egozten zaiela, A-Denb mugimendua hautsi beharko luketela posizio horretan, alegia. Hurrengo ataletan, ordea, ideia horrek nahitaez horrela zertan izan ez duela erakutsiko dut, eta, A eta Denb-en arteko ondokotasuna mantendu ordez, aditz trinkoen osaerarako bestelako eredu bat proposatuko dut, Arregiren eta Nevinsen (2012) aditz laguntzaileen osaerarako eredu morfologikoa aditz trinkoetara zabalduz.

3 ADITZ LAGUNTZAILEEN OSAERA ARREGIREN ETA NEVINSEN (2012) PROPOSAMENEAN

Aurrez esan bezala, euskarazko datuek erakusten duten ezeztapenaren, partikula modalen eta aditz trinkoen arteko korapilorako askabidearen xerka, beste hari mutur batetik helduko diot harilari artikulatu honetan. Elordietak eta Haddicanek (2018) eta Haddicanek (2004, 2008), besteak beste, talka dagiten bi mekanismoren artean, hots, perpaus egitura, batetik, eta, bestetik, aditz trinkoen osaerarako eredu, perpaus egitura birpentsatzearen aldeko hautua egin dute. Bide horren emankortasuna ukatu gabe, arazoari beste ikuspuntu batetik so egin nahiko nioke hemen: aurreko perpaus egiturari eutsirik (Ortiz de Urbina, 1989, 1993, 1994, 1999), aditz trinkoen osaera da birplanteatu nahiko nukeena, bide horretatik ere aurrera egiterik baden ikusteko.

Hala, euskal aditz trinkoen osaeraren gaineko proposamen berri bat egingo dut ondoko lerrootan. Proposamena Arregiren eta Nevinsen (2012) euskal aditzaren eredu morfologikoa oinarritzen da. Eredu hori, alabaina, aditz laguntzaileetara soilik mugatzen da; euskal aditz jokatuaren eremua, ordea, laguntzaileetatik harago heldzen da eta, ondorioz, hura osatu beharra dago euskal aditz jokatu sistema osoaren analisi morfologiko bateratu batera jo nahi badugu. Hala, bide horretan, aditz trinkoen osaera ere barne hartzen duen modelo bat proposatuko dut. Arregirena eta Nevinsena (2012) da euskal aditz jokatuaren osaeraz egin den azken proposamen morfologiko sakona, eta horregatik planteatu nahi izan dut aditz trinkoen osaerarako proposamen hau Arregiren eta Nevinsen (2012) ereduaren barruan, oinarri teoriko sendo baten bila. Hori dela eta, aditz trinkoetan arreta jarri aitzin, Arregiren eta Nevinsen (2012) ereduaren ideia nagusiak¹¹ ekarri nahiko nituzke hona, funtsezkotzat dakusat-eta proposamena hobeki ulertze aldera. Horrixe helduko diogu atal honetan.

Morfologia Banatuaren (Halle & Marantz, 1993) markoan kokatzen da Arregiren eta Nevinsen (2012) euskal aditz laguntzailearen eredu, eta hauek dira, laburrean, modeloaren printzipio nagusiak:

- i. Aditz laguntzailearen ‘erro’ deitu izan dena Denb buruak hartzen dituen tasan guztien gauzatze fonologikotzat ulertzen dute. Komunztadura morfemak,

11 Ereduaren argudio edota xehetasunak nahi lituzkeenak, jo beza Arregiren eta Nevinsen (2012) liburura.

bestetik, argumentuen klitikoak dira; Abs(olutibo) eta Dat(ibo) klitikoak Denb burura eranstean dira eta Erg(atibo) klitikoak, berriz, Jok¹² burura. Denb burua Jok burura mugitzen da, eta laguntzaile osoa Jok buruan ahoskatzen da.

- ii. Argumentuen klitikoak argumentu bakoitzaren DetS zabalaren espezifikatzaile posizioan sortzen dira¹³. Ondotik, mugitu egiten dira klitikook: Abs eta Dat klitikoak Denb-era, Erg klitikoak, ostera, Jok-era.
- iii. Bi urratsez osatutako Komunztatu eredu bat hartzen dute: Komunztatu-Lotu eta Komunztatu-Kopiatu. Komunztatu-Lotu syntaxian gertatzen da eta bi bururen arteko lotura ezartzen du: Zunda eta Xedea¹⁴. Komunztatu-Kopiatu, berriz, syntaxiondoan jazotzen da eta Xedearen tasun balioak kopiatzen ditu Zundan¹⁵. Hauek dira kontzeptu horien definizio zehatzak:

(13) Z Zundaren eta X Xedearen arteko komunztadura bi urratsetan gauzatzen da:

- a. *Komunztatu-Lotu*: syntaxian, Z-k balioztatu gabeko Φ -tasunak ditu, X-rekin Komunztatu pizten dutenak (bat baino gehiago izan litezke). Ondorioa Z-ren eta X-ren arteko lotura da.
- b. *Komunztatu-Kopiatu*: syntaxiondoan, X-ren Φ -tasunen balioak hari loturiko Z-n kopiatzen dira Komunztatu bitartez¹⁶.

(Arregi & Nevins, 2012, 152. or.; egilearen itzulpena, moldatua)

- iv. Aditz laguntzailearen «erroa» Denb buruko tasunen gauzatze fonologikoa da. Denb-ek, bere berezko tasunez landa, beste tasun batzuk ere jasotzen ditu deribazioan zehar ezartzen dituen Komunztatu harremanen bitartez. Hiru pausutan gehitzen dira tasunak Denb-en:

12 Arregik eta Nevinsek (2012) Konp erabiltzen dute Jok buruaren partez. Ortiz de Urbinaren (1999) KonpS banatuaren hipotesiari jarraituko natzaio ni, ordea, eta Arregiren eta Nevinsen (2012) KonpS JokS gisa berrinterpretatuko dut.

13 Arregiren eta Nevinsen (2012) ereduari, 'DetS zabalek' ondoko proiektzioak biltzen dituzte: KasuS (KS) > Parte-hartzaileS (PhS) > DetS (> IS). KS Erg eta Dat argumentuetan bakarrik azaltzen da; PhS, berriz, argumentua 1. edo 2. pertsonakoa denean. Aditzeko pertsona morfema klitikoak DetS zabaleko kanporango proiektzioaren espezifikatzaile posizioan sortzen dira: Espez,KS-n Erg eta Dat argumentuetan eta Espez,PhS-n 1. edo 2. pertsonako Abs argumentuetan. 3. pertsona absolutiboko argumentuek, onartu ohi den legez, ez dute klitikorik sortzen. Nolanahi ere, xehetasun maila hori ez da beharrezkoa artikulu honen helburuetarako; horregatik, irakurketa errazte aldera, argumentu klitiko oro Espez,DetS-n sortuko balitz legez erakutsiko dut, eta gainerako proiektzioak (KS, PhS) ez ditut aipatuko.

14 Honatx Komunztatu-rekin loturiko kontzeptuei emaniko jatorrizko izendapenak: Agree-Link (Komunztatu-Lotu), Agree-Copy (Komunztatu-Kopiatu), Probe (Zunda) eta Goal (Xedea). Ingelesezko «postsyntax» terminoa euskara ekartzeko «syntaxiondoa» terminoa erabili dut.

15 Komunztatu-Lotu Chomskyren (2001) *bat-egiteari* (*match*) legokioke, eta Komunztatu-Kopiatu Chomskyren (2001) *Agreeri*.

16 Jat.: «Agreement by Probe P with Goal G proceeds in two steps:


- a. *Agree-Link*: in the syntax, P has unvalued Φ -features that trigger Agree with G (possibly more than one). The result is a link between P and G.
- b. *Agree-Copy*: in the Exponent Conversion module [syntaxiondoko lehen modulua] the values of the Φ -features of G are copied onto P linked to it by Agree».

- (i) Denb buruak berezko tasunak ditu deribazioaren hasieran, adb. [+orain].
- (ii) Denb-ek Abs eta Dat argumentuekin Komunztatu-Lotu ezartzen du.
- (iii) Sintaxiondoan, Denb-ek are tasun gehiago biltzen ditu. Batetik, lehen esan bezala, absolutibo argumentuaren tasunak Komunztatu-Kopiatzen ditu. Horrez gain, laguntzailean ageri diren argumentu-klitikoen arabera, beste tasun batzuk ere gehitzen zaizkio Denb-i. Esate baterako, Denb-ek [+edun] tasuna jasotzen du laguntzaileak ergatibo klitiko bat badu; eta datibo klitikoa badu [+apl] tasuna jasotzen du¹⁷. Hala, hiru urratsak egin osteko puntuan, 1sg.abs-eko klitikoa duen orainaldiko laguntzaile iragankorrak tasun hauek ditu Denb-en: [+orain,+1sg.abs,+edun].

Tasun horien guztien gauzatze fonologikoaren emaitza da ohiko gramatike-tan laguntzailearen ‘erro’ deitu izan zaion hori. Denb buruko [+orain,+1sg. abs,+edun] tasunek, esate baterako, *-au-* morfema gauzatuko dute. *-au-* mor-fema hori Jok buruko gainerako morfemekin elkartuta, *nauzu* laguntzailea gauzatuko da.


Modelo honek nola funtzionatzen duen hobeki ulertzeko asmoz, ikus dezagun lagun-tzaile bat nola sortzen den haren arabera. Har dezagun *nauzu* adibide, esate batera.

- i. Klitikoak euren argumentuaren DetS zabalaren espezifikatzailean sortzen dira. Denb-ek, bitartean, bere denbora tasuna besterik ez du.




17 [+edun] eta [+apl] tasunek aditz jokatuan hurrenez hurren ergatibo edo datibo klitiko bat dagoela adierazten dute. Sintaxiondoan Denb-i gehitzen zaizkion tasunak dira, deribazio sintaktikoan zehar klitiko horiek aditz jokatura mugiturik, Denb burua klitiko horien presentziarekiko sentikorra delako. Xehetasunetarako, ikus Arregi eta Nevins (2012, 143.-146. or.).


ii. Denb absolutiboarekin Komunztatu-Lotzen da.




iii. Klitikoak mugitzen dira: absolutibo klitikoa Denb-era mugitzen da; ergatiboa, ostera, Jok-era.



iv. Denb Jok-era mugitzen da.



v. Sintaxiondoan, beste bi tasun jasotzen ditu Denb-ek. Bateko, Denb aurretik absolutiboarekin Komunztatu-Loturik dela-eta, orain absolutiboaren tasunak Komunztatu-Kopiatzen dira Denb-en, kasu honetan [+1sg.abs]. Besteko, [+edun] tasuna ere hartzen du Denb-ek, aditz laguntzailean ergatibo klitiko bat dagoelako. Horrenbestez, azkenean Denb-ek tasun hauek gordetzen ditu: [+orain,+1sg.abs, +edun]. Hiru tasun horiek ahoskatzerakoan, *-au-* forma fonologikoa hartzen dute.




Aditz laguntzailea, azkenik, Jok buruan kokatzen diren morfemez osatzen da. *Nauzu* laguntzailearen kasuan, Jok buruko lau morfemak osatzen dute: (i) lehenago Denb burura mugitu den *n-* absolutibo klitikoak, (ii) Denb buruko [+orain,1sg.abs,+edun] tasunen gauzapena den *-au-* morfemak, (iii) lehenago Jok burura mugitu den *-zu* ergatibo klitikoak, eta (iv) Jok buruaren Ø gauzapenak.

Atal honetan, xehetasun handitan sartu gabe ere, Arregiren eta Nevinsen (2012) euskal aditz laguntzailearen eredua aurkeztu dut, irakurlearentzat ezinbesteko dela iritzita

artikulu honen proposamena ulertzeari begira. Hala, hurrengo atalean Arregiren eta Nevinsen (2012) eredia hartu, moldatu eta zabaltu egingo dut, aditz trinkoak ere sistema honetara ekartzeko ahalegina eginez.

4 EUSKAL ADITZ TRINKOAK SISTEMAN INTEGRATZEN

AS/AspS eta DenbS artean bestelako proiektziorik, partikula modalak edota ezeztapena kasu, badela mahaigaineratzen duten analisek biderik badute? Galdera hori erantzute bidean jartzea da aditz trinkoetarako analisi berri hau proposatzearen xede nagusia. Horregatik, onar dezagun (19)ekoaren erako perpaus eredu bat.



(19)k Ortiz de Urbinaren (1999) perpaus eredia du oinarri. AspS eta DenbS artean bi proiektzio tartekatzen dira. Partikula modalak ditugu batetik, analisi gehienera jarraikita (Elordieta, 1997, 2001; Lizardi Ituarte, 2024; Monforte, 2020). Bestetik, ezeztapena ere eremu horretan geneukake; gero, ez-Part-Denb-Jok-Σ buruz buruko mugimendu bitartez, Σ bururainoko bidea egingo luke buru konplexuak, Ortiz de Urbinaren (1993, 1994) ildotik.

Halako eskema batetik abiatuz, nola lortu A eta Denb buruen arteko lotura aditz trinkoak eratzean? Hemen defendatuko dudana ideia nagusia izango da aditz trinkoen kasuan A-ren tasun lexikoak Denb-en ahoskatzen direla; Denb buruak jasotzen duen tasunetarik bat direla, alegia¹⁸. Hurbilketa honek badu alderik ohiko proposamenekin, hona dakardan analisi honek ez du eta zehazki ohiko A-Denb buru mugimendua planteatzen.


18 Artikulu honetan proposatuko dudana ideia, neurri batean, Bjorkman-en (2011) aditz jokatuaren ereduaren antzekoa da: aditz trinkoan osatzean, A eta Denb buruen arteko lotura Komunztatu bidez jasotzen da, eta aditz laguntzailea Komunztatu harreman horrek huts egitean sortzen da. Neurri batean diot, bada-eta alderik artikulu honetako proposamenaren eta Bjorkmanenaren (2011) artean. Nagusia Komunztatu-ren norabidea dateke: hemen Komunztatu bitartez A-ko [A:n] tasunaren balioa Denb-era kopiatzen dela defendatzen dut; Bjorkmanek (2011), berriz, Denb, Asp eta Ahots buruetako [Infl] tasunak A-ra kopiatzen direla proposatzen du, beheranzko Komunztatu operazio baten bidez. Xehetasunetarako, jo bedi Bjorkmanen (2011) tesira.

Xeheago, honela laburbil liteke eredu hau: A buruak [A:*n*] tasuna du; Denb-ek, bere alde-tik, balioztatu gabeko [*u*A:_] tasuna. A-ren [A:*n*] tasunaren *n* horrek tasunaren balioa adierazten du eta, aurreko beste lan batzuen bideari segika (Harley, 2014), zenbakiak erabiliko ditut aditz erro bakoitza identifikatzeko; hala, aditz erro bakoitzak bere zenbakia izango du (adb. *egin* aditzak [A:22] edo *urtu* aditzak [A:302])¹⁹. Denb-ek absolutibo argumentuarekin Komunztatu-Lotu eta haren tasunak Komunztatu-Kopiatzen dituen legetxe, halaxe dagi A buruarekin ere, eta Ak Denb buruko tasuna [*#*A:*n*] gisa balioztatzen du. Azkenik, Denb-eko tasun denak fonologikoki gauzatzean, aditz lexikoarena barne, aditz trinkoaren ‘erro’ gisa ulertzen dugun horren forma hartzen dute.

Proposamenaren xehetasunei helduko diegu segidan. Horretarako, baina, halako proposamen batek alde asko ukitzen dituela eta, zenbait zatitan banatuko dut azalpena. Lehenik aditzen trinkoen ezaugarri morfologiko batzuei so egingo diet, eta aditz lexikoekin zein aditz laguntzaileekin dituzten antzekotasunak esploratuko ditut. Proposamenari berari helduko diot ondoren, eta aditz trinkoen sorrera azaldu pausoz pauso. Proposamen honek aldaketa txiki batzuk eskatzen ditu Arregiren eta Nevinsen (2012) aditz laguntzaileen erudian, eta horiek kontatzeko bazterbide labur bat hartuko dut gero. Azkenik, aditz trinkoen analisia onartu ditugun partikula modalen eta ezeztapenaren analisiekin nola uztartzen den argituko dut, eta elkarren artean erakusten dituzten besarkadura harremanak nola lortzen diren adieraziko.

4.1 Aditz trinkoen morfologiaz bi hitz

Orain arteko proposamenen eta hemen aurkeztuko dudanaren arteko aldea honetan datza. (20a)n ikusten den legez, orain arteko proposamenek, oro har, A-Denb buru mugimendua onartzen zuten aditz trinkoetan, eta, hala, A Denb-en buru konplexu barruan eranstzen zen. (20b)k darakutsa, berriz, nire proposamena: Denb buruak, pertsona klitikoak hartzetik at, ez du barne egiturarik A buruarekin harremana ezarri eta aditz erro trinkoa osatzeko anean²⁰.



Proposamen honen muinean datzan ideia, funtsean, da aditz trinkoen ‘erroa’ eta aditz laguntzaileen ‘erroa’ baliokide direla. Ideia horretatik abiatuz, aditz trinkoek aditz

19 Zenbaki hauek arbitrarioak dira, noski. Aditz bakoitza bereizteko eta, aurkezten ditudan egituran, Komunztatu eragiketean A zundak eta Denb xedeak balio bera hartzen dutela erakusteko darabilt notazio sistema hau.

20 (20b) adibidean, *egon* aditz identifikatzeko [*u*A:7] balioa darabilt.

laguntzaileekin antzekotasun handiagoak dituztela espero genezake aditz lexikoekin baino, eta datuek horixe darakutsate, hain zuzen.

Alde batetik, aditz trinkoetako zein aditz laguntzaileetako ‘erroek’ posizio bera agertzen dute aditz jokatuaren barruan: absolutibo (edo ergatibo lekualdatu) eta datibo (edo aurredatibo) marken artean azaleratzen dira. Erka bitez (21)eko *-au-* eta *-auka-* ‘erroak’.

- (21) a. *n-au-zu* *abs-√-erg*
 b. *n-auka-zu* *abs-√-erg*

Aditz laguntzaileek aurrean osagaiaren bat, aditz nagusia edo, ekialdeko euskalkietan, sintagma bat, behar izaten duten bezala, aditz trinkoek ere osagaiaren bat behar izaten dute aurrean, izan sintagma bat edo *ez/ba-* polaritatezko elementuren bat.

- (22) a. *(Mirenek) du etxea erosi.
 b. *(Mirenek) dakar gazta tarta.

Bi adibide horietan ikusten dugunez, aditz laguntzaileek eta aditz trinkoek antzekotasunak dituzte. Aditz trinkoetako ‘erroei’ eta aditz lexikoetakoei begiratuz gero, ordea, horien artean bai, alderik badela konturatuko gara, bereziki morfologiari behatuz:

- i. Aditz trinkoetako ‘erroek’ aditz lexikoek izan ohi duten lehen bokala (*e-/i-* izan ohi dena) falta izaten dute, eta beste elementu bat erakusten dute (*-a-*, *-e-*, *-ene-...*), denbora-moduaren arabera.

- (23) a. *Eduki*
 b. *d-auka-t*, *n-euka-n*, *g-eneuka-n...*

- ii. *j(a)-* hasiera duten aditzek, *joan* edo *jakin* kasu, hasiera hori falta izaten dute euren aditz trinkoetan.

- (24) a. *joan* b. *n-oa* c. *n-indoa-n*
 d. *jakin* e. *d-aki-t* f. *n-eki-en*

- iii. *-n-z* amaitzen diren aditz lexikoek kontsonante hori falta izaten dute aditz trinkoaren erroan.

- (25) a. *egon* b. *n-ago*
 c. *egin* d. *d-agi*

- iv. Aditz trinko batzuen kasuan, *eduki* tartean, pluralgileak aditz erroaren erdian ager daitezke, aditz lexikoa banaezina den arren; (26c)n, esate baterako, *-z-* pluralgilea *-auka-* osagaiaren erdian azaleratzen da. Pluralgileak, gainera, aditzaren arabera desberdinak izan daitezke; *etzan-ek*, esate baterako, *-u-* pluralgilea hartzen du aditz trinkoaren erroan tartekatuta (26f), gainerako aditz morfologia osoan elementu horrek plural baliorik ez badauka ere.

- (26) a. *eduk-i* b. *d-auka-t* (abs sg) c. *d-auzka-t* (abs pl)
- d. *etzan* e. *d-atza* (abs sg) f. *d-autza* (abs pl)

Beraz, aditz trinkoen, aditz laguntzaileen eta aditz lexikoen erkaketatik zenbait ideia ondoriozta daitezke. Batetik, aditz trinkoak eta aditz laguntzaileak alderdi morfologiko eta sintaktikotik baliokidetzat har daitezkeela dirudi; aditz lexikoak, ordea, desberdinak dira. Bestetik, aditz trinkoetako ‘erroek’ aditz lexikoekin konparatuta aldaketak dituztela ikusten da; aldaketa horiek, baina, zail da ohiko aldaketa fonologiko sinkronikoetatik abiaturik azaltzea, hizkuntzaren beste alde batzuetan ez baitira azaleratzen. Azkenik, aditz trinkoetako erroetan barneko morfema banaketa argirik ez dela dirudi, aditz laguntzaileen kasuan bezala, pluralgile batzuk, esate baterako, erro barruan ager baitaitezke. Aipatu aditz trinkoen alderdi morfologiko horiek Denb barne egiturarik gabeko buru sinple gisa aztertuta hobeki azaltzen direlakoan nago, [Denb Denb [A]] buru konplexu bat onartuta bainoago.

Proposamen honek, gainera, hizkera zenbaitetako aditz trinkoetako erroen zatiezintasuna hobeki azal lezakeelakoan nago. Izan ere, euskararen herri hizkeretako aditz trinkoetako formei erreparatzen badiegu, Denb eta A zatiak banatzeko ezintasuna nabaria da kasu askotan. Halaxe gertatzen da, besteak beste, 1. taulak eskaintzen dituen orainaldiko aditz trinkoen adibideetan.

1. taula. Herri hizkeretako orainaldiko aditz trinkoen adibide batzuk.

Hizkera	Aditza	Erroak	Adibideak	Erreferentzia
Elgoibar	joan	-ixe	n-ixe; d-ixe; d-ixe-z	Makazaga (2009, 234. or.)
		-ua	Ø-ua; g-ua-z; z-ua-zte	
Pasai Donibane	joan	-ijua	n-ijua; d-ijua; d-ijua-ste	Agirretxe, Lersundi eta Olaetxea (1998, 102. or.)
		-ua	Ø-ua; g-ua-s; s-ua-s; s-ua-ste	
Baztan	joan	-(o)aie	n-(o)aie; g-(o)aie; d-(o)aie	Salaburu (2006, 126. or.)
		-(o)a-	g-(o)a-zi; z-(o)a-zi; z-(o)a-zte; d-(o)a-zi	
Antzuola	egon	-ao	n-ao; Ø-ao; d-ao	Badihardugu (2010, 14. or.)
		-ae	g-ae-(tz); z-ae-(tz); z-ae-(z)te; d-ae-(tz)	
Mutriku	egon	-oi	n-oi	Larrañaga (a.g.)
		-o	d-o; g-o-z; z-o-z; d-o-z	
Larresoro	ibili	-ail	h-ail	Epelde (2004, 173. or.)
		-aila	d-aila	
Burunda (Urdiain)	ibili	-aile	n-ail(e); d-aile	Zuazo (2010, 148. or.)
		-ai	z-ai-tza; g-ai-tza; z-ai-tzai; d-ai-tza	
Larresoro	etorri	-ato	z-ato	Epelde (2004, 173. or.)
		-au	z-au-zte	

Denb eta A atalak bereizteko zailtasunak agertzeaz gain, 1. taulak hainbat herri hizkeratako aditz trinkoen erroen polimorfismoa ere erakusten du. Interesgarria da polimorfismo horri erreparatzea, aditz erroak alternantzia erakusten baitu pertsona edo numero gisako $\varnothing$ -tasunen arabera. Argudioa begien bistan jartze aldera, har dezagun adibidetzat lehen kasua, Elgoibarko hizkerako *joan* aditzarena. Elgoibarren *joan* erroak orainaldian bi forma har ditzake aditz trinkoan: *-ixe* eta *-ua*. *-ixe* lehen pertsona singularrean eta hirugarren pertsonan erabiltzen da; *-ua*²¹, aitzitik, gainerako pertsona eta numeroetan. Datu hauek aise azalgarriak dira barne egiturarik gabeko Denb buruaren ikuspegiari jarraituz gero: Elgoibarko *nixe* bezalako aditz bateko *ixe* erroak [+orain, μ A:18,+1sg.abs/+3abs]²² tasunak lituzkeela esan genezake, eta *ua* erroa, berriz, [+orain, μ A:18] tasundun gainerako testuinguruetarako espone- nte araua dela²³. Kasu hauetan, beraz, A $\varnothing$ -tasunetatik bereizi ezinik agertzen zaigu, tasun guztiak bilduko lituzkeen barne egiturarik gabeko Denb buru baten analisitik azalgarria.

Azkenik, barne egiturarik gabeko Denb buruak hobeto azal dezake trinkoetako aditz erroaren bikoizketa edo metatesi eza ere. Dakigunez, euskal aditz jokatueta- ko erroak badu hitz hasieran agertzeko nolabaiteko murriztapen bat eta, aditzean absolutibo mar- karik ez denean (izan perpausean absolutiborik ez delako, izan hirugarren pertsonakoa denez aditz jokatuan markarik uzten ez duelako), hori konpontzeko askotariko estra- tegiak hartzen dira kasuaren arabera: batzuetan denbora/modu marka bat gehitzen da erroaren aurretik (27a,b), beste batzuetan ergatibozko pertsona marka ageri da posizio horretan (27c), eta, hizkera batzuetan, datibozko pertsona marka ere ager daiteke zen- bait kasutan (Fernández, 2001; Rezac, 2008), Oñatin kasu (27d).

(27) a. d-itut b. z-izun c. n-uen d. n-ostan

(27c) eta (27d) bezalako kasuei *ergatiboaren* edo *datiboaren lekualdatze* izena eman izan zaie, hurrenez hurren. Arregik eta Nevinsek (2012) lekualdatze horiek bikoizketa edo metatesi morfologiko gisa aztertzen dituzte, Denb-ezlehen²⁴ murriztapena asetzeko estrategia gisa. Haatik, aditz trinkoetako erroa [_{Denb} Denb-A] barne egituradun buru konplexu ikuspegitik aztertuko bagenu, A aditz jokatuaren barneko morfema litzateke, Denb morfemaz aparteko beste morfema bat, eta, beraz, ez luke eragozpenik bikoizketa edo metatesirik jasateko Denb-ezlehen murriztapena asetze aldera, aditz laguntzaileko gainerako morfemek bezala. Ez da halakorik jazotzen, ordea: inongo hizkeratan ez da lekukotu aditz trinkoetako erroan metatesia (28a,b) edo bikoizketa (28c,d) erakusten duen formarik Denb-ezlehen murriztapena asetzeko aukera gisa.

21 Ebaluatzaile anonimo batek dioenez, denboran zehar *-ua* erroak *-ixe*-ri lekua irabazi diola dirudi, eta *-ua* gaur egun pertsona eta numero tasun guztiekin ager litekeela. Egoera berriago honek beste analisi bat eska- tuko luke, baina ez da hori artikuluko honen helburua.

22 [μ A:18] balioak identifikatzen du *joan* aditza hemen.

23 Egia da, dena den, aditz forma batzuetan zatigarritasuna argiagoa dela. Halaxe gertatzen da, esate bate- rako, oro har euskara batuko forma trinko askotan ere. Kasu horietarako, agian, analisi berari eutsita, zentzuzkoa izan daiteke, Denb-ek A tasuna jaso ostean, Denb buruaren fisioa planteatzea sintaxiondoan.

24 *T-noninitiality*, jatorrizkoan.

- (28)
- a. *ukaat (=daukat)

b. *goa (=dago)

c. *ukaaukat (=daukat)

d. *goago (=dago)


Denb buruak barne egiturarik ez duela eta A buruarekiko lotura [A] tasuna jasotzearen bitartez egiten dela dioen (20b) gisako analisi batek, ordea, azpiatal honetan aurkeztutako datuak hobeki azaltzen ditu: (i) aditz trinkoen eta laguntzaileen arteko antzekotasunak, (ii) aditz trinkoen eta aditz nagusien arteko aldeak, (iii) herri hizkeretako aditz trinkoetako erroen zatigaiztasuna eta $\varnothing$ -tasunek eragindako polimorfismoa, eta (iv) aditz trinkoetako erro lexikoaren metatesi eta bikoizketa bezalako linearizazio operazioetan parte hartzeko ezina, haren beregaintasun ezaren zantzu dena.

Horrenbestez, Arregiren eta Nevinsen (2012) ereduari jarraituz, aditz laguntzaileen aditz ‘erroa’ Denb buruko tasunen gauzatze fonologikoa dela onartzen badugu, aditz trinkoena ere badirudi era berean dela azalgarria. Aditz laguntzaileen ‘erroak’ hainbat tasun islatzen dituen gisan (denbora, absolutibo argumentuaren balioa, etab.), aditz trinkoetako ‘erroak’ ere tasun horiek berak islatzen ditu. Hori dela eta, bien osadera berdintzat hartzea proposatzen dut hemen, alde batekin: aditz trinkoan, laguntzailean ez bezala, [A] tasun bat ageri da, A burutik balioztatua.


4.2 Aditz trinkoen osadera

Analisiaren zertzelada orokorrak erakutsi ditugu orain arte, hel diezaiogun gaiari orain xehetasunez. Eredu honen funtzionamendua erakutsiko dut aditz trinko bat adibidetzat hautatuta, *nakarzu*, hain zuzen ere. Datozen adibide eta egituretan, [A:11] izango da *ekarri* aditz honen balioa.


- i.
- Lehenik, aditza A buruan elkartzen da. A-k [A:11] tasuna du eta Denb buruak, [+orain] tasunaz gain, balioztatu bako [μ A:_] tasuna ere badu.




- ii.
- Denb burua absolutibo argumentuarekin Komunztatu-Lotzen da. Proposamen honen berritasun moduan, Denb A-rekin ere Komunztatu-Lotzen dela mahaigaineratzen dut.




iii. Argumentu klitikoen mugimendua gertatzen da: absolutibo klitikoa Denb-era eta ergatibo klitikoa Jok-era.



iv. Denb Jok-era mugitzen da, aditz jokatua sortzeari bide emateko.



v. Azkenik, sintaxiondoaren unea dator, Komunztatu-Kopiatu operazioa jazotzen denekoa. Bertan, Denb buruak absolutibo argumentuaren tasunak kopiatzen ditu eta, hala, [+1sg.abs] tasuna jasotzen du. Proposamen honen ekarpen gisa, Denb buruak A buruarekin ere Komunztatu-Kopiatu harremana ezartzen duela proposatzen dut eta, A-ko [A:11] tasunaren balioa kopiaturik, Denb buruaren [*u*A:_] tasuna balioztatzen dela. Horrekin, Denb buruaren tasunak jasotzeko prozesua burutzen da. Hortaz, Denb-eko tasun guztiek, hots, [+orain, *#*A:11, +1sg.abs], -akar- forma fonologikoa hartzen dute.



Deribazio honek, alabaina, azalpen osagarri bat eskatzen du, ondoko itaun honi oraindik ez diogu-eta erantzunik eman: A buruko aditz erroa zergatik ez da ahoskatzen aditz trinkoa osatzen denean? Galdera horren aurrean ihardespen zenbait egon daitezke²⁵, eta horietako bat garatuko dut jarraian.

Forma trinkoak onartzen dituzten aditz erroek bi esponente arau dituztela proposatzen dut, testingururuaren arabera banatuak. Beste buru bati lotzen zaizkienean, Asp-i kasu, buru konplexu bat osaturik, fonologikoki gauzatzen dira. Aitzitik, aditz erroak A buruan geratu eta buru konplexurik osatzen ez dutenean, orduan gauzape isila dute. Lehen kasua aditz perifrastikoena dugu: aditz erroa Asp burura mugitu eta, buru konplexua osatzen duenez, aditz erroa fonologikoki gauzatzen da. Bigarren kasua, berriz, aditz trinkoetan jazotzen da, aditz erroa A buruan geratzen delako, buru konplexurik osatu gabe, eta, ondorioz, fonologikoki gauzatu gabe geratzen da.

Ikuspegi horretatik, beraz, aditz trinkoak osa ditzakeen *ekarri* bezalako aditz batek honako bi esponente arauak leuzkake:

- (34) *ekar* → a. /*ekar*/ / _Asp
b. Ø / gainontzean

25 Beste azalpen bide baterako Bjorkmanen (2011) ildotik ere jo daiteke. Flexio tasunen gauzape morfologikorako printzipio bat proposatzen du hark: Komunztatu bidez loturiko flexio tasunen sekuentzia batean, lotura horretako azken muturra soilik gauzatzen da morfologikoki (Bjorkman, 2011, 78. or.). Berak behe-rantzko Komunztatu mota onartzen duenez, azken mutur hori egituraren behe-rengo elementua dela onartzen du; gure kasuan, berriz, egituraren gorengoan litzateke, Komunztatu gorantz jazotzen delako.

Zuk ni ekarri nauzu moduko aditz perifrastikodun perpaus batean, *ekar-* erroak, Asp buruari lotzen zaionez, (34a)ko esponente araua hartzen du eta, ondorioz, fonologikoki gauzatzen da. *Zuk ni nakarzu* moduko aditz trinkodun perpaus batean, ordea, aditz erroa A buruan geratuko litzateke, buru konplexurik osatu ezinik, eta, horregatik, (34b)ko esponente araua jasoko luke, hots, gauzaren fonologiko isila izango luke.

Are, azalpen bide hau garatuz gero, aditz trinkoak soilik aditz erro zehatz batzuekin zergatik sor daitezkeen zehazteko aukera irekitzen zaigu. Zehazki, forma trinkorik gabeko aditzek esponente arau bakarria dutela proposatzen dut, _Asp testuinguruan sar daitekeena; _Asp gabeko testuinguruetarako, berriz, aditz horiek ez dute esponente araurik. Horrek, noski, arazoak sortzen ditu fonologia interfazean: esponente araurik ezean, Interpretazio Osoaren²⁶ (Chomsky, 1995) printzipioa ezin beterik geratzen da, eta, ondorioz, deribazioa FFn interpretaezina izanik, hautsi egiten da.

Ekar dezagun hori euskarazko aditz sistemara. Dakigunez, euskarazko aditz trinkoak aditz erro gutxi batzuetara mugatzen dira: *ekarri* aditzak, esate baterako, aditz trinkoak osa ditzake; ez, hala, *ikasi* aditzak. Zergatik? Orain arteko azalpenari segika, trinkoak osatzeko gai ez diren aditzek esponente arau bakarria dutela proposatzen dut, (35)en *ikasi* aditzak duen gisara:

(35) *ikas-* → /ikaʃ- / / _Asp

(35)en ikus daitekeenez, *ikasi* moduko aditz erroek esponente arau bakarria dute: Asp buruarekin buru konplexu bat osatzen dutenean aditz erroa fonologikoki gauzatzen da. Horrek *Nik ikasi dut* bezalako perpausetako aditz perifrastikoak azal ditzake. _Asp testuingurutik kanpoko perpausetan, ordea, *ikas-* bezalako erro batek ez luke buru konplexurik zerekin osatu eta A buruan geratuko litzateke. Ondorioz, testuinguru horretarako ez luke esponente araurik, eta horrek IO printzipioa urratuko luke, FFn deribazioa hautsiko bailitzateke. Horrek azalduko luke *ikasi* moduko aditzek aditz trinkorik osatu ezina²⁷.

Azterbide honek, gainera, aurreikuspen bat egiteko aukera ere ematen digu. Hain zuzen ere, _Asp testuingurutik kanpo esponente arau isila izateko gaitasuna da aditz trinkoen ezaugarria. Morfema isil markatuek, ordea, galtzeko joera izan ohi dute, oro har, eta morfema ezarekin nahastekoa. Hori horrela izanik, aurreikuspen diakroniko bat egin genezake, _Asp testuingurutik kanpo Ø esponente araua duten aditzen kopurua denboran zehar beherantz joatea, alegia. Ezaguna denez, datuek horixe erakusten

26 Interpretazio Osoaren (IO, *Full Interpretation*; Chomsky, 1995) printzipioaren arabera, hizkuntza ikur orok interfaze bakoitzean interfaze horretarako interpretazioa izan behar du. Hala, hemen FFri gagozkiola, IOk azken adabegi orok balio fonologiko bat izan behar du (balio hori Ø bada ere).

27 Askotariko fenomenoak azaltzeko proposatu izan dira antzeko azalpenak. Ikus ditzagun batzuk. Kennedyk eta Merchantek (1998), adjektibo atributiboen konparazio kasuetako elipsiaren propietateak azaltzeko orduan, [+nz] tasuna lukeen F buru funtzional bat proposatzen dute; ingelesez interpretazio lexikorik ez lukeenez, ordea, elipsirik ezean, IO hautsiko luke FFn. Arregik eta Nevinsek (2014) hutsunedun aditz paradigmak azaltzen dituzte bide honetatik; adb. gazt. *abolir* erroaren esponente arau bakarria -i- bokalaren aurretik izanik, gainerako formak ezgramatikal gertatzen dira (**abolo*, **aboles*...).

dute: mendeek aurrera egin ahala, aditz trinkoak galtzen joan dira euskararen hizkera guztietan. Beraz, datuek berresten duten aurreikuspen honek aditz trinkoak bi espontane arau posible dituzten aditz gisa aztertzeo analisia indartzen dute.

4.3 Bazterbide labur bat: honek guztiak aditz laguntzailearen ereduari nola deragion

Nola azaldu aditz trinko eta perifrastikoen arteko aldea? Bjorkmanek (2011) planteatzen duenez, aditz laguntzailea A eta Denb buruen arteko Komunztatu lotura ezinezko gertatzen denean sortzen da. Ideia horri helduko diot aditz sail horien arteko aldea marrazteko orduan.

Auzi honi heltzeko aukera bat baino gehiago egon badaitezke ere²⁸, Bjorkmanen (2011) analisiaren bidea hartuko dut konponbide posible bat planteatzeko, eta, beraz, AspS perpaus mota guztietan aurkitzen dela onartuko dut²⁹. Hala, Asp buruak euskaraz bost balio izan ditzakeela proposatzen dut:

- (i) *-tu*, *-i* edo *-Ø* morfemez gauzatua (burutua deitu ohi zaiona)
- (ii) *-t(z)en* morfemaren bidezkoa (burutugabe izena hartu ohi duena),
- (iii) *-ko/-go* morfemak gorpuztua (geroaldiko esanahia hartzen duena),
- (iv) hizkeraren arabera, *-Ø* edo *-i/-tu* morfemak adierazia, indikatiboz kanpoko perpausetan erabili ohi dena; eta
- (v) puntukaria, aditz trinkoek hartu ohi dutena.


Horietatik, (i)-(iv) arteko aspektuek balio markatua (Cinque, 1999, 128. or.) dutela proposatzen dut, hizkera gehienetan morfemaren baten bidez gauzatzen direlako³⁰. (v) aspektua, puntukaria, berezia dugu, ordea, adizki trinkoetan gertatzen delako eta, hain zuzen ere, inongo hizkeretan aspektu morfemarik ez darakutsan kasu bakarra delako. Hori dela eta, tasun lehenetsi edo zehaztugabea (Bjorkman, 2011, 92. or.; Cinque, 1999, 128. or.) duela proposatzen dut. Bjorkmani (2011, 92. or.) jarraikiz, tasun zehaztugabeak dituzten buruak ez dira oztopo gertatzen buruen arteko operazioetan.

28 Beste alternatiba bat dateke, apika, aditz trinkodun perpausetan AspS-rik ez dela esatea. Aukera zilegia izan badaiteke ere, AspS aditz trinko zein perifrastikodun perpausetan dagoen ideari eutsiko diot hemen.

29 Irakurle arretatsuak laster antzemango zuen, hala ere, orain arte trinkoen osaketa erakusten duten zuhaitzetan ez dudala AspS-rik irudikatu. Hautu horren arrazoia gai honi 4.3. atal honetara arte ez heltzeko nahia izan da, analisiaren atal hau, bere azalpen osoan, hemen emateko. Egitura horietan ere AspS dagoela onartzen dut, noski.

30 Kasu hauetan batzuetan *-Ø* morfema erabili ohi da, bereziki: (i) aditz batzuen aspektu burutua osatzeko (adb. *hil da*, *atera du*, *jaiki da*); (ii) ipar-ekialdeko hizkeretan, ez-indikatibozko aditzetan (adb. *etor dadin*, *apur ezazu*). Lehenari dagokionez, aditz multzo baten ezaugarria da buruturako *-Ø* morfema erabiltzea; bigarrenaren kasuan, hizkeraren arabera da, hizkera gehienetan burutuko aspektu morfema erabiltzen baita (adb. *etor dadin*, *apur ezazu*). Hori dela eta, *-Ø* morfema Asp buruaren balio markatuen gauzatze posible bat izan daitekeela esan daiteke, eta, horregatik, [uA] tasuna har dezakeela.

du [*uA*] tasuna. Ondorioz, Denb buruaren [*uA*] tasuna asegabe geratzen da, eta, hori konpontzeko, sintaxiondoan [*uA*:+/-edun] tasuna gehitzen zaio Denb buruari. Hala, (37)ko egitura genuke aditz laguntzailearen sortze prozesuaren amaieran.




4.4 Ez, Part eta Denb buruen arteko besarkadura harremanez

Dakusagun, beraz, partikula modalak, ezeztapena eta aditz trinkoa dituen euskarazko perpaus baten deribazio sintaktikoa, pausoz pauso.

(38) (Zuk) (ni) ez ei nakarzu.

- i. Onartu dugun perpaus eredutik hasiko gara, EzS < PartS < DenbS hierarkia duen egitura batetik, alegia. Ez buruak [Ez] tasuna du, Part buruak [Part] eta Denb-ek [Denb]; Jok buruak, bere aldetik, hiru tasun horien baliozkotu gabeko ordainak ditu, [*uEz,uPart,uDenb*].




- ii. Ondotik, ezagun denez, aditz trinkoa osatzeko prozesuak bere bidea jarraitzen du. Bide horretan asetzen dira Jok buruko tasunak ere, eta Ez, Part eta Denb buruak Jok-era mugitzen dira. Buru mugimendua prozesu morfologiko huts gisa

ulertzen duen ikuspegiari helduko gatzazkio hemen³². Tasunon erkaketan egituraren hurrenkera jarraitzen da:

- (a) Jok-ek lehenik Denb aurkitzen du, horixe baita egituran goren dagoen burua, eta, beraz, Ez eta Part baino hurbilago Jok-etik. [*#*Denb] tasuna erkatu ostean, Denb-Jok mugimendua gertatzen da.
- (b) Ondoren Part aurkitzen du Jok-ek, egituran Jok-etik hurbilago dago-eta Ez baino. [*#*Part] tasuna erkaturik, Part Jok-era mugitzen da.
- (c) Azkenik, geratu den buru bakarrarekin bat egiten du Jok buruak, Ez-ekin alegia; [*#*Ez] tasuna erkatu eta Ez-Jok mugimendua gertatzen da.


Mugimendu hurrenkera hori dela eta, [ez-Part-Lag] ordena lineala dugu emaitza. Mugimendu hauek lehenago Denb-Jok mugimendua gertatzen deneko unean jazotzen dira. Behin mugimenduok agiturik, ezeztapenak, partikula modalak eta aditz jokatuak hitz fonologiko bakarra osatzen dute.



iii. Gure adibide honetan ezeztapena egituran dagoenez, hartu dugun ezeztapenaren analisi ereduari jarraituz, ezeztapena, partikula modala eta aditz laguntzailea biltzen dituen hitz fonologikoa Σ burura mugitzen da³³.

32 Buru mugimenduak ondorio semantikorik ez duela dioten hurbilketak hainbat dira, Matushansky (2006), esate baterako.

33 (41)eko egituran, Jok burua, Σra mugitzean, azken horren eskuinetara irudikatu dut, gainerako kasuetan buru mugimendua ezkerretara irudikatu dudari. Hauxe da erabili dudari irizpidea: sintagma buruaz-ken batera mugitzen diren buruak sintagma horren buruaren ezkerretara kokatu ditut, eta eskuinetara, osteraz, sintagma burulehen batera mugitzen diren buruak. Hala, ΣS burulehena denez, Σ-Jok hurrenkera irudikatu dut. Onarpen hau esplizitu egiteko beharraz ohartarazteagatik, eskerrak eman nahi nizkioke berrikusle anonimo bati.



Honaino egituraren osaera sintaktikoa. Nola lortzen dugu, ordea, dagokion interpretazioa? Lehenago esan bezala, artikulua honi dagokionez, buru mugimendua hainbat buru hitz fonologiko bakarra osatzeko mekanismotzat besterik ez dut ulertzen. Ez du, horrenbestez, efektu semantikorik.

DenbS > PartS > EzS hierarkia sintaktikoak 2.2. atalean Haddicanek (2008) planteaturiko arazoetako bat konpontzen digu: ezeztapenak partikula modalaren gaineko besarkadura zergatik ez duen hartzen azal diezaguke. Alabaina, partikularen interpretazioak perpaus osoari eragiten dion neurrian, DenbS gainera beharko luke PartS-k, onartu dugun egituraren ez bezala. Hori partikula modalen izaeratik gertatzen dela proposatzen dut, hau da, Potts-ek (2005) aipatzen duen elementu «besarkaduragabe»-en zerrendan sartzen direla onartuz, partikula modalen interpretazioak proposizio osoari nola eragiten dion azal genezake.

Horrenbestez, laburrean, hau da proposatzen dudana. Jok buruak balioztatu gabeko hiru tasun ditu, [*u*Ez] eta [*u*Part] hautazkoak, eta [*u*Denb]. Tasun horien Xede buruak Ez, Part eta Denb dira, buru bakoitzak bere tasunak ditu-eta. Jok buruak Komunztatu harremana sortzen du hiru buru horiekin eta, horren eraginez, Ez-Part-Denb-Jok(-Σ) buru mugimendua gertatzen da. Buru mugimendu horren funtzioa morfologiko hutsa da, [ez-Part-Lag/Tr] hitz fonologikoa osatzea du helburu, alegia, eta ez dakar ondorio semantikorik. Alabaina, partikula modalak egia baldintzetatik kanpo interpretatzen diren elementuak izanik, perpaus osoaren gaineko besarkadura hartzen dute, eta horrek azaltzen du perpausaren interpretazioa: Part(Denb>Ez).


5 ONDORIOAK

Lan honetan euskal aditz trinkoen osaerarako proposamen berri bat aurkeztu dut. Izan ere, Ortiz de Urbinak (1989, 1999) ezarritako perpaus ereduak eta euskarazko ezeztapenaren (Ortiz de Urbina, 1993, 1994) eta partikula modalen (Elordieta, 1997, 2001; Lizardi Ituarte, 2024; Monforte, 2020) analisisiek talka egiten dute aditz trinkoa

osatzeko A-Denb mugimendua proposatzen duten ohiko analisiekin (adb. Laka, 1993). Bestela esanik, Buru Mugimenduaren Murriztapena (Travis, 1984) onartzen badugu, bederen, partikula modalak eta ezeztapena AS eta DenbS artean sortzen diren buruak direla onartuz gero, trinkoak osatzeko A-Denb mugimendua hautsiko lukete tarteko proiektziook.

Horren aurrean bi bide posibletatik jo genezake. Batetik, aditz trinkoen osaerarako A-Denb ohiko mugimenduari bere horretan euts geniezaioke, ezeztapen eta partikula modalen analisirako beste hurbilketa bat bilatuz. Horixe da, esate baterako, Elordietak eta Haddicanek (2018) eta Haddicanek (2004, 2008) hautatzen duten bidea, bide haizu eta urragarria. Artikulu honetan, ordea, beste bidetik jo nahi izan dut, hau da, aditz trinkoa osatzeko modua birpentsatzea izan dut helburu gainerako elementuon orain arteko analisiari eutsirik, ikusteko ea bide horrek zabalik liraukeen. Proposatu dudan analisiak halaxe darakutsala dirudi.

Horretarako, Arregiren eta Nevinsen (2012) aditz laguntzaileen osaerarako proposa-
mena hartu eta aditz trinkoetara hedatzeko saioa egin dut. Funtsean, defendatu dudan
ideia nagusia hauxe da: aditz trinkoen osaketan, ez da A-Denb mugimendurik agitzen;
aitzitik, Denb buruak aditzaren propietate lexikoak Komunztatu bitartez jasotzen ditu
eta, Denb buruan pilatzen diren beste hainbat tasunekin batera, aditz trinkoaren ‘erro-
tzat’ hartu ohi denaren forma fonologikoa eratzen da, aditz laguntzaileen kasuan gerta-
tzen denaren antzera. Hala, bide honetatik, AS eta DenbS artean sortzen diren buruek
ez lukete A eta Denb buruen arteko lotura eragotziko, (42)ko egituran ikus daitekeenez.



Analisi honek, hala ere, argibide bat eskatzen du, alegia, aditz trinkodun perpau-
setan A posizioiko aditz erroa zergatik ez den ahoskatzen azaldu behar du. Testuin-
guru horretan, A-k esponente arau isila duen ideia erabili dut horretarako (Arregi &

Nevins, 2014; Kennedy & Merchant, 2000): trinkoak osatzeko gauza diren aditzek bi esponente arau dituzte, (i) _Asp buruaren testuinguruan, fonologikoki ahoskatua eta (ii) isila (Ø), gainerako testuinguruetan, hots, trinkoetan. Azalpen horretatik, gainera, euskaraz trinkoak osa ditzaketen aditzen ezaugarri bereizgarriaren gaineko proposamena egin dut: trinkoak osatzeko gai ez diren aditzek Asp buruaren testuinguruan soilik jaso dezakete esponente araua, hau da, Asp-ekin buru konplexurik eratu ezean, ez dute interpretaziorik jasotzen eta, beraz, deribazioa hautsi egiten da. Euskarazko aditz gehienek Asp-ekin buru konplexua osatu behar dute esponente arau bat jasotzeko. Ideia horrek, gainera, aurreikuspen bat egiteko aukera ematen digu. _Asp testuingurutik kanpo esponente araua duten aditzek, hots, trinkoa osa dezaketenean, Ø morfema isilaren bidez gauza daitezke. Morfema isila izanik eta, gainera, markatua, aditz multzo murriz batek soilik duen esponente araua delako, pentsatzekoa da morfema isil markatu hori desagertzeko joera diakronikoa egon daitekeela, joera orokorra horixe izaten da eta. Hain zuzen ere, halaxe berresten digute datuek, mendeetan zeharreko joera diakronikoa aditz trinkoak osatzeko gai diren aditzen multzoa murrizterantzkoa izan dela ikusten da eta.

Proposamen honek Arregiren eta Nevinsen (2012) euskal aditz laguntzailearen eredu morfologikoa euskal aditz sistema osora zabaltzeko lehen aurrerapausoa dakar. Bide honetatik jarraituz gero, beraz, euskal aditz sistema osorako proposamen morfologiko bateraturantz egiteko aukera geneukake.

6 ERREFERENTZIAK

- Agirretxe, J.L., Lersundi, M. & Olaetxea, O. (1998). *Pasaiako hizkera*. Pasaiako Udala.
- Albizu, P. (1997). Generalized person-case constraint: a case for a syntax-driven inflectional morphology. In A. Mendikoetxea & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface* (1.-34. or.). EHU.
- Albizu, P. (2001). Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico. *ASJU*, 35(1), 65-106. <https://doi.org/10.1387/asju.8817>
- Albizu, P. (2002). Basque verbal morphology: redefining cases. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (1.-19. or.). EHU.
- Arregi, K. & Nevins, A. (2012). *Morphotactics. Basque auxiliaries and the structure of spellout*. Springer.
- Arregi, K. & Nevins, A. (2014). A monoradical approach to some cases of disuppletion. *Theoretical Linguistics*, 40(3/4), 311-330. <https://doi.org/10.1515/tl-2014-0014>
- Arriortua, A. (2017). *Perpaus ezeztapena euskaraz: tipologiatik hurbilketa berri baterantz* [Master Amaierako Lan argitaragabea]. EHU.
- Artiagoitia, X. (2003). Adjunct subordination. In J.I. Hualde & J. Ortíz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (710.-762. or.). Mouton de Gruyter.
- Badihardugu. (2010). *Antzuolako aditz-taulak*. Badihardugu euskara elkarteak.

- Bayer, J. & Obenauer, H.-G. (2011). Discourse particles, clause structure, and question types. *Linguistic Review*, 28(4), 449-491. <https://doi.org/10.1515/tlir.2011.013>
- Biberauer, T., Holmberg, A. & Roberts, I. (2011). A syntactic universal and its consequences. *Linguistic Inquiry*, 45(2), 169-225. https://doi.org/10.1162/LING_a_00153
- Bjorkman, B. (2011). *BE-ing default: the morphosyntax of auxiliaries* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. MIT. <http://hdl.handle.net/1721.1/68911>
- Chomsky, N. (1995). *The minimalist program*. MIT Press.
- Duhalde, M. & Monforte, S. (2021). *Ahal*, mugaz gaindiko partikula. In O. Arbe-laitz, A. Latatu, M.J. Omaetxebarria & B. Urgell (arg.), *IV. Ikergazte, nazioarteko ikerketa euskaraz: giza zientzia eta artea* (27.-33. or.). UEU. <https://doi.org/10.26876/ikergazte.iv.01.03>
- Duguine, M. (2022). Aditz-azken baldintza mendeko perpausetan. In A. Arriortua, A. Lizardi, S. Monforte, L. Vela-Plo (arg.), *Kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan* (137.-162. or.). UEU.
- Elordieta, G. (1997). *Morphosyntactic feature chains and phonological domains* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. USC.
- Elordieta, A. (2001). *Verb movement and constituent permutation in Basque*. LOT.
- Elordieta, A. & Haddican, B. (2018). Truncation feeds intervention. Two clause type effects in Basque. *Natural Language & Linguistic Theory*, 36, 403-433. <https://doi.org/10.1007/s11049-017-9381-0>
- Epelde, I. (2004). *Larresoroko euskara*. EHU.
- Etxepare, R. & Uria, L. (2016). Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (265.-288. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.10etx>
- Euskaltzaindia. (1987). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II (EGLU II)*. Euskaltzaindia.
- Fernández, B. (2001). Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren lekualdatzetik datiboaren lekualdatzera. In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On case and agreement* (147.-165. or.). EHU.
- Garmendia, J. (2014). A pragmatic analysis of the Basque particle *ote*. In I. Witczak-Pli-siecka (arg.), *Cognitive and pragmatic aspects of speech actions* (97.-116. or.). Peter Lang. <https://doi.org/10.3726/978-3-653-03213-0>
- Gutzmann, D. (2015). *Use-conditional meaning*. OUP. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780198723820.001.0001>
- Halle, M. & Marantz, A. (1993). Distributed morphology and the pieces of inflection. In K. Hale & S.J. Keyser (arg.), *The view from building 20: essays in honor of Sylvain Bromberger* (111.-176. or.). MIT Press.
- Harley, H. (2014). On the identity of roots. *Theoretical Linguistics*, 40(3/4), 225-276. <https://doi.org/10.1515/tl-2014-0010>
- Kayne, R. (1994). *The antisymmetry of syntax*. MIT Press.
- Kennedy, C. & Merchant, J. (2000). Attributive comparative deletion. *Natural Language & Linguistic Theory*, 18(1), 89-146. <https://doi.org/10.1023/A:1006362716348>

- Laka, I. (1990). *Negation in syntax. On the nature of functional categories and projections*. Cambridge.
- Laka, I. (1993). The structure of inflection: a case study in X⁰ in syntax. In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics* (21.-70. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.105.02lak>
- Larrañaga, J. (a.g.). *Mutrikuko euskara* [liburu argitaragabea].
- Lizardi Ituarte, A. (2022). *Ahaletik alera: partikula baten gramatikalizazio bidaia*. In D. Krajewska, S. Monforte & E. Zuloaga (arg.), *Aziti Bihia: euskal filologia eta hizkuntzalaritzaren adarrak* (123.-145. or.). EHU.
- Lizardi Ituarte, A. (2024). *Linkings the sentence to discourse: a syntactic, semantic and pragmatic analysis of Basque discourse particles* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.eus/handle/10810/71980>
- Makazaga, J.M. (2009). *Elgoibarko ahozko euskara*. EHU; Euskaltzaindia.
- Matushansky, O. (2006). Head movement in linguistic theory. *Linguistic Inquiry*, 37(1), 69-109. <https://doi.org/10.1162/002438906775321184>
- Monforte, S. (2020). *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz. Sintaxia, mikroal-dakortasuna eta interpretazioa* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.eus/handle/10810/49782>
- Ortiz de Urbina, J. (1989). Dislocaciones verbales en estructuras de polaridad. *ASJU*, 23(2), 393-410. <https://doi.org/10.1387/asju.8051>
- Ortiz de Urbina, J. (1993). Checking domains in Basque and Breton. *ASJU*, 27(3), 751-776. <https://doi.org/10.1387/asju.8573>
- Ortiz de Urbina, J. (1994). Verb initial patterns in Basque and Breton. *Lingua*, 94, 125-153. [https://doi.org/10.1016/0024-3841\(94\)90023-X](https://doi.org/10.1016/0024-3841(94)90023-X)
- Ortiz de Urbina, J. (1999). Force phrases, focus phrases and left heads in Basque. In J. Franco, A. Landa & J. Martin (arg.), *Grammatical analyses in Basque and Romance linguistics. Papers in honor of Mario Saltarelli* (179.-194. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.187.11urb>
- Potts, C. (2005). *The logic of conventional implicature*. OUP. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199273829.001.0001>
- Rezac, M. (2006). *Agreement displacement in Basque: derivational principles and lexical parameters* [eskuizkribua]. EHU.
- Rezac, M. (2008). The forms of dative displacement: From Basauri to Itelmen. In X. Artiagoitia, & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan: Festschrift for Patxi Goenaga* (709.-724. or.). EHU. <https://doi.org/10.1387/asju.9839>
- Salaberri, I. (2021). The word order of negation in the history of Basque. A linguistic and sociolinguistic approach. *Diachronica*, 38(2), 259-301. <https://doi.org/10.1075/dia.19024.sal>
- Salaburu, P. & Lakar, M. (2006). *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Struckmeier, V. (2014). Ja doch wohl C? Modal particles in German as C-related elements. *Studia Linguistica*, 68(1), 16-48. <https://doi.org/10.1111/stul.12019>
- Travis, L. (1984). *Parameters and effects of word order variation* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. MIT.
- Zuazo, K. (2010). *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Euskaltzaindia.
- Zubeldia, L. (2010). *Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. EHU.

Gazteen hizkuntza hautuak eta euskararen erabilera ahozko komunikazioan: Durangoko kale-inguruneko azterketa

Las elecciones lingüísticas de la juventud y el uso del euskera en la comunicación oral:
un estudio en el entorno callejero de Durango

Youth's language choices and the use of Basque in oral communication: a study of the
street environment of Durango

Ane Gabikagogeaskoa Pagonabarraga

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

ane.gabikagogeaskoa@ehu.eus

<https://orcid.org/0009-0005-6803-5888>

Asier Romero Andonegi

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

a.romero@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0002-6497-0335>

Mari Mar Boillos Pereira

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

mariadelmar.boillos@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0001-5546-4724>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.8>

CRediT taxonomia

Ane Gabikagogeaskoa Pagonabarraga: Kontzeptualizazioa; Datuen kontserbazioa; Analisi formala; Ikerketa; Metodologia; Proiektuaren kudeaketa; Baliabideak; Onespena; Ikusgarritasuna; Idazketa – jatorrizko eskuizkribua. **Asier Romero Andonegi:** Datuen kontserbazioa, Analisi formala; Ikerketa; Metodologia; Proiektuaren kudeaketa; Gainbegiratzea; Onespena; Idazketa – berrikuspena eta edizioa. **Mari Mar Boillos Pereira:** Datuen kontserbazioa, Analisi formala; Ikerketa; Metodologia; Proiektuaren kudeaketa; Gainbegiratzea; Onespena; Idazketa – berrikuspena eta edizioa.

Jasotze data: 2025/10/22. Behin-behineko onartze data: 2026/02/16. Behin betiko onartze data: 2026/02/26.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Gazteen hizkuntza-portaerek eta ahozko komunikazioak transmisioan eragiten dute. Ikerketa honek jakin nahi du Durangoko 18 eta 25 urte bitarteko kale-ingurune-ko ahozko komunikazioa nolakoa den. Helburua euskararen erabilera eta hizkuntza-ohiturak ezagutzea da. Metodologia kuantitatiboan oinarritzen da, galdetegi bidez datuak aztertzen direlako, eta kale-neurketen bidez hizkuntza erabilera aztertzen delako. Emaitzek erakusten dute gazteen euskararen aldeko jarrera eta erabilera ez datozela bat, eta komunikazio-erraztasuna zein -segurtasuna funtsezkoak direla erabileran eragiteko. Gakoa ahozko adierazkortasun eta hizkuntza ohituretan eragitea da, testuinguru ego-kiak eta erabilera sustatuz.

Gako hitzak: euskararen erabilera; hizkuntza hautuak; gazteak; ahozko komunikazioa.

RESUMEN

El comportamiento lingüístico y la comunicación oral de los jóvenes influyen en la transmisión del idioma. Este estudio busca comprender cómo es la comunicación oral en el entorno urbano de personas de entre 18 y 25 años en Durango. El objetivo es conocer el uso del euskera y los hábitos lingüísticos. Se basa en una metodología cuantitativa, ya que los datos se analizan mediante cuestionarios y el uso del idioma se analiza a través de mediciones en la calle. Los resultados reflejan una brecha entre la actitud y el uso del euskera entre los jóvenes. La clave está en reforzar la confianza, la facilidad comunicativa y los hábitos lingüísticos, impulsando espacios y entornos adecuados.

Palabras clave: uso del euskera; opciones lingüísticas; jóvenes; comunicación oral.

ABSTRACT

The linguistic behaviour and oral communication of young people influence the transmission of the language. This study aims to find out what oral communication is like in the street environment of people aged 18 to 25 in Durango. The aim is to know the use of Basque and language habits. It is based on a quantitative methodology, since the data is analyzed through questionnaires, and language use is analyzed through street measurements. The results reveal a gap between young people's attitudes towards Basque and their actual use of the language. The key is to build confidence, communication skills, and positive language habits by fostering suitable environments.

Keywords: use of Basque; language choices; young people; oral communication.

1 SARRERA. 2 GAUR EGUNGO EUSKARAREN ERABILERAREN EGOERA. 2.1 Gazteen euskararen ahozko erabilera testuinguru informaletan. 2.2 Durangoko egoera: hizkuntza jarrera sozial gisa. 3 HELBURUAK, IKER-GALDERAK ETA HIPOTESIAK. 4 METODOLOGIA. 4.1 Metodologia eta ikerketa diseinua. 4.2 Lagina. 4.3 Datuak jasotzeko teknika eta instrumentuak. 4.4 Datuak tratatzeko prozedura eta jarraitutako irizpide etikoak. 5 EMAITZAK. 5.1 Durangoko gazteen (18-25 urte bitartean) euskararen erabilera orokorra. 5.2 Euskararen aldeko hautua egiteko edo ez egiteko arrazoiak. 5.3 Generoaren arabera euskararen kale erabileraren azterketa. 5.4 Adinaren arabera euskararen erabilera. 6 EZTABAIDA ETA ONDORIOAK. 7 MUGAK ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK. 8 ERREFERENTZIAK.

1 SARRERA

Euskara hizkuntza gutxitua izanik, bertako herri eta auzoetan hizkuntza erabiltzea espero da (Zalbide, 2018). Hala ere, errealitate soziolinguistikoak agerian uzten du ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala, batez ere gazteen artean eta testuinguru informaletan (Garzia, 2018). Izan ere, hizkuntza jakiteak ez du bermatzen haren erabilera eta hizkuntza hautua faktore sozial, emozional eta identitarioek baldintzatzen dute (Soziolinguistika Klusterra, 2020). Aipatutako lehen faktoreari dagokionez, Fasyak eta Sarik (2021) adierazten dutenez, hizkuntza hautua faktore sozialei dagokionez, hiztunaren arabera da, generoaren arabera tratamendu hitzak eta agurrak aldatzen direlako. Gainera, adinaren eta jasotako hezkuntza mailaren arabera ere hizkuntza hautaketa baldintzatuta egoten da, adinak edo hezkuntza mailak hizkera estiloa eta lexikoa mugatzen dituelako. Horrez gain, autoreek nabarmentzen dute solaskidearen eta hizketa egoeraren arabera, hiztunak hizkuntza egokitzen duela, estatus handiagoko pertsonarekin edo ezezagunekin hizkera formal eta errespetuzkoa baliatzen da; aldiz, estatus txikiagokoekin, gertukoekin edo lagunartean informala da.

Bigarren faktorea, ERLC (Emotion-Related Language Choice) bezala deskribatzen dute Gawinkowskak eta gainontzeko autoreek (2013); izan ere, teoria horren bitartez azaltzen da testuinguru eleaniztasunetan, non bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen diren, hiztunek hizkuntza karga emozionalaren arabera hautatzen dutela. Hau da, hiztunak barne lehentasunen arabera egiten duena hizkuntza-hautua dela esan nahi du, eta autoreek diotenez, ama hizkuntza hautatzen da emozio sakonagoen inguruan, mintzatzeko eta bigarren hizkuntza (L2) distantzia emozional handiagoz erabiltzen da.

Faktore identitarioek ere hizkuntza hautuan eragina dutela dio Niskavaarak (2025): bakoitzak bere burua non kokatzen duen adierazten du hizkuntzaren bitartez eta identitate internazionalaren sinbolo da. Autoreak dio hizkuntza hautua ez dela soilik komunikatzeko aukera, identitatearen adierazpena ere baita.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da egoera aztertzea, euskarak azken hamarkadetan izan duen bilakaera esanguratsua kontuan hartuta. Gaur egungo erabilera maila ezagutzea ezinbestekoa da egoeraren diagnostiko egokia egiteko. Horren harira, ikerketa Bizkaiko Durango herrian garatzen da, euskararen ezagutza maila altua duen herria izan arren, erabilera batez ere gazteen artean eta egoera informaletan ez baita neurri berekoa. Bertako kaleetan ohikoa da gazteek gaztelaniaz hitz egitea (Soziolinguistika Klusterra, 2017). Izan ere, Pérezek eta Munarriz-Ibarrolak (2024) diotenez, euskaldunen kode alternantzia (KA) gaitasun linguistiko, erabilera maiztasun, jarrera eta testuinguru soziolinguistikoak markatzen du. Durangoko kasuan testuinguru soziolinguistikoari erreparatuta, euskararen eta gaztelaniaren arteko KA elebitasun asimetriko baten ondorio soziala da, bi hizkuntzak batera daudelako, baina botere eta erabilera maila ezberdinekin.

Aiestaranek (2024) nabarmendu bezala, Beasainen ere antzeko egoera gertatzen da, gazteen artean euskararen ezagutza maila altua izan arren, erabilera ez da proportzio berean gertatzen; izan ere, gazteen % 80k euskaraz egiteko gaitasuna du eta kalean 15 urtetik 24 urtera arteko gazteen % 38,5ek soilik erabiltzen du euskara.

Ildo horretatik, Durangon areagotu egin da hizkuntza erabileraren inguruko kezka, batez ere gazteen artean euskararen presentzia urria dela eta. Gazte askok D ereduan ikasi arren, ez dute euskararen erabilera soziala garatzen, hizkuntzaren erabilera ez delako eskolako testuingurura soilik mugatzen, esperientzia positibo pertsonal eta sozialekin ere lotuta dagoelako (Berasategi *et al.*, 2015; Gartzia, 2017).

Hori horrela izanik, ikerketaren helburu nagusia Durangoko 18 eta 25 urte bitarteko gazteen euskararen kale inguruneko ahozko komunikazioa aztertzea da, ahozko erabilera sozialaren egoera ezagutzeko eta hizkuntza ohituretan eragiten duten faktore nagusiak identifikatzeko.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenik euskararen kokapena azaldu da egungo testuinguruan. Jarraian, ikerketa metodologia deskribatu da, galderak, diseinua, prozedura, etika eta datuen babesa kontuan hartuz. Ondoren, galdetegi eta kale neurketen emaitzak aurkeztu dira eta, azkenik, ondorio nagusiak eta etorkizunerako proposamenak azaldu dira.

2. GAUR EGUNGO EUSKARAREN ERABILERAREN EGOERA

Euskararen gaur egungo egoera aztertzea funtsezkoa da; izan ere, azken hamarkadetan hizkuntza berreskuratze ahalegin handia egin da (Matias & Arranz, 2019). Barandiaranek (2021) garapen nabarmena aitortzen dio euskarari, baina

etorkizunari begira kezka nagusitzat aipatzen ditu kaleko erabileraren beherakada, balioen aldaketa eta egoera soziopolitiko berriak. Ildo horretan, Soziolinguistika Klusterrak (2022) egindako euskararen erabileraren azken kale neurketen emaitzak argigarriak dira: Euskal Herriko kaleetan egiten diren elkarrizketetatik % 12,6 dira euskaraz. Hala ere, azpimarratzekoa da gazteen kasuan ageri den genero arrakala, izan ere, emakumeek gehiago erabiltzen dute euskara (% 14,4) gizonezkoek baino (% 9,9).


Ezagutzaren eta erabileraren bilakaerari erreparatzen bazaio, Garziak (2018) dio hizkuntza ezagutzak gora egin duen arren, erabilerak ez duela neurri berean egin. Hala ere, Iurrebasoren (2023) hitzetan, ez da egokia gaur egun arrakala berri edo sakona dagoela azpimarratzea; haatik, fokua erabilera baldintzatzen duten testuinguru sozial, harreman sare eta motibazio zein jarrerak indartzean jarri behar dela azaltzen du. Gainera, autoreak nabarmentzen du hizkuntza gaitasuna bi modutan uler daitekeela; alde batek, ezagutza edo gaitasun absolutuan hiztunak hizkuntza dakien hartzen da kontutan eta hiztun kopurua neurtzeko balio du, hots, hizkuntza bakoitza indibidualki neurtzen da. Bestalde, autorearen ekarpena gaitasun erlatiboarena da; izan ere, hizkuntza baten gaitasuna beste hizkuntzekiko hartu emanean kokatzen du. Alegia, gazte askok euskaraz jakin arren, euskararen gaitasun erlatiboa oso desberdina da, hiztun batek hizkuntza batean duen gaitasuna bere gainontzeko hizkuntzen gaitasunarekin alderatu behar baita. Gakoa hizkuntza dakiela kontuan hartzea baino gehiago, hizkuntza hori gainontzeko hizkuntzekin konparatuta zenbateraino dakien jakitea da. Hortik dator *erlatibo* izena, gaitasuna ertaina, ahula edo indartsua izan daitekeelako. Hori dela eta, erabilera ez da ezagutzaren araberrakoa, gaitasun erlatiboaren araberrakoa baizik: hiztun askok euskara jakin arren, gaztelania hobeto menderatzen dutelako, euskararen erabilera txikiagoa da. Beraz, ezagutza absolutua handitu da, baina gaitasun erlatiboa ez da maila berean handitu.

Hartara, erabilera hizkuntzarekiko gaitasun mailak osatzen duela dio. Horrela, hizkuntza batean zenbat eta gaitasun handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da hizkuntza erabiltzeko aukera (Iurrebaso, 2023). Beraz, erabileraren hazkundea lortzeko gako nagusietako batzuk dira euskararen kalitatea hobetzea (Gartzia, 2018), euskararen gaitasun erlatiboan fokua jartzea, erabilera ingurune sendoak ezartzea eta euskara hizkuntza nagusi eta eroso izatea (Iurrebaso, 2023).

Halaber, Eusko Jaurlaritzak (2024) eginiko 2021eko VII. Inkesta Soziolinguistikoa EAEen gazteen (16 urtetik gorako biztanleen) hizkuntza gaitasunari dagokionez, euskaldunak ez direnak dira nagusi. Hau da, euskaldunak % 36,2 dira; euskaldun pasiboak % 18,6 eta euskaldunak ez direnak % 45,2. Lurraldeka aztertuz gero, Gipuzkoa % 51,8rekin da euskaldunen ehuneko handiena duen eremua, ondoren Bizkaia % 30,6 eta, azkenik, Araba % 22,4. Hori horrela izanik, euskararen ezagutza gero eta handiagoa bada ere, erabilera praktikoa ez da modu berean hedatu.

Bestalde, Matiasen eta Arranzen (2019) ikerketek erakusten dute herri txikietan euskararen erabilera hobeto mantentzen dela, eta hiri handietan hizkuntza minorizatu izateak erabilera zailtzen duela (ikus 1. irudia). Iurrebasoren (2023) gaitasun


erlatiboa kontuan izanik, herri txikietan harreman sare euskaldun eta sozializazio sendoak egoteak hiztunen gaitasun erlatibo indartsua sortzen du eta horrek erabilera praktiko handiagoa sortzen du. Jarraian ikus daitekeen lehen irudian Bizkaiko eskualdeetako euskararen kale erabilera nolakoa den azaltzen da; izan ere, Durango Bizkaian eta Durangaldean kokatutako eskualde sare baten parte da. Ikus daitekeenez, eskualde euskaldunagoetan euskarak presentzia sozial handiagoa du, esate baterako, Lea-Artibain (% 76,1) edo Gernika-Bermeon (% 36); hala ere, Bilbo Handian % 3,6ko erabilera dago eta Durangaldea % 21,5ean kokatzen da, tarteko kokagune batean. Beraz, Bizkaiko eskualdeetako euskararen erabileraren azterketak aukera ematen du ondoren aztergai izango den Durangoko testuingurua kokatzeko.



1. irudia. Euskararen kale erabilera Bizkaiko eskualdeetan, 2021 (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

Bizkaian, adibidez, kalean hitz egiten denaren % 88,7 gaztelaniaz da (ikus 2. irudia), eta soilik % 9,4 euskaraz (Soziolinguistika Klusterra, 2021). Matiasen eta Arranzen (2019) arabera, erabilera hori beherantz doa, eta adin talde guztietan nabari da jaitziera.

Gazteen erabilerari dagokionez, euskararen egoera ulertzeko ezinbestekoa da hizkuntza zer den eta gazteek nola erabiltzen duten aztertzea. Hizkuntza ez da soilik pentsamendua adierazteko tresna, pertsonen garapen kognitiborako eta sozialerako tresna nagusietako bat ere bada, eta haren bilakaeran norbanakoaren zein gizartearen eragina dago (Erriondo, 2023). Puk eta bestek (2025) azpimarratzen dute hizkuntzak hiztunen garapen kognitiboaren egitura moldatzen duela eta alderantziz, hau da, kognizioak hizkuntza ere moldatzen duela, testuinguru kulturalaren eta linguistikoaren arabera. Izan ere, hitzek kontzeptuak egituratzen dituzte eta hizkuntza erabiltzeak



2. irudia. Hizkuntzen kale erabilera. Bizkaia (2021) (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

arreta zein hautaketa egitea eskatzen du. Hori dela eta, autoreek nabarmentzen dute hizkuntza dela giza ezagutzaren lorpenik bereizgarrienetako bat. Gizarte komunikaziorako bitartekoa izateaz gain, funtsezko tresna ere bada pentsamendua eratzeko, esperientzia antolatzeke eta portaera arautzeko.

Areago, Lupyanek (2012) dio hitzek prozesu kognitibo eta pertzepzioen bidez eragiten dutela pentsamenduan. Hortaz, hizkuntza kategoria etiketen sistema bezala ulertzen du, prozesu kognitiboaz gain, alderdi soziala eta pertzepzioen eraldaketa gertatzen baita. Hitzak etiketekin konparatzen ditu eta hizkuntza aktibazioz sortutako pertzepzioak direla dio.

Beraz, hizkuntza gizarte egiturekin erlazionatutako fenomeno soziala da, ideologiaren eraginpean dagoena eta praktika, ekintza zein diskurtsoen bidez eraikitzen dena. Era berean, hizkuntza eta hizkuntza ideologia osagarriak dira, ideologiek hizkuntzaren erabilera zein balioa moldatzen dutelako eta hizkuntzaren erabilerak ideologiak sortzen dituelako. Haatik, Artetxek (2023, 463. or.) hau aipatzen du:

Ideologiek gure praktikak blaitzen dituzte, baita gure praktikak irakurtzeko moduak ere. Hizkuntza bati buruz pentsatzen dugunak eragingo digu hizkuntza horretako hiztunei buruz pentsatzen dugun horretan, eta alderantziz, hiztun-kategoria, edo hiztun mota bati buruz pentsatzen dugunak eragingo digu haren edo haien hizkeraz ditugun ideia eta balorazioetan ere. Izan ere, ideologiek hitz egiteko moduen eta gizarte-egituren arteko zubi-lana egiten dute. Eta ondorioz, gizarteko dominazio harremanen eta hizkuntza-hautuen arteko zubi-lana ere bai. Horretan datza, hain zuzen, hizkuntza ideologiaren balio nagusia.

2.1 Gazteen euskararen ahozko erabilera testuinguru informaletan

Natsirrek eta bestek (2025) aipatzen dute hizkuntza eraiki, transmititu eta eraldatu egiten dela, eta, horri esker, komunitateko kideek esperientzia partekatu eta arau sozialak, sinesmenak edo mundua ulertzeko moduak kodifikatzen dituztela. Beraz, funtsezko tresna da garapen kognitiborako eta sozialerako, eta elkarrekintza sozial eta kulturalak eragina dute hizkuntza hautuetan eta erabileran. Magallanesen eta gainontzekoen (2022) hitzetan, Vygotskyren teoria soziokulturala¹ kontuan izan behar da; izan ere, gizarte zein kultura testuinguruan sortzen dira hizkuntza, pentsamendua eta garapen kognitiboa. Nerabeen harreman testuinguruak baldintzatzen du hizkuntza erabilera: autoreen aburuz, pentsamendu eta hizkuntza gizarte harremanen bitartez eraikitzen dira, hizkuntza erabilera ez delako gaitasun indibidualen emaitza soilik. Gazteek, oro har, euskararen erabilera familia giroan eta eguneroko ohituretan oinarritzen dute, eta gehienetan euskaldun familia batekoak direnean izaten dute erabilera aktiboagoa (Hernández & Altuna, 2021b).

Gazteen hizkuntza ohiturak testuinguru informaletan aztertzea konplexua da, eta hori kontuan hartzea ezinbestekoa da errealitatearen irakurketa egokia egiteko. Guiradoren eta Santosen (2024) aburuz, hizkera informala eguneroko elkarrizketetan erabiltzen da, hizkera informala eguneroko elkarrizketetan erabiltzen da eta hizkuntzaren adierazkortasuna aberasteko baliabidea da. Ahozko komunikazioak harreman sozial eta portaera komunikatiboak ezartzen ditu, hau da, ez da soilik hitzak trukatzeari, testuinguru konkretu batean sortzen den jarduerari esaten zaie. Testuinguru interaktiboan sortzen diren hizkuntzaren erabilera informalak egitura formal eta arau zorrotzen gabeziak ezaugarritzen ditu; besteak beste, solasaldi arruntak, lagunaren arteko elkarrizketak edo eguneroko jardunetan erabiltzen diren mintzairak (García-Azkoaga, 2015).

Ahozko gaitasuna ez dago beti ezagutzarekin erlazionatuta, baizik eta, segurtasun, testuinguru sozial eta adierazkortasunarekin. Hori dela eta, Guiradok eta Santosek (2024) hizkera informala jolasez lantzea baliagarria dela diote, ahozko komunikazioa garatu eta hizkuntza antsietatea murrizteko. Izan ere, autoreen hitzetan, gramatika gehiago irakatsi eta ikasi arren, ahozkoa ez da hobetzen. Komunitatearekin kontaktuan egotea eta esperientzia positiboak eraikitzea da aberasgarriena.

Bestalde, aniztasuna dago gazte hizkeren artean. Erabilera espazioetan hiztunak hizkuntza bat edo beste aukeratu dezake faktore askoren arabera; besteak beste, mintzakideen arteko hizkuntza ezagupena, testuinguru emozional eta beren arteko harreman mota edo gaiaren arabera (Amonarriz, 2008; Guirado, 2025). Oro har, erabilera espazioak eta hizkuntza ekosistemak funtsezkoak dira, ez baitira hizkuntza erabiltzeko tokiak, hizkuntzaren praktika posible egiten duen ingurune seguruak baizik,

1 Teoria honen arabera, garapen kognitibo eta linguistikoa interakzio sozialen bidez ematen da eta hizkuntzaren bidez barneratu. Bi maila bereizten dira maila erreala pertsonak bakarrik egin dezakeena eta potentziala besteekin egin beharrekoa (Magallanes *et al.*, 2022).

hots, *hizkuntza ekosistema* esaten zaie hiztunek erabiltzen duten espazio, inguru edo harreman guztiei (Guirado, 2025). Seydik (2024) adierazten du herrialdeko hizkuntzak elkarrekin bizi direla, lehian, gizarteko, historiako eta botere faktoreen arabera. Autoreak Senegaleko adibidea jartzen du, bertan Frantsesa baita hizkuntza ofiziala; aldiz, wolofera komunikazio orokorretarako erabiltzen den hizkuntza da; beraz, hizkuntza bakoitzak bere tokia eta funtzio sozial jakina ditu:

(...) tendencias en la ecolingüística, que ponen el acento en la ecología sociocultural (las fuerzas sociales y culturales modelan las condiciones de los hablantes y de las comunidades lingüísticas), y en la ecología cognitiva (el lenguaje da lugar a capacidades cognitivas que generan conductas adaptativas al entorno) (Seydi, 2024, 135. or.).

Esate baterako, hezkuntza ez formala edo aisialdia gako esanguratsuak dira hizkuntzak bizitza sozialaren barruan ikasten eta transmititzen direlako, hizkera informala eta ahozkotasuna lasaitasun eta konfiantzaz landuz (Guirado, 2025); Amonarrizek (2018) *arnasgune* deitzen die egunerokotasunean euskara erabiltzen denean, hiztunek segurtasun linguistikoa dutenean.

Areago, Zulaikak (2019) adierazten du testuinguru elebidunetan ahozko erabileran hizkuntza batek hartzen duela rol nagusia diskurtsoan. Hala, azaltzen du horri *oinarrizko hizkuntza* esaten zaiola eta besteari *hizkuntza txertatua*. Izan ere, kode aldaketak gertatzen dira hiztunen gaitasunen, jarreraren eta testuinguruaren eraginez. Alegia, gazteen artean euskara eta erdaren (gaztelania eta frantsesa) arteko kodeen aldaketa ohikoa da eta lagunarteko ahozko komunikazioan gertatzen den errealitatea da.

Hizkuntza hegemonikoaren presentzia handiagoak diskurtsoen hizkuntza markatzen du eta hizkuntza minorizatueta sarritan gertatzen da egoera hori. Haatik, fenomeno hori ez da euskararen kasu espezifiko, hizkuntza minorizatueta gertatzen baita, hizkuntza hierarkia eta botere harremanen isla delako (Du, 2020).

Hori dela eta, gaur egungo errealitateak kalte asko sortzen die hizkuntza minorizatueta eta horrek eragina dauka gazteen hizkuntz hautaketan eta erabileran. Euskaraz gain, gaelikoaren testuingurua Eskozian aipatzekoa da; izan ere, egoera minorizatueta dago. Peace-Hughesek (2022) nabarmendu bezala, 2005ean onartutako legeak estatus ofiziala eman zion gaelikoari Eskozian; hala ere, hiztunen kopurua beherako joeran dago. Ingelesaren nagusitasunak mugatu egiten du gaelikoaren erabilera, haurrek eskolaz kanpoko kultura herrikoia erabili ohi dute ingelesez eta horrek mugatu egiten du gaelikoaren erabilera. Autoreak aldarrikatzen du haurrei eta gazteei lagundu egin behar zaiela ikasteko aukerak izan ditzaten, eta beren burua langintza eta kultura minorizatueta txerta dezaten. Oro har, eskola beharrezkoa da, baina ez da nahikoa eta besteak beste aisialdi esparruak, sare sozialak eta komunitateko espazioak eskaini ezean, gazteek ez dute gaelikoa erabiliko eta ingelesera joko dute.

Bestalde, euskaraz eta gaelikoaz gain hainbat hizkuntza minorizatu daude, besteak beste frisiera. Kircherrek eta besteek (2024) esaten duten bezala, frisiera Herbehereetako hizkuntza minorizatua da UNESCOren arabera, hiztun berriek oso gutxi erabiltzen dute hizkuntza, hitz edo esaldi solteak baino ez dituzte erabiltzen egunerokotasunean frasieraz, nederlandera erabiltzen baitute gehienetan. Autoreek argi adierazten dute ez dela nahikoa hizkuntza irakastearekin eta, beste kasuetan aztertu den bezala, erabilera soziala sustatu behar dela azpimarratzen dute, horretarako hurrengo atalean landuko diren faktoreak kontuan izanik.

Esanak esan, gazteen hizkuntza erabileran hainbat faktorek eragiten dute, hala nola testuinguruak, sare sozialek zein ohitura eta jokabide linguistikoak. Izan ere, hizkuntza jokabidea testuinguru sozialak baldintzatzen du eta gazteen lexikoa esate baterako sare sozialen erabileratik sortua da, nerabeen komunikazio iturri nagusia teknologia digitalak direlako; beraz, aipatutako faktoreek hizkuntza ohiturak moldatzen dituzte, hizkuntza erabileran eragiteaz gain (Salas, 2017). Montak eta Leonek (2025) zehazten dute hizkuntza informala eta bisualak (esate baterako emotikonoen bidezkoak), komunikazio praktikak baldintzatzen dituela eta erregistro akademikora egokitzeke trabak jartzen dituela.

Sare sozialek eta erreferenteek eragin nabarmena dute gazteen hizkuntza hautaketan eta erabileran (Aginagalde, 2021). Gaztelania da gehienetan nagusi sarean gazteen arteko lagunarteko praktikan eta euskara tarteko erabilera gisa erabiltzen da (Zulaika, 2019). Gainera, baliabide digitalen eskasiak gazte askorentzat etena dakar erabileran, aukera baino gehiago (Goirigolzarri, 2021), sare sozialek nabarmen bultzatzen baitute ingelesa eta gaztelania erabiltzea, eta gehienetan ez baitago euskaraz aritzeko aukerarik (Matias & Arranz, 2019). Euskarak presentzia gero eta nabarmenagoa izan arren, ez dago gaztelaren parean, ez kantitatez, ez aniztasunean, ez irisgarritasunean (Eusko Jaurlaritza, 2021). Elorduik eta Aiestaranek (2022) aitortzen dute gazte askok lagunarteko elkarrizketan, *Instagramen* hain zuzen ere, nahiago dutela euskalkietan moldatu, euskara batua faltsu edo artifizial bezala irudikatzen baitute, hizkera formal gisa antzemanetz.

Teknologia digitalek gero eta presentzia handiagoa dute gazteen bizitzan, eta horrek eragin nabarmena du euskararen erabileran. 2017an, Interneten euskararen erabilera % 16koa zen, eta webguneen % 16k baino ez zituzten euskarazko edukiak (Waliño, 2019). Sare sozialetan, berriz, 11-23 urte bitarteko gazteen artean, kontsumitutako edukien % 71,5 gaztelaniaz eta % 21,1 ingelesez ziren; euskarazkoa % 3 (Aginagalde, 2021). Datu horiek agerian jartzen dute euskarazko eduki digitalen eskasiak gazteen hizkuntza ohituretan duen eragina.

Familia, lagun talde eta komunitateak rol erabakigarria dute, gazteek inguruko erreferenteengandik jasotzen duten eragina ere kontuan hartu beharrekoa baita. Hizkuntza erabilera talde praktiken arabera hautatzen da eta familia garrantzi handikoa izaten da, baina, nerabezaroan lagun sareak dira garrantzitsuak hizkuntza gaitasun indibidualaz gain, praktika sozialen emaitza ere badirelako (Hernández & Altuna, 2021b).

Antolak (2013) adierazten duenez, gazteentzat erreferente diren askok hizkuntza koherentziarik gabe jokatzeko dute eta horrek gazteak erdarara eramaten ditu. Hau da, erreferenteek (izan gurasoak, irakasleak edo sare sozialetako *influencerak*) euskararen erabilera koherentziarik ez dutenean, gazteek jasotzen duten mezua da hizkuntza erabiltzea ez dela beharrezkoa, eta, ondorioz, erdara lehenesten dute. Hau oso garrantzitsua da ulertzeko nola eraikitzen eta indartzen diren hizkuntza ohiturak gazteen artean. Gainera, emozioek, hala nola hizkuntzarekiko harrotasunak, nahasketak edo tentsioak, eragina dute hizkuntza erabilera eta etorkizunean oraingo hitzunei beren seme-alabei transmitituko dieten hizkuntzan (Tang & Calafato, 2025).


Bestalde, teknologia digitalez gain, Igartzailek (2015) adierazten duen bezala, erabilera eragiten duen beste faktore erabakigarri bat portaerekin eta testuinguruarekin erlazionatutakoa da. Hizkuntza minorizatuaren testuinguruan, estres linguistikoa sortzen da hizkuntza hautaketaren prozesuan, eta erosotasunagatik, ohituragatik edo gatazkak saihesteko, erdarara jotzen da. Une horretan, jarrerak hartzen dute pisua eta hainbat jarrera mota agertzen dira: kognitiboa (euskaraz zer pentsatzen den), afektiboa (sentitzen denarekin lotutakoa) eta konduktuala (nola jokatzeko den; hau da, alderdi praktikoa).

Beraz, aurretik aipatutakoa kontuan izanik, gazteen artean hizkuntza erabilera areagotzeko estrategiak kontuan izan behar dira, besteak beste motibazioa askotarikoa izan daitekeelako: intrintsekoa hizkuntza bakoitzaren gustu eta interesetatik abiatuz erabiltzen denean, estrintsekoa sari, kanpoko esfortzu edo zigorrarekin erlazionatutakoa, instrumentala lanerako edo erabilgarritasunarekin lotzen denean, eta integratiboa, hizkuntza komunitatean integratzeko nahia dagoenean (Alcaraz, 2007). Horrez gain, *kontzientzia metalinguistikoa* kontzeptua landu beharra dago: Gasparrek (2024) adierazi bezala, hiztunek hizkuntzaz dituzten pentsamendu eta jarreraren inguruan hausnartu eta hizkuntza manipulatzeko gaitasunari dagokio. Hortaz, ikuspegi hori testuinguru soziolinguistikoko zehatzera eramango da, Durangoko errealitatera hain zuzen ere, bertako hizkuntza praktikek zein hautuek kontzientzia metalinguistikoaren adierazpen zehatzak islatzen dituztelako.

2.2 Durangoko egoera: hizkuntza jarrera sozial gisa


2021. urtean, Durangoko biztanleen % 52,47 euskaldunak ziren (Eustat, 2021), baina kopuru hori ez da nahikoa herria arnagune gisa hartzeko. Amonarriren (2018) arabera, arnaguneek euskararen kontzentrazio handia, eguneroko erabilera zabala eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa izan behar dute. Soziolinguistika Klusterraren arabera (2017), Durangon euskara gehien erabiltzen dutenak 2-14 urteko haurrak dira (% 37,8), eta erabilera nabarmen jaisten da adinarekin: gazteen artean % 25,2ra eta helduen artean % 18,8ra (Guenetxea, 2017).

Hizkuntza erabilerari dagokionez, 2011. urtean Durangoko herritarren % 48,7k euskara gaitasuna izan arren, 2017an jasotako erabileraren datuekin alderatuz askoz baxuagoa da, % 22,7k soilik erabiltzen baitu (ikus 3. irudia).



3. irudia. Durangoko hizkuntza erabilera. Hizkuntza-gaitasuna (2011) eta euskararen erabilera erreala (2016/2017) EAEen, Bizkaian, Durangaldean eta Durangon (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Gazteen hizkuntza ohiturei dagokienez, 2017ko kale neurketek erakusten dute % 72,9k gaztelaniaz egiten zutela, eta euskaraz aritzen zirenak % 25,2 baino ez zirela (Soziolinguistika Klusterra, 2017). Datuek agerian uzten dute euskararen erabilera murrizta gazteen artean (ikus 4. irudia).



4. irudia. Durangoko kale erabilera adinaren arabera (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Atzera begiratu behar da aurrera begiratu ahal izateko, eta euskarak Durangon izan ditzakeen etorkizuneko aukerak, erronkak edo faktoreak kontuan izan behar dira. Urizarrek (2021) nabarmentzen du euskara erdigunean jartzeko, aztertze eta berreraikitze premia larria dagoela. Aukerei erreparatuta, ikasle askorentzat ikastetxea da euskara entzuteko eta erabiltzeko espazio bakarra, eta itxialdian aukera hori galdu zuten. Izan ere, COVID-19 garaian etxeko hizkuntza praktikek pisu handiena hartu zuten,

kanpoko eragileak (eskola, aisialdia eta lagunartea) egun batetik bestera eten baitziren. Oro har, argi geratu zen ikasleentzat ikastetxea dela hizkuntza sozialaren sozializazio zein erabilera espazio nagusia (Zabrodskaia *et al.*, 2023).

Era berean, hezkuntza informalaeren etenak ere aisialdian eta eskolaz kanpoko jardueretan euskararen presentzia ia erabat desagerrarazi zuen (Soziolinguistika Klusterra, 2022). Zabrodskaia eta besteren (2023) hitzetan, hizkuntza minorizatua den guneetan, familia batzuek ez zuten baliabide eta ezagutzarik hizkuntza etxean lantzeko eta, arestian nabarmendutakoarekin loturik, pantaila bidez baliatutako edukiak erdaraz ziren. Kasu horretan baliabide faltak zituzten familietan hizkuntza minorizatuaren ahultzea gertatu zen.

Durangoren kasuan, hainbat aukera daude, hezkuntza ez formalaeren baitan Durangoko etorkizun eta orainerako euskararen alde lan egiten dutenak, hala nola Berbaro, herritarren artean euskararen erabilera sustatzeko elkarteak, aisialdi eta zerbitzuen bidez (Berbaro, d.g.). Euskal gizarteak kontziente izan behar du hizkuntzaren egoeraz. Hori dela eta, euskararen aldeko inbertsioak nabarmenak izan dira, Durangoko Azoka kasu, euskararen eta kulturaren aldeko ekimen esanguratsua (Matias & Arranz, 2019).

Erabileran eragiten duten faktore nagusietako batzuk kudeaketa egokia, lidergo aktiboa eta erabilera plan eraginkorrak dira (Eusko Jaurlaritza, 2018). Hala ere, Iurrebasok (2012) dio oraindik ez direla emaitza nahikoak lortu, eta Soziolinguistika Klusterraren (2021) datuen arabera, erabilera datuak mantendu arren, udalerrri euskaldunetan behera egin du euskararen kale erabilerak. Horrek agerian uzten du ezagutzak ez duela bermatzen erabilera sozial aktiboa.

Euskararen etorkizunaren alde jarduteko, komunitatearen parte hartzea funtsezkoa da. Erronkak hezkuntzan, administrazioan, komunikabideetan eta hizkuntza erabiltzeko motibazioz ez dutenengan daude (Iurrebaso, 2012). Horrez gain, Altunaren eta Iñarraren (2017) arabera, gazte eta haurrei erraztasunak eman behar zaizkie euskal ohiturak eta erreferente kulturalak sortu eta eskuratzeko, batez ere aisialdiaren, eskolaz kanpoko jardueren eta ingurune hurbilaren bidez.

Beraz, euskararen erabilera sustatzeko ekintza zehatzak behar dira. Amonarrirek (2018) dioenez, helburu estrategikoak dira herritarren artean euskara nagusiki erabiltzea, harremanetan lehen hizkuntza izatea, transmisioa etxean bermatzea eta zerbitzuetan euskarazko arreta eskaintzea. Helburu horiek lortuta, herriak benetako arnagune bihurtu daitezke.

3 HELBURUAK, IKER-GALDERAK ETA HIPOTESIAK

Ikerketako helburu nagusia Durangoko 18 eta 25 urte bitarteko gazteen euskararen kale ingurunean ahozko komunikazioa aztertzea da, ahozko erabilera sozialaren egoera ezagutzeko eta hizkuntza-ohituretan eragiten duten faktore nagusiak identifikatzeko. Horri loturiko iker galdera eta hipotesiak hauek dira:

I.G.1. Zenbat gaztek (18-25 urte bitartean) erabiltzen dute euskara Durangoko kaleetan?

H1. Durangoko kaleetan 18 eta 25 urte bitarteko gazteek euskara oso gutxi erabiltzen dute, alegia, % 40k baino gutxiagok.

I.G.2. Zein da euskararen aldeko hautua egitearen edo ez erabiltzearen arrazoia?

H2. Durangoko gazte gehienek, euskarazko ezagutza eta titulua (B2 edo C1) izan arren, erabileraz dago maila berean. Arrazoietakoa bat sare sozialen erabileraz izan daiteke.

I.G.3. Generoaren arabera, nork hitz egiten du Durangoko kaleetan euskaraz gehiago?

H3. Emakumeek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara Durangoko kaleetan.

I.G.4. Adinaren arabera, gero eta gazteagoa izan, hainbat eta euskara gehiago erabiltzen al da?

H4. 18 urtetik 25 urtera bitartean, 18-20 arteko gazteen artean gehiago erabiltzen dute euskara, 25 urtekoek baino.

Beraz, aldagaiak honako hauek dira: adina (18 eta 25 urte bitarteko gazteena); generoa; markoaren arabera maila; euskararen erabileraz kaleetan eta, azkenik, euskararen erabileran eragiten duten faktoreak.

4 METODOLOGIA

4.1 Metodologia eta ikerketa diseinua

Ikerketa honen diseinua ikuspegi kuantitatiboan oinarritzen da, euskararen erabilerari buruzko datuak aztertzen baitira, bai kalean behatutako erabileraren bidez, bai gazteen iritzi eta jarreraren berri ematen duen galdetegiaren bitartez. Errealitatearen alderdi jakin batzuk neurtzen eta deskribatzen dira populazio jakin baten ezaugarriak ezagutzeko. Horretarako, ikerketa helburuak aldagai neurgarritan proposatzen dira, datuak modu sistematikoan jasotzeko (Hueso & Cascant, 2012).

4.2 Lagina

Euskararen erabileraren inguruko egoera eta jarrerak zeintzuk diren jasotzeko, Durangoko 18 eta 25 urte bitarteko neska-mutilen lagin taldea erabili da. Parte hartzaileak ausaz hautatu dira eta ikerketa modu naturalean egin da: egunerokotasunean erabiltzen duten euskara zenbatekoa den ikertzeko galdetegiak eta kale neurketak gauzatu dira. Behaketa egin bitartean entzundako elkarriketen solaskideek osatu dute lagina. Galdetegiaren bidez 243 erantzun jaso dira, 98 erantzun gizonenak (% 40,3), 142 emakumeenak (% 58,4), eta beste hiru genero ez-bitarretakoak (% 1,2). Bestalde, adin tarte

berekoak, hau da, 18 eta 25 urte bitarteko gazteek kalean erabiltzen duten ahozko hizkuntza zein izan den behaketa taula batzuen bitartez aztertu da, eta guztira 1024 gazte entzun dira: 513 neska eta 511 mutil, hain zuzen ere.

4.3 Datuak jasotzeko teknika eta instrumentuak

Behaketaren bidez jasotako datu kuantitatiboak aurkezten dira, kale neurketak egin baitira. Behaketak ibilbide zehatzetan egin dira: Ezkurdi-Madalena, Ibaizabal-Landako eta Alde Zaharra. Datuak 2023ko abenduaren 28tik 2024ko urtarrilaren 4ra jaso dira, egun eta ordutegi zehatzetan: goizez, 11:00etatik 13:00etara eta, arratsalde, 18:00etatik 19:00etara. Behaketa taulak erabili dira, bertan behaketaren xedea eta ardatzak zehaztuz (Gutierrez, 2008). Alegia, behatzaileek ahoz entzundako elkarrizketen hizkuntza eta gazteen generoa zein den jaso dute koadernoetan, eta horretarako aurrez diseinatutako behaketa taulak erabili dituzte.

Ikerketaren datuak osatzeko, galdetegia 18 eta 25 urte bitarteko Durangoko gazteei zuzendu zaie, eta 2024ko otsailaren 13tik apirilaren 8ra bitartean zabaldu da. Galdetegia Juaristiren (2003) lanean oinarrituta diseinatu da, eta, fidagarritasuna bermatzeko, bi adituk ebaluatu dute eta haien esanen arabera egokitu da.

Datu kuantitatiboak jasotzeko galdetegia *Dot* aldizkariak inkesta bidez zabaldu du, modu horretan lagin zabalago batera iristeko aukerak bermatuz (Martín, 2004). Galdetegiaren diseinuak hiru fase ditu Alviraren (2011) hitzetan: lehenengo helburuak eta hipotesiak argi izan behar dira, ostean, gai bakoitza ordenatu eta Likert eskalan 1etik 5era zehaztu da, galderen analisi eta balioztapena eginik, helburuei bideratutako galderak ordenatuz.

Galdetegia guztira 28 itemez osatuta dago, galdera guztiak Likert eskalan oinarritzen dira eta galdetegia lau atal nagusitan egituratuta dago. Lehenengo atalean, parte hartzaileen ezaugarri soziodemografikoak bildu dira (adina, generoa, ama hizkuntza, hizkuntza gaitasuna eta erabilera erraztasuna). Bigarrenean, testuinguru ezberdinetan neurtu da euskararen erabilera: etxean, kalean, lagunartean eta sare sozialetan. Hirugarren atalak jarrerak eta pertzepzioak aztertzen ditu, hala nola interes maila eta erabilera soziala. Azken atalean hizkuntza lehentasunak, kaleko euskararen presentzia eta espazio publikoetan euskaraz aritzeko erosotasuna jaso dira.

4.4 Datuak tratatzeko prozedura eta jarraitutako irizpide etikoak

Behin datuak jasota, hauek aztertzeko jarraibide batzuk izan dira kontuan. Behaketan kasuan Bracamontek (2015) adierazi bezala, pauso batzuei jarraitu zaie: lehenik eta behin, bildutako informazioa interpretatzeko, kategoria diagrama bat egin zen, kategoria indibidualei lotutako kategoria unibertsala kokatzeko, eta azaleratzen ari den definizioa aurkeztu zen, ikertzaileak emandako informazioari buruz egindako interpretazioaren emaitza izanik.

Bestalde, galdetegiko datuen analisisa IBM SPSS 28.0 softwarearen bidez egin da analisi deskriptiboak eginez. Gainera, taldeen arteko ezberdintasunei erreparatzeko

analisi inferentzialak egin dira, sexuaren araberakoak emakume eta gizonezkoak kontuan hartuta, eta analisi guztietan, esanguratsutasun maila $p < .05$ ean zehaztu da.

Azkenik, alderdi etikoei erreparatuz, anonimoa eta borondatezkoa izan da, eta ikerketak etikaren inguruko irizpide guztiak bete ditu: parte hartzaileen baimen informetua jaso da, eta datuen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna bermatu dira Helsinkiko adierazpenaren arabera.

5 EMAITZAK

Jarraian ikerlanean jasotako datuak, faktoreak eta erabileran eragiten duten nondik norakoak aztertuko dira. Horretarako, galdetegi eta kale neurketen bidez jasotako informazioa azaltzen da.

5.1 Durangoko gazteen (18-25 urte bitartean) euskararen erabilera orokorra

Galdetegien emaitzek erakutsi dute parte hartzaileen artean euskara kalean erabiltzeko batez besteko joera 3,15koa dela 1etik 5erako eskalan. Kale neurketek, berriz, adierazi dute gazteen % 28,12k egiten dutela euskaraz, 2017ko % 25,2arekin (Sozio-linguistika klusterra, 2017) alderatuz igoera txiki bat erakutsiz. Hala ere, inkestako datuek adierazten dute lagunekin aritzean euskararen erabileraren balio hori jaisten dela (3,03). Horren aurrean, lagunekin gaztelaniaz aritzeko joera nabarmenagoa da (3,33), eta horrek elkarrizketa informaletan gaztelaniaren nagusitasuna erakusten du.

Era berean, desbideratze estandarrak eta bariantzak aztertuta, nabari da erantzutetan sakabanatze handia dagoela. Alegia, 1. taulan nabarmentzen den bezala, gazte guztiek ez dute hizkuntza bakoitza modu homogeneoan erabiltzen: batzuk maiz aritzen dira euskaraz, baina beste batzuk oso gutxitan.

Gainera, lagunekin euskaraz aritzeko puntuazioaren desbideratze estandarra handiena da (DE = 1,473), eta horrek iradokitzen du testuinguru horretan hizkuntza portaerak are aldakorragoak direla. Hau da, gazte batzuek euskaraz egitea hautatzen dute, baina beste askok ez dute halakorik egiten.

Nahiz eta parte hartzaile gehienek euskararen aldeko jarrera positiboa erakutsi, erabilerak ez du beti bat egiten jarrera horrekin (ikus 1. taulan).

1. taula. Taula gurutzatuak kalean euskaraz edo gaztelerez

	T	Min	Max	BB	DE	B
Kalean euskara erabiltzen dut	4	1	5	3,15	1,23	1,51
Kalean lagunekin euskaraz egiten dut	4	1	5	3,03	1,47	2,17
Kalean lagunekin gaztelerez egiten dut	4	1	5	3,33	1,45	2,1

Oharra: T= totala; Min= minimoa; Max= Maximoa; BB= Batez bestekoa; DE= Desbideratze estandarra; B= Balioa.

Ikerketa honetan jasotako datuen arabera, emaitzek iradokitzen dute gazteen euskararen erabilera ez dela % 40ra iristen; izan ere, jasotako elkarrizketen % 28,12 izan da euskaraz.

5.2 Euskararen aldeko hautua egiteko edo ez egiteko arrazoiak

Ikerketak erakusten du Durangoko gazteen euskararen autopertzepzioa altua dela: parte hartzaileen % 86,4k maila altua du, eta horietatik % 54,3k C1 maila lortu du. C1 maila dutenen artean, 61 lagunek aitortu dute euskaraz aritzea errazagoa egiten zaiela, eta B2 mailako 21 parte hartzailek gaztelaniaz hobeto moldatzen direla adierazi dute. Bestalde, B1 edo beheragoko maila duten guztiek gaztelania darabilte nagusiki.

2. taula. Sare sozialak euskaraz edo gazteleraz

	T	Min	Max	BB	DE	B
Sare sozialak euskaraz erabiltzen ditut	4	1	5	2,05	1,167	1,361
Sare sozialak gazteleraz erabiltzen ditut	4	1	5	4,11	1,044	1,091

Oharra: T= totala; Min= minimoa; Max= Maximoa; BB= Batez bestekoa; DE= Desbideratze estandarra; B= Balioa.

Sare sozialen erabilerari dagokionez (ikus 2. taula), parte hartzaileek nabarmen gehiago erabiltzen dute gaztelania (4,11) sareetan, euskararen aldean (2,05). Gainera, euskararen erabileran desbideratze estandarra handiagoa da (DE = 1,167), eta horrek sakabanatze handia erakusten du. Horren arabera, gaztelaniaz sare sozialetan aritzea ohikoagoa eta erosoagoa da gazteen artean, eta hizkuntza hautu hori eremu informale-tan eta kale erabileran ere islatzen da.


Inkestek gazteen autopertzepzioa jasotzen dute, eta kale neurketek erabilera erreala-ren irudi fidagarria eskaintzen dute. 1024 gazteren behaketa egin ostean, datuetan ikus daiteke % 28,12k hitz egiten duela euskaraz, beraz, gazte askok, euskara jakin arren, ez dute erabiltzen.

5.3 Generoaren arabera euskararen kale erabileraren azterketa

Behaketetatik jasotako datuen arabera, emakumeen % 31,86k egin zuen euskaraz, eta gizonen % 22,11k; hots, emakumeen artean euskara erabiltzeko joera gizonen artean baino 9,75 puntu handiagoa da. Datu horiek guztira 565 emakume eta 493 gizon behatuta jaso dira, eta guztizko erabilera portzentaje horiek kasu guztietan ema-kumeen erabilera joera handiagoa erakusten dute.

5.4 Adinaren arabera euskararen erabilera

Adinaren arabera euskararen kale erabilera gutxitzen da Durangon (ikus 5. irudia): haurren artean % 37,8koa da, gazteen artean % 25,2koa, helduen artean % 18,8koa eta adinekoengan % 14,5era jaisten da.



5. irudia. Hizkuntza gaitasuna eta kale erabilera adinaren arabera Durangon 2017an (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Adinean aurrera egin ahala, datuek agerian utzi dute euskararen erabilera gutxitzen dela, eta horrek berriz ere frogatzen du euskararen erabilera ez dela soilik gaitasunaren araberakoa, baizik eta testuinguru sozial eta kulturek ere baldintzatzen dutela.

3. taula. Kalean euskara erabiltzen duten gazteen datuak adinaren arabera

Adina		Inoiz ez	Egun solteetan	Batzuetan	Sarritan	Beti	Guztira
Adina	18	4	4	3	12	10	33
	19	3	9	6	9	3	30
	20	3	5	3	12	3	26
	21	4	4	3	7	8	26
	22	6	14	15	21	6	62
	23	3	8	7	5	0	23
	24	0	7	3	3	5	18
	25	0	12	8	3	1	24
	26	0	0	0	1	0	1
Guztira							243

18-21 urteko gazteek euskara maiz erabiltzen dute (% 50etik gora), baina 23-25 urtekoen artean (ikus 3. taula) erabilera nabarmen jaisten da. Horrek adierazten du erabilera adinarekin gutxitzen dela, eta gaztetatik helduarora ohitura horiek sendotzea funtsezkoa dela euskara normalizatzeko.

6 EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Emaitzen arabera, galdetegiaren bitartez gazteek euskararen aldeko jarrera positiboa erakutsi duten arren, erabileran ez da kontu bera islatu: % 28,12k soilik egin dute euskaraz. Behaketetako emaitzek erakusten dute, aurreko ikerketekin bat etorritik, gazte askok euskara jakin arren ez dutela beti erabiltzen (Soziolinguistika Klusterra, 2017). Hori dela eta, datu horiek agerian uzten dute hizkuntza maila teknikoa ez dela nahikoa, komunikazio erraztasuna eta segurtasun pertsonala bezalako faktoreak funtsezkoak baitira erabileran eragiteko. Azken finean, hizkuntza bat edo beste erabiltzerakoan egiten diren ahalegin, jarrera eta pertzepzioak komunikazioarekin erlazionatuta daude; alegia, elkarrizketaren naturaltasuna, ziurtasuna zein erosotasunak eragina dute erabileran (Iurrebaso, 2023).

Hala ere, erabilera kontuan izatearekin soilik ez da aski, Artetxe eta gainontze-koek (2024) gaitasuna ere kontuan hartzea ezinbestekoa dela diote. Hots, lagunarteko hizkuntza ohiturek eragin handiagoa dute familiakoek baino, sozializazio prozesuan eta nerabezaroan adinkideen arteko garrantzia handitzen delako. Autoreen kasuan, unibertsitateko ikasleengan jarri zuten fokua, hizkuntza gaitasuna, erabilera, adierazkortasuna eta hizkuntzei buruzko datuak jasoz eta, ikerlan honetako emaitzekin bat etorritik, hizkuntza gaitasuna dinamikoa eta testuinguruduna dela diote. Ikerlanean adierazten da jarrera positiboa izan dutela galdetegia betetzerakoan; aldiz, emaitzek erabileran kontrakoa adierazi dute.

Halaber, Iurrebasok (2021, 2023) azpimarratzen du erabilera eta gaitasuna ez direla neurri berean kontuan izan behar, eta modu ezberdinean neurtzen direla. Alde bate-tik, erabilerak hiztunak zenbat hitz egiten duen zehazten du ehuneko jakin batekin, kasu honetan gazteen % 28,12 izanik; aldiz, gaitasuna erraztasunarekin erlazio-na-tzen du eta kategorien bitartez izan neurtu behar dela dio, sentimenduen antzera eus-kaldun, ia-euskaldun edo batere euskaldun diren adieraziz. Hori dela eta, ikerlaneko datuei erreparatuta, hiztunek beren hizkuntza maila zein den zehaztu zuten markoa-ren arabera. Gehienek B2 eta C1 artean zeuden. Iurrebasoren (2023) ikuspegia kon-tuan izanik, gaitasuna ez da tituluekin soilik neurtzen; haatik, baliteke euskarazko maila izan arren, euskaraz moldatzen diren hiztunen proportzioa askoz baxuagoa izatea.

Oro har, hizkuntza minorizatua den heinean, Igartzabalek (2015) adierazten duen bezala, erabileran eragiten duen beste faktore erabakigarri bat portaerekin eta tes-tuinguruarekin erlazionatutakoa da. Hizkuntza minorizatuaren testuinguruan estres linguistikoa sortzen da hizkuntza hautaketaren prozesuan, eta erosotasunagatik, ohi-turagatik edo gatazkak saihesteko, erdarara jotzen da. Emaitzetan adierazi bezala, egu-neroko kale erabilerako ahozko komunikazioan gaztelania da oraindik ere nagusi. Hori horrela, erabilerari eragiten dioten faktore nagusiak, besteak beste, komunikazioaren erosotasuna, testuinguru soziala, sare sozialen eragina, motibazioa eta ohitura linguis-tikoak dira. Beraz, erabilera faktore soziokultural eta pertzepzio faktore konplexuen ondorioa da; alegia, erabilera baldintzatzen duten testuinguru sozial, harreman sare eta motibazio zein jarrerak indartzean jarri behar da arreta (Iurrebaso, 2023).

Sare sozialetako gaztelaniaren nagusitasunak eragin handia du hizkuntza hautuan, euskararen presentzia murrizten baita. Halaber, ikusi da erabileraren intentsitatea aldatzea dela testuinguruen arabera eta gazteen atxikimendu afektiboa ez dela beti erabilera aktibo bihurtzen. Beraz, datuek agerian uzten dute euskarazko eduki digitalen eskasiak gazteen hizkuntza ohituretan duen eragina (Aginagalde, 2021).

Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duen beste faktoreetako bat erreferenteen hizkuntza transmisioarekin erlazionatuta dago. Hernandezek eta Altunak (2021a) familiaren eta ingurune sozialaren garrantzia azpimarratzen dute. Hizkuntza ohiturak eratzeko, hizkuntzarekiko koherentzia bermatu behar da, ez baita posible gazteei euskaraz hitz egiteko eskaera egitea, ondoren eskatzaileak gazteleraz egiten badu. Era berean, marko teorikoan aipatu bezala, kontuan izan behar da kontzientzia metalinguistikoa-ren transferentzia (Gaspar, 2024): hiztunarengan hizkuntza aldaketa gertatzen denean, horretaz jabe daiteke eta erabilerak hutsuneak dituen erresistentzia estrategia hizkuntza kontzientzia izan daiteke.

Generoaren eta adinaren arabera ere alde esanguratsuak agertu dira. Emakumeek euskara gehiago erabiltzen dute espazio publikoetan, eta 18-20 urte bitarteko gazteek erakusten dute erabilera koherenteena. Hala ere, adina gorantz doan heinean, erabilera gutxitzen doa, eta helduarorako trantsizioan euskararen presentzia ahultzen da. Matíasen eta Arranzen (2019) azterketaren arabera, emakume gehiagok erabiltzen dute euskara, hau da, haurren, gazteen eta helduen artean, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara kalean. Gainera, generoa eta adina kontuan izanez gero, zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea kale erabileran Euskal Herriko lurralde gehienetan (Soziolinguistika Klusterrak, 2022).

Ildo beretik, Briceñok (2024) adierazten du genero eta kultura estereotipoek ikasleen hizkuntza aukeretan eragiten dutela, sozialki eraikitako erabakiak izanik. Genero sozializazioa aztertzen du, hiztunek gaztetatik genero rol eta itxaropenak barneratzen dituztelako, eta horiek eragina dutelako hizkuntza hautu eta portaeretan. Oro har, autoreak ondorioztatzen du hizkuntza identitateak garrantzia izugarria duela hizkuntza aukeraketan eta parte hartzaileek zehaztu zuten hizkuntza aukeratzeak aukera ematen ziela beren kulturaren parte sentitzeko. Identitatearekin lotuta barneratutako genero arauak, hizkuntzei lotutako irudi kulturalak eta egitura sinbolikoak eragina dute hizkuntza erabileran (Briceño, 2024). Horrek erakusten du hizkuntza transmisio arrakastatsua izanda ere, ez dela nahikoa erabilera mantentzeko: euskarak bizitzaren fase guztietan espazio eta funtzio sozial aktiboak behar ditu. Beraz, Fasyaren eta Sariaren (2021) hitzetan, hizkuntza hautua gizarte harremanen isla da eta hizkera maila eta errespetu formetan aldaketak gertatzen dira; adibidez, adinekoekin, familiakoekin edo irakasleekin hitz egiterakoan erregistro aldaketa gertatzen da. Hori dela eta, euskararen testuinguruan aniztasun linguistikoa ez da arazo, gizarte kohesiorako baliabide baizik, eta elkarlanean landu behar da.

Azkenik, argi dago euskara ikastea ez dela nahikoa erabilera bermatzeko, ondorioztatu baita eguneroko kale harremanetan gaztelania oraindik ere nagusi dela, eta horrek

adierazten du euskararen erabilera indartzeko estrategiak inplementatu behar direla. Erabilera bermatzeko, beraz, ezinbestekoa da gazteei euskara erabiltzeko espazio errealak eta motibazio soziala eskaintzea, erabilera ohitura iraunkor bihurtzeko. Arnasgu-neak behar dira, segurtasuna behar da, lan soziala, kontzientzia eta motibazio handi-goia behar dira. Esanak esan, euskararen egoerak ez du ezagutza transmititzera soilik mugatu behar, testuinguru egokiak eta erabilera erosoak ere sustatu behar dira.

7 MUGAK ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK

Ikerketaren mugek eta aurkikuntzek etorkizuneko jarduerak bideratzeko gako intergarriak eskaintzen dituzte. Bereziki garrantzitsua da gazteei zuzendutako estrategia espezifikoak sortzea. Esate baterako, sare sozialak euskaldunduz, hizkuntza erabiltzeko motibazioa piztuz eta ekimenak planteatuz. Eragile esanguratsuetako bat hezkuntza formala da eta bertan barneratutako euskararekiko atxikimendua kanpo espazioetara (hezkuntza informal eta ez formalera) zabaltzea lortu behar da, gazteen euskararen kale inguruenerako ahozko komunikazioan eraginez. Esate baterako, Basauriren eta Otaegiren (2024) ahozko adierazkortasuna lantzeko proposamen didaktikoaren antzerako dinamikak eta ikerketak kontuan izatea aberasgarria da. Izan ere, autoreek zehaztu dute ikastetxean bertan ahozkortasuna eta adierazkortasuna ez direla behar bezain beste lantzen. Imitazio jolasak erabiltzen dituzte, ikasleek kaleko hiztunen egunerokotasuneko audioak entzun eta imitatzen dituztelako, ahoskera zein prosodia, gorputz adierazpena eta baliabide linguistikoak landu eta hobetzeko. Ildo beretik, Guiradok (2025) Arikala programaren eragina aztertzen du, hau da, aisialdi antolatuan (hezkuntza ez formala) metodologia ludikoa erabilita euskararen hizkera informala lantzearen garrantzia. Autoreak azpimarratzen du jarduera ludikoei esker euskararekiko motibazioa eta atxikimendua handitu direla. Beraz, eskolan ere estrategia ludikoak erabiliz euskararen alde egin daiteke, hiztunaren lotura emozionala indartze aldera. Hartara, zubi bat sortu behar da ikastetxean, aisialdiaren zein eragilean artean, hizkuntza ohiturak ikasgeletako lau paretetatik kanpo eramatea lortzeko. Beharrezkoa da euskararen erabilera soziala sustatuko duten ekosistemak sortzea, eta eragin sozial zein linguistikoa kontuan hartzea, gazteen hizkuntza portaera hobeto ulertzeko eta bideratzeko.

8 ERREFERENTZIAK

- Aginagalde Lopez, A. (2021). Pantailak euskaraz: euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko ekimena. In L. Mimenza Castillo & H. Castro Egia (arg.), *Behategia: Euskal Hedabideen Urtekaria 2021: Erronkaz betetako zerumuga begi bistan* (85.-95. or.). Euskal Hedabideen Behategia.
- Aiestaran, M. (2024). Beasaingo gazte-hizkera aztergai: testuinguruaren eragina kode-alternantzia. *Euskera*, 69(1), 11-47. <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.272>
- Alcaraz Andreu, C. (2007). Motivación y edad: dos factores clave en el aprendizaje de la expresión oral. In *Las destrezas orales en la enseñanza del español L2-LE: XVII Congreso Internacional de la Asociación del Español como Len-*

- gua Extranjera (ASELE)*, Logroño, 27-30 de septiembre de 2006 (205.-216. or.). Universidad de La Rioja.
- Altuna, O. & Iñarra, M. (2017). Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak (Euskara biziberritzeko jardunaldia). *Euskera*, 62(2), 407-438. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i61.115>
- Alvira, F.R. (2011). *La encuesta: una perspectiva general metodológica* (2. ed.). Centro de Investigaciones Sociológicas. <https://doi.org/10.5477/cis/cm.35.122>
- Amonarriz, K. (2008). *Gazte hizkerak-hizkera gazteak*. Soziolinguistika Klusterra.
- Amonarriz, K. (2018). Arnasguneak: zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira? *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 110, 81-94.
- Artetxe, M. (2023). Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna. *Fontes Linguae Vasconum*, 136, 457-482. <https://doi.org/10.35462/flv136.8>
- Artetxe, M., Bereziartua, G. & Burreso, N. (2024). Ahozko hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informaletako hizkuntza-erabilera: Azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan. *Euskera*, 69(1), 49-78. <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.274>
- Barandiaran, X. (2021). Euskara eta euskal komunitatearen etorkizuna. *Hermes: Pentsamendu eta Historia aldizkaria*, 69, 6-11.
- Basauri, J. & Otaegi, I. (2024). Adierazkortasuna euskaraz lantzeko proposamen didaktikoa: imitazio-jolasak. (2024). *Euskera*, 69(1), 79-115. <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.275>
- Berasategi, N., Goirigolzarri, J., Manterola, I., Salces, G. & Landabidea, X. (2015). Euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak: Normalizaziorako gakoak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 96(3), 139-175.
- Berbaro Elkarte. (d.g.). *Zer egiten dugu*. <https://www.berbaro.eus/berbaro-elkarte/zer-egiten-dugu/>
- Bracamonte, R. (2015). La observación participante como técnica de recolección de información de la investigación etnográfica. *Arjé*, 9(17), 132-139.
- Briceño, C.E. (2024). Explorando fronteras lingüísticas y culturales: perspectivas estudiantiles sobre estereotipos de género en la selección de idiomas. In L. Rangel Bernal (koord.), *Estudios sobre educación sexual, género y diversidad sexoafectiva en el contexto educativo*. (197.-210.or.). Religación Press. <http://doi.org/10.46652/religacionpress.198.c331>
- Du, W. 杜雯 (2020). Las lenguas minoritarias de China: consideraciones desde la perspectiva ecolingüística. *Círculo de Lingüística Aplicada a la Comunicación*, 82, 107-118. <https://dx.doi.org/10.5209/clac.67934>
- Elordui, A. & Aiestaran, J. (2022). Basque in Instagram: A scalar approach to vernacularisation and normativity. *Journal of Sociolinguistics*, 26(4), 505-524. <https://doi.org/10.1111/josl.12564>
- Erriondo, L. (2023). Hizkuntza eta eskola. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, 49, 173-177.
- Eusko Jaurlaritz. (2018). *Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia: VI. plangintzaldia (2018-2022)* (1. arg.). Eusko Jaurlaritz.
- Eusko Jaurlaritz. (2021). *Euskararen ingurune digitala: Gomendioak 2021-2024*. Eusko Jaurlaritz.

- Eusko Jaurlaritza. (2024). VII. *Encuesta sociolingüística 2021*. Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/es_def/adjuntos/VII_Encuesta_sociolingüística_2021.pdf
- Eustat. (2021). *Durangoko datu estatistikoak*. https://es.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/durango.html
- Fasya, M. & Sari, D.G. (2021). Sociocultural factors that determine language choice in a multilingual society: Sociolinguistic study at Tanjungsari Market, Sumedang Regency. In *Proceedings of the Fifth International Conference on Language, Literature, Culture, and Education* (ICOLLITE 2021). Atlantis Press. <https://10.2991/assehr.k.211119.064>
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2015). Ahozko euskara, ikerketarako unibertsoa. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, 96(3), 11-27.
